

Euskera erro eta gara

Bittor Kapanaga



Lan guztiak I

Euskaldunon
hizkuntza eta ikuskera

Bittor Kapanaga

Lan guztiak I

Euskaldunon hizkuntza eta ikuskera

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Aurre lanak: Enrike Alaña, Patxi Alaña, Aintzane Lazkano,
Gontzal Mendibil, Jose Mari Ugaldea 'Willy'

Egilea: Bittor Kapanaga

Argitaratzailea: Gerediaga Elkartea

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Azaleko eta portadatxoetako argazkiak: Maritxu Goikoetxea

Azala: Gertu Inprimategia, Oñati

Argazkiak: Kapanaga-Alaña familia, Maritxu Goikoetxea, Gontzal Mendibil, Euskeraren Jatorria, Juan San Martin Fondoa, Gipuzkoa Net, Wikipedia

Solapako argazkia: Marisol Ramirez/ Argazki Press

Argitaratze data: 2014ko urria

Maketazioa eta inprimaketa: Gertu Inprimategia, Oñati

© Bittor Kapanagaren familia

© Gerediaga Elkartea


© -cc-by-sa (Creativ Commons)

Lege Gordailua: SS-1325-2014

ISBN: 978-84-940017-9-6

Euskera erro eta gara

Bittor Kapanaga



Urrilla -1978

EUSKERA ERRO eta GARA

Bittor Kapanaga

© Bittor Kapanaga

Editor: Bittor Kapanaga

I.S.B.N.: 84-300-0035-6

D.L. BI - 2620 - 78

Impreso en PRINTZEN

Part. de Alzola, 2-4°

BILBAO

*“Ohitura omen eskaintza egitea
maitagarri zaigun norbaiteri,
baina beharrago deritzat ematea
gure lanen beharrez danari,
euskerari emana dut gaurko nekea
beraz ezin eskaiñi besteri.”*

- *Euskera Erro eta Gara* 1978an argitaratu zen, Printzen inprimategian, Bilbon.
- Kapanagak bere kontura atera zuen. Argitaraldi bakarra egin zela badakigu baina ez dakigu zenbat alekoa.
- Hitzaurrean azaltzen duenez, Eibaren bizi zela, 1952-58 epe inguruan idatzi zuen obraren zirriborroa. Argitaratu aurreko urteetan osatu eta borobildu zuen.
- Kapanagaren obra nagusia da. Bertan laburbiltzen ditu euskeraren jatorriari, senideei, erroei eta abarri buruzko bere iritziak, eta aldi berean urte horietan gozpuzten ari zen euskera batuari begira ere hainbat proposamen plazaratzen ditu.
- Bazuen euskalariak bere proposamenak aintzat hartuko zituzten itxaropena. Zalanztak izan ei zituen liburuaren hizkuntzaren inguruan. Zera adierazi zion Argiari 2005ean: “Dudan egon nintzen euskeraz ala gaztelaniaz idatzi, eta erratu egin nintzen: euskeraz idatzi nuen”.
- Hasieran testua baturatzea pentsatu genuen eta saiakeratxo bat ere egin genuen bide horretan. Baina bide okerra zela konturatu ginen. Kapanagaren ustez, *euskera*, *bage* edo *zare* behar zuen batuan, eta arrazoi oso sendoak ematen ditu *euskara*, *gabe* edo *zarete* ezartzearen kontra. Eta horrela beste hainbat adibide. Bere uste errotuenen aurka joko genuen testua gaurko batura ekarri izan bagenu.
- Gainera, pentsatzen dugu ona dela belaunaldi berriei gaurko estandarraren aurreko idazkerak ezagutzeko aukera ematea, batasun prozesuko tirabirekin batera. Obra hau lekuko bikaina da horretarako.
- Honengatik guztiagatik, originala zegoenetan uztea erabaki dugu. Koma batzuk kentzera edo lekuz aldatzera, erratak zuzentzera, atalei zenbakiak ipintzera eta maketazioa apur bat gaurkotzera mugatu da gure lana. Orripeko ohar banaka batzuk ere jarri ditugu, hitz ezezagun samar batzuen esanahia argitu asmoz.

Adierazpen gisan

1978ko Epaialaren bigarrena. Arratsalde epela eta barea dagonarren, badut halako dar-dara izpi bat nire barrenetan. Ez dakit gai izango naizen oraintxe hastera noan lan hau burutzeko. Edota neronek argiki ikusten ditudan edo ikusten ditudala uste dudan erizpenak beste batzuri ikuserazteko.

Ondo dakit liburuzka honetan erabili behar dudan gaia labangarria eta irristerraza dala; bai eta gure jakintsu eta euskalarien artean “sasi-jakintsu” izenak duen abegia eta irrikeriazko erabilkuntza. Badakit ni baino buru argiagorik eta irudimen aberatzagodunik arlo honetan murgildurik ibili dala eta orain ere dabilela; bai eta badakit ikaskuntza egoki batek zelako gertadura ematen dion edonori dagokion gaia ikasteko, aztertze eta adierazteko; eta titulu aratz batek edozein eretxi eta adierazpeni eman ohi dion itzal eta babesa.

Nik ez dut ez bata eta ez bestea. Eta hala ere hemen nauzue itobide diren uraundi hoietara jauzi egitera ausarturik eta abiaturik. Baina ez itsumustuan eta ondo pentsatu bage. Ez nauzue xorabiaturik, oraintxe azalduko izar dizdiratsu baten argiz txunditurik, edota aurkikunde bereizi batzuk eman daikkeen pozez lerzorian. Aspaldietako lan batzuri argi ematera noatzue; urte asko zehar ondo (edo gogoz behintzat) ikertu, ausartu eta buru zapaian gordeak izan diren idorokunde eta eretxien agertzera noatzue.

Auzia aspaldikoa da. Orain dala hogetabost urte Eibarren nintzan eta beste horrenbeste beteak nituan. Ekaitz garaia zan gure aberrian. Euskeraren eta euskaldunen inguruan odei beltzak eta larritasuna sumatzen zan. Zapaldurik, bazterturik eta erdeñaturik egotan euskal izatea. Sei urte aurrerago heldu nintzan Eibarrera; erraietan neraman euskal kezka bai eta aberrimiña ere, eta laster aurkitu nituen ilunaldi haretan parebageko nituen adizkideak: San Martin, Laspiur, Ugarteburu eta beste zenbait. Gau itsu haretan, Euskalerrriak argia behar zuan bizirik iraungo bazuan eta Eibarren bazan argitegitxo bat. Eta geu giñen argi haren eusle eta aizekari; geure euskera aberaztu eta obetu; irakasteko gau-eskolak ireki eta ahal zan lan guztia egiten genuen euskeraren eta euskal izatearen alde. Euskal gramatika bat bultzatu eta argitaratzeraiño.

Garai horretantxe egin nituan gaur argitara emateko gertatzen hasi naizen iker-lanak; hamar ordu lantegian, gero euskera irakasten, bai eta aldi haretan beharrezko ziren beste izkutuko lan batzu ere nituen nire gain. Eta astiunerik izaten nuanean euskal kulturari buruz zerbait irakurtzen nuen. San Martin adizkideak ematen zizkidan garai haretan Ameriketara eta ateratzen ziren aldizkari euskaldunak; eta aldizkari haiek irakurriz, sortu zan nire erraietan gure hizkuntzak bere barne ilunetan izkututzen zuan misterioari buruzko jakinmiña. Eta berehala ohartu nintzan gauza harrigarri asko egoala euskeraren baitan.

Bakarrean eta ezertariko tresnarik bage hasi nintzan ikerlanean; Imanol Laspiur zan nire lan honetaz zerbait zekian bakarra eta urte guztiotan laguntzaile bakarra. Berak biltatu eta idorotzen zizkidan nik zelabait nabaritzen nituen hitzen aztarna eta nongoak; bai eta hiztegi edo horrelakorik behar izaten banuen ere. Garai haretan ez zan ez, edo guk ez genuen eskuartean gauza haundirik. Beraz, neronek nekian euskera zatia eta nolabait ikasi ahal nuana, horixe zan nire azterketarako eremua; Laspiurren laguntzak eremu hori zerbait haundiagotu zidan hala ere.

Lan hau burutu nuanetik, hogetabost urte igan dire eta gaurdaño izkutuan euki dut; eta hara zergatik: garai haretan euskerari buruz jardunean aritzea krimen baten parekoa zan. Behar zana euskeraz aritzea zan, gure hizkerari indar ematea, bizirik eustea; alde guztietatik erasoia baino besterik ez zuen hizkerak ezin egikean jasan indar izpi baten galtzerik, berari buruz iñor jolasean ibiltzerik. Eta baziren bai igandako aroan edo gizaldian izandako ametsaundien jarraitzaile zenbait, bai eta beroien aurkalarik asko ere. Ganera, euskerari buruzko eretxieri gagozkielarik, nire ustez “erdipurdizko aroa” izendatu behar genuen aldi berriaren hastapenetan giñen; ez zan, bada, honelako lan bat aietara ateratzeko garairik egokiena.

Bestalde, aspaldi suntsituriko euskal erlijio zaharraren aztarnak eta azaltzen haste-ko ere ez zan giro egokia. Are gutxiago munduan zehar zabaldurik diren erlijioetako zenbait garrantzizko puntu gure hizkeraren aztertze baten bidez argitu egikean susmorik hedatzea. Horixe bakarrik behar genuen “hable Vd. en cristiano” edonoiz entzuten genuen garai hartan. Etsaiak bere alde baliatzen ditu abagune guztiak eta azpian dagoenak zuhur izate guztiekin ere ez du aski izaten. Ganera, gure arteko pentsakera eta psikologia ondo ezagutzen ditut. Ez naiz alferrik kale-baserri giroan hasia. Garai haretan, kontzilioa izango zanik ere ez zan sumatzen eta edozer “Indice”ra igortzen zan. Beraz, nire lana aizatzeak on baino kalte gehiago egingo ote zion gure hizkerari pentsatzen nuen. Eta izkutuan eukitzea erabaki nuen.

Zientzia aldetik ordea, merezi zuala zerbait argitaratzea ere pentsatzen nuen. Baina nola demontre ausartu nindekean ni, baserritar bat, ez titulurik eta ez ikasketarik eta gaztea ganera, holako sakontasunetan sartzera? Urrundik bada ere, ikusten nuen jende ikas-ia “esnearen bitza” analizatzen ebillela, esnea zelakoa zan jakinmiñez. Eta pentsatzen nuen, bitsean esnea baino aizea gehiago dalarik, ez zutela erraz azalduko esnearen izaterik.

Ni ere izan nindekean erraturik; argi izun baten dizdirak itsuturik izatea ez da harritzekoa. Edonor, edonoiz eta edonon ikusten dugu berea dan “egia”z lilluraturik, ziurtasun osoz beterik eta erratua izan daitekeen susmorik ere hartzeko gai ez dalarik. Honetaz sarri pentsatzen nuen, bai eta kazkoa aztindu. Eta ondoren gisan, hauxe ateratzen nuen: aldi luzetxo batean inguruaren adi egoteak ez zidan batere kalterik egingo; eta halaxe izan da.

Ondo ikusi dut jakintsuek hondoa ikusi nahi dutela eta horretarako eginahalak egiten ari direla. Baina beren lanetarako arauak jarri dituzte eta, nik uste, “bitsaren analizatzea” hartu dutela oinarritzat. Ez dut gai honetaz asko irakurri, baina hala ere ohartzen naiz edozein zientzia arlotan elkar-giroan jarritako arauak haustea egingaitza eta nekeza dala. Koperniko eta Galileoren garaietan Lurraren erdipuntutasuna ukatzea ez zan egiteko gozoa

izango. Ez eta beste garai batzuetan beste gauza batzuen “erdipuntutasunak” ukatzea ere. Ziurtasunez beteriko jakintsuek, “hau halaxe da”, “frogaturik dago” esaten dutenek beldur ematen didate. Beren jakintegiko arazetan “egia osoak” lerroka ipinirik dituzten ikasiak ez ditut nahi nik solaskide. Maiteago ditut inguruan erratzearen zalantzaz direnak, ez dakigunari so direnak, gizaxo bati entzuteko gai direnak eta iluntzia aztertzeke adorea dutenak.

Guztietarik ezagutu dut urte hauetan. Hasierako egunetan Laspiur-en heineko adimen argi eta zuhur baten oneretxia ez zan edozer. Berak beti bultzatu nau lana aurrera eroatera, bai eta aldika zerbait argitara negian ere arren egin dit. Geroago eta zenbat punturi buruz, Barandiaranengana ere jo dut. Beti idekitasun osoz eta arreta biziz hartu nau; bere apaltasun guztian (eta hauxe du gehigizkoa nire eretxiz) neurtu ditu nire galderak, eta arduraturik, biziki animarazi nau. Bere aholkuari jamon banio aspaldi murgildua nintzan zeregin hauetan, eta beste guztiak utzirik, zientzia arloetan buruzaurre sartua. Zorixarrez, astiaren eta urruntasunaren ostopoek ez didate berakin solasaldi asko egiteko abagunerik ematen. Jakintza, irudimena, zuhurtasuna eta teknika elkarri hain loturik eta hain neurri handian, ezin daitezke gizaki batengan erraz aurkitu. Joxemielekin solasaldi bat izan ondoren baduzu ez dakigunaren ardura eta apaltasunaren sentipen. Bere aholkuak eta bultzadak beti eman didate ikaragarritzko adorea.

Beste norbaitzuri zerbait adierazteko tentaldia ere izan dut noizbehinka. Baina gaia urratzen hasiz batean, beti agertu izan zaizkit, edo “egi frogatua” poltxikoan duen jauna edo eta bitsa analizatzen ondo ikasia dan ikastuna; eta nik banekian ez nengikeala ezerkin eta ezela beren egiaren “erdipuntutasuna” hautsi. Eta hobe nuela alerik emango ez zuen artorik ez jorratzea. Bai eta beste zenbait, lanaren apur edo guttiño bat ez besterik adierazi orduko, txunditurik gelditzen zaizkidan. Aldizkarien bidez ere zertxobait aizatzen hasi nintzan; baina berehala ohartu nintzan ez zala bide egokia. Urte gehiegi igan ditugu bitsaren bitxitasunak irakurten eta entzuten edo eta paradisiko dizdiren ametsak ausnartzen eta eziñezkoa da orain batbatean eta otsanki zera esatea: eguzkia lurraren jirran ez, baina lurra eguzkiaren jiran dabilela. Ulertuko duzue zer esan nahi dudan.

Orain arte ez argitaratzearen zergatikoa izan dut beste bat ere, eta hein handi batetan luzapena eragin didana: lanketa hau amaitu xamar nuelarik, herri-lan eta sozial ekintzetan murgildu nintzan. Eta ariz ikasi dut hasieran ez nenkiana: ekintza horiek gizona iruntzi eta suntsitu egiten dutela; ni ere gehiegi nekatu nintzan zeregin hoietan eta beste ekintza batzutan ezer onik emateko adorea xurgatu zidaten. Gaur, jarrai ezaren damuz oroitzen dut behiñola Barandiaranek eman zidan aholkua: “koperatibak eta egiteko gai diren pertsona asko degu; baina zuk honetaz egin zenezakena egiteko, zeu bakarrik. Beraz utzi itzazu beste guzkiek alde batetara”.

Hala ere, aldarte guzti honetan eta zirrikituka bada ere, jarrai diot barrenean ne-roan hizkerakiko auzi honi; eta gero eta argiago, gero eta ziurtasun sendoagoz ikusi izan dut nire usteak ez zirela txorokilaren sua bezelakoak. Gai hauetaz zenbat eta eretxi eta txosten gehiago entzun, hainbat tinkoago jarri naiz nituen eretxien bidez kotasunez. Eta egunen batean argitarako nituan ustea behinere ez dut galdu. Nahiz eta besterik uste duen Laspiur adizkideak, hauxe esan baitzidan orain dala gutti: “ezagutzen haut eta asmaoa hartua zeukat. Hi hiltzen haizenean, hire etxera juango nauk eta hire paper guztiak hartu eta zerbait egingo diat”.

Bidenabar, hizkerari buruz egin ditudan azterketa eta idorokunde guztiok eragin bat izan dute nire baitan, eta gizakiari dagokionez, neuregan taiutu dan filosofia bat edo badut. Eta ez dit gutxi balio izan gizaberearekin topo egin dudan bakotxean. Gure gizarte honetan, eta sozial arazoetan dabillenen eguzkiarekin baino maizago gizaberearekin topo egiten bait du. Beraz, lan eta neke guztiak izaten dute beren aldeona, eta hauxe izan dut nik, hain zuzen, azter-lan honen saria.

Eta adierazketa hau amaitzeko, hona hemen zergatik orain lan honen argitaratzea erabaki dudana: aspalditik ohartua naiz gure hizkuntzaren historiako bidean bidegurutz garrantzitsu batetara heldu garela. Eta bidegurutz hau beharrezko eta arnasbide zaigun arren, arriskugarri ere badugula eta eginahalak egin behar ditugula galbide ez dakigun izan, eta areago, aurrerabide bikain izan dakigun. Bidegurutze batean bidaro bat amaitzen da (oso latza gure euskerak igan duena) eta beste bat hartu behar da. Eta oraingo honetan ez dugu txapela goietara jaurti eta edozein bide aukeratzetik. Zerbait on egiteko, zuhurtasun eta amore guztiak ere gutxi izango baititugu.

Euskera bere barrenetan zelakoa dan, bere hastapenetatik zelako atondura edo estrutura eraiki duen jakiteak oso beharrezko laguntza emango digula uste dut. Euskaldunok hizkera eredu bat beharrezko dugun garai honetan (berdin da “euskera batua” nahiz “arauzko hizkera” izendatu) oinarrizko baldintza dugu gure euskera hau zer dan, zein bide erabili duen bere hasketan eta zeintzu arigailuz baliatzen dan jakitea.

“Euskera batua” izenez ezagutzen dugun ideiaz bat nator. Garai honetan, ezinbestekoa dugu ereduazko hizkera mota bat aukeratu, aberaztu eta indartu beharra. Mutikokeriarik bage zentzu onaren bidetik eta burua bihotzaren gain ezarri egin behar dugun euskera batu bat. Horretarako, hizkuntzaren erraiak ezagutzeak mezedo asko egingo digula uste dut. Alde batetik, orain alkartezin ditugun hitz askoren batasunerako bidea, erroretara jotea dugulako. Biderik egokiena, errazena, onuragarriena eta logika hutsa dalako. Eta bestetik, hizkera bat salbatzea, hizkera horrek usteak erabiltzeko, erasortzeko, bereizteko nahiz zentzuketzeko dituen ahalmena eta atondura salbatzea dalako. Eta iñola ere ez bixikeria batzu edo hitz bereizi batzu salbatzea.

Arauzko hizkera hori eratzean, bihotza alde batetara utzi eta jakintza, zientzia, hartu behar dugu arigailu eta bidelagun. Jakintza dugu gure arteko herrak eta itsukeriak gaindu dezazken eragille bakarra. Eta gaur eguneko bidegurutz honetan laguntzailerik onena izan daikeguna. Jomuga honetan nire lan honek zerbait bultzatuko balu, oparo sari-tua sentituko nintzake.

Euskera batuaren zuzper-lanean eta bultzaketan ari diren asko ditut adizkide. Eta berorien artetik batek eta bik baino gehiagok eskatu didate lan hau behingoan ateratzeko. Orainxe edo iñoizez diñote. Beraz, giza-uhin berri honetako gizon trebe haueri zor diet atzenengo bultzadatxoa, Legarreta adizkideari batez ere. Iruzurtuak ez daiteela sentitu nire eskaintzakin, horixe da nire barrenengo nahia.

Gaiaren harian

Hizkerak aztertze eta estudiantzeko ikerbide eta era asko izan bide da. Nik ez dut bat ere ikasi, ez naiz filologo edo linguista, baina hala ere guztiak beren tokian onerexten ditut. Izango du, noski, bakotxak bere aldeona, guztizko onik ez baldin bada ere.

Baina dirudienez, ez da sortu gaurdaño hizkeren arteko loturen erroak azaldu eta adieraziko lituken arauzko ikerbide egoki bat; ez eta hizkera bakotxak bere barrenean daroan izkutukizuna argiratu duenik ere. Horrek ez du esan nahi erro eta izkutukizun hoiek betirako azaleziñak diranik, iñoiz guztirako izkutuan izan behar dutenik.

Euskeraren auzia dugu beharbada hizkeren arteko auzietan bitxiena, aspaldietako filologoeri buruausterik gehien ematen diena; mundu guztiko hizkerekin zerikusi izpiren bat duena eta batekin ere senide ez dana, esan ohi da gure hizkuntzari buruz. Hizkera bereizi eta bakar bat, “irla” bat ere entzuten dugu. Geroak esango du aurreragoko hitza auzi honi buruz; gaurkoz, nire ustez, hemen azaltzen dugun ikerketa lanak gure euskeraren barren ilunak argitzen lagunduko digu, bai eta, hala uste dut, munduko hizkera askoren arteko lokarriak azaltzen eta adikortzen ere.

Eta euskeraren iluntegiak argierazteko eginkizunari buruz, iñoiz ez naiz ahazten, aspaldi, orain hamalau urte edo, Laspiurrek igorri zidan idazki batez; egunkari batetik ebakia zan, eta Vogt norbeiar izkeralariaren hitz hauexek (gutxi gorabera) zekarzkian: “Euskeraren misterioari buruz, ziur naiz iñork iñoiz ez duela urratuko, euskaldunak berak eta euskeraren gain soilik lan eginda izan ezik. Beste izkerekin konparaketak egiñez eta, ez dut uste iñoiz ezer lortuko danik”. Igarle baten hitzak zirela esaten zidan adizkideak. Hala izan daiteke.

Euskeraren jatorriari buruz, izkeralari askok beren usteak eta eretxiak ixuri dituzte; iberiarren hizkerakin behin eskonduz eta gero bereiziz, kaukasoarrekin, semita, berebere, eta altaiarrekin hurbileraziz eta aldenduz; bai eta munduko beste hizkera gehienekin konparatuz ere. Eta arazo honetaz galdera hauxe egingo nuke: besteekin konparaketak egiteko, aski ezagutzen ote dugu euskera bera?, bai ote dakigu zer dan oinarrizko eta zer azaleko gure hizkuntzan?

Norbaitek esan dit arestian beste jokabide hau hartzekotan direla zenbait ikertzaille: izaki iraunkorren izenak, gizakiak bere inguruan aldi luzeetan izan dituen izakien izenak, “sagu” eta horrelakoak hartuz eta hizkeren arteko konparaketak egiñez.

Izen soilen aztertzeari eta konparaketari esaten diot nik “bitsaren analizatzea”. Eta batez ere, hitz soil hoiek hizkeraren azalekoak diranean. Ez dut ukatu nahi badirela zenbait hitz eta izen azterketa lanerako besteak baino askoz baliagarriagoak direnak; hain zu-

zen, eretxi horixe da nire azterlan honetatik ateratzen dan ondorioetatik bat. Baina hitzik baliotsuenak ere, bakarrean hartu eta erabiltzen bada, bere garrantzi guztia galtzen du. Izan ere, hitz bakar bat, hizkera bereko beste hitz batzuekin lotzen ez badugu, ezin daiteke izan hizkera horren lekuko egokia. Ganera, beste hizkera batzutan ezaguna ez izateak ezin dio inoiz eman hitz bati, berean, jatoritasun oinarria. Bere ingurua sortu ez badu hizkeran bertan bakartasunean ageri bada, ziur aski, ez du antxiñatasun haundirik hizkera horretan.

Hizkera bakotzak badu bere barren hondoa, bai eta bere mamiña eta azala ere. Abereki batek bere ezur, muin, giharra eta azala dituan bezelaxe. Hondo hori, nire ustez, izadiaren gauzarik behiñenetan eta gizakiaren usterik beharrezkoenetan kokaturik dago. Hau da, gizakiak bere aurrean lehenengoz ohartu behar izan duen gauzetan eta gizaki berorrek bere izatearoko hastapenetan sentitu behar izan dituen opa-nahietan, sentipenetan eta sortu ahal izan dituen eretxietan.

Mamiña edo “giharra”, nire ustez, beste arlo honetan dago: hizkerak hondoko edo oiñarrizko hitz hoietatik hasi eta sortu duen atondura edo estrutura.

Eta azala, berandu sorturiko gauzen izenetan, oraintsu sortu eta erabilitako uste eta eretxietan eta aditz laguntzailearen arijoko landuenetan. Gaur eguneko “gramatika” asko, nire ustez, azal honen atondura bezelako zerbait baino ez dire. Eta zenbait hizkuntzetan, atonduraren orde zehazpildura ere izan daiteke. Hitz batekin esateko, hizkera baten azala esnearen bitsa bezelaxe da. Hizkera horren barrenak argierazteko baino lauzotzeko edo izkutatzeko eragin gehiago izan daikeana.

Orain dala milla, bi milla edo hiru milla urte sorturiko hizkerentzat ez dut uste baliotz izan daikenik hemen aipatu ditugun osakuntzari buruzko eretxiok; beste hizkera batzuetatik hitzak buruturik hartu dituzten hizkerak, aztarnak eta lorratsak (zerbait zaharagoarenak) erakutsi ditzaikegu, baina oso gaitza izango da hitz hoien arteko atondura gotor bat eukitea.

Euskera bezelako hizkera zahar batetan ere zera gertatu daiteke: arestiko gauza edo eretxi batek lehenago beste zerbaiti buruz sortutako izena hartzea; esate baterako, “arto” eta “lizar” izenekin gertatzen dana: izen hoiek orain “artatxiki” eta “basalizar” izenekin ezagutzen ditugun izakienak zirela. Bai eta bestaldera ere: antxiñetatik ezagutzen dan izaki bati edo gogapen bati izen arrotz bat edo berriago bat ezartea: “bago”, “gaztaina”, “martizen”, “zemendi”, “paloma”, “praka”, “libratu” e.a., lehenago beste hitz batekin ezagutzen ziren gauzeri ezarriak izan dire. Hala dirudi behintzat.

Beste kasu bat ere gertatu daiteke: hitzaren esanahia aldatzea; izaki edo ustekizun bati eman izan zion izena hurbilekoa dan beste zerbaiti aldatzea. Begira: “garo”, bere hastapenean “ura” esanahia izan duena, eta orain ere euskal mendebaldean landareak beren gain duten ura izendatzen duena, gipuzkeran “ira” edo “iratz”ari aldatu zaio. Eta zergatikoa argi dago: abere asko dan lekuan garaiki gelditzen dan landare bakarra ira izan ohi da. Beraz, “garoa” duen eta ibiltaria ureztatu dezaken landarea iratza da (garoa). Mendebaldeko baserritarrek behin baino gehiagotan esan digute, mendiz genbiltzalarik: “ez zaiteze joan hortik, iratza haundia dago eta garoa izango dozue”. Argi dago ira “garoduna” dala eta hortik gipuzkerako “garoa” (ira).

Baina gehien batez, euskerak atondura harrigarri bat erakusten digu; hastapenetako huts-tasun eta txirotasun tolesbagean hasi eta zoragarrizko garaitasun bateraño bultzatu izan duen atondura. Argi ageri da euskerak bere bizi aroan “loratze” garai bat bizi izan duala; gaur egun ere, nahiz eta arlo batzutan murriztua izan bide dan, loratze garai horren aztarna eta adierazkizun bikaiñak erakusten dizkigu. Batez ere, hasierako fonema soil batzuetatik erasortu duen aton-dura, hizkera mailan egokitasun harrigarri bat erakusten digularik.

Arazoaren giltza hizkera aztertzeo **eran** dago. Bai hizkera bat bere barrenengo aton-duran aztertzeoan eta bai hizkera hori beste batzuekin konparatzeo **eran** ere.

Eta honetantxe uste dut dagoala hemen adierazten dudan ikerlanaren balio guztia. Egia aitortu behar dut hasieratik: nik ez nuen era hau zientziakiro gertatu; oharbagerik horretara jo nuela uste dut. Edo eta jokera hori **berezkoa** izan dudala; nire burumeneko atondurak holaxe eragin didala; atondura hori euskeraren atonduratik eragiña izan dala-ko, nik uste.

Ikuspegi honetatik begiratzen dut inguruetara sarritan. Eta gauza batez ohartzen naiz; gure jakintsu gehienak erdera gehiegi dakitela, erderen estrukturaz (edo antiestrukturaz) ku-tsaturik direla, eta hain zuzen horixegatik ezin dutela euskeraren arazoa argitu edo era-baki. Gehienek ez dute euskeratik begiratzuz euskera aztertzen, erderatik begiratzuz bai-no. Eta hau gaitz txarra dugu bai euskerari buruz ikerlanak egiteko eta bai (areago be-har bada) gure hizkeraren geroa antolatzeo edo, hobeto ulertu dagizuen, **euskera batu egoki bat moldatzeko**.

Lan hau egiteko **era** ez nuen zientziakiro, jakintza arauz gertatu. Ez eta inoiz ez nuen ikerlan honen helbururik aurrez iarri; esan nahi dudana hauxe da: ikerketa egiteko joke-ra bat eta aribide bat izanarren, ez nuela inoiz ondorena “zer” izan behar zan edo “zer” izan zitekean ere aurrez pentsatzen. Ateratzen zitzaizkidan ondorenak agindu izan dida-te beti. Aurkikundeak, idorokundeak eroan izan naute beren haritik. Eta horrelaxe buru-tu dut lan osoa. Eta hau nabarmentzen badut, honegatik da: uste dudanez, gure artean egi-ten diren ikerlanik gehienak aurrez jarritako helburuak argitzeko eta baieztatzeo egiten direlako. Eta neroni jokabide hau ez zait iruditzen inola ere zientzia bidekoa, zerbait sa- kon edo baliotsu lortzeo egokia.

Idorokundeek beren haritik eroan banaute, gauza askotan nituan eretxiak aldaerazi ere eragin dizkidate. Eta gaurko garai honetatik begiratzuz, uste dut ditugun edo gaur egun garaile ditugun ustekizun askotan berrasmatu beharra dugula. Gure eretxi askotan zuzenketa on baten beharretan garela. Ezeinbatzu aipatzeko, hauek behinikbehin esango nituzke:

- 1.- Hizkeren historiari gagozkiola (eta erabatez giza historiari gagozkiola) aldineurketari edo kronologiari buruz ditugun eretxiak arras aldatu beharrezko izango ditugu- la arean. Eta areago, zera pentsatzen badugu: zenbat eta giza aroan hondorago jotzen dugun, hainbat astiroagoa izan behar zala gauzen eboluzio abiada. Batez ere hizkera arloan. Badakit gaurko eretxi asko aldagaitzak direla. Baina orain dala bosteun urte eguzkia eta luraren arteko lotureri buruzko eretxiak ere aldaeziñak zirudien.
- 2.- Euskeraren barruan bertan, hitz formen zahartasunari buruz ditugun eretxi asko berpentsatu behar ditugula. Guztiok dugu, edo izan dugu (neronek ere bai) ha-

lako uste lillurakoi eta islatu bage bat euskal sortaldeko euskalkieri buruz; zaharrenak, oiñarrizkoenak eta ziñesgarrienak zirela euskalki hoietan agertzen zaizkigun hitz formak. Ni nerau idoroketak eroan naute eretxi horren zuzenketara. Eta egun batean arean eta bestean areago ikusi dut, bai eta ikasi ere, mendebaldeko euskalkian ditugula euskeraren misterioa argierazteko behar ditugun argi iturriak. Garbiago esanik, iturri hoiek euskalki guztien gain zabaldurik ditugu, baina gehien batean (% haundi batetan) mendebaldean ditugu. Formarik gehien eta aldabageenak mendebaldeko euskalkian ditugu. Arlo honetan, lehenaroetan suntsitu izan diren euskalkien eza negargarri dugu.

- 3.- Lehenari begiratzearan hartzen dugun jokera. Izan dan guztia behetik gora, zuzen zuzen hobetzen eta sendotzen etorri izan daneko uste soilkia. Gora-bera asko, kulturaren historian zehar garaialdi eta beherakada asko izango ziren ustea geureganatzeko izaten ditugun ostopoak garaitu behar ditugula. Eta teknika arlotik landa, daitekeentzat eman behar dugu gaur egun baino garaiago ere izan zirekeala ezenbait jakintza arlo.
- 4.- Hizkera guztiak berdiñak ez direlarik, ez beren sorketan izan dituzten “zela” eta “noiz”eri buruz, ez eta gorpuztu dituen atonketan, ezin direla berdiñak izan be-roiari buruz erabili behar ditugun arauak.
- 5.- Hizkera bien artean kidetasunak edo loturak nabari ditugunetan, zera kontutan hartu behar dugula: sumatzen diren harreman hoiek lehenaroan zehar, garai ezberdiñetan eta bide ezberdiñez eginak ere izan daitekeela.
- 6.- Igandako aro bakotxa aztertzeke, aro bereko zentzu girora itzultzen ahalegindu behar garela. Eta iñola ere ez gaur egun gerok taiutua dugun ikuskeratik guztia aztertzen saiatu. Aldiari bakotxaren zentzu giroa idorokundeetan billatu behar dugu.
- 7.- Jakintza gaietan gaur egun darabilgun bitxikeria asko bersoildu behar dugula. “Birtsaren” joritasun asko lauzogarri dugu, eta azterketa on bat egiteke ostopo. Adibidez: ikerlan hau egiten hasi berritan eretxi honetara heldu nintzan: euskeran ditugun ahots xistuki guztiak (z, s, x, tz, ts, tx) funtsean ahots bakar batetikoak zirela. Eta egun etimologia arloan zerbait baliiodun egin nahi badugu, ezin dugu burua nekatu bereizkeria hoiengote lanean.
- 8.- Munduko jakintza arlo gehienetan ez garela oraiño goiko gallurrera heldurik. Eta jakiñeko eta onarturiko arauetz gain, sortu daitekezela bide eta era berriak, lehengoak baiño hobek; beraz, zientzia mundua era berri guztieri adi izan behar litzakeala, eta ez ohi bezela inguru-esiak eraikitzen saiatu.

Beharrezko oharpenak

Ikerlan honen barrenetan sartu baino lehen, egoki izango zaigu ohar batzu egitea. Gure azterketa honek arakatu behar duen esparru lainñotsu horretan ibili ahal izateko ezinbestekoak izango baitzaizkigu. Ohar hauek, ahosketa arloari dagozkionak, hauexek ditugu:

- a = e Fonema bi hauek erraz nahasten dire eta bata bestearen ordeztu erabiltzen ditugu maiz.
- u = i Bi hauekin ere aurreko biek bezela gertatzen da.
- o = u Hauen artean ere berdin jazoten da.
- r = d Ahoslagun hauen artean **r** maiz **d** bihurtzeko jokera nabari dugu. Hitzen hasieran dugunean izan ezik **r = d** aldatze hori ageri da gehienetan.
- r = z Bi ahoslagun hauen artean alkar-besteratzea gertatzen da sarritan, aditzen izenetan batez ere. Bai eta **r = s** gertatzen da inoiz.
- m = b = p Hauen artean ere, alkar-besteratzea maiz ageri da.
- b = m = n Aurrekoen arteko kasua, inoiz **n** ahotsakin ere lotzen da.
- g = k Ahots hauen alkarkitasuna, hasiera beretik ageriko zaigu eta gure oharmenean izan beharko dugu beti.
- d = t Ahots bi hauekin ere berdin jazoten da, baina aurrekoek baino eragin gutxiago dute esparru honetan.
- z, s, x, tz, ts, tx Ahots guzti hauek funtsean jatorri batekotzat jotzen ditugu.
- dx = y Ahots honi buruz nahaste haundia dugu gaur; **j** hizkia genduke egokiena guk erabili nahi dugun ahoskera adierazteko, baina euskaldungoaren erdia baino gehiago **j** honen gaztelaniako ahoskerara ohiturik dugu. Beraz, hobeto ulertua izan dadin eta arazoa argiago ebakitzeko, **y** erabiliko dugu ikergai diraken fonemak agertzean. Hala ere, eta gaztelaniako ahozkeratik at, baditugu bi ahoskera, oso antzekoak baina ez berdiñak; iparralde eta mendebaldeko “yan”, “yoan” (mendebalde ertzekoa), eta mendebalde erdiko, arabarren eta zenbait nafarren “dxan”, “dxoan”. Fonetikari buruz, atzen hau dut nik jatorragotzat, baina **y** hizkiakin agertuko dugu gaurkoz nahaste gehiago ez sortzearen.

h Letra honen gaurko egoki izatean ala ez izatean ezertarako sartu bage, ez dugu erabiliko (kasu bakanen batetan izan ezik) fonemak agertzeko. Gure ikerketan ikusiko dugu, gaur **h** horrekin erabiltzen diren hitz askotan, beste zerbaiten ondorengoa dirudiela **h** ahoskera horrek.

Eta oharpen hauek egiñik, egoki deretxiogu beste hau ere esatea: ikerlan honen oiñarri fonemak (ahoskiak) ditugula, eta ez “grafiak”. Beraz, fonemen garatzeak (gutxitik gehiagora hedatzeak) eta aldatzeak aztertuko ditugu.

1

Euskera hasieratik

A

Ezinbestezkoa dugu ahoski hau (**a**) lehenen aipatu beharra. Hasieratik du hizkeraren muiñetan zeregin berezia, eta beste ahoski guztien gain, bere eragiña agertzen du.

Bidezko dala uste dut zera pentsatzea; ahots hauxe izan daitekela gizonaren aurretiko gizaberearen ahoski bakarra. Hasiera honetan esateko eta azaltzeko eretxi gogorregia bada ere, ustekizun honek izango du orrialde hauen zehar egiztatzerik.

Beraz, gizakia eboluzio bidez taitutzen joan bada, eta noizbait hitz egiten hasi baldin bazan, etzan izango batbatean, ez eta “norbaitek” irakatsi ziolako. Astiro eta eperik epera, gutxitik gehiagora joan beharko zuan, bai gauzak ezagutzen, bai eta sentipenak sentitzen eta eretxi eta usteak erasortu eta ugaritzen. Eta erabatez, hitz berriak sortzen.

Eta uste dugunez eta hemen adieraztera saiatzen garenez, euskeraren sorkunde, taitze eta garaitzearen historia bide horixen haritik joan da. Beraz, bestalderantz joaz, erroretarantz sakonduz, oiñarrietan topo egin behar genuke. Eta nire ustez, euskeraren erraie-tako hondoenean aurkitzen dugun erantzuna, atzenengo erantzuna, horixe dugu hain zuzen: **a**.

Ez dugu ahaztu behar, hastapen haietako garaian, hitz maila batetik besterako epea edo aldia millaka urteak izango zirala. Eta maila batetik urrenera izango zan aldaketa oso txikia. Beraz, aldiaro guzti hauen arteko kronologia bat susmaeraztera ere ez naiz ausartzen. Baina izango da oraindik lan horretan saiatuko danik.

Bidezko da ere honako hau pentsatzea: ahots bereziak erasortzeko gai izan aurretik ere, gizaki-aurrekoak izango zuala eboluzio maila bat; eta lehendik zuan ahoskiaren baitan egingo zituala zenbait aridura. Zerbait holako nabari daiteke gaur egun ere, euskeran:

- (aua = ava = aba
- a** (adda = atta

Ez dakit garai honetako haur baten lehen ahoskatzeak aztertuko balira zer ondore-nuste aterako litzaken, baina susmoa dut eretxi hauek indarturik aterako lirakeela.

Oharrerazi beharrekoa dugu euskaldunok senitartetasunari buruzko arloan hitzobi bikain bat dugula. Sendia bait da gizakiak hasieratik eta beti bizi izan duen gauzarik eragilleena; eta bere zentzuan erabili izan dituen izakietatik eragiñik haundienetarikoa eragin diona. Gizalditik gizaldira gizakia bere sendian hasi eta “egin” da. Izainguru horretantxe taiutua izan da bere historian zehar. “Sendi” hitza arestian asmatua izan bada ere, uste dut oso egoki asmatua izan dala; euskeraren jatorri arauak, bai eta bere atondurakoak bikainki jarraitzen dituala. Hitz hau bezelako taiuduraz egiñak bagenitu guztiak ondo giñake. Aurrerago saiatuko gara **sen** hitzari buruz.

Sendiaren izainguru eta osakuntza ez ziran beti oraingoak bezelakoak izango, noski. Badugu honetaz ere susmabide gotorrik euskeraren barrenetan. Begira:

Sortzaileen izenak

atte (aitte) mendebaldean

Arra: **aita** (aite) erderaren eragiñezkoa dirudi

atta Gipuzkoa aldean

Emea: **ama** (**aba** formaren aldaki bat izan daiteke)

Beste izenetan

gazteleraz

Asaba	=	asi - aba	(antepasado)
Ozaba	=	oz - aba	(tío)
Izaba	=	iz - aba	(tía)
Izeba	=	iz - eba	“
Iloba	=	il - oba	(nieto-sobrino)
Alaba	=	al - aba	(hija)
Arreba	=	ar - eba	(hermana de varón)
Neba	=	n - eba	(hermano de hembra)
Ugazaba	=	ugatz - aba	(patrón)

Harrigarrizko hitz-obia dugu hau. Senitarteko arloan diren izen gutxi gelditzen diren esparru honetatik landa. Gutxi gorabera, hauexek:

seme	:	izen hau sen jatorrikoa dugu
anai	:	an edo ana ahoskian du azterbidea
aizpa	:	iz ahoskia du bere baitan
izeko	:	iz eta ko ahotsez osatua da
guraso (buraso)	:	gur edo bur eta as fonemak ditu eta oso ohargarria dugu

Besteak, **aittona** eta **amona** kenduz, (**atton** = atta-on, **amon** = ama-on) ez ditugu aztergarri. **Lengusu**, **eskonaide** e.a., geroago taiututako ustekizun eta izenak izan behar dutelako. Hala ere, **attaginarreba** eta **amaginarreba** izenetan badago zerbait, beste zerbaiten izena izandakoa dirudiena: **ginarreba** (**gin - ar - eba**).

Sendi kutsuzko hitz multso hau aztertuz, ondoren hauek atera daikeguz:

Asaba eta **buraso** izenetan **as** fonema ageri zaigu. Honek hasiera ustea dakarkigu gogora (**as-i**, **as-te**) eta hain zuzen ustekizun horixe duten izenetan ageri zaigu; hasierako, lehengo aideak adierazten dizkigute.

izaba, **izeko** eta **aizpa** (**aizta**) izenetan **iz** fonema dugu; oso garrantzitsua dugu, baina geroago aztertuko dugu.

ozaba-ren **oz**, **iz**-en aldaki bat izan daiteke; edo eta **as**-ena.

iloba-ren **il** ohargarria da; hildakoaren aidea aipatzen duela dirudi.

Berdin **arreba**; arraren aidea esaten duela dirudi. Eta gaur hala esaten du.

neba dugu iluntxoago; hala ere, ez dirudi eziñezkoa adierazketa honek: **eme-aba=emeba = meba = neba**. Gaur emearen aidea esan nahi du.

Alaba izenean, **al** fonema hori beste zerbaiten aldaki izan daiteke; **ar**-en aldaki bat izan daiteke. **Ar** fonemak, geroago ikusiko dugun bezela, balore eta esakizun harriarriak bait ditu.

Guzti hau oso interesgarria izanik, areago dugu beste fonema jakingarri hori: **aba** (**eba**). Forma hau **ama**-ren aurretiko bezela onartuko bagenu, auzia guztiz argitua eta erabakia genuke. Eta **aba = ama** aldaketa oso bidezkoa da. Ganera, **ama** fonemak badu beste esanahi bat euskeran, oraingoakin ondo eskontzen ez dana. Esanahi hau geroago aztertuko dugu.

Aba = ama onartzen badugu, ondoren hauetara heldu gindezke: hasierako gizarte haretan emearen inguru sortu eta osatzen zala sendia. Eta berari buruz ezarten zirela senitasun gradu guztiak. Eta geroago ere izen horren indarrak iraun egin duela.

Ugazaba hitza dugu argigarriena: nabari dugun gizarte haretan, ez zan izango geroagokoetan izan diren nagusi eta morroi, zaldun eta oiñezko eta holako bereizketarik. Odolezko loturak izango ziren sendien eta leiñuen oiñarri eta arau. Hala ere, eta izadiaren legeak halaxe direlako, beharrezko izango zan beste gradu batetako lotura ere; haurgintzan ama asko hilgo zala ez dago segurtatu beharrik; eta gizamultsoek umezurtzen jabe egingo zirela ere, berdin. Beraz, ama batek beste batek egiñiko haurra bere ugatzez hasten bazuan, bazuten elkarrekin aidetasuna, baina ez odolezkoa, ugatzezkoa baino; eta aidetasun horixe erakusten digu izenak: **ugaz-aba**. Odoletikoa izan ez arren, bere ugatza eman dion ama.

Gaur egun **ugazaba** hitzak duen esanahia (norberen gain dagoen norbait) garrantzitsua dugu; dirudienez, sendi eta leiñu giroan, emearen giderrak arraren eskuetara igan zirenean (matriarcado - patriarcado) izen hori hortxe gelditu zan, lekuko bikain bezela. Eta gizaki arteko lotura mota berri bati ezarria izan bide zan. Bai eta lehen zuan aidetasuna (ugatzezkoa) adierazteko forma berria sortu bide zan: **ugazama**. Bidezko da **aba ama** bihurtu zanean, **ugazaba ugazama** bihurtzea.

Aztergarri izango da puntu hau beste hizkuntza zahar askotan ere; eta daitekeentzat dugu uste hauxe: **atta** izena edo kideko bat galdua zuten gizamultsoek, emearen agintarotik arrarenera pasatu zirenean, arrari eman ziotela **aba** izena.

Bai eta, tarte bat egiñez, beste ohartxo hau: **aberri (aba-erri)** izena asmatu zuenak, nahiz eta ustekontra, ondo asmatu zuala; “patria” ordez “matria” esan nahiko du, baina baliteke holaxe hobeto izatea. Jatorri ustea adierazteko, gehien batean, amaren irudira jo ohi da: “lengua materna”, “cultura materna” e.a. Beraz, “atterri” baino “aberri” hobeto dago.

Ez ordea beste hau: praileen artean iñoiz entzuten dugun “**Aba**”, “Padre” hitza itzultzeko. Monjak izanik... baina hala ere ez. Ez “Aita”, ez “Aba” eta ez “Ama”; hitz hauek badute bere esanahi gotorra euskeraren esparruan eta ez dirudi taiu ganorazkoa latindarren txurikeri bidea jarraitzea; lehenago “berori” tratukerakin egin zan bezela. Ganera, izpirituzko loturak adierazteko baditu euskerak bere hitz egokiak: “jauna” eta “andrea”.

A fonemak euskeran dituen baloreak asko eta sakonak dire; lan honen atalak zehar agertuko zaizkigu gehienak, baina orain ere batzu aipatuko ditugu:

- 1.- Izatasuna duen ezer guztia adierazi eta mugatzen du: gizon-a, gogo-a, gose-a, ez-a, beldur-a, etxe-a, yainko-a, ur-a, aize-a, e.a.
- 2.- Bakarrean ere, ikusten dugun nahiz asmatzen dugun guztia fonema honekin oharrazten dugu: **a**, pertsona nahiz edozein izaki zeinerazteko erabiltzen dugu. **Ura**, **bera**, **axe** e.a., bere gain erasortutako formak ditugu.
- 3.- Geroago ikusiko dugunez, aditz formen sorkeran ere izan du zeregiñik.

2

Hirukoitz iturburua

Gizakia astiro eta epeka aurreratzen joan izango zala esan dugu. Bai bere gaitasunetan eta bai bere ahoskiak sortzeko lanean, emeki eta gutxika aurreratuko zan, noski. Baina hizkera islatuak eta gotorrak taiutzeraño heldu zan noizbait; eta bide luze, neke-tsu eta gora-beraz beteriko horretan zenbait aldiune garrantzitsu nabari daikeguz.

Bere berezko ahoski soila erabiltzetik, ahoski bereziak sortzerako bidea edo aldia ikergarrietako dugu; badire hemen zenbait galdera egosteko lurrunak: aldi haretan, nola bizi ote zan gizakia?, multso bakarrean ala banatueta? Hitz sortzeko gai izan zanean, elkar ezagutzen ez zuten multsoetan banaturik bizi ote zan?, eta zenbat multsotan izan ote zitekean?, hastapeneko sorreran, multso bakarra ote zan?

Ez da erraza galdera haueri erantzunbide bat eskaintzea. Hala ere, euskerak badu zer eskaiñi arlo hau argitzeko edo zerbait argitzen laguntzeko. Eta fantasiarik egin bage, guk nahi genuen “paradisurik” irazan bage, ikusi eta aztertu daigun “zer dagoen” iluntegi honetan, edo eta zer ikusteko gai garen gaurkoz. Bihar edo etzi batetan izango da, nik uste, lehen laiñotsu hori hobeto aztertzeko eta argitzeko abagunerik; baina gaurkoz, bakarrean eta beste aztergaillurik ezean, urratu daigun zerbait iluntegi lillurakor hori, eta bidezko izan daitezken hondorenetara heldu.

.....

A fonema eta bere ingurua aztertu dugunean, ezer bakar bat dugu; eta zitezken al-daketa forma bereziak bere baitan egiñak zirudien.

Baina fonema bereziak agertzen diren esparrura sartzean ikuskizun nahasiagoa dugu, arloa korapilotsu eta gehiegiz aberatza aurkitzen dugu. Eziznekoa dugu, beraz, guztiak atondura egoki batean ezarri (gure “eretxien” arabera) eta zerbait egin dugulakotan la-sai gelditu.

Aurrerago esan dugun bezela, idorokundeek eroan behar gaitue beren haritik. “Badanak” gidatu behar gaitu, eta ez guk “izan behar litzakela” uste dugunak. Eta koska honetantxe izan daiteke orain arteko ikerlanen kale egitea. Ea guk gaiaren muiñean jotzen dugun.

Euskeraren erraietan ageri zaizkigun fonema bereziak, guztiak batera eta bakotxa bere esanahi behiñenakin hartzen baditugu, auzia erabakieziña egiten zaigu. Nahasketa ikaragarri baten almareunetan trabaturik bezela aurkituko giñake. Baiña fonema hoieta-

ko bakotxa hartu eta bere inguru guztiaren argitan aztertuz, arazoak beste tankera bat har-
tzen du. Eta horixe da neronek hasieratik egin nuena. Berehala ohartu nintzan fonema ba-
tzuen zeregiña euskeran harrigarria zala; eta ez esanahi asko zituelako bakarrik, esanahi
arlotan orokor egitera ere heltzen zalako baino. Hori bai, esanahiaren orokortasun ho-
rrek bazuen muga bat: zentzuarena; izatasunaren, egintzaren edo eta ukatzearen zentzuak
mugatzen zituen fonema garrantzitsu horien ariarloan.

Esanahi orokor horren adierazpen bakarra hauxe iruditzen zaigu: hastapeneko ahos-
kiak izatea. Gizakia lehenez fonema bereizi batzu ahoskatzeko gai egin zaneke aztarnak
izatea. Eta fonema soil multso horren gain eraikitako atondura ikusirik, ustekizun hau erro-
tua eta gotorra egiten dala uste dugu.

Eretxi honen harian, lehenhizkera edo “protolengua” arazora jotzen dugu. Eta izan
ere, arazo horrixen planteatzean eta arakatzean dagoala uste dut euskeraren korapilloa ar-
gitzeko bide bakarra.

Guzti hau euskerari buruz hemen agertzen dugun ikerlan honen ondoren (eta ager-
tu daiteken beste batedobaten ondoren), munduko hizkuntza zaharren ikertzeak argitu eta
erabakiko du. Ez dakit askorik arlotan honetan, baina ikusi edo ikasi ahal izan dudak gutxiak
eretxi hori zeharo segurtatu egin dit.

Ahoski behiñenak beren inguru eta guzti aztertu ondoren beste arazo bat sortzen zai-
gu: fonema bat baino gehiago dugula arlotan berean eta zeregin berdiña betetzen. Eta ko-
rapillo honen askabidea eretxi honetan aurkitu nuen: fonema hoiak, gizamultso ezberdiñetan
sortutako lehenahoskiak izan behar zutela.

Bide honetatik abiatuz, eta ahoski hoiak multsokatze zeregiñean ariz, beste ondoren
harrigari batetara heldu nintzan: hirukoiztasun garbi bat ageri zaigula euskeraren erraie-
tan. Izatasun egintza eta ukatze zentzuetan hirukoiztasun berdiña genula; beraz hiru le-
henhizkeraz osatutako hizkuntza dugula dirudi euskerak.

Badira zenbait fonema ez direnak ondo sartzen hirukoiztasun esparru horretan; ez ba-
tean eta ez besteetan. Baina esanahi bereziak dituzte eta ezela ere ez dute hausten auziari eman
diogun erabaki bidea. Alderantziz, indartu egin dutela uste dut; aurrerago esan dugun beze-
la, gizakia millaka urteetan zehar mailarik maila ahoski berriak sortzen joan bada (etorri bada,
hobeto), zentzu berriko zerbait sortzean, ahoski berri baten beharretan izango zan.

Edonola, badirudi lehenen sorturiko ahoskiekin luzaroetan egon zala; honek adie-
razten du fonema hoiak esanahi orokortasuna, bai eta ahoski beroietatik erasortutako for-
men ugartasuna.

Hirukoiztasun hori azaldu eta aztertu ondoren, beste arazo bat agertzen da: izata-
sun, getasun eta egintza zentzudun fonemekin multsoak osatzea; hiru zentzu horiek be-
ren baitan dituzten hiru multso. Hau geometriako ekintza bat irudituko zaie norbaitzuri,
baina ez dut uste aribide aldrebesa danik. Hiru zentzuetan hirukoiztasun nabari bat du-
gularik, ezinbestezkoa dugu kidetasunezko multsoak atontzea eta adierazpen egoki bat
eman dagikuken arrazoia billatzea.

Eta uste dut fonema hoiak arteko kidetasuna billatzeko, gizabere edo lehengiza haien
ahots urritasunera jo behar dala. Jokabide honetatik jarraiz, ahoskien soiltasunean billa-

tu nituen kidesunaren erroak. Eta hasieratik horrelaxe taiutu nituen hiru multsoak eta bakoitza: **i** ahoskiaren gain sortua dirudiena bat, **a - u** ahoskiekin osatua dirudiena beste bat, eta iztarrizko ahoslagunen eragiña duena bestea.

Geroagoko ikerketak eta beste hizkuntza askokin konparaketak egin ondoren ageriko dire lehenhizkera bereizi batzuen lekuko ditugun fonema multso hauek. Eta multsoak ondo taiutu ditudan ala ez. Nik baietz uste dut.

Hona hemen ikerlan honen gakoa dugun fonema atondura:

		Zentzuak		
		Izatasuna	Egintza	Getasuna
Multsoak	Lehenena	IZ	IN	IL
	2-na	AR UR	UK	U
	3-na	GO	GI	GE

Hasierako oiñarrietan ageri zaizkigun fonema hauen gain atondurik ikusten dugu euskera; bai fonema beraien arteko sarekatzeaz, bai ahoskilagunen bidez forma berriak sortzeaz eta bai beste fonema bereizi batzu gehitzeaz, hizkera gotor bat izatera heldu zaigu.

Atonkera horren bideak eta zelakotasunak jarraituko ditugu lan honetan. Eta lenen, **a** ahoskiaren eragiñez sortu izen bide diren ezenbait forma:

IZ - iz + a = ITZA iz - a = xa = YA	IN	IL -a + il = AIL = AL
AR- ar + a = ARA UR ur + a = URA	UK	u - il = UL U u - in = UN
GO - go + a = GA GO = KO e-go = EGO = EGU	GI	GE = KE ge + a = GA = KA

Ikusten denez, **a** fonemak hastapenetik erakusten du bere eragiña. Baina beste gauza ohargarri batzu ere ageri zaizkigu lauki honetako fonemetan.

Gauza hoietako bat, **e** fonemaren aurritsasteko arauaren antxiñatasuna. **Ego, egu** formaz aparte, hona hemen zenbait adigarri:

e-in = **ein** (egin)

e-uki = **euki** (eduki eta beste formak geroagokoak dirudie)

uk-a-n = **ukan** (hau, aditz bi hauen kidetasuna adierazteko ezarten dugu)

e-iz = **eiz** (**eitz**) Hitz honi buruz, geroago jardungo dugu

E ahoski honen eragiña, bai aurrizki (aurreahoski) bezela eta bai tarteizki edo betegarri bezela, oso haundia dugu. Ganera, baduelarik berea duen esanahi konkreturen bat ere, euskeraren azterlanetarako lauzogillerik haundienetakoa dugu. Hau kontutan izan beharko dugu lan honen atal guztiak zehar.

Bai eta hasiera honetatik gogoan izan behar dugu hastapeneko fonema hoiere ere-mua gero eta zabalagoa izatera doala.

Eta hoietako bakotzak forma asko hartzen dituala. Batez ere ahoskatze erari gagozkiolarik. Hona hemen, zenbait adibide:

IZ = iz, itz, is, its, ix, itx. Guzti hauek **a** gehituz eta **ya**.

IL = il, ail eta **al**.

AR = ar, ara, arr eta **arra**.

UR = ur, ura, urr eta **urra**.

U = u, ul eta **un**.

GO = go, ko, ga, ego eta **egu**.

GE = ge, ke, ga, ka.

Fonema bakotxaren esparru zabaletan sartu baino lehen, eretxi batzu azaldu beharrezkoak ditugu:

- 1.- Izatasun zentzudun fonemak esanahi orokorki bat dutela beren zentzu esparruan: **IZ = sua, argia, ura, izatasuna, askotasuna, haitza, haizea, gorputza, gogoa, hitza, zuhaitza, denpora, bizia, gizona, piztia, e.a.** (Geroago ikusiko dugu).
- 2.- Izatasun zentzudun fonemak alkartuz, zentzu bereko diren hitz berriak sortzen direla: **go-iz, iz-ar, ar-itz, ur-itz, ga-ur, itz-ar, go-ar**.
- 3.- Izatasun eta getasun zentzuzkoak alkartuz, ondorengoak getasun zentzua izaten dutela: **is-il, itz-al, its-u, itz-ul, itz-un, iz-un, is-un, ge-iz, ga-itz, ya-u** (xau), **ur-un**, e.a.
- 4.- Izatasun eta egintza zentzudun fonemak alkartuz, egintza esanahidunak sortzen direla: **iz-a-n, ya-n, ga-in, ur-i, ya-gi, ar-i, go-r-i**, e.a. (Honek, adierazpen egoiki bat izango du).

- 5.- Egintza eta getasun zentzudunekin, getasun zentzudunak sortzen direla: **in-ul**.
- 6.- Getasun eta egintza zentzudunekin, egintza zentzua dutenak batez ere: **ge + in = gen, ken, un-gi** (itzungi).
- 7.- Getasun zentzudun fonema bi alkartzean, zentzu berekoak sortzen zaizkigu: **il-un, ga-u, ge-al (gal) (gel)**.
- 8.- Egintza zentzuzkoak alkartuz, zentzu berekoak: **uka-n, e-uk-i, gi-n**.

Aurrerago kasuok banan aztertuko ditugu, baina adierazpen batzu beharrezko iruditzen zaizkigu oraintxe ere.

Egintza arloko fonemeri buruz, ukateziña dugu beren arteko loturak eta alkarreki-ko eragiñak hasieratikoak diruditela eta nahasketa antzeko zerbait badugula. **Gi** eta **in** fonemak bereiztea, zenbait hitz zaharretan izan ezik, oso gaitza dugu. Ganera, geroago ikusiko dugunez, **gi** ahoskiak beste esanahi bat hartzera jo duela dirudi.

Arlo horretan, **in** fonema dugu indartsuena eta garaile. **Uk** fonemak badu esparru berezia. Eta **gi, in** ahoskiak ia estalirik utzi du.

Beste gauza bat ere aipatu beharrekoa dugu: izatasun eta getasun zentzuekin ari garenean, badugula beste nahasgille dugun ahoski bat: **ga; a** fonemaren orokortasunak sorturikoa izanik, berdin zaigu izatasunezkoa nahiz getasunezkoa. Beraz, **ga-u** hitzari buruz ezin daikegu esan ziurki, **ga** zatiari buruz, getasunezkoa ala izatasunezkoa dugun. Hala ere, funtsean, ondorengoa berdiña izan behar: argi zentzua ukatzen duana edo bi aldiz ukakorra.

3

Multsoak banaka

IZ

Ahoski hau buru duen multsoa guztietan bereziena eta indartsuena dugu, ezpairik bage. Beste multso biek badirudite beren artean nahastu zirela **iz** multsoarekin alkartu baino askoz lehenago. Eta beste hau haietiko multso berri bati alkartu zala geroago. Gogapen hutsa da hau, baina ikerlan honen orriak zehar ageri dan zerbaitek bidea ematen diona.

Iz fonemaren esanahi aberatza (gehiegizkoa, gizaberearen irudia gogoratzen ez badugu) aztertuko dugu orain. Eta, adikortasun gehiago emateko, erderazko itzulpenak ere ezarriko ditugu beharrezko direnean.

1.- Suaren arloan

izio	=	<i>encender</i> (iziotu)
izigi	=	<i>encender</i> (isiki)
ixitu	=	<i>encender</i> (ixetu)
izeregi	=	<i>encender</i>
izeki	=	<i>arder</i> (ixiki, ixeki)
ixatu	=	<i>quemar</i>
isioki	=	<i>combustible, inflamable</i>
itxindi	=	<i>tizón</i>
izardi	=	<i>rescoldo, fuego cubierto de ceniza</i>
istasun	=	<i>resplendor</i>
itxustarri	=	<i>piedra del fogón</i>
itsuski	=	<i>brezo</i> (izuzki, ixuzki)
itzali	=	<i>apagar</i> (itxungi)
itzali	=	<i>apagar</i>
izitu	=	<i>aterrar, espantar</i>
izutu	=	<i>espantar</i>
su	=	<i>fuego</i>

ixu	=	(ilddu) <i>madera especial para conservar el fuego</i>
ixuegun	=	<i>día del fuego. Rito que se extingue</i>
txinpart	=	<i>chispa</i>
txiztar	=	<i>chispa</i>
txingar	=	<i>brasa</i>
atzamau	=	<i>apagar</i>

Guzti honetatik atera daiegun ondorena, zera da: **su** hitzaren forma zaharra **izu** izan bide zala. Lekukorik onenak hor ditugu: “Ixu Egun” izena, suari dagokiona eta San Martin adizkideak Kezka aldizkarian argitara eta adierazia. **Ixu** pagoaren usteligarra, sua iraunerazteko erabiltzen dana. **Izutu** erderazko ‘foguear’ hitzaren kide.

Izu forma hori aurreragoko **izio** edo **izi** forma baten ahots aldaki bat izan daiteke; forma guzti hauek ageri bait dire ikusi dugun hitz txorta honetan. Ukatu ezin daitekeana zera da, **iz** fonemaren gain sortu dala izen multso hori, **su** hitza ere barruko dalarik.

Iz = izio = izioa = izua, izan daiteke **izua** (ixua) formaren sorbiderik segurkiena. Eta **izu = xu = su**, izan daiteken ahoski garatzerik bidezkoena da.

Eta eretxi hau oraino gotorrago egiteko, hor dugu beste izen ohargarri hori ere: **itxustarri**;^{*} **itxustarri** hau ez dugu **izu-arri** baino besterik. **Buruztarri buru-arri** dugun bezelaxe, arau berdiñez taiutua. Eta ixu-arria “su-arria” izan bada, “ixua” sua izan da.

Hemen ere ondo ageri zaigu lehenago oharrerazi dugun puntua: **iz, is, ix**, e.a. erroretan bat bera direla.

Argi dagoana hau da: suari buruzko zentzukizun guztiak **iz** ahoskiak hasten diren hitzez adierazten direla euskeran. **Izigi, izeki, ixatu, istatu** (resplandecer) eta **itzali**.

Bai eta hitz baktx hoietako beste ahoskiak ere oso argigarri ditugu:

izigi	=	izi-gi (iza egin)
ixitu	=	ixi-tu (iza egin)
izeki	=	iz-e-ki (iz ekin?)
ixatu	=	ixa-tu (iz bihurtu)
itzali	=	iz-al-i (iz gendu)
izungi	=	iz-un-gi (iz gendu)

Benetan ohargarri dugu ere euskaldun menditarrek sua iziotzeko eta iraunerazteko erabili izan dituen egurki bieri hain izen esankorrek ematea: “itsuski” edo “izuzki” (brezo), eta “ixua” edo “ilddua” (pagoaren usteligarra).

Atzamau hitza **itz-amau** forma batetik aldatua izan daiteke. Honetaz, **ama** eta **ama-tau** hitzak geroago aztertuko ditugu.

Ageri zaigunetik ondoren hau ateratzen da: **su** hitza hasierako **i** ahoskia galduriko fonema bezela hartu behar dugula. Eta berdin **txingar, txiztar, txinpart** eta beste hainbat. Kasu

* "Itsustarri: (B-Txorierrri) , piedra del fogón". (Azkue).

hau (hasierako **i** galtzea) gure ikerlan honetan maiz ageriko zaigu. Eta uste dudanetik, beste hizkuntza batzuen azterlanetarako ere oso kontutan izan beharreko gauza dugu.

2.- Argiaren arloan

Argiaren ustea suaren ustetik ez da beti erraz bereizten. Argia, izan ere, suaren ondoren bat baino ez dugu; eta bai batari nahiz besteari buruz izan daikeguzan eretxiak erraz nahasten zaizkigu. Hala ere, ikusi dezagun zerbait.

istasun	=	<i>resplandor</i>
isla	=	<i>perfil del horizonte, silueta, reflejo</i>
izla	=	<i>reflejo del sol</i>
izpi	=	<i>rayo luminoso</i>
ixiki	=	<i>rayo de luz</i>
iztasun	=	<i>brillo</i>
izki	=	<i>indicio</i>
itzal	=	<i>sombra</i>
itzali	=	<i>apagar</i>
iziotu	=	<i>encender</i>
itsu	=	<i>ciego</i>
its	=	<i>sucio</i>
izkutu	=	<i>oculto</i>
geiz	=	<i>sombra (keiz, geriz, keriz)</i>
izar	=	<i>estrella</i>
istantza	=	<i>amanecer</i>
iz	=	<i>luz (P. Bera - L. Mendizabal hiztegian)</i>
izki	=	<i>luz (P. Bera - L. Mendizabal hiztegian)</i>

Iz ahoskiak argi zentzua adierazten digula, zalantza bageko gauza da. Eta bidezkoa, sua ere fonema berakin adierazten duen hizkera batetan. Lehen esan dugun bezela, arlo bi hauetan ezenbait eretxi nahasi ere egiten dire: iziotu, itzali, iztasun, e.a. erderaz ere gauza bera jazoten da.

Argi zentzudun multzo honetan ere baditugu ezenbait izen ohargarri:

iztasun	=	iz-tasun (iz izatasuna)
itzal	=	itz-al (getasuna)
geiz	=	ge-iz “
itsu	=	its-u “
izkutu	=	iz-k-u-tu (argitatik kendu; aditza izana dirudi)
iztantz	=	is-t-antz (argi antza)

Istantz hitzari buruz, Laspiurrek (jatorriz bergararra) “egunsentia” esanahia duela diño eta Azkuek bere hiztegian “crepúsculo” ipinten du. Laspiur zuzenago izango dala uste dut.

Mendebaldean dugun “izkitik kendu” esaerak “quitar de la vista”, “quitar de la luz” esan nahi du betebete; beraz, **izki** hori argi zentzuduna dugu. Eta esaera hori ez da berrikeria bat, zaharren ahotan entzuten dan gauza baiño.

3.- Uraren arloan

izotz	=	<i>escarcha (iz otza)</i>
istil	=	<i>charco, pozo (iz hilla)</i>
iztoki	=	<i>cenagal (iz lekua)</i>
isol	=	<i>aguacero (uri-ol bezela)</i>
iztin	=	<i>gota</i>
itz	=	<i>rocío (ihintz, ihitz, intz, iñontz)</i>
itsaso	=	<i>mar</i>
iturri	=	<i>fuelle</i>
isuri	=	<i>derramar líquido</i>
izurde	=	<i>cerdo marino (delfín)</i>
izingura	=	<i>cenagal (iz ingurua)</i>
izerdi	=	<i>sudor</i>
ixaka	=	<i>acequia</i>
ixukatu	=	<i>enjuagar</i>
ixurki	=	<i>vertiente de agua</i>
ixurkin	=	<i>agua sucia</i>
ixkernu	=	<i>agua corrompida</i>
itukin	=	<i>gotera</i>
izpura	=	<i>agua corriente</i>
ito	=	<i>ahogarse</i>
idoi	=	<i>charco</i>
izokin	=	<i>salmón</i>
istu	=	<i>saliva</i>
eze	=	<i>húmedo</i>
ezatu	=	<i>regar</i>
ezadura	=	<i>humedad</i>
ezade	=	<i>jugo, savia</i>
txiz	=	<i>orina</i>

txirka	=	<i>gota</i> (txiripiztin = <i>gota salpicante</i>)
istinga	=	<i>pantano</i>
istun	=	<i>acueducto</i>
itaizur	=	<i>gotera</i>

Arlo honetan ere argi dago **iz** fonemaren garaitasuna. Ezenbait izenetan **iz** ahoskia **ez** bihurturik ageri zaigu (**eze**, **ezatu**, **ezadura**, **ezade**). Beste ezenbaitetan, **ur** ahoskiaz nahasturik: **it-urr-i**, **ix-ur-i**, **ix-ur-ki**, e.a.

Baditugu hitz ohargarriak:

itsaso	=	its-as (as , “asko”, “aski” eta holako hitzetan ere ageri da)
izpura	=	iz-pur -a (hemen, ur fonemak “pur” forma hartzen du)
iturri	=	it-urri (hemen, iz , it forman ageri zaigu. Ahoskera aldatze hau maiz ageri da)
idoi	=	iz-doi (hitz honetan, z ahoskilaguna galtzen du)
ixkernu	=	iz-garnu (garnu , gar -en multsokoa, geroago ikusiko dugu)
txiz	=	tx-iz (beharbada, iz-iz izan daiteke aurretiko forma, “gorputzaren ura” esanahiaz. Hasierako i galtze hori maiz agertuko zaigu.

4.- Izatasun arloan

Izatasun ustea adierazteko, **iz** fonema hau betebetean darabil euskerak. Bai aditz soila (infinitivo) egiteko (**izan**), eta bai aditz laguntzailea eta bere jokoa moldatzeko. Bi hauetan ez ditugu bata bestearen ondoren, biak **iz** ahoskitik eta bide ezberdiñez sortuak baizik. Begira:

Izatasuna	Egintza	
iz	in	iz + a + in = izan, izin

Geroago aztertuko dugunarren, orain ere esan beharrekoa dugu **in** ahoskia dugula euskeran aditzaren iturburua eta “aditz ama”. **Uk** eta **gi** fonemek badute beren esparrutxoak, baina **in** fonema dugu jaun eta jabe arlo honetan.

Euskeraz oso bereizterraz ditugu ustearen erroko izena (radikal) eta aditza, aditz soila (infinitivo edo). Gaur egun nahasketa ikaragarria sortu digute gure hizkuntzalariek, baina urak beren ubidera itzuli beharko dire; hau ez egitea, euskerak berak argiki erakusten digun atondura ez jarraitzea, hizkuntza hondatzea eta apurtzea da. Eta hori egitea iñor-txori ere ezin parketzekoa da.

In ahoskiaz aditzak sortzean (“initza” izan behar zuen izen egokiz), badugu arau garbirik: uste-izena (errokoa) bokalez amaitzen danean, edo **a** fonema hartzen duenean, **n** bakarrik hartzen du sortzen dan aditzak: **ego = egon**; **igo = igon**; **oa = j-oan**; **iz-a = izan**; **ja = jan**; **es (iz) + a = esan**.

Erroko uste-izen hori kontsonantez amaitzen danean, berriz, beti **i** bakarrik hartzen du aditzak: **ar = ari; ikus = ikusi; ibil = ibili; jar = jarri; ikas = ikasi**, e.a.

Hala ere, inoiz **in** osorik ere hartzen du: **jarain, zain(du), gain(du), itxain** eta **izin**. **Izin**, mendebal ertzeko Arratian **izan** ordez erabiltzen dan forma dugu; beharbada, hasieratiko forma zahar bat dugu. Leku berean beste zenbait holako hitz bereizi arkitzen dugu. Beraz, gauza askotan arratiarren euskera euskalki bereizi baten parekoa dugu; eta ukatezi-ñezko zahartasun kutsuzkoa.

Aditz (edo initz) arlo hau gero zehatzago adieraziko dugu, baina orain **iz** fonemaren izatasun zentzua agerrerazteko, arlo honen hastapenak aztertu behar ditugu nahi ta ez.

Izan aditzaren atondurak argi erakusten diguna hauxe dugu: adiztasuna izango badu hitz batek, egintza zentzua beharrezko duela; eta zentzu hori eman diezaioken errotiko fonema **in** dugula behinena euskeran. Geroago ikusiko dugu **du** ahoskia, eta berak duen zeregin eta esparrua aditz arlo honetan. Bai eta **gi** ahoskiaren eragin txikiagoa eta hartu dituen esanahi ezberdiñak, nahiz eta oso hurbillekoak izan.

Ikusi dezagun orain aditz laguntzailea, **iz** ahoskiari dagokion alderdian. Aditz honen hastapeneko formak **izan** bera baino zaharragoak dirudite, nahiz eta hau eziñezkotzat joko duten zenbaitek. Baina aurrerago ere esan dugu orain dala milla edo bi milla urte sortutako hizkeren arauak eta hizkeren hastapenetan sortutakoenak ezin direla berdiñak izan.

Jo dezagun euskeraren sortze aurretiko girora eta egin dezagun, sortze horri dago-kionez, nola izan eikean aditzaren taiutze hori. Lehenago esan dugun bezela, astiro eta millaka urteen zehar gertatuko zan edo gertatu behar izan du; beste adierazpenik, gaur, barregarri edo fantasiakoi litzake.

Eta hastapenaren hasieran ez zan izango, gaur ohi dugun bezela, pertsonen bereizketarik; hizketan pertsonen kokatzeari buruz egin ohi dugun bereizketa, esan nahi dut (**ni, hi, ha; gu, zu, haiek**). Hiru “pertsona” bereizte hori eta izenordekoak ere hiru beroieri egokitzea “irazankeria” bat dugu, zuzenago edo okerrago egiña, baiña edozela ere gramatikalarien asmakizuna.

Nik uste dut “pertsonak” bi bakarrik direla: **ni** eta **hi**, gero, askotasunaren eragiñez **gu** eta **zu** bihurtzen direnak. Bestea, hirugarrentzat jotzen duguna, (eta lehenena izanki) orokorra dugu, izaki eta gizaki guztientzat berdin balio duena. Esate hau zalantzan jartzen duen edonork egin beza proba euskeraren esparruan (eta uste dut beste hizkera gehienak ere berdintsu izango direla) eta honetaratuko dala uste dut.

Beraz, geroagoko bereizketarik egiten ez zan garai haretan, bazan “berezko” ahoski bat, aurrerago adierazi digunez: **a**; bai eta izatasuna ulertzeko gai egin zan gizakiak uste hori adierazteko atera berri zuen beste ahoski bat ere: **iz**. Ikusi dezagun orain, bi ahoski hauekin joko egiñez eta, astiro bada ere, beste batzuekin aberaztuz, zer atondura erasortu eikean nabari dugun gizakiak:

Berezko ahoskia
(adier. orokorra)

a

Izatasun zentzua

iz

Izatasunaren adierazle orokorra

aiz

Aiz hitz hori millaka urte askotan izan zitekean, eta orokor balioarekin, nabari dugun gizaki haren hitz bakarra uste honi buruz; izatasuna kokatzeko (iñon, iñoiz, ezertan eta iñorengan kokatzeko) erabiliko zuen hitz bakarra. **Izan** aditza eta, argi ageri da ereixkizun garatuagoeri dagozkiela.

Baina geroago gizakia bereizketak egin beharretan aurkituko zan: hizketa lagunekin bereizi beharra alde batetik; eta bakartasunaren eta askotasunaren bereizi beharra beste aldetik. Eta fonemak zerbait aldaeraziz eta gehituz jokatu beharko zuen.

Honela gertatu zitekeala iruditzen zait:

a	=	aiz	=	aiz	=	daiz (daz, da)
i	=	iaiz	=	aiz	=	aiz (az, a)
ni	=	niaiz	=	naiz	=	naiz (naz, na)

Bigarren pertsonako formak **i** galtzean hartzen zuen forma eta lehenengo orokorra berdin jartzean, atzen hau aldatu beharra sortuko zan. Eta **de** ahoskia ageri zaigu aldaketa horren eragille. Ahoski honetaz esan daik egun bakarra hauxe da: urruntasun ustea adierazten duela dirudigula. **Deitu** aditzean ustekizun hori nabari dala uste dut: **de-in** (urrutera egin); eta **erdera** hitzean: (**herri-de-era**) (kanpoko edo urrungo herrien era); eta **erdeñatu** hitzean: **herri-de-ra-tu** (kanpotartzat jo edo eta kanpora bialdu).

Niretzat argi dagoana zera da, “hirugarren” forma hori dugula zaharrena eta guztien oiñarri; eta beragandik atontzen joan dala aditz laguntzaile honen atondura guztia. Hasierako **a** fonema beste forma guztietan ere ageri izatea lekuko ona dugu; dirudienez, **aiz** forma guztietan ere ageri izatea lekuko ona dugu; dirudienez, **aiz** formak bere nortasuna tinkatua zuen besteak sortu aurretik eta eziñezkoa gertatu zan **iz** ahoskia bereiztea beste hauek atontzeko.

Eta goazen askotasun ustea bereizi beharrak sortzen dituen arazoak aztertzeraz:

a	=	a-e-k	=	daiz-e	=	dare, dire
i	=	zu	=	zaiz-e	=	zare, zire
ni	=	gu	=	gaiz-e	=	gare, gire

Honetan ere, orokorraren indarrak taiutzen du inguru eta ondoren guztia; “hirugarren” hori zaigu egitan beti lehenena. Begira: askotasun edo plural ustea adierazi behar izan zuenean, gizakia ez egoan, dirudienez, geroago bi “persona uste” hoiek in jokatu zuen bezela jokatzeko; eta fonema berri batzu atera orde, lehengo bakarra zerbait aldatu egin zuen: **e** ahoskia gehitu zion (**k** ahoskilaguna, nire ustez, ez da plural zentzuduna berez, **e** fonemaren makaltasunak eragiñik gero itsatsitakoa baizik).

Aditz honen gaiak badu giharrik eta hezurrik luzaroan eta aro luzean aritzeko ere, baiña ikerlan honetan “egur” gehiegi dugu “araki” bakar batekin larregiko gogapenetan jarduteko. Hala ere, ezenbait eretxi adierazi beharrezkoak ditugu, gaia zerbait biribiltzeko. Hona hemen:

- 1.- Lehen mailan (bakar ustekoan) izatasun adierazle orokorraren sorterazle dan **a** fonema beharrezko ez zuten beste bi formeri ere itsasten zaie. Eta berdin bigarren mailan (pluralekoan) askotasun adierazle dugun **e** beste bieri itsatsirik ageri zaigu; eta ezela ere behar ez zuten ezarkiña dute bi forma hoiak **e** fonema hori. **Zu** eta **gu** berez pluralak direlarik, ez dute ezela ere berriz askotasun ustea gehitu beharrik. **Zaiz** (**zu-aiz**) eta **gaiz** (**gu-aiz**) izan zitezkeen formarik egokienak; baina orokorrak beharrezko zuen **e** hori pluralak sortzeko: **a** / **a-e-k**; **daiz-e**. Eta beste forma bieri ere itsatsi egin zien. Ondoren argi bezela, zera atera dezakegu: orokor edo “hirugarren” formatik sorturikoak ditugula besteak.
- 2.- **Daiz** ahoskiaren bigarren zatia (**iz**) galtzeari buruz, aski dugu arlo bereko beste hitzekin zer gertatzen dan gaur ikustea: **gare** (gara, gira, gire, gera) **ga** bihurturik ageri zaigu mendebaldeko herri askotan eta Nafarroako batzutan ere; berdin **zare** (zara, zira, zire, zera) **za** bihurturik; eta **naiz** ordez **na** ere entzuten dugu Elorrio aldean eta.
- 3.- Harrigarria dugula gaurdaño ere honako aditz forma hauek entzuten direla iñoiz mendebaldeko itsasaldean: **gu gaz**, **zu zaz**, **zu zaiz**, e.a. Izan daiteke **gagoz** eta **zagoz**-en laburkiak izatea, baina erabilkerak ez du itxura hori beti ematen.
- 4.- Berdin harrigarria izanik ere, pluraleko forma zahar guztiak bizirik ditugula gaurdaño; eta areago harrigarria dugu, geroago sorturiko nahasketak gehitu dituen formen artean bizi direlako. Begira: forma guztien sorrerazle dugun **aiz** (**d-aiz-e**, **z-aiz-e**, **g-aiz-e**) horrek, batean bere **a** galtzen du eta bestean **i**. Eta **a** galtzean sortzen diren formak: **gire**, **zire**, **dire**, eta **i** galtzean sortzen direnak: **gare**, **zara**, **dare**, bizi-bizirik diraute gaur egun ere. **Dare** dugu guztietan koloka ageri zaigun bakarra; Eibar aldean eta “egon” zentzuakin ezagutzen dut baina bere jatorria “izan”diko izango dala uste dut.
- 5.- **Gaize** eta beste formen ahoskera aldaketa (**z = r**) ez dugu frogatzen ibili beharrik. Ikerlan honen zehar, eta aditz arloan batez ere, arau egingo zaigu. Eta sarritan agertuko zaigu.

Eta gai honi heldu diogunez gero, **iz** arloari epe bat ebatsiz, ikusi dezagun beste zer-bait. Gainbegiratzuz baino ez bada ere, aztertu dezagun **e** fonemaren pluraltasun zentzua, **a** fonemaren bakar zentzurako jokera, eta bai pluralki aditz hoiere arteko nahasketa eta daiteken zuzenbidea.

Aditz laguntzailearen formarik zaharrenak (hastapenekoak) nik honelaxe nabari ditut:

a da (iz)	ae	dare = dire
i aiz	zu	zare = zire
ni naiz	gu	gare = gire

Nahasketa gero ageri da, bigarren pertsonako plurala bigarren bakarraren ordez erabiltzen hasten danean sortua. Begira zela gertatu izan bide dan:

ni naiz	gu	gare / gar-a	ge-ra	gira
i aiz	zu	zare /		
zu zara (a)	zu-ek	zare-e / zarie (zare)	zerate	zirade
zu zera (a) (gipuzk)				
a daiz	ae	dire / dir-a	dir-a	dir-a

Nahasketa hauxe izan bide da, nire ustez, euskerak jasan duen galketa eta ixurrite-rik haundiena. Aspaldi jazotakoa izango da, baina hala ere gaurtxe ere nahasketa hortatik atera eziñik gabiltz. Ikusi dezagun zela gertatu izan bide dan bihurketa izugarri hori:

- 1.- Noizbait, gizarteko txurikeriaren eragiñez eta nagusiagoekiko tratukera itzalagotzeko, bigarren plural forma bigarren bakarraren ordezt erabiltzen hasi zan.
- 2.- **Zu** hori **i** ordezt erabiltzean, **zare** forma **aiz** formaren lekuan erabili behar. Eta horretarako, **e** ahoskiaren askotasun ustea edo esanahia kentzeko, **a** ahoskia ezartzen zaio: **zar-a**. Beste hau, okerragoa ere gertatzen da: hitza itzulikatuz **zare**-tik **zera** egitea.
- 3.- **Zare = zara** aldaketak eta dirudienetz berdinarauz, **gare = gara, gera, gira** eta **dire = dira** formak erasortzen ditu.
- 4.- Baina hizkuntzak beren berezko izatera jo ohi dute, gizakiak eta beste izakiak bezela, dirudienetz. Eta plural ustea berriz ezarri eta indartu beharrez, nahasketa haundiagoa sortzen da. **A = aek** arauari jarraiz, **zu = zu-ek** sortzen da. (Eta **gu-ek** forma ere iñoiz erabili izan ote dan susmoa dut).
- 5.- Bide beretik, plural zentzua indartu beharrez, nahaste hauek sortzen dire: **zare-e** (mendebaldean) **zarie** eta **zarei** bihurtzen dalarik; **zera-t-e, gera-d-e, dira-d-e, gira-d-e, zira-d-e, zare-t-e**, e.a.

Ikusten dugunetik, ondoren hauek atera ditzakegu, bai eta tinkoki eutsi ere:

Euskerak bere hastapenetatik hona **e** ahoskiaren bidez (beste kasu bat berehala ikusiko dugu) askotasun ustea adierazten duela. Hau argi dago alde askotatik: diño/diño^e; zoaz/zoaze (zoazte); zaio/zaie; darabil/darabile; dauko (ka)/dauke, e.a. Arau bat dugu, beraz, **e** ahoskiz askotasuna adieraztea euskeran.

Ezin daiteke esan “pertsone” usteetan bakarrik ageri dala; “usteetan” esan dugu eta berdin, etxeetan, emakumeek, hauek, hoieek (horrek, hoek, horiek). Orain aldarrikatzen diren ezinbat forma (horik, hauk) “kontraeuskerara” baterako asmatuak dirudie.

-ek atzizkia arikortasun usteaz bakarrik erabiltzea, hizkeralarien irrisketa bat dala uste dut; **-k** dugu aritasuna adierazten diguna eta **e** betegarri bat baino ez dugu. Begira: Patxi-**k**, Agustín-**e-k**; Kepa-**k**, Antton-**e-k**, gizon-**a-k**. Beraz, gure artean argi gelditu behar litzaken puntua dugu hau: **k** ahoskiak aritasuna adierazten duela eta **e** ahoskiak askotasuna batzutan eta betegarria (aurrizki nahiz arteizki: **e**-uri, lrun-**e-n**) besterik ez dala izaten besteetan.

-a fonemak orokor balio bat baduenarren, bakar edo soil ustea adierazteko ere erabiltzen da: seme-**a**-ri, seme-**e**-r-i, gizona-**r**-i, gizon-**e**-r-i, gizon-**a**-k (arikor), gizon-**e**-k (arikor ere); (**o** eta **a** arteko auzia geroago aztertuko dugu).

-ak askotzaile edo plural bezela hartzetik datorkigu beste nahasketa kaltegarri bat. Funtsen, **a/e** nahasketaren ondoren bat dugu; eta **k** arikor nahiz askotzaile bezela berdinean hartzeaz nahasketa areagotzen da. Beraz, nire eretxiz, behin uretan sartu eta erabakiko bagenu: **a** fonema, bakar ustea edo soiltasuna adierazteko, eta **k** aritze ustea adierazteko, euskeraren

geroari bide bat gertatuko genioke. Badakit gaurkoz nahasketa nahasiegi dugula gauza hauek arauz jartzeko, baina gutxienez jakintza mailan onartu behar genuke.

Berriz **IZ** arlorra jo aurretik, eta aditz laguntzaileaz ari garenez gero, zerbait adierazi nahi nuke. Aditz horren arloan dugun nahasketa ikusirik eta euskera batu bat bultzatzeko garaian garelarik, neronek dudan eretxia agertu nahi nuke. Eta hauxe da argi eta garbi: honetan ere, beste kasu askotan bezela, erroetara jotea dugula konponbiderik onena; bai forma guztien arteko erdikotasuna lortzeko, eta bai euskeraren parebageko atonduraz berriz balia ahal izateko, erroetara, hastapeneko atonduretara jotea dugu salbabidea.

Gaur egun **zu** forma bakar zentzuan sartuegia dugu, arestiko “berori” bezela, izkitik kentzeko, baina uste dut jokabide jator bat daitekeana dugula. Hara:

Bakarra (singular)	Askotza (plural)
ni naiz	gu gare (gire)
hi haiz	zuek zare (zire)
zu zara (zira	
ha da(iz)	haiek dire

Hauxe dugu, nire ustez, atondurarik bateragilleena, zentzuzkoena eta euskal arauzkoena. Ikusten duzuenek, ez dut eskaintzen **dare** forma, ahulduegia dagoelako gaur; eta hizkuntza batekin jolasean ezin daiteke ibili. **Gire** eta **zire** formak besteak bezin errespetagarriak iruditzen zaizkit eta ez besterik bage baztergarriak. Geroak esan beharko du.

Besteetan, **da(iz)** forman ezarri dudan **iz** hori ohar mailan ezarri dut. Uste dut orain berriztatu eziña dugula. **Zara** eta **zare** formak holaxe erabiltzen dire Araba aldeko bazter batzutan (esanahi horrexekin) eta oso ondo alkarbetetzen dute beren zeregiña. Gainera, **zare** dugu formarik egokiena eta hizkera arauzkoena; besteak (zaree, zarie, zarete, zerate e.a.) itsusiak eta nahasgilleak ditugu; bi aldiz askotasuna nahiz beste edozein uste erabiltzea hitz batean kontrazentzu bat eta itsuskeria bat dugu. Eta euskera batu bat atondu behar badugu, beste baldintza batzuen artean, hauek ere beharko ditu:

- 1.- Hizkera erabilerraza izatea. Puntu honetan, zentzu bageko izkanbilla sortzen ari da gaur egun. Zenbaitentzat, hizkera erraza = hizkera murrizta da. Hau da, aditz nahiz beste hitz mailetan zenbat eta forma gutxiago izan gauza berdiñak esateko, hainbat errazago dala. Astakeria hau euskera ez ezagutzetik eta erderen (latinkien) atondura getasunetik bakarrik sortu daiteke.

Hizkera bakotxa bere barruan eta beraz ari direnentzat besteak haiekin ari direnentzat bezin erraza da gehien batetan. Eta besteeri buruz, zenbat eta norberarenaren aideago izan, hainbat errazago izango da; eta alderantziz, zenbat eta urrunagokoa izan, hainbat zailago. Adibidez: gaztelar batentzat frantsesa, errumaniera e.a., baita inglesa ere, euskera baino errazago izango dire beti; baina kartueli (georgiar) batentzat euskera milla aldiz errazago izango da beti latinki hizkera bat baino; atondura berdin xamarra dutelako bi hizkera hauek. Eta berdin euskaldun batentzat (ez bata eta ez bestea iñoiz entzun bagea litzaken euskaldun batentzat) kartuli hizkera askoz errazago izango litzake, edozein latinki baino.

Hizkera bat arigaillu bat dugu, edozein makina bezela; bai eta gizakiak duen arigaillurik baliotsuena. Eta bide honetan, zenbat eta lan nahiz neke gutxiagorekin ondoren ugariagoa eman, hainbat arigaillu hobea. Beraz, hizkera baten erraztasuna eta egokitasuna ez dire ezela ere neke urritasunean (hitz murriztasunean), ondoren ugarian eta aberatzean baino; hau da, erabili behar ditugun hitz edo forma bakotxeko (zuzenago, bakotxetik) esanahi eta adierazkizun gehiago atera ahal izatean. Euskerak berak duen atonduraren bidez erraztasun harrigarria ematen du honetarako, eta horretaz baliatzen ez bagara, ez da euskeraren errua, geurea baizik.

Uste dut, gaur egun eta zoritxarrez, latin hizkeren arauz konpondu nahi ditugula euskeraren arazo gehienak; eta honetantxe dugu galbidea. Auzokoetatik zerbait on hartu badaikegu, hartu daigun iñongo lotsarik bage eta on dakigula; eta guretik ere hartu daiela nahi duten guztiek; horixe da gizabidea. Baina albo-etxe-ko filosofiaz geurea erabili nahi izatea, hori, hemen eta edonon, astakeria haundi bat dugu (eta areago, gure hizkuntzen arteko ezberdintasuna ikusirik).

2.- Euskerak duen atonduraz ohartu eta eskaintzen dizkigun giltzak (hitzak eta us-teak erabiltzeko giltzak) ausarki eta zaluki erabili. Honetara heltzen ez baldin bagara, arpelik gabiltz euskera salbatu eta indartu nahian. Gehiago esango nuke: ez duela merezi ere. Izan ere, hizkera baten balioa ez dago bere izenean ez eta ezenbait hitz bitxi eta arrarotan; balio hori hizkera horrek gure uste-arloa erasortzeko, gehitzeko, bereizkatzeko, erabiltzeko eta adierazteko eman dezakegun ahalmen neurrian dago. Eta balio hori ez salbatzekotan, ez du merezi hizkera horren salbatzeko lanak. Gizaki bat abere izatekotan salbatzeak mereziko ez luken bezelaxe.

3.- Euskera batu bat eredu hizkera bat gertatuko zaigu; beraz, gaur ditugun forma guztiak lotzeko eta adikortzeko tresna eragille bat izan beharko du. Eta horretarako, lehen esan dugun bezela, erroetara itzultzea dugu egokiena; baliteke bide bakarra izatea. Ezin gindezke bitxikerietan ibili; gaztelaren arauak hartuz ezin dugu literaturaren “ataxia sakraturik” ere erabili (eta parka bezate ditugun “idi sakratu” guztiek); dugun literatura zaharrena ere atzo goizekoa bezela dugulako; nabari dugun euskeraren historiari gagozkiolarik, gaur goizekoa ere esan daikegu.

Gutxiago erabili dezakegu txokokeriarik; euskalkien arteko garaikeriarik, nahiz eta horretarako jokera kenezina dugun euskaldunok. Jakintzak eta ikerlanak emango digute beharrezko dugun konponbidea eta bide zuzena. Norbaiti irakurri diot arestian, idorokundeen aurrean amor eman beharko dugula. Nerau ere horretan nago eta jokabide bat edo bestea aukeratu beharra dugula uste dut: zientzia bideari jarraiz ari edo ziztrinkerietan murgildu.

Eta **IZ** arloan jarraitu behar dugularik, bidezko iruditzen zait zera esatea: hemen azalki erabili ditugun puntu edo gaiok sakonkiago eta maiz aztertuko ditugula ikerlan honen zatiek zehar; euskeraren atondurak eman daiguen ugaritasuna eta erraztasuna (beraz, neke urritasuna), eta giltza hoiek erabiltzetik atera daikegun ondoren ona, gotorki baieztuko ditugula.

5.- IZ eta askotasuna (askotza zentzua)

Askotasun ustea adierazteko euskerak, ikusi dugun **e** fonemaz aparte, besterik ere erabiltzen du. Azaletiko begirada batean, bizpairu ikusten ditugu:

z (**dator/datorz**; **dot/dod-a-z**; **doa/oaz**; **dijoa/dijoaz**; **dago/ dago-z**, e.a.)

it (**dut/d-it-ut**; **zuen/z-it-uen**; **dugu/d-it-ugu**; **genuen/genit-uen**).

izk (**diot/d-izk-iot**; **zidan/z-izk-idan**; **zenigun/zen-izk-igun**, e.a.)

Ez da behar begi zorrotza ez eta irudimen aberatza ere hiru askotzaile hauek bat bera baino ez direla ikusteko. Hemen gertatzen dan okerkizun bakarra hauxe dugu: noizbait askotasun ustea aditzari itsasteko araua hautsia izan zan eta horretatik sortu dire forma ezberdiñak. Araurik zaharrenekoa lehenengo forma dugu, plural zentzua aditzaren atzenez itsastekoa. Hau euskalki guztietan ageri da eta mendebaldekoan du bere aginte osoa; euskalki horretan beti eta kasu guztietan horrelaxe egiten da.

Begira:

Mendebaldekoan: **dot = dot-a-iz = dodaz**

Gipuzkeran: **dut (det) = d-iz-ut = ditut**

Mendebaldekoan: **dautsut = dautsut-a-iz = dautsudaz**

Gipuzkeran: **dizut = d-iz-k-izut = dizkizut**

Mendebaldekoan: **doa = doa-iz = doaz**

Gipuzkeran: **dijoa = dijoa-iz = dijoaz**

Hemen ageri zaigun arazo hau dugu, iñongo zalantzarik bage, euskerak duen arazorik larriena; hauxe dugu, hain zuzen, euskera zatitan ebakitzen duen ezpata. Ezpai bagerik esan daiteke euskera funtsean bi euskalkitan zatiturik aurkitzen dala; bata askotasun zentzua aditzaren atzenez beti darabilena, eta bestea zentzu hori aditzaren (laguntzailean behintzat) barrura pasaturik duena. Eta bi hauek, behiñenik, mendebaldekoa eta gipuzkera ditugu. Besteak, nire ustez, jokera bion arteko lorriñak ikuturik dire.

Euskeraren okerkizun izugarri hau millaka urte askotatik honakoa izan daiteke eta gaur ez zaio ikusten iñondik ere konponbiderik. Mendebaldeko araua tinko dago bere tokian baina apaltzera doa; gipuzkerakoa, alderantziz, indartzera doa eta gaur egun euskera batuaren eta idazketaren eragiñez guztiz garaille gelditzera doa. Eta batak edo besteak amor eman behar duenez, forma zaharra izango da hil beharko duena.

Erroetara jote araua dugu kasu gehienetan (euskerari gagozkiolarik) konponbiderik egokiena, baina hemen aztertu dugun plural kasu honetan ezin daiteke hori aholkatu; beranduegi da eta, urak bere bidea bezela, okerkizun horrek ere egiña du berea. Gaur gaillendua dugu eta ezin daiteke atzerantz jo.

Eta amaitzeko, ikusi ditzagun ezenbait puntu:

1.- Aditzaren amaieran doanean askotzailea, **iz** ahoskiak **i** galtzen du; hau sarri ger-

tatzen da lehen esan dugun bezela, eta mendebaldeko euskalkian batez ere: **naiz = naz; aiz = az**, e.a.

- 2.- Aditz laguntzailetik aparte, euskalki guztiek atxikitzen dituztela arau zaharreko formak: **datorz, dijoaz, dabilz, doaz**, (eta honek itsatsirik: **goaz** eta **zoaz**, nahiz eta **goa** eta **zoa** aski pluralak izan berez). Beti “hirugarren”, baina lehenen horrek taiutzen ditu besteak.
- 3.- Arau bien nahasketak (askotzaz amaitzea eta bestea) izugarrizko lorriña sortzen duela euskeran, batez ere mendebaldar idazle askotan eta euskalki honen Gipuzku aldeko eskualdeetan. Zenbait honelako forma erabiltzen da, askotzaile biak itsatsirik: **dituz, zituzan, dituguz, dizkidaz, dizkioz, nituzen**, e.a.; eta hauen berdinarau indarrak eragiñez, beste hauek: **direz, gaituz, zaituz, garez**, e.a. Berez pluralak direnak ere berriz askoturik.
- 4.- **Ditut** forman ere **iz=it** bihurtzea gertatzen da, lehenago beste kasu batzutan ikusi dugun bezela. **Dizkiot** forman ageri zaigun **k** hori ahoskera arauak eskatzen duen betegarri bat dugu.
- 5.- **Dot=dut=det** formeri buruz, geroago ariko gara. Hala ere lasaiki esan daikegu, **det** formak ez duela, ez errorik eta ez zentzurik euskal arauetan; beste bien arteko tupusketatik sorturikoa izan daiteke. Beste bi haueri buruz eta beren artean ageri diren garrantzizko bereiztasuneri buruz, geroago jardungo dugu; ezberdintasun hoiek atonketa mailakoak baitira.

Eta arlo honetan kokagarri dugun beste hitz polit bat ere badugu: neurri zentzuaz erabiltzen dan **izari** hitza; dirudienez, lehenago aditza izana dugu eta neurtze zentzua du. Eta neurri zentzua berberau dugu askotza edo pluralean darabilguna.

Bai eta berdinki **anitz** hitza ere, askotasuna adierazteko gaurdaño bizirik duguna.

6.- Gizona, bizia eta gorputza

Orain arte aztertu ditugun arloetan **iz** ahoskiaren zeregiña harrigarri izan bazaigu arean, areago zaigu oraingo honetan; hemen erakusten dizkigun bereizitasun batzuk hauxe adierazten bai digute: lehen hizkeren garatze edo eboluzio bide bat hasierako fonemen formak ugaritzeko bidea izan zala; eta horretarako aurreahoski gehitzeaz erasorturiko forma berriak zeregin haundi bat dutela. Hau beste fonemetan ere agertuko zaigu.

Ikusi ditzagun orain arlo honetan zela betetzen duen zeregin hori, hiru forma bereizi bide direlarik: **iz**, **biz** eta **giz**.

iz

izatz	=	<i>raño</i> iz - atze
izapo	=	<i>raño</i>
itzebagi	=	<i>hendidura de la piel (henderse)</i> itz - ebagi
itzedegi	=	<i>hendidura de la piel (henderse)</i> itz - edegi
izausi	=	<i>hendidura de la piel (henderse)</i> iz - ausi
itzekarra	=	<i>hendidura de la piel (henderse)</i>
iperdi	=	<i>nalga</i>
iztarri	=	<i>garganta</i>
istu	=	<i>saliva</i>
izara	=	<i>sábana</i>
izerdi	=	<i>sudor</i>
izter	=	<i>muslo</i>
iztal	=	<i>calcáneo</i>
iztai	=	<i>ingle</i>
iztegi	=	<i>ingle</i>
iztondo	=	<i>ingle</i>
izpalda	=	<i>espalda</i>
izor	=	<i>preñez (preñada)</i>
zill	=	<i>ombligo</i>
sama	=	<i>cuello</i>
sabel	=	<i>matriz</i>
soin	=	<i>cuero</i>
sonburu	=	<i>hombro</i>
sorbalda	=	<i>espalda</i>
txiz	=	<i>orina</i>
este	=	<i>intestino</i>
estul	=	<i>tos</i>

giz

gizon	=	<i>hombre (gixon)</i>
gixar	=	<i>músculo, magro (gihar)</i>
gizen	=	<i>grasa, gordo (gixen)</i>
gibel	=	<i>higado</i>
giltzurrrin	=	<i>riñón</i>
guntzurrun	=	<i>riñón</i>

biz

bizi	=	<i>vivir</i>
bizitza	=	<i>vida</i>
bixots	=	<i>corazón (bihotz, biyotz)</i>
bieztun	=	<i>hiel (behaztun)</i>
bizker	=	<i>costado, costillar</i>
biri (ki)	=	<i>pulmón</i>
bizkor	=	<i>vigoroso, ágil</i>
biztu	=	<i>avivar, tomar vida</i>
bixuztura	=	<i>turbulento</i>
bizar	=	<i>barba</i>

Badugu hemen zer aztertu eta zela adierazi. Eta lehenen gauza harrigarri bat oharre-razi beharretan gara: **iz** fonemaren indarra hain gotorki ageri zaigun arlo honetan hutsune uler-gaitz bat dugula; buruari dagokion ezertxo ere ez dugula. Beste multso bietako fonemak ar-duratzen zaizkigu buruaren ustea adierazteko eta erabiltzeko euskeran (geroago ikusiko dugu).

Bestalde, badirudi **gorputz** ustean ez zutela sartzen buruaren ustea; hau, burua, zer-bait bereizi izan behar zuen lehen aroetan eta badirudi gorputza saman amaitzen zala; bu-ruak gorputzetik tratuketa aparte bat edo hartzen zuala esan nahi dut.

Hizkuntza gehienetan edo guztietan bezela, euskeran ere gorputz, gorputz-atal, bizi eta hauen inguruko usteak adierazteko hitz berdiñekin egiten da abere nahiz gizonekiko izan. Hala ere **giz** formak badu izaki bitsuon arteko bereizketa bat egiteko sortua izan zaitekeneko itxura edo.

Eta hitz bereizgarrienak zerbait aztertu orduko, aurrerago ere esan dudan zerbait erre-pikatu nahi nuke: mendebaldeko euskeran ageri zaizkigun formeri lehen lekua ernaten badiet gehienetan, beroiek zaharkienak eta atondura osoan hobekien kokatzen direnak iza-ten ditugulako izango da.

Ikusi ditzagun arlo honetan ageri zaizkigun zenbait hitzen bereizitasun ohargarriak:

Iz ahoskiaren gorputz zentzua nabaria eta garbia dugu; ezin argiago ditugu: **izatz**, buztana adierazteko; **iz**-en atzea dugu, hain zuzen, izatza. **Itzebagi**, **itzedegi** eta **izausi** (beste hainbat forma ere badire) gorputza azalez ebagi, edegi edo haustea besterik ez dire.

Iperdi (ipurdi eta eperdi formen tarteko) izena oso polita dugu; kontutan izan be-har dugu euskaldun zaharrek “iperdi bakotxa”, “iperdi bietan” e.a. erabiltzen dituztela. Beraz, **iperdi** hitzak “nalga” bat esan nahi du eta ez biak batean. Honen adierazpen bi-dezkoena haxe litzake: **iz - be erdi**; fonetika arauz **iperdi** dugu beharrezko ondorena, eta esanahiz ezin zuzenagoa dugu: gorputzaren beheko erdia.

Izara ere ohargarria da. Badakit erderatikotzat etsia dagoala; baina ez da aski izen bat beste hizkera baten ere aurkitzea, hartatiko jatorriz etsia izateko. Horretarako, ondo behar litzake ikusi zein hizkeraren atonduran dagoen kokatuago. Edozela ere, ez dugu ahaz-tu behar **zare** (eta **zara, sare, sara**) erderazko “red” ustea adierazteko oroki erabiltzen

direla euskeran. **Burdinzare, otsara, aramuzare, armiarmazare** (tela de araña) aski ditugu burdiñazkotik hasi eta oihalera arteko zare mota guztiak adierazteko gai dugula hitz hori jakiteko. Eta **izara, iz** - zarea (gorputzerako oi hala) dugu hain zuzen.

Izpalda ere **izara** bezelakoa dugu; gehientzat segurki erderatikoa. Hala ere, **soin** hitzetik **sorbalda (soin - balda)** egiten dugu uste bera adierazteko; eta bidezkoago bai eta jatorrago ere izan zitekean **iz - balda** egitea. Latinean “espátula” agertzeak ez du ezertxo ere frogatzen, gehiagorik ez baldin bada. Atzendu ziren egoaldeko euskalkiek zela erabiltzen ote zuten? Ez dakigu, eta ezagutzen ez dugunetik ezin daikegu ezer atera, baina gauza asko argiagotu beharra dugu jarriak ditugun zenbait “dogma” santutan. Edozela ere, mendebaldeko euskalkian **izpalda** eta **sorbalda** pareko izenak ditugu; **sorbalda** giza gorputzarekiko erabiltzen da, eta **izpalda** mendi malden adierazteko (**malda = balda**).

Sonburu (soinburu) gorputzaren gorena adierazteko dugu; burua aparte utziz gero, sonburuak eta sama ditugu gorputzaren gorenak. Eta **sama** hitzari **su** hitzari ezarri diogun araua ezarri, **is - ama** genuke; **ama** fonemak amai ustea dakarkigu; beraz, **sama** gorputzaren amaiera genuke.

Berdin **sabel (iz-a-bel** eta geroago ikusiko dugu); **zil (iz-il)**; hildako **iza** adieraztea bidezkoa dugu; gaur bezela ondotik ebakia ez zuten izango eta beharbada zil zati bat eskegirik erabiliko zuten nahiz eta igarra izan; horrela izanik, **iz** hilla izango zan. Eta **txiz (itx-iz)** gorputzetiko **iza** (ura) izan daiteke. **Soin (soñ, son) is-on** formaren aldakia izan daiteke arau berean.

Ison forma hau ontzat emateko ez dugu ezelako ostoporik ez fonetika aldetik eta ez beste inondik. Alderantziz, badugu eretxi hau tinkoago egiten duen oharbide bat: **iz** abere nahiz gizakien gorputza orokorki adierazteko gai izan bazan ere, bidezkoa dugu gizakiarekiko bereiztasun bat ere noizbait ezarria izan zitekeala pentsatzea. Eta gizakiari buruzko izenetan oso argiro nabari dugu **on** fonema: **jaun (ya-on), gizon (giz-on)** eta aiputan darabilgun **soñ (iz-on)**.

Istu, is-t-ur izan daiteke; eta **estul is-t-ul** bere ukakor zentzuarekin. **Iztarri (eztarri)** ere berdin) aditza izandakoa dala dirudi: **iz-t-ar-i**, gaurko “iruntzi” edo holako zerbait izan zitekean; **este, is-te** (eztarri = iztarri bezela).

Hemen ere **ie** aldaketa sumatzen dugu, beste arloetan bezela. Bai eta garai batetako fonema urritasunak sortzen zuen larritasuna ustekizun ezberdiñak adierazteko; eta horren ondoren bezela ageri zaigun fonema bakotxaren ahoskera aldatze txiki eta ugariak.

Iztarri hitza aditza izana daitekeala esan dut eta ez naiz ari izan zerbait esatearren. Honetan ariz ikusiko dugu gaur izentzat (mota guztietarik) ditugun hitz asko hastapenetan aditz izanak ditugula; batez ere **i** ahoskiz amaitzen diren hitzak.

Eta **giz** multsoari helduz, badugu hemen ere ezer politik; adibidez, **gixar** eta **gizen** izenen zentzuak: **gixar (giyar)** ere esaten da mendebaldean eta **gihar** bestaldean) **arren** gorputzetan nagusi dan zerbaiti esaten diogu; beraz **giz-ar** izan daiteke. **Gizen**, alderantziz, emeen gorputzetan nagusi izaten danari; honen berri baserritar aberedun, arakin eta osagille nahiz biologoek ondo dakite eta ez dugu frogatzen ibili beharrik. (Gorputzetako gixar eta gizenen nagusitasunari buruz ari naiz). Eta **gizen** hitzaren adierazpena hauxe izan daiteke: **giz-eme**.

Gibel ere oso esankorra dugu; abere baten gorputza kanalean zabaldurik begiratzan badugu, berehala ohartuko gara gauza honetaz: arra baldin bada aberea, zati ilunena gibela duela; eta giltzurriak ere, nahiz eta zerbait urdinzkago eta argiago; eta emea baldin bada, gibela eta sabela izango ditu ilunak, eta giltzurriak arrak bezela. (Bihotza ere iluna da, baina biri artean izaten da eta ganera badu izen esankorragoa).

Beraz **sabel (iz-a-bel**, lehen esan dugun bezela) eta **gibel (giz-bel) bel** ahoskiaren eragiñezkoak izango genituzke; **bel** iluntasun edo belztasun zentzuduna dugu: or-bel, ar-bel, goibel, beltz (bel-itz?) ar-pel, us-pel, uz-pal, e.a. Aski argi dugu **bel** hitzaren zentzua, eta era berean **gixar** eta **gizen** araurik jatorrenean moldatuak ditugula dirudi.

Giltzurri eta **guntzurrun** formak zerbait bihurriago ditugu; gorpuatal hauek beren bereizitasunak dituzte: alde batetik, urdiñak izaten direla, eta bestetik, urez beterik (garnuz) izaten direla. Beraz **giz-urdi** nahiz **giz-urdu** izan daitezke.

Baina **giz** ahoskiaren zeregiñik behiñena gizakia adierazten dugu; horretarakoxe sortua dala dirudi. Arlo honetan, euskal hizkerako oiñarri bat dugu hitz hau hartzen duen headuragaitik: gizarte, gizaki, gizaldi, gizabide, gizatasun, e.a., baina **gizon** dugu arlo honetako hitz guztietatik behiñena eta zaharrena. Eta hitz honetan ageri zaizkigun bi atalak, txit garrantzitsuak ditugu; **giz** beste abereengandik gizakia bereizteko lehenengoz ageri zaigun ahoskia dugulako; eta **on** gizakiaren eta on zentzuaren arteko lotura adierazten digulako.

Gizon hitz honen atondurak, eta hitza egiten duten bi atalen alkarkizunak, gizartearen hastapeneteraño garoazki, nire eretxiz; eta **ya-on** eta **is-on** formak kontutan izanez, **on** ahoskiaren aintxiñatasuna atera dezakegu. Hau nabarmendu beharra dugu, izango bai du ondoren; latin hizkeran “bon” hitza ageri dala eta, beste bagerik, gure euskalari jaun askok onen amatzat etsi dute. Hain zuzen, eretxi horixe gure aldizkari batetan irakurri nuen hasi nintzan azterketa hau egiten. Beraz badu ahoski honek, eta berez duen garrantziaz gain, nire sentikizunari buruz ere bere garrantzitzoa.

Berriz errepikatu behar dut eretxi hau: hizkera gaietan jatorriak eta dogmak jarri baino lehen, ikerketa sakonak egin beharretan garela. Ez dut zalantzarik egiten gauza asko (hitz asko) nabarmen direla beren jatorri kontuan; baina edozein hitzi buruz azalki eta lasaiki erabakitzea iñozokeria dugu. Eta geuri komeni zaigunean komeni zaigun bezela erabakitzea, iñozokeria eta norberekeria. “Bon” eta “on” antzekoak direlako, zein dan “ama” erabakitzea, besterik bage, irristabide baten sartzea dugu; benetan “ama” dana bere umearen ume bihurtzeko bidea izan daiteke.

Arestian, autu horixe nuen oraingo euskalari gazte eta dizdirati batekin: hitz bat latinetikoa ote zan ala ez, eta neronek zera esan nuenean, jakin behar litzakeala ea latinean hitz horrek bazuen ala ez errorik, edo eta nondik hartua izan zitekean latinean berak, irrika hasi zatzaidan. “Ondo erabakirik” omen dire gauza hoiek. Zer esan ote nuen, latineari erroak billaka! Jainkoak paradisuari osorik egiña jarri izan balu hizkuntza hori bezela. Hillabete geroago alderantzizko bitxikeria bat entzun diot; hitzño bati buruz, latinean euskeratik harturikoa omen zala; horrela izatea komeni zitzaion beste hizkuntza bateri buruz zebillan lan batetan dizdiratzeko. Eta hitz hori bakar-bakarra zan eta ustekizun garatu bateri zegokiona.

Egozentrokeriak uzteko garaia dugu. Eta dogmak lasaiki jarri ordez, jakintza bide-
etan saiatu eta benetako izakizunak jarraitzekoa ere. Ez naiz aspertuko hau errepikatzen.

Eta orain ikusi daigun **biz** multsoa; badugu hemen ere gure oharmena non saiatu.
Ez dugu zalantzarik **biz** ahoskiak adierazten digun ustekizuna biziarena dugula argi eta
garbi; eta hauxe bera multso horretan ikusi ditugun hitz guztiek dakarkigutena.

Bizi hitzak ez du ezelako adierazketarik behar: taiu jatorrez egindako aditza dugu:
biz-in; eta horrelaxe darabilgu gaurdaño, bere esanahi zuzenean.

Bixots (biotz, biyotz, bihotz) aztertzean nahi eta ezkoa dugu adierazpen honekin
topo egitea: **biz-ots** (sonido de vida); bihotzaren nabarmentasunik bereiziena baitdugu
berak duen bizi-otsa. Eta mendebaldeko formak (bixots, biyotz), fonetika arau horretan
betebetean sartzen zaizkigu. Beraz, ez dugu uste arean adierazpen argiagorik aurki dai-
tekeanik; eta areago, urren aztertuko dugun hitz honen taiukera ikusirik.

Bieztun hitzaren atondura adierazpena hauxe genuke: **bizdun**. Hitz hau aztertzer
heldu nintzanean, osagille bati galdetu nion ea antxiñetan bieztunari buruz zer uste iza-
ten zan bazekien. Eta berehala hauxe erantzun zidan: baietz, antxiñetako zibilizazioetan
bieztuna biziaren gordeleku eta erro zala uste zutela. Beraz, **biz-dun** uste horrexen adie-
razpena besterik ez genuke.

Biri(ki), r = z araua kontutan izaten badugu, **bizi** edo **biziki** izan daiteke; eta biriak
ditugu amasa bide dala, bizitzaren lekukotasunean, bihotzaren pareko.

Bizker (bizkar) hitza adierazteko lan gehiago dugu; alde batetik, gaur hitz hori “sor-
balda” zentzuaz erabilia dalako, eta egunetik egunera zentzu horren esparruaz jabetzera
doagulako. Baina nik gaztetan **bizkerrean** “en el costado” ikasi nuen eta **sorbaldan** (zer-
bait eroan behar zanean) **lepoan** “en la espalda”. “Lepoan ala bizkerrean hartuko dot?”
sarritan galdetu dut. Gaur egun, **bizkar = sorbalda** aldaketak leku guztia bete du. Bai-
na niretzat eta azterlanerako **bizker** = “costado” guztiz baliagarri da.

Eta bide honetatik **biz-ikera** adierazpena bidezkotzat deretxiot, biziaren ikera hor-
txe, zaihetzetan izaten baita.

Bizkor hitza argia eta izkutukizunik bagea dugu: **biz-kor** bizi-indarra nabari zaio-
na, edo bizitasunerako jokera duena, ahazkor, lotsakor, izukor e.a. bezela taiutua dugu.

Bixuztura, biz-urduria izan daiteke; hitz honen esanahia betebetean horixe dugu.

Bizar dugu multso honetako hitzetan misteriotsuena bai eta oso aztergarria ere; zer
lotura izan zitekean antxiñetako gizakien artean bizarra bizi zentzuakin lotzeko? Nik ez
dakit, baina gai aztergarria dugula uste dut. Bestalde **ar** fonema hor dugu eta bizarra arren
gauza da.

Uste dut gorputza, gizona eta bizia ustekizunak adierazteko **iz** ahoskiak duen zere-
giña ukateziña dugula. Eta **giz** eta **biz** formen agertzea oso esankorra dala; gero eta gehi-
go ikusiko dugun hizkuntza araua dugunez, euskeraren hastapenetan ageri zaigun joke-
ra hau ondo nabarmendurik geldidadilla nahi nuke.

7.- IZ eta gogoa

Aurreko atalean esan dugu **iz** ahoskiak ez zuela buruarekiko hitzik sortzen eta hori harrigarria zala. Eta halaxe da izan ere, **iz** formari bagagozkio; baina lehenago esan dugu, eta adierazi ere, hastapeneko ahoskiak zela aldakitzen ziren; eta **iz** ahoskiaren aldaki bat **ya** ahoskia zala.

Eta **ya** fonemaren zeregiña eta eragiña aztertzen baditugu, berehala ikusiko dugu gogo zentzuaren inguru eraikia duen esparrua zenbaterañokea dan; eta zenbat hitz sortu duen, aditz arloan batez ere:

yan	=	<i>comer</i> (ya-in)
yagi	=	<i>levantarse</i> (ya-gi)
yatzi	=	<i>bajarse</i> (ya-etz-i)
yagon	=	<i>velar, cuidar</i> (ya-egon)
yamon	=	<i>atender, hacer caso</i> (ya-emon)
yakin	=	<i>saber</i>
yasán	=	<i>sufrir, soportar</i>
yadetsi	=	<i>alcanzar, conseguir</i>
yaio	=	<i>nacer</i>
yali	=	<i>salir</i>
yalgi	=	<i>caerse la fruta madura</i> (yaulki)
yantza(tu)	=	<i>bailar</i>
yantzi	=	<i>vestirse</i>
yarri	=	<i>ponerse</i>
yarraí	=	<i>seguir</i>
yarrugi	=	<i>encontrar</i>
yason	=	<i>levantar (de buen porte, airoso)</i>
yatorri	=	<i>provenir, descender, ascendencia</i>
yauki	=	<i>atacar</i>
yausi	=	<i>caerse</i>
yauzi	=	<i>saltar</i>
yazon	=	<i>ocurrir, suceder, tocarle a uno</i>
yaun	=	<i>señor</i>
yabe	=	<i>dueño</i>
yabal	=	<i>cobarde, débil</i>
yayo	=	<i>agraciado</i>
yainko	=	<i>Dios</i>
yai	=	<i>libre, fiesta, asueto</i>
yaigura	=	<i>deseo de salir</i>

yaiera	=	<i>inclinación</i>
yaidura	=	<i>inclinación, pasión, índole</i>
yaiura	=	<i>inclinación, pasión, índole</i>
yaurti	=	<i>lanzar</i>
yauzki	=	<i>sajar</i>
yazarri	=	<i>reprender, perseguir</i>
yera	=	<i>cariño, afabilidad</i>

Hitz zerrenda honen gainbegiratu batek ematen digun pentsakizuna hauxe dugu: gogo zentzua baduela, baina indar gehiagokin ageri zaiguna pertsona, “norbera” zentzua dugula; eta “pertsona” eta “buru” zentzuak euskeran alkarri ondo loturik agertzen zaizkigu: “burua jaurti”, “burua hil”, “burua hondatu”, e.a.

Aztertu ditzagun ezenbait hitz:

Yan, yagi eta **yatzi** “norbera” zentzudunak ditugu arean; baina areago ditugu **jau-si** eta **jauzi** hitzak; eta bi aditzok ematen diguten egintza esanahia (bakotxarena) aztertu eta hitz hoiien atondurak ikusiz, funtsean bat bera ditugula nabari da. Atondura hori garbia da: **ya-uts-i** (norkbere burua hutsera egin); eta jaustea nahiz jauzte, horixe bera dugu.

Yαιο, jali, yantzi, yauzki, yaurti, yauki (ya-uk-i) eta **yantza**, hauek ere “norbera” edo “buru” zentzudunak ditugula uste dut; **yaurti** edo **yaurtin** hitzean (**ya-urt-in**) **urt** fonema ageri zaigu, **urten** aditzean bezela (**urt-in**). Onomatopeia antza du **urt** fonema honek.

Yagon, yamon, yakin, yasan, yaretsi, yaiera, yaidura eta **yera (ya-era)** gogo, pentsamen edo izpiritu zentzuzkoak ditugu. Eta askoz nabariago **yabal (ya-b-al)** izpiritu bageko gizakia izango litzake; eta, hain zuzen, horixe esan nahi du.

Yaun (ya-on) “nor” (pertsona) nahiz izpiritu zentzua, biak dituela esango nuke. Jainkotasun ustea ere bere baitan izatea badaiteke. **Yainko** izena Jaungoiko izenaren laburkia ez izatea ere daitekeana da; **ya** fonematik sortutako beste izen bat izan daiteke.

Yabe ere, bere erroetan, **yaun** hitzaren kide dugu; jabetasuna, nagusitasuna eta jainkotasuna urbileko usteak ditugu; eta areago izango ziren gizartearen hastapenetako garaietan. Baina hitz honen atondura ez dugu hain argia; uste dut **ya** ahoskiaren ondorenkia izan daitekeala (genitiboa edo): **ya-b-e-n**. Beste daitekean atondura bat **ya-be** izango litzake, beko (lurreko) jainkoki bat edo esan nahi izan eikeana. Neronen eretxiz, lehenengo adierazpena eikiagoa dugu. Edozela ere, **jabe** hitzak jainkotasun zentzu bat baduela uste dut. **Ya** fonema berau ere, uste dut erroetan jainko izen bat dugula.

Jai dugu beharbada hitzik aztergarriena; gaur egun erderazko “fiesta” hitzaren zentzukide bezela jotzen da; baina hori ez da guztiz zuzena; “herriko jaiak” esatea gaurkoa da; lehen, “festak” edo “San ... egunak” esaten zan. **Jai** hitzaz euskaldunak “libre” ustea adierazi izan du beti: **jaieguna** = “día libre”, **lanean jai** = “asuetu”, **eskolan jai** = “vacación”. Beraz, **yai** hitzak aske izatea adierazten digu.

Eta uste hau areagotzen digun eragillerik ere badugu; alde batetik, **yai** hitza aditz izana dala nabari da; eta bestetik, hor dugu **yarain** aditza (liberar). Eta **yamon** hitzetik **yaramon** sortua dan bezelaxe, **yai** hitzetik **yarai (yarain)** dugu sortua. Aditz hau arras ezaguna da mendebaldean eta bere esanahia erderazko “liberar” dugu; forma askotan erabiltzen da: **yarai, yarain, jarei, jarein** eta **jaregin**; Azkuek hiru atzen hauek bakarrik hartu zituen.

Yarain = “liberar” dugu, beraz **yai** = “liberarse” izango zan, horrelaxe atondua dugulako aditzen esparrua: **itzarri** = “despertarse”, **iratzarri** = “despertar”; **etzin** = “acostarse”, “tumbarse”, **eratzin** = “acostar a otro”, **eratz** = “tumar”; **yaiki** = “levantarse”, **eraiki** = “levantar” (hacer levantar).

Eta hemen ohar bi egin beharrezko ditugu. Bat, **yaramon** eta **yarain** aditzak sortzean **era** fonema eragille hori aditzaren tartean sartzen dala **ya** ahoskiaren atzetik; beste aditz gehienetan hitzaren hasieran agertzen zaigu, baina bi hauetan horrela jokatuz **eramon** eta **erain** formak sortuko zirakean; eta bi aditz hauek baditugu beste zentzu batekin eta **eman (emon)** eta **in** aditzetatik sortuak. Beraz, ezinbestez behar dute **ya** ahoskiari eutsi beren esanahia adierazteko eta beste aditzekin ez nahasteko.

Beste oharra erderazko aditz reflexiboari dagokio. Inoiz irakurria dut euskerak ezintasun bat edo duela reflexiboak egiteko; eta hori, nire eretxiz, ume batek bere ama egiteko ezintasuna izatea bezelaxe da. Izan ere, zela izan daiteke **iratzarri**-ren “reflejoa” **itzarri**? **iratzarri** bai dugu **itzarri**-tik sortua. Egintza kontuan itzartzea iratzartzea baiñon lehenagokoa dugu; beraz, hizkuntza batek eta bere hitz guztiek (aditzek batez ere) gauzen eta egintzen berezko arauak jarrai behar dituzte lehenengo eta behin, eta ordena hori argiro adierazi. Norbera itzarri behar da lehenbizi, beste inon iratzarri ahal izateko; bestela jokatzea, kontrahizkera bat egitea izango litzake. Eta gaztelerako “reflexivo”a, nire eretxiz, kontrahizkeratasunik haundienekoa dugu euskerari ezarriaz gero.

Eta **ya** ahoskiari buruzko atal hau amaitu baiñon lehen, beste ohar bat: hitz batzuetan, batez ere **yar** hasiera dutenetan, y ahoskilagun itsatsi bat bakarrik ere izan daitekeala; esate baterako, **yardu, yarion, yarki** e.a. ez ditut ezarri lerroan. Ez dakit seguruki **ya-ar-du** (beraz errotiko bi fonemak barruan dituala) ala y-**ardu, ar** ahoskiak maiz hartzen duen ahoskera bustitzea izan daiteken. Baina badugu adibiderik: **etzin** eta **yatzi** (ya-etzin); beraz, izan daitezke hemen ere bi formak: **ar-i** eta **ya-ar-du**, aditz baten bi mota bereizi sorturik.

8.- IZ eta ondorenkiak (sortza)

Izatasunaren eta egintzaren, bai eta getasunaren usteeri jarraiz, sortza (generación) izango dugu gizakiak sumatu edo berenaganatu eikean usterik zaharrenetarikoa. Eta ondorenkiak (sortitzak) izan daitezke gure hizkuntzako hitzik zaharrenetarikoak.

Sortza ustea adierazteko **n** ahotsa dugu euskeran nagusia. Sortza uste hau hiru klasetakoa dugu gutxienez: sorketa eta jabetza zentzuak batean dituana, egintza hutsa, eta sorketa sortzailetik ateraz adierazten diguna. Begira:

- 1.- Sortzea eta jabetza zentzukoa: Pedro-**n** estula; beia-**n** adarra; Simon-e-**n** semea; ama-**n** titia (eta ama-**ren** titia).
- 2.- Sorketa egintza hutsa danean: Patxi-**k** esana; lurra-**k** emana; ama-**k** egiña; ura-**k** bustia.
- 3.- Sortua sortzaitetik bereiztia danean: Pedro-gan-**dik** ikasia; lurr-e-**tik** sortua; amagan-**dik** sortua; Jainkoa-gan-**dik** hartua; ezerez-e-**tik** egiña.

Hemen arazo nahasgille bat dugu: **n** ahotsez hastapenetako (eta oiñarrizko) usteki-zun asko adierazten direla euskeraz; **non** ustea (Bilbo-**n**, ha-**n**, buru-a-**n**, mendi-eta-**n**, Lapurdi-**n**, ate-a-**n**).

noiz ustea (amabi-eta-**n**, behin bate-**n**, goiz-e-a-**n**)

ari ustea (ken-tze-**n**, etor-te-**n**, ibil-te-**n**, apur-tze-**n**)

izan ustea, “izan”ari dagokionezko edo buruzkoa (dugu-**n**, da-**n**, dator-e-**n**, digute-**n**, duzu-**n**, dabil-a-**n**, dire-**n**)

igan (iragan) ustea: nintza-**n**, za-**n**, genbiltza-**n**, egoa-**n**

zertarako ustea: etorri dadi-**n**, izan daite-**n**, ikusi dagizu-**n**

N euskeran, hastapenetako ahoskia dugula argi ageri zaigu. Zeregin asko du euskeraren esparruan, gehiegi ere, eta gehiegizko erabilketa horrek nahasketa asko sortzen ditu. Eta ezinbestean, forma ezberdiñak hartzen ditu. Esate baterako, “aman etxea” esaten da, gizakieri buruz **non** ustea soilean ez dalako erabiltzen, **ga(n)** fonema arteko dala baizik: ama-ga-n. **Ga** arteizki hau, uste dut, funtsean **a** bikoitz bat baiño ez dugula; **non** eta nor-e-**n** usteak bereizteko: **aman begiak** (los ojos de la madre), **amagan ziñesten dut** (creo en la madre), **etxeko ardura aitagan da** (el cuidado de la casa está en el padre). Beraz, **ama-a-n**, **aíta-a-n**, izan daiteke, **ama-n** eta **aíta-n** formatatik bereizteko.

Gizakietatik kanpo, bereizi beharra areagotzen da: etxe-a-**n** “en la casa” dugu; eta “de la casa” egiteko, etxe-a-r-e-**n** egiten dugu. Baina plurala (anizkia) dugunean, **eta** anizgillea sartzen diogu **non** ustea erabilteko: etxe-eta-**n** (“en las casas”); eta “de las casas” egiteko, garbian jokatzeko da: etxe-e-**n**; hemen **e** hau, betegarria baiño lehen, askogillea dugu. Funtsean, singulargille dugun **a** eta pluralgillea dan **e** fonemetan dugu gakoa:

mendia-n dago	=	<i>está en el monte</i>
mendia-k du	=	<i>lo ha el monte</i>
mendia-r-e-n itzala	=	<i>la sombra del monte (mendia-n)</i>
mendi-eta-n dago	=	<i>está en los montes</i>
mendie-k dute	=	<i>los han los montes</i>
mendie-n itzala	=	<i>la sombra de los montes</i>

A bakartza zentzuduna eta **e** askotza zentzuduna ditugula onartu beharrezkoa dugu. Bestela, ez dugu iñoiz gauza garbirik lortuko. **Mendi-eta-n** hitzean **-eta-** fonema dugu anizgillea eta ezin du beste **e** bat erabili.

Gizakiekin honela egiten dugu:

gizona-ga-n dago	=	<i>está en el hombre</i>
gizona-k du	=	<i>lo ha el hombre</i>
gizona-n burua	=	<i>la cabeza del hombre (gizona-ren)</i>
gizone-n-ga-n dago	=	<i>está en los hombres</i>
gizone-k dute	=	<i>los han los hombres</i>
gizone-n burua	=	<i>la cabeza de los hombres</i>

Gaur eguneko erabilkeran, alde batean hala eta bestean hola, nahasketa ikaragarria dugu: **a = e**, **-ak = -ek**, eta **-n = -en = -ren**, nahasirik ditugu. Eta badugu arlo honetan erabaki bat hartu beharrik.

N ahotsaren zeregiña ikusi dugunez gero, ikusi dezagun orain **iz** oiñarritik zer “sor-tzen” zaigun:

izen	=	<i>nombre (iz-e-n)</i>
sen	=	<i>juicio, sentido, naturaleza, carácter, instinto</i>
seme	=	<i>hijo</i>
zentza	=	<i>sensatez</i>
zentzu	=	<i>juicio, entendimiento, sentido (zentsun)</i>
zentzatu	=	<i>corregir, volver a la sensatez</i>
zentzordatu	=	<i>perder el juicio, desvanecerse</i>
zentzarazi	=	<i>corregir, hacer volver a la sensatez</i>
senar	=	<i>marido (sen-ar)</i>
senbage	=	<i>fatuo (sen-bage)</i>
senge	=	<i>estéril (sin descendencia) (sen-ge)</i>
senide	=	<i>hermano, pariente (sen-ide = codescendiente)</i>
sentsu	=	<i>juicioso, sabio (sen-tsu)</i>
sein	=	<i>niño, criatura recién nacida</i>
sentzain	=	<i>niñera</i>
semin	=	<i>dolores de parto</i>
seinga	=	<i>estéril, sin descendencia (sein-ga)</i>
sendi	=	<i>doliente, sufriente (sen-ti)</i>
sendixun	=	<i>sensible, delicado de carácter</i>
senti(tu)	=	<i>sentir (sen-t-i)</i>
sentikor	=	<i>sensible</i>
senper	=	<i>esfuerzo grande (actuar con coraje y constancia)</i>
sentimen	=	<i>sentimiento</i>

sendal	=	<i>robusto</i>
senton	=	<i>anciano, filósofo</i>
sentondu	=	<i>hacerse viejo</i>
senkon	=	<i>hábil, quien sabe su oficio</i>
senkondu	=	<i>hacerse hábil, volverse orgulloso del propio valer</i>
sepha	=	<i>cólera, ira</i>
seta	=	<i>obstinación</i>
sendal	=	<i>robusto</i>
sendo	=	<i>fuerte, firme</i>
seiñakor	=	<i>embarazada (seindun)</i>
sein egin	=	<i>parir (las personas)</i>
seindunzia	=	<i>prole, descendencia</i>

Ageri zaigunez, arlo honetan bi ustekizun ditugu, bai eta gotorki adieraziak: bata, ondorentza ustea dugu (descendencia), eta bestea zentza (sentido, pensamiento).

Iz hasierako zer bikain bat badugu (jainko, guraso, nagusi edo hirurotarik), zentza **a-r-e-n** dohai bat genuke; eta ondorentza **a-r-e-ga-n**-dikoa. **Izen** dugu harri bihurturik bezela gelditu zaigun hitz bitxia; eta ez dugu ahaztu behar antxiñetan izakiak eta gizakiak izena zutela izatearen pareko eta adierazle.

Seme, senar, senide, sein, sango, seinga, semin, seiñakor (iz-or), **seindunzia** e.a., berdinbageko adierazleak ditugu: **sen-ar** (arra); **sen-ide** (ondoren-k-idea); **sen-ge** (ondorengorik ez duena); **sen-min** (ondorengo sortzeango miña); **seina-k-or** (iz-or zentzu berbera). (**Izen** hitzetik **sein** sortzea, (**i**)**zon** hitzetik **soin** sortzea bezela dugu: **zen = sen = señ = sein**. Aburu honen sendogarririk onena **senge** eta **seinga** hitzak zentzu berdiñeko izatea dugu.

Eta **sen** zentzuaren adierazle duguna, ez dugu asmatzen ibili beharrik; forma berori baitdugu gaur egun ere jatorrena eta erabiliena: “sena”, “senetik urten”, “senera etorri” e.a.

Baina baditugu hemen ere hitz ohargarri batzu: **sendi (sen-ti, negar-ti eta beldur-ti)** bezela); **sendixun (sen-d-ixun)** ukakor zentzuduna, “sen txarrekoa” nunbait; **senti** (sen-t-i, **ikus-i** eta **yaurt-i** bezela); **sendo (sen-do, on-do)** bezela). **Senbage (sen)** bagekoa). **Sen-timen (sen)** izateko mena). Erderatiko jatorridun etsi eta kitto egiten dutenek badute hemen zeregin berriz pentsatzeko.

Senton eta **senkon** (beraz, **sentondu** eta **senkondu** berdin ohargarriak ditugu; biak atondura batekoak eta funtsean hitz bera dirudite: **sen-on (sen-k-on eta sen-t-on)**; esanahiak dituzte ezberdiñak, baiña hala ere kidekiak; adiñaz sena gehitzen eta ontzen danelako ustetik eratua dirudi **senton** hitzak, eta sena ontzea garbiro adierazten digu besteak, **senkondu-k**.

Seindunzia ez dugu adieraz erraza; baina **sendu** (procrear) eta **senaldu** (fecundar el hombre a la mujer) hor ditugu argigarri. “Seinduntzea” hitzaren forma bat izan daiteke **seindunzia** hori.

Arlo honen azterketak gauza asko adierazten dizkigu. Alde batetik, aspertzeke esaten ari garen eta gero eta gehiago ikusten dugun ahoskien garatzean eta atonketan sortzen zaizkigun fonema berriak eta lauzobideak: **i** ahoskia galtzeak bakarrik zenbaterañoiko itxuraldatzea eragiten dien ondorenkieri (suaren (i)**su** kasuan bezela). Beste batetik, **z = s = x = tz = ts = tx** ahoskilagunei buruz hasieran esan duguna, arlo guztietako leloa dugula. Eta beste batek, euskerako hitz askoren jatorriari buruz berpentsatu beharretan garela.

Bai eta **n** ahotsari buruz zerbait oharrerazi beharra dugu: euskeran dugun ahoski-rik itsaskorra eta irristkorrena dugula bateraki. Hizkera honetan duen gehiegizko ze-regiñaren ondoren izango direla eratasun biok, uste dut. Begira:

itz	=	intz, ihintz (<i>rocío</i>)
harat	=	harantz

a-r-e-n	aie-n
zu-r-e-(n)	
i-r-e-(n)	zu-e-n
ni-r-e-(n)	gu-r-e-(n)

Baina,

zure	=	ze-r-or-e-n
ire	=	e-r-or-e-n
nire	=	ne-r-on-e-n
gure	=	ge-r-on-e-n

Eta sortza arlo honen ikerketari atzena emateko, uste-izenari buruzko daitekean sor-bide bat adieraziko dut: **sor, sortu = izor izortu (i)sortu**. Izan ere, izortzea dugu giza-kiaren sorketarik behiñena eta lehenena. Gazteleraz ere holaxe dugu, “engendrar” eta “generar” bi ustekizunak bateratuz.

9.- IZ eta denbora ustea

Arlo honetan ere ageri zaigu **iz** ahoskia, nahiz eta ez besteetan (orain arte ikusi ditugunetan) bezain indartsu eta nabarikor. Ustekizun hau ez dugu gazteleran bezela eba-tsia eta erabilia euskeran; **asti, aldi** (jatorri berekoak), **garai**, denpora, **tenore, une, aro**, bai eta beste uste batzukin loturik erabiltzeko ditugun hitz asko dugu denbora ustea adie-razteko.

Hala ere badago zerbait:

iñoiz	=	<i>por siempre, jamás</i> (ez batean, baiña hurbilenik)
itxain	=	<i>esperar</i> (itxoin, itxaron, e.a.)
ixtant	=	<i>instante</i>
estu	=	<i>apurado</i>
goiz	=	<i>temprano</i>
garaiz	=	<i>a tiempo</i>

Iñoiz dugu euskeran denbora (noizta) uste esparruan hitzik zaharrena eta gotorre-na; hitz horretatik sortzen zaigu **noiz** bai eta noiztasunari buruzko hitz gehienak. Gaur egun, askok **iñoiz** = “nunca” egiten du; baiña hau bidebagekeria bat dugu; erakontra jokatzeari ere: “nunca” = **iñoiz-ez** dugu, “nada” = **ezer-ez** dugun bezelaxe. Jazoten dana zera da: gaztelerak ez duela erabiltzen iñoiz-en pareko ustekizunik ere, eta itzulketak egitean (erdera patroi dugula jokatzeko baitdugu) iñoizokierietaraño heldu garela; eta **iñoiz** eta **iñoizez** berdinkitatzat itzuliak izan direla. **Bai** eta **ez** berdintzat itzuliak izan balira bezela. (Geroago aztertuko dugu arlo hau).

Iñoiz hitzean ere gertatzen da **i** galtzea (iñoiz) beste arlotakoetan bezela.

Itxain dugu beste hitz bitxi bat, nire ustez formarik zaharrena eta jatorrena; herriak asko erabiltzen du, baiña idazleetan ez du babeslarik. Beste forma batzu (**itxoin**, **itxaron**, **itxadon** e.a. hartu dire eredutzat); uste dut **itxaron** (itx-aro-in) “hacer tiempo de espera”, edo ziurkiago **itx-aron** (**n** itsatsiaz), izan dugula aldaki sortzailea. Badugu beste enplegu bat ere: **iragan** = “pasar” egiten dugu; eta **iragan** bigarren mailako initzia dugula argiro ikusten da; beraz, **iragan** = “hacer pasar” izango zan, eta **igan** = “pasar”, edo arau hobez, **igan** = “pasarse” eta **iragan** = “pasar” (algo).

Eta **igan-aro** alkartzetik **igaro** forma sortu zaigula dirudi; “pasatu” usteari buruz, baditugu: **igaz** = “pasado”; **higa** = “ajar = pasar”; **igain** = “pasar”; **igante** = (?); **igaran** = “pasar”, e.a. Niretzat argi dagoana hau da: “pasar” ustea adierazteko ditugun hitzik jatorrenak “**igain**” (ziberueraz) eta **igan** ditugula. Eta **igaro** eta **itxaro**, **aro** hitzaz nahastuak direla.

Eta **itxain**, **itx-a-in** izatea da bidezkoena. Beraz **itx** noizki bat, denbora adierazten digun ahotsa.

Ixtant iparraldekoeri entzun diet, baina euskal hiztegietan ez zaigu ageri; seguruki, erderatikoa izango da, baina ez du axola gehiegirik nondikoa izan litekenak, zela atondutakoa danak baizik. Eta **ix** fonema ez ote duen jatorria. Jakintza maila batetara heldurik, ez du axola gehiegirik hizkera bat edo bestea jatorria eta “ama” izatea, hitzak zela sortu diren jakitea baiño. Funtsean hizkera guztiak senide izango baititugu (sen-ide).

Estu hitza hartu dut baiña ez du agian lekukotasun argirik; beharbada, ez du denbora zentzurik ere. Bestalde, **iz-t-u** jatorria (denborarik bage) daitekean bat baiño ez dugu. Hori bai, euskeran hitzen hasierako **ez** (es) **iz** ahoskiaren aldaki bat dugu sarritan.

Goiz hastapen gorriko hitza dugu, eta gaur duen erabilketan zentzu bikoitza du; eta bietatik bat, denbora usteari buruzkoa: “temprano”.

Garaiz ere ez dugu batere tinkoa: **garaiz, denboraz, nekez, astiz** e.a. esaten ditugu; eta berdin: **beldurrez, egunez, zaldiz** e.a. Benetan, zelatasuna (nolatasuna) adierazten digu **z** horrek baina sakonean **iz** ahoskia dugu: **ezer = izer, ezela = izela**. Baina hau honela izanik ere, denbora ustea baduen ala ez duen, beste kontu bat litzake.

Edozela ere, **iz** aldi uste esparruan bai eta erroetan ageri dugula argi dago.

10.- IZ beste arlo batzutan

Zenbat eta gehiago aztertu eta sakondu, hainbat arlo gehiagotan aurkituko dugu **iz** ahoskiaren aztarna eta eragiña; bi eratako aldaketak itxuraldatua agertzen zaigu sarritan (**sarri** berau ere (**i**)**sarri** ez ote dugu) ahoski hau: **i** galdurik edo eta **e** bihurturik, eta ez dugu ezagutzen. Beraz badakite honako ikerlanik egitera ausartu daitezkenek.

Orain ikusi daigun bere eragiña ezenbait zentzu arlotan, laburkiro bada ere:

Landaratan:

zugaitz	=	<i>árbol</i> (zuhaitz, zuraitz)
zur	=	<i>madera</i> (zul)
areitz	=	<i>roble</i> (aritz)
urreitz	=	<i>avellano</i> (urritz)
leizar	=	<i>fresno</i> (lizar, lixar, leixar)
zaratz	=	<i>sauce</i> (sahats)
arantz	=	<i>endrino</i>
maats	=	<i>vid</i> (mahats)
...tz	=	<i>terminación de nombre de muchas especies</i>

Nahiko argi ageri zaigu **eitz** fonema (**eitz** mendebaldeko euskalkian eta **itz** bestean, dirudienez) landarentzako izen orokorra edo holako zerbait dugula; zugaizki eta sasaki landarentzako behintzat.

Zugaitz, zur-eitz izan daiteke, zura duten arbola motak izendatzeko; halaxe erabilten da gure artean. Eta **zur (iz-ur** izan daiteke) geroago ikertuko dugu.

Areitz, euskaldunen arbola “santua”, **ar-eitz** dugu (bi aldiz arbola). Areitza ez dugu zugaizki sagratua Gernikakoagaitik. Uztaritzkoa, Gerediagakoa, Abellanedakoa eta euskaldunak batzarrean alkartu ohi ziren batzarategi guztietakoak areitzak ziren, eta guztiak berdin sakratuak. Areitza berez dugu sakratua, leizarra bezela; hau mutikotan ikasi genuen, eta honetaz susmati litzakenak irakurri bezaio Barandiarani.

Areitza antxiñetan, eta gizarte harentzat, gaur egun petrolioa, burdiña, ikatza eta etxagintzarako gaiak batera beste izan behar zan: etxeak, zubiak eta edozer egiteko zura, sua egiteko egurra eta uzta betetzeko ezkurra ematen zizkion. Gaur egun ere horrenbestegaitik edo eta gutxiagogaitik ere “sakratzen” dire zenbait gauza.

Urreitz ere oso garrantzitsua dugu; **ur-eitz** izango du sorbidea eta **ur** ahoskia aztertzen dugunean adieraziko dugu hitz honi dagokiona.

Leizar dugu bigarren zugaitz sakratua euskaldunen artean; eta azalki begiratu, ez du adierazpen logiko bat inondik ere ageri. Izenean bakarrik dugu areitzaren pareko: (1)**reiz-ar**; **ar-eitz** itzulietara dugu leizarraren izena; eta hau ere, bi aldiz arbola.

Urte askoren zehar ez nion adierazketa sakonik aurkitzen leizarraren sakratasunari. Baina behin konturatu nintzan bi motatako leizarrak genituela Euskalerrian: herri bazterretan edonun aurkitzen dugun leizar mota (Donianez ateetan ipintzen duguna) **leizarra**, eta bestea **basaleizarra**; hau mendi goietan izaten da gehien batean eta adarrez eta orritz bestea bezelakoa dugu; baina fruitua du honek ezberdina. Egatxabalak eta usoak joan ohi dire udagoienetan basaleizarretara beren fruitua jatera; bai eta ehiztariak ere, egazti ehizera.

Fruitu horren izaera ikusirik, eta “basa” aurrizkiz egiten ditugun izenak izaki zaharrenegi gelditu ohi zaizkiela oharturik (basaran, basabehi, basakatu, basurde, basamakatz, basaollar, basasagar e.a.) **basaleizar** genuela arazoaren giltza pentsatu nuen; eta zoritsu aurkitu nintzan, berehala lortu bait nuen billatzen nuen adierazketa: Euskalerra honetako herri batean behintzat, orain dala urte gutxirarte, basaleizarraren fruituaz ardua egiten zutela jakitea lortu nuen. Zoriaundi izan nuen hau, galdezka hasi eta berehalaxe lortu bait nuen berria.

Beraz, areitza bezela logikoki dugu sakratua leizarra ere. Arduaren iturri zan zugaitz mota nahitaez sakratua izan behar euskaldunentzat. Eta parkatu ateraldia.

Zaratz dugu beste hitz bitxi bat; **sahats** forma maiteago dute gaur askok, ez dakit nik **h** polit hori duelako ala iparraldetikoa dugulako, baina **zaratz** dugula jatorra, zaharra eta logika sendoz atondua itsuek ere ikusiko dute. Begira: zaratzegiten dire gure baserrietan **zare** mota guztiek; etxeetako “tabike” zareak, sarak eta otzarak, ardientzako zareaskak e.a. Bai eta lurtean mokil hausteko arpel zareak ere. Beraz, **zare-eitz** ez badugu hau, arpelik nebilke lan honetan. Hala ere, onartzen dut **sahats** forma maiteago izateko eskubidea, **buru** esan ordez **gazta** esatekoa bezelaxe.

Arantz, aran-eitz izango da, **arana** bait du fruitua. Gaur egun, **arantz** eta **elorri** izenen arteko nahasketa ikaragarri bat dugu euskalarien artean ere; herri askotan ere badugu nahasketa hori eta horregatik sortzen zaizkigu hainbat izengaizto: “arantza beltz” eta “arantza zuri”; “elorri zuri” eta “elorri beltz”; “elorri-arantza” e.a. Baina elorria “elorri” dugu eta “arantza” arantza. Bi landara motak, gauza bat bakarrik dute antzeko: ez-takak dituztela; eta **eztaka = arantza** egiten dugunez, horretatik datorkigu nahasketa.

Maats (mats), ma-eitz izan behar; ohartu gaiten mahatsetik ardua egiten dala, eta **ma (mama = ardua)** edari senduna dugula.

11.- Eiza

Arlo hau murriztagoa dugu, berez ere gaurko gizartean ez duelako eragin handirik; baina gizartearen hastapenetako zerbait garrantzitsu dugunez, ikerlan honetarako arlo esankorra dugu; hitz gutxi ditugu, baina beraek pisu haundikoak.

eiza	=	<i>caza</i> (iza)
eizatu	=	<i>cazar</i>
izkillo	=	<i>arma</i>
piztia	=	<i>alimaña</i> (pisti)
aiztore	=	<i>ave de rapiña, buitre</i>
aizeri	=	<i>zorro</i>
azkoin	=	<i>tejón</i>

Eiza = iza, bi formak bizirik ditugu gaurdño; uste dut hemen argi ageri zaigula hitzaren atondura: **e-iz-a**. Honetan ere, **e** ahoskia aurre itsatsirik dugu.

Izkillo **hitzaren atondura, iz-gailu** izan daiteke; **gailu** (gallu) = “instrumento”, “aparato” dugu, beraz **iz-gailu**, betebetean “arma” izan behar.

Pizti hitzean **piz** forma ageri zaigu eta hau ere, **biz** eta **giz** bezela, **iz** fonemaren garatze bat dugu.

Aiztore, aizeri eta **azkoin**, aurrengo biak batez ere, pizti ehiztariak ditugu, eta oso esankorra dugu beren izenetan **iz** ahoskia agertzea. Baina ezingo genuke argitu zergaitik izan daiteken, **iza** direlako ala **izatari** zentzuaren emaila.

12.- Aitza

Arlo honetan ere hitz politak ditugu. Begira:

aitz	=	<i>roca, piedra</i>
aizkora	=	<i>hacha</i>
aiztur	=	<i>tijera</i>
aizto	=	<i>cuchillo</i>
aitzur	=	<i>azada</i>
azkon	=	<i>dardo</i>
azpil	=	<i>plato</i>

lñoiz irakurri dut hitz hauexek direla euskeran diren zaharrenak eta baliotsuenak, harri-aroaren lekuko ditugulako. Harri-aroaren lekuko ditugula, bai, ados naiz horretan; garbiro adierazten digute aro haretako errotasuna eta garai haretan euskera bazalako mezua. Baina zaharrenak eta baliotsuenak ditugula, ez da egia, ez eta gutxiago ere. Gailuki hauek dakarzkiguten ustekizunak baino zaharragorik eta errokoagorik duten hitz asko ikusi dugu, eta ikusiko ere, ikerlan hau amaitu baino lehen.

Aitz hitz honetan, **a** dugu aurre itsatsirik ageri zaigun ahoskia; fonema honek zenbait kasutan **e** ahoskiari bere lekua kentzen dio, edo hobeto esateko, bere kide egiten zaigu forma berrien sortze lanean.

Aitzur eta **aitzur** atondura berdiñekoak ditugu: **a-iz-t-ur** eta **a-itz-ur**. Biotan **ur** ahoskia dugu.

Aizkora, **a-iz-k-or-a**, **iz** eta **or** fonemaz atondua dugu; **or ar**-en aldaki bat izan daiteke, baina edozela ere, ugari dugu euskeraren atondura sakonean eta guztiz aztergarri dugu.

Aizto eta **azkon** (a (i)zkon) antzekoak ditugu. Politagoa dugu **azpil** (a-iz-bill; **bil**, bibril (borobil) senaren adierazgille dugu eta hitz honetan egoki betetzen du bere zeregiña.

Guztira, arlo honetan ere **iz** ahoskiaren zeregiña, nahiz eta laburra, oso irmea dugu.

13.- Aizea

Arlorik murrizena dugu hauxe; baina hemen ere **iz** barruan dugu.

aize = *viento, aire*

aire = “ “

Badaiteke hau irakurtzean norbaitzu goragoraka hastea eta erdal hitzekin jokatzeko dudala esaka ibiltzea. Baina nik ez dut esaten zein dugun zeinen ume, hori ez dudalako une honetako ardura. Nik diñodana hauxe bakarrik da: forma hoiak berdin erabiltzen ditugula, eta sen berberaz, eta hortxe direla.

Ganera, **z = r** fonetika araua benetako arau dugunez euskeran, lasai adierazi daitegu **aize** eta **aire** bi formak bat bera ditugula erroetan.

14.- Itza

Hona hemen arlorik esankorrena edo eta pentsarazgarriena. Itza (hitza) dugu giza-kiaren dohairik bereizgarriena, bai eta bere garatzearen bultzailerik behinena. Ikerlan honen zergaitiko eta jomuga ere, hitza dugu.

itz = *palabra*

izkera = *lenguaje*

izkuntza = “

isil = *silencio*

esan = *decir*

Itz (iz) ahoskia zentzu orokorduna dugula esan dut hasieran; eta ikusi dugu zenbat uste adierazteko erabiltzen dugun (jainko, su, argi, ur, aitz, eiz, aniztasun, izate, gorputz, bitzita, gizon, eitz (landare), aldi, gogo, sorketa); eta gehiago saiatuz, beste arlo batzutan ere aurkituko genukela uste dut. Baina hitzaren ustea adierazteko ahoski berau garbi erabiltzea, bai eta huts-hutsean, harrigarria dugu.

Aurretik ikusi ditugun uste eta zentzu guztien lerroari itz ustea ezartea, gorputz eder bati buru egoki bat ezartea bezelaxe dugu. Honek argiro adierazten digu gizakiaren garatzearen ha-

siera, hitza bera dugula; hitza behar izan zuen gizakiak jainkoa izendatzeko eta bere ustekizun guztiak sortzeko, bai eta zelabait izaerazteko. Eta hasiera haretan, **iz!** izan zala gizabere haien ahotik atera zan hots garagille eta aurrerakoietan bat eta ez ahulena, irmeki esan daikegu.

Izkera (iz-k-era) dugu hemen ondorengorik baliotsuena eta zaharrena. **Itz** egiteko **era** adierazten digu, eta noizbait, gizakiek ezberdinki mintzatzen zutela ohartzuz batera sorrerazia seguraski. **Euskera** izena ere, era berean eta ez oraintsu sorturikoa dugula uste dut; geroago ariko gara honetaz, gaur eta aspaldi euskaldunontzat hain ardurabide bai eta kizkabide ere dugun izen itzaldun honetaz.

Izkuntza (iz-kun-tza) aurrekoaren zentzu berekoa dugu; sorketa garaiari dagokionez, badaiteke aski geroagokoa izatea, bai eta daitekeana noizbait zentzu mota berezidunak ere izanak izatea.

Isil, zoragarria dugu bere atonduraz: **iz-il**. Horixe dugu isiltasuna: itz getasuna, (**itz-il**).

Esan, isan formatik aldatua izango da eskierki. Aditz hau jokatzeko erak zerbaite esaten digu:

nik	diot	(diñot)	=	disot ?
hik	diok	(diñok)	=	disok
hak	dio	(diño)	=	diso
guk	diogu	(diñogu)	=	disogu
zuk	diozu	(diñozu)	=	disozu
haek	diote	(diñoie)	=	disoe

Mako arteko jokera formak mendebaldeko euskalkikoak ditugu. Beti bezela, azterlanetarako fidagarriagoak eta hemen ere adierazbide bat eskaintzen digutenak: **diñot = disot**, nahiz eta **s = ñ** aldaketa aski gogorra izan. Baina **disot** formatik diot baino errazago sortuko zaigu **diñot** forma: **disot = dixot = diyot = diñot**. Beste aldaketa **esan** hitzaren hasierako **e** hori **i** izatea, betiko araua dugu. Beraz, hori onarturik, hitz honen atondura hauxe zitekean: **is-a-in** (itz egin), eta **esan** horixe dugu betebetean.

Eta **itz** arlo honi gehitzeko, badugu beste hitz bitxi eta baliotsu bat ere: **itzarri** (itzartu); beronen atondura, oso esankorra dugu eta guztiz argia: **itz-ar-i** (tu); hitza hartu esan nahi duana itsuek ere badakuste. Izan ere, lotan dana **isil** (itz-il) dago hitzik bage, eta itzar-tzean berriz hitzaren jabe egiten da. Daitekeana dugu **iz** (argia) hartze zentzuaren adierazpena ere, baina bestea, itzarena, bidezkoagoa dugula uste dut. Eta hemen argiro ageri zaiguna zera da: funtsean, erroetara joaz, dana bat dugula (itz, iz) argia nahiz hitza, eta ezerezean (gizaberean) tuputz egingo genukela. (Edo egiten dugula).

Eta honaño heldurik, gogora datorkit Bibliako esaera misteriotsua:

“Hasieran **itza** ba-zan,
eta **itza** Jainkoa zan,
ta haregan **bizitza** egoan
eta bizitza argia (**iza**) zan”.

Hitz hauen mezua, hasieran “guztia bat” zala dugu. Eta euskeraren aztertze hone-tatik ateratzen dugun ondorena ere horixe dugu, hasieran “guztia bat” zala, eta “bat” ho-rretatik garatu eta atondu direla hizkerak. Hastapen horretan, guztia (Jainkoa, hitza, ar-gia, ura, izatea, sua, zuhaitza, e.a.) **iz** (itz) dugu.

Itz hitzetik sorturiko ondorenkiak anitz eta gehiago ditugu euskeran, baina aski di-tugu aipaturikoak gure eretxien baitasuna tinkarazteko.

Eta **IZ** ahoskiaren aztertzeari amaia emateko, oharketatxo hau: aztertu ez ditugun beste zentzu arlo askotan ere **iz** fonema izango dugula, nahiz eta itxuraz aldatua. Eta hi-tza esan dudanez gero, begira:

itxura = *traza, figura, imagen* (itz-era)

Noizbait, eta neronek ez bada beste norbaitek ikerlan hau aberaztuko duela esatea ez dugu iragarpen ausarta izango.

4

IN

Egintza (intza) edo ariketa ustearen arloan, eta ezelako zalantzarik bage, **in** ahoskia dugu nagusi.

Gaur egun, **egin = ein = in** izan dala aditz honen garadura uste dute gehienek; baina nik irmeki uste dut bestetara izan dugula aldakuntza bide hori: **in = e-in = egin**; eta eretxi hau sendotzen duten zer asko dugu. Euskaldun gehienek (gaur ere) **in** forma erabiltzen dugu: mendebaldeko gehienek, iparraldekoek eta nafar askok. Aditz forma zaharrenen atondura aztertuz, argiro ageri zaigu **in** fonema izan dala beuren sorterazle. Eta aditz hauen artean, gaur izentzat (zerizen eta zelaizen direnak batez ere) ditugun hitz asko hartu behar ditugu. Eta gainera, **e** ahoskia aurreitsastea hemen argiro ageri zaigun hizkera arau bat dugu.

Uste dut **in** dugula euskeraren esparruan aditzaren sena dakarkiguna, aditza sortetara izan duen ahoskia, eta funtsean aditzaren muiña, erroa eta ama. Baditugu beste ahoskiak ere arlo honetan beren zeregiña dutenak (**uk, gi** eta **ar** ere) baina **in** fonemaren itzala eta eragiña parebagekoa dugu.

Lehenago esan dugun bezela, **in** fonema honetatik, **i** edo **n** bakarrik gelditzen zaizkigu, aditzak sortzen dituen gehienetan. Eta hau beste ustekizuna duen ahoskiak eragiñik. Ahoski hori zelako eraz amaitzen dan, hala hartzen du **in** ahoskitik egoki datorkiona: ibil = ibili, go = e-gon, yago = yago **n**, itzar = itzarr **i**, yaus = yausi, ar = ari, e.a. **Egin** izan bagenu erroetako forma, bestelako aditzak sortuko zituen: **ar-egin = arei = are, itzar-egin = itzarregi = itzarrei = itzarre** izango genituen garadurarik bidezkoenak.

Baditugu ezenbait aditz **in** osorik dutenek, aurrerago agertu dugun bezela: itxain, yarain, zain, gain(du). Eta zentzu erroa onomatopeia bat danean, maiz gertatzen da: zutin, urten (en = in), yaurt in, etz in, e.a.

Gaur aditz zentzua galdua edo erdizkatua duten hitz asko aditzak izanak ditugu eta **in** ahoskia izaten dute aditztasunaren salatari: **xotin** (xot-in), **garbi** (gar-b-i) **zikin**, **xipriztin** (xipriz-t-in), **sarri**, **geldi**, **lodi**, **txarri**, **zuri**, **gorri**, **erren**, **zuzen**, **erri**, **esi**, **uri** e.a. Baina kasu hauetan erraz irrist egin daiteke, euskeran baitditugu atzizkiak ere amaiera berdiñekoak; uste dut **in** ahoskitik bai eta bere zentzutik sortuak ditugula hauek behintzat: **-din** eta **-ti**.

-**din** (semejante, tanto como) atzizkiak “inera” edo egikera (baita izakera) berearen zentzua du: **berdin** (bere-din), **urdin** (ur-din), **garden** (gar-din), **gordin** (gor-din), **lerden** (ler-din), **txaldan** (txal-din), **burdin** (bur-din?), buztin (bur-din??), e.a. Egintza zentzutikoa dugu, baina ustekizun garatuago bat du.

-**ti** (propenso a, -oso) atzizkia ere izakera eta egintza usteak adierazten dizkiguna dugu: negar **ti**, beldur **ti**, izu **ti**, kaka **ti**, gaixo **ti**, basa **ti**, kezka **ti**, susma **ti**, e.a.

“Aditz” izena asmatu zanean, bidezkoago izango zan “initz” asmatu izan balitz. **Aditz** (**adi-itx** uste dut) hitz honek askoz hobeto eta egokiago izendatuko zituen lotura hitzak (iñor, zerbait, edozela, nolana e.a.); geroago erabiliko dugu hitz (lotitz) hauen gaia, baina orain ere adierazi beharrekoa dugu berauek ditugula hasierako usteak (izatasuna, egintza eta getasuna) bakoitxasunean (zer), aldian (noiz), lekuan (non) e.a. lotzen dizkigutenak. Eta hizkeraren **adierazgailurik** behiñenak ere.

Gaur **aditz** izendatzen ditugun hitzak egintza (**intza**) adierazten digute, beraz, “initz” izango zan izenik egokiena eta logika zuzeneko. Edozela ere, erderazko “infinitivo” adierazteko erabili behar genuke gutxienez; maila horretan aditzak “in” zentzua bakarrik duelako, bai eta euskeran rmaila horrek garrantzi haundia duelako ere.

5

IL

Il ahoskiak getasun zentzurik gogorrena du; zentzu arlo honetan, eriotza, iluntasuna, isiltasuna e.a. adierazten dizkigu.

Hona hemen hainbat adierazgile:

il	=	<i>morir</i>
ilun	=	<i>oscuridad</i>
isil	=	<i>silencio</i>
arrail	=	<i>borracho, inerme, abotargado</i>
argal	=	<i>delgado, flaco</i>
makal	=	<i>débil</i>
gal	=	<i>pérdida</i>
itzal	=	<i>sombra</i>
itzali (du)	=	<i>apagar (fuego o luz)</i>
ortziral	=	<i>viernes</i>
ilargi	=	<i>luna</i>
llazki	=	“
ilaundu	=	<i>destruir</i>
ildo	=	<i>madera podrida o muerta</i>
ildura	=	<i>adormecimiento de un miembro, decaimiento</i>
illen	=	<i>lunes</i>
ilor	=	<i>aborto</i>
mazkal	=	<i>débil, decaído</i>

Il ahoski hau fosil bat bezelaxe dugu; hortxe dugu hasierako forma bereberean eta ezelako garadurarik jasan bage. Lehenengoetako garadura dugun aditztea (aditz forma hartzea) ere ez du ezagutu; **in** ahoskiaren itsastea izan ez duten adizki edo zentzu-erro gutxi dugu euskeran; eta bat, berau, **il** dugu. Begira:

il in da	=	<i>ha muerto</i>	=	il da
erre in da	=	<i>se ha quemado</i>	=	erre da
jo in du	=	<i>ha golpeado</i>	=	jo du
yaio in da	=	<i>ha nacido</i>	=	yaio da

Aurrenengo hirurak adiztatze garadura izan ez duten kasuak ditugu nire ustez. **Yaio**, alderantziz, bestelako kasu bat dugula uste dut: **ya-i-o**. **Ya**, aurrerago ikusi dugun bezela, “buru” edo “pertsona” zentzuduna dugu; beraz, **ya-i** izan zitekean jaiote zentzua adierazten zuen lehenengo aditza; baina fonema berberak beste zentzu bat baitzuen, beharrezko zan beste aldaki bat ateratzea. Eta horixe besterik ez dugula uste dut **yai-o** forma.

Hala ere, beste garadura batzu onartu ditu **il** fonema honek: **il-te** (muerte), **il-du** (decaer), **il-e-n** (“de los muertos”, lunes), **ileta** (funeral), **il-arri** (lápida), **il-erri** (cementerio), **il-etsi** (dar por muerto), e.a.

Eta hemen tarte adierazkizun bat ixuri behar dugu; erderazko “muerte” adierazteko, mendebaldean be **ilte** erabilten dala, “egintza” zentzuarekin loturarik baldin badu behintzat. **Eriotza**, beste zentzu batekin erabilten da: iltearen ustea bere hedaturarik zabaleanean (abstracto edo) adierazteko. Azkuek “erio-tze” formaren aldaki bezela ikusi zuen, baina uste dut kale egin zuela; mendebaldean, aditzetatik izenkiak egiteko arau garbiak eta zuzenak ditugu: **in** fonematikoa bada aditza, **-te** forma itsasten zaio beti izenkiak sortzeko: **yaio-te**, **il-te**, **ibil-te**, **ego-te**, **ikus-te**, **iza-te**, **yo-te**, **esa-te**, **etor-te**, e.a.; **in** adizgilea itsatsirik ez duten aditzak ere esparru honetakoak ditugu. Baina aditza **du** edo **tu** adizgilez egina danean, **-tze** forma hartzen du izenkiak: **ken-tze**, **eskon-tze**, **apur-tze**, **ilun-tze**, **gizon-tze**, e.a. Ez da esan beharrik izenkiak egitean eta horretarako atzizkia hartzean adizgilea galtzen duela beti erroak.

Arau hau ondo eta zuzen betea izan da mendebaldeko euskalkian, baina gaur arau hori galdua duten euskalkien hedagaraia dugu eta mendebaldean ere gazteak lauzotik ez dire ateratzen. Eta baditugu kasu bitxiak bertan ere; adibidez, **ziñiztze** eta **ziñeste** formak nahasturik eta zentzu bereko ditugu; baina ez da nabarimen zorrotzegia behar aditz bi ezberdinetatikoak ditugula ohartzeko eta bi aditz hoiek noizbait zentzu berezidun izanakin ditugula: **ziniztu** eta **sinetsi**; **ziniztu**, **zin-itx-tu** izan daiteke (jurar, dar palabra de veracidad) eta **siñetsi**, **zin-etsi** (creer, dar por verdadero).

Eta adierazkizun honen harira joaz, argi utzi behar dugu **erio** aditz zentzuz erabilia izan balitz, **erio-te** forma izango zala beregandiko izenkia eta ez “eriotze”. Behinere ez dut entzun mendebaltarren artean **erio** hitzari adiztasuna erantzi eikean hitzik; beti izen garbi bezela: “eriotza datorkunean”, “eriotzatik ezin igez in”, “eriotza gogorra”, “eriotzan amaitu”, e.a. Baina “ilte orduan”, “ilten”, “ilteko”, “iltera”, e.a. Apaizen kantuetan eta, “eriotzako ordua” sarri erabilia izan da.

Badugu mendebaldean **erion** aditza (manar, gotear) eta beragandik izenkia egiteko, **eriotte** egiten dugu. Baina **eriotza** ez dut uste aditzetiko izena dugunik; **eskontza**, **jaiotza**, **bizitza**, **soldadutza**, **jabetza** e.a. izateak, ez du ezela ere izandako “eriotze” baten

froga indarrrik; alderantziz, mendebaldean argi eta garbi bereizten dire: **jaio**, **jaiote** eta **jaiotza**, **bizi**, **bizite** (edo **bizite**) eta **bizitza**. **Eskontze** eta **eskontza** formak izateak sortzen du hemen lainoa, baina **eskon-du**, **du** fonematiko aditza dugu.

Nire eretxiz, **bizi-tza** eta **jaio-tza** hitzetako atzizki hori eta **gari-tza**, arbi-tza, belar-tza eta abarretakoa ere funtsean erro batekoak ditugu eta adierazten digun ustekizuna bera, erderen eraginpean aski nahasturik eta ilundurik dugu.

Eta egin daigun **il** fonematiko ikusi ditugun hitzen azterraldi labur bat.

Ilun, **il-un** dugula ez nuke esan behar. Hemen dugun korapilloa hauxe dugu: **un** ahoski horren lehenengo esanahia zein dugun, **un** hasierako getasun ustezko fonema ala **une** aldi zentzudun hitza. Teoria huts batean, eta sotilki ganera, bigarren adierazpena egokiagoa litzake. Baina hizkuntzaren hasierako soiltasuna kontutan izanik eta orain arte ikusten dugun bere garatzeko jokeraz ohartuz, lehenena dut jatortzat. **Il-un**, getasun zentzuzko bi ahoskiz atondua (**go-iz** bi izatasun zentzuzkoekin bezela), eta geroago hitz beretik eta bidezko garaduraz, **une** aldi ustetasunaz sortzea.

Bestalde, **ilun** gauaren izena zitekean (izenetatik bat) hasieran. Eta honetatik sortua dugu “ilargi” izena; baina **ilargi** honek zer esan nahi duen erroetan, zein ustekizunen gain sortua dan esatea ez da erraza; “luz de los muertos” ala “luz de la noche” esan nahi digun erabakitzea gaitz da. Aldietako barrenaren hondoan dana bat dugu eta ezinezkoa dugu gaur orduko garaketa ordena zehatz batean ezartea.

Eta **ilargi** hitzetik sortua dugu **ile** (**ilebete** = mes) izena. Atondura berdinekoak ditugu **aste** (**astebete**) eta urte (**urtebete**). Geroago saiatuko gara izen hauen ikerketan, me-rezi baitdu. Euskerak, ikusiko dugunez, bere erraiak ikertzeko oles egiten bezela, edo eta garrasika deiez bezela, bere atalkiak erakutsi izan ditu; baina, dirudienaz eta zoritxarrez, ikertzaileak bitsetan aritu eta nekatu dire eta ez dute ikusi gizaneurriz ikusi zeikeana.

Isil, aurrerago ikusi dugun bezela, **itz-il** genuke. Hau ere hondoko hondarra bezela dugu, hasierako ustekizun eta hitza.

Arrail, **ar-il** dugu; geroago aztertuko dugu **ar** ahoskia, baina adierazi behar dugu honako hitz honetan “espíritu” esan nahi duela. Eta, hain zuzen, horixe da hitzaren esanahia.

Ilazki forman, **azki** zatiak ez du adierazketa erraza; alde batetik, **argi** formaren aldaki izan daiteke; baina baita ere **ila-izki** izan daiteke.

Ilor (**il-or**) **iz-or** hitzakin erkatu beharra dago. Betebetean ditugu senide, bai zentzuzkizunean eta bai ahoskietan.

Ildura (**il-du-era**) argia eta erraza dugu.

Illen geroago aztertuko dugu, atondura gotorrago batean agertuko zaigulako, **ortziral** bezela.

Eta **al = il** (**a-il**) aldakiari buruz zerbait argitu beharra dugu lehenbaitlehen: kasu batzuetan, **al = ar** izan daitekeala eta maiz holaxe dugu; beraz getasunaren orde izatasun zentzuduna.

Hala ere, **itzal** (iz-al), **argal** (aragi-al), **makal** (ma-k-al, geroago aztertuko dugu) eta **ortzirial** (ortzi-r-al) aski argiak ditugula uste dut; eta berdinki **mazkal**.

Gal, ge-al izan daiteke, eta hitz honen ukakortasuna euskeran sakona eta indartsua dugu; baina berdinki izan daiteke **go-al** edo **ga-al**; edozela ere, bere zentzua berdina genuke batetikoa nahiz besteetatikoa izan bere jatorria.

6

AR/UR

Lehen ere esan dut, euskeraren misteriorik haundiena eta hausteko edo argitzeko gaitzena hauxe genuela: alde batetik, oiñarrizko ditugun ahoski bakoetak, berez eta bakarririk, zentzu arlo bakoetara (izatasuna, inketa edo getasuna) osoan eta guztiz adierazten zizkigula. Eta bestetik, zentzu arlo hoietako bakoetara hiru ahoski ageri genituela zeregin berdina betetzen eta bata bestearen lehian.

Ikusi dugu **IZ** ahoskiaren inguru atonduriko multsoan (**IN** eta **IL** ere barneko direlarik) oharketa hori aski baiezdua gelditu zaigula.

Orain aztertzerik goazen multso hau ere, bere bereiztasun guztiekin, multso oso aberatza dugu. Beharbada, aztertu duguna baino lauzotuagoa eta ilunduagoa dugu, baina aldi berean ugariagoa ere bai.

Multso honetan badugu bereiztasun haundi bat. Hasieratik eta aski argiro, bikoiztasun ohargarri bat ageri zaigu.

Beste multsoan ikusi dugun araua: zentzu bakoetako fonema bat multso honetako izatasun zentzuzko arloetan aldatu egiten zaigu: eta bata bestearen lehian bezela, bi ahoski (antzekoak eta sortzez bata bestearen kide dirudienak eta izan behar direnak) ageri zaizkigu: **ar** eta **ur**. Arlo guztietan edo gehienetan ahoski bi hauen dizdira edo itzala aurkituko ditugu; baina zelabait bakoetak bere barrutia edo zeregiña bestearenetik bereizten du; arreta zorrotzez aztertzen baditugu gaiak, bereiztasun hoiek aurkituko ditugu.

Bikoiztasun horri adierazpen bat emateko, badugu hemen egoki datorkion zergatikoa eta oso indartsua ganera: sexuen izatea, ar-emetasunaren ustea. **Ar** ahoskiak arraren edo artasunaren zentzua du betebetean; eta **ur** ahoskiak uruzarena (emearena). Geroago, bai eta arlo askoren zehar ikertuko dugu gai hau.

Eta orain ikusi daigun arloka ahoski hauen esparrua.

1.- Su arloan

ardagai	=	<i>yesca</i>
ardai	=	tea

harjo	=	<i>yesca</i>
arrago	=	<i>crisol</i>
arkola	=	<i>estopa</i>
halga	=	<i>brezo</i>
arba	=	<i>leña con hojas secas</i>
arrapiztu	=	<i>encender, resucitar</i>
arau	=	<i>pala de horno, hierro para asar borona</i>
gar	=	<i>llama</i>
galda	=	<i>fundición, metal candente</i>
galgara	=	<i>hervor intenso</i>

Beste ezer baino lehen, zera adierazi behar dugu: **ar** ahoskiak **al** eta **az** (**as**, **ax**...) formak ere hartzen dituala: **arraiki = alaiki** (alegremente). Eta berdin **ur** ahoskiak ere. Beste fonema batzuekin batzean, bata nahiz besteak aldaki forma asko hartzen dute: **ug-**, **ud-**, **uz-**, **ad-**, e.a.

Suari buruzko arlo honetan, **ardagai** hitz esankorra dugu; **-gai** atzizkiak zertarakotasuna adierazten digu izen horretan; beraz **arda** izan daiteke sua adierazteko erabili izan dan forma bat. **Ardai** hitza ere hortxe dugu eta **arda-i** izan liteke bere atondura; beraz, aditza izana dirudi. Eta honetaz, ezin dugu utzi alde batera erderazko **arder** hitza. Gauza bera ote dire? Eta horrela izanik, zeinek zein erasortu ote du?

Arkola eta **aryo** zentzukideak ditugu bai eta aurrerago aipatu ditugun beste biokin ere. **Arba** ere berdin, talde berekotzak jo geinke eta guztiok **ar** ahoskia dute erroki. Eta hauek bezin garrantzitsu edo areago dugu **alga*** izena; ez dugu ahaztu behar **izuzki** izena ere baduela, baita **iñarra** ere (in-ar); **algaren** sorbide **ar-gai** izan daiteke; gure baso-etako landareetatik iñarra (giñarra, itzuzki, alga) izaten da bereiziki menditarrek sua izioztzeko erabilten duten gaia. Beraz, **ar** eta **arda** izango genituke suaren zentzua adierazten diguten bi fonema; edo zuzenago beharbada, errotiko fonema bakar baten bi forma.

Arrapiztu erderazko “revivir” hitzaren zentzukide dugu; hemen, **arra-** hori erderazko **re-** bera euskeratua dan ala ez jakitea da arazoa. Horrela ez balitz, ahoski honek balio haundia luke; alde batetik “su” zentzua daroalako, eta bestetik “berriz” zentzuarekin ere agertu daitekealako eta uste eboluzio bat nabariko litzakelako. Hemen ere badugu ikerlan zeregiña.

Gar hitza argiro eta garbiro dugu suaren arloko; **galda** eta **galdara** hitzak ere bere sendikoak ditugu. Baina **gar** ahoskia, **ar** ahoskitikoa izanarren, zerbait indartsu eta bereizi dugu ikerlan honetan arakatzen dugun esparruan; beraz, berorri buruz egingo dugu azteraldi bereizi bat.

* **Halga:** (BN, Salazar), brezo, bruyère". (Azkue).

2.- Argiaren arloan

argi	=	<i>luz</i>
arrai	=	<i>brillante</i>
aratz	=	<i>brillante, puro</i>
alatz	=	<i>milagro</i>
arrats	=	<i>parte de la noche, del anochecer a medianoche</i>
artizar	=	<i>estrella matinal</i>
arturratu	=	<i>amanecer</i>
arge	=	<i>eclipse, oscuro</i>

Argi hitza dugu arlo honi baietza emateko nahiko eta aski. Hitz honen atondura (argi) behinenetarikoa dugu; ezelako zalantzarik bage adierazten digu **ar** ahoskiaren amatasuna. **Argi** hitza eguzkiari eman izan zaizkion izenetatik bat izana daiteke; **eguzki** (eguki) eta **izki** (itz-ki) izango lirake beste biak. Edozela ere, hiru hitz hauen zentzua berbera izan ez bada ere, oso urrekoa dugu. Eta hirurotan dugu **gi** (ki) ahoskia. Ahoski honek dagokion izakiaren izatetik zerbait, zati bat edo izakera bat (eta hemendik bere zelatasun zentzua) adierazten digu: **oiloki** (oiloarean), **urdeki** (urdearen), **gantzagi** (honetaz ikerbide politik badugu), **aariki** (aariaren), **ardiki** (ardiaren), **emeki** (emea bezela), **ederki** (edertasunez). Baditugu beste hitz bi (**araki** eta **aragi**) beste arlo batean ikertu beharrekoak, beraz, hartarako utziko ditugu.

Gi (ki) ahoskiaren esanahi behinena gogoan izanik, **ar-gi** hitzaren zentzua zera litzake: **ar** dalakoaren zerbait; eta **izki**, **iz** dalakoaren zerbait eta **eguzki**, **eguzki** dalakoarena.


Arrai hitzak aditz izana dirudi; beharbada, “brillar” zitekean bere hasierako zentzua.

Aratz eta **alatz** gauza bera ditugu funtsean. Argitasun haundi bat eta mirari bat, biak ditugu txundigarri. **Ar-a-tz** atondurak **ar**-en izatasun zentzua duela dirudi.

Arrats hitz arras polita dugu. Bere atondura **ar-atze** dirudi, argiaren atzetik datozen garaia adieraziz; izan ere, horixe dugu arratsa, gaua iluntzen duenetik gauerdiko garaia. Eta **arrats** hitzetik sortua dugu **arratsalde**; **arratsalde** arratsaren aldeko egunaren erdia dugu, **goizalde** goizaren aldeko gauaren erdia bezelaxe.

Egoki atondua du euskerak egunaren zatikatzea (egun eta gauaren aldia). Eguna (argia) bi erditan: **goiza** eta **arratsaldea**. Eta gaua (iluna) ere bi erditan: **arratsa** eta **goizaldea**.

Gaurko kultura askok, aldi hori atontzeko eta izendatzeari buruz behintzat, ez dute lortu euskerak lortu zuen egokitasunik eta logika neurririk. Begira:



- | | | |
|------------|---|-------------------------------------|
| Arratsalde | = | <i>arrastiri, arrastei</i> |
| Goizalde | = | <i>goiztiri</i> |
| Iztantz | = | <i>egunsenti, egunabar, eguantz</i> |
| Iluntze | = | <i>ilunabar, ilunkera</i> |

Eta orain, tartealdi bat egiñez, **gantzagi** hitza aipatu dugunean oharrerazi dugun ikerbidea urratu daigun. Hara: **gantzagi** hitzaz, mendebaldean behintzat, egaztien koipea adierazten dugu. Beste arlo askotan bezela, honetan ere nahaste haundia dugu (tamalez gero eta haundiagoa) baina mendebaldeko baserritarren artean biziz eta ondo ohartuz, zentzuak argiago eta bereziago izanak ditugula ageri da. Gizakienari, **gizen** (gixen) esaten zaio; abelgorrienari, **gixen**, edo erderazkotik, **sebo**; txerrienari, **koipe** beti eta bakarrik; eta egaztienari, **gantzagi**. (**Urdeki** “tocino” zentzuakin erabiltzen da.)

Gantzagi (gantza-gi) **gantza** edo ziurrago **gantzo** errotikoa dugu. Bestalde, euskeraz, egaztietan (beste abelmota askotan bezela) emeari ematen zaio motari dagokion izena; eta bere arra izendatzeko, **ar** hitza gehitzen zaio: oilo / oilar (oilo-ar), arata / arataar (paita / paitaar ere esaten da), uso / usoar. Arau honetatik, “antzar” “antzo-ar” genuke. Euskerak arauak ondo eta zehazki erabili izan dituala ageri zaigu; eta gaur “antzar” izenez abere mota hori izendatzen dugunarren, noizbait bestela izan dala uste dut: “antzo” izango zala emea (eta egazti mota hori) eta “antzar” arra.

Erderak alderantziz jokatzen du: arrari ematen dio izena eta emearena horretatik atara; horrela: “gallo” eta “gallina” “pato” eta “pata”, “palomo” eta “paloma”. Hemen, beste zer bat ere ageri zaigu: “oilo” eta “gallo” hitz kideak ditugula dirudi. Baina orain jarrai dezagun antzar bidetik, eta gantzagiari dagokionez, edonork daki eta argi dago gantzagirik gehien duten egazti motak antzarkiak (antzarrak eta aratak batez ere) direla. Oso daikeana dugu, beraz, “gantzagi” baitan datorkigun “gantzo” hori antzar motaren izena izana dugula. Eta horrela izanik, “gantzo” eta “gantzar” (gantzo-ar) zirakean, gaur (g)antzar bihurturik.

Eta erderaz egazti mota horren izena “ganso” dala oharturik, bagenuke beste denpora izorbide bat. Edozela ere, ez dut uste halabeharrezko edo ustebageko gauza izan daitekeanik. Eta gutxiago bikotxa izatean: “ollo” = “gallo” eta “gantzo” = “ganso”. Baina amekumeka hasi baino lehen inguruak ondo aztertu beharko lirake eta zuhurki ibili. Gainera, gantzagia osasun arloan osagarri oso garrantzitsua izana dala kontutan euki beharrekoa dugu.

Eta berriz argi arlora itzuliz, **ur** ahoskia zenbateraino ageri zaigun arlo honetan aztertu daigun. Ez dugu gauza haundirik:

uztargi	=	<i>arco iris</i>
uztrauku	=	“ “
uztadar	=	“ “

Hirurak zentzu berekoak eta hirurak **uz** formarekin ageri zaizkigu. Batean **-argi**, eta bestean **-adar**, atongille argiak ditugu: **ur-argi** eta **ur-adar** direla uste dut. **-trauku** ilunagoa dugu, baina beharbada “arku” hitzaren aldaki besterik ez dugu; eta “uz-tarku” izan daiteke bere sorbidea. Hemen dugun arazoa zera da, ea **uz** (ur) hori euriaren (uraren) zentzuduna dugun ala beste zerbait adierazten digun.

Ur eguzkiaren izenetatik bat dugula aski argi dugu. Hor dugu **urte** hitza; bere atondura, **ur-te**; **-te**, aditzen izengillea izanez aparte (eta zentzu beretik atera bage), aldia eta

arikuntza batera adierazteko hitza dugu; erderaz “acción y su período” esango genuken zerbait adierazten diguna. Beraz, **urte** (ur-te) “período del sol” izango litzake. Eta horixe dugu hain zuzen urtea. Mendebaldeko bazter batzuetan **ura** edo **urate** esaten da “verano” ustea adierazteko (**ura = urano = verano**, asmakizun polita litzake).

Askok uste du **ura uda** formaren aldaki ustel bat dala. Azkue eta gaurko euskalari gehienak bide horretatik doazkigu; baina nik, aurrerago esan dudan bezela, alderantziz ikusten dut gauza; uste dut, lehen esan bezela; **d** ahotsa, hitzen hasieretan izan ezik, **r** ahotsaren garatze bat dugula. Geroago gehiago aipatzeko ustetan, hona hemen adibide bat: **ura** esaten dan eskualdeetan beretan, **iri** esaten da **idi** ordez. Hau ere ez du gaur iñork onartzen; baina azertu dezagun hitza eta bere ingurua bere sakontasunean eta buru hotzez (beroak, bihotza eta gibela izaten baitdire).

Idia zezena da. Zezen bat era askotakoa izan daiteke: herrena, adargea, buztanmotta, itsua, begibakarra, beltza, zuria, e.a., e.a. Euskaldunek, beren hizkuntza logika biribilez atondu dute; orain gabiltz logika hori ahazturik edo galdurik, arazoari buztana aurkitu eziñik. Baina logika hori euskera guztian ageri zaigu, eta honetan ere agian izango. Eta bide egokitik abiatuz, zer du idiak beste zezenetatik bereizgarri? Honetantxe bakarrik oinarrituko bai ziren euskaldunak izen berri bat ezarteko. Eta idiak gauza bat bakarra (bikoitza dalarik ere) du bereizgarri: barrabilarik bagea dala, irendua dala, hitz batean, zezen irena dala.

Eta **iren = iri** egiten badugu (ir-e-n = ir-i, uk-a-n = e-uk-i bezela) argia dugu ondorena: **iria = castrado = buey**. Badugu hemen beste gauzatxorik ere; irentzeko, gure baserritarrek erabiltzen duten erarik arruntena eta betidanikoa, barrabillak iribiatzea da. Ohartu ondo, barrabillak **iri-bia-tu**. Beraz, nire ustez eta araurik jatorrenean, hitz horren garatzea honelaxe izan da: “**zezen iria**” = “**iria**” = “**idia**”. Funtsean, zerbaitetan bereizten dan zezena.

Oraingoz aski izango dugu **ura** forma **uda** baino zaharrago eta bere guraso izan daikegula onartzeko. Eta **ur** eguzkiaren izena dugula onarturik (ni honetaz tinko nago), ondoren eta ondorenki asko sortu daiteke eta sortuko dire noski noizbaitetan. Oraingoz zertxo bi bakarrik aipatuko ditugu. **Urten** (urt-in) aditza, eguzkiaren urteeraz loturik ote dugu bere sorbidean? **Urt** fonema hori yaurti (ya-urt-i) aditzean eta beste batzutan ere ageri zaigu; eta **zut** (zut-in), zart (zart-in, zat-i (tu)) eta beste onomatopeia batzuen antza du. Uste dut eguzkiaren urtete zentzutik aldentzea ez dala erraza izango.

Agur hitza ere hortxe dugu. Hitz zaharra, misterioz betea ahoskera ederrekoa eta antxinatasunez betea, baina nondikotasuna aurkitzeko oso gaitza. Eta gogora datozkit sorrera hastapenetako fonema garatzeak: **a-iz, d-a-u**, e.a. Beraz, **a-ur** eguzkiaren izate ustea adierazteko eta iragarteko hitza (hastapenetako hitza) izan daiteke. Eta hortik agurkatzeko hitz bihurtzera ez dugu tarterik. Eta **a-g-ur**, fonetika arazo argi bat dugu.

Arge hitza argienetarik dugu, bai atonduraz eta bai esanahiz; **ar-ge**, argirik bage dugu.

3.- Uraren arloan

ur	=	<i>agua</i>
elur	=	<i>nieve</i>
uri	=	<i>lluvia</i> (euri)
uriol	=	<i>riada, diluvio</i>
ugarte	=	<i>isla</i>
uhaitz	=	<i>rio</i>
uharre	=	<i>agua turbia</i>
uharats	=	<i>llovizna</i>
uber	=	<i>gris</i>
zubi	=	<i>puente</i> (zurubi = <i>escala, escalera</i>) ubide?
udol	=	<i>torrente</i>
ugabere	=	<i>nutria</i>
ugalde	=	<i>ribera</i>
ugar	=	<i>nadar</i>
ugaraxo	=	<i>rana</i>
ugats	=	<i>agua sulfurosa</i>
ugersi	=	<i>compuerta</i>
ugolde	=	<i>diluvio</i>
uhin	=	<i>ola</i>
ukuzi	=	<i>lavar</i>
urlo	=	<i>agua detenida</i>
urzintz	=	<i>estornudo</i>
uzabal	=	<i>vado</i>
iturri	=	<i>fuelle</i>
isuri	=	<i>derramar liquido</i>
ubi	=	<i>vado</i>

Arlo honetan, zenbatnahi hitz dugu **ur** ahoskiaren ondorengo; **ur** (agua) aski genuen bera bakarrik ura zentzua duela adierazteko eta baieztatzeke; hala ere, ezenbait hitz hartu ditut erakusbide bezela eta ahoskera aldatzeak eta beste zerbait ere adierazteke.

Elur, hitz oso polita dugu; elurra odeietatik erortzean, eltxo gisan agertzen zaigu, eta dirudienez **el-ur** egiten duen **el** hori hor ingurutikoa dugu. Ez dugu ahaztu behar **el-orri** (el-orri) landare mota bat dugula, sasikia; eta landare horrek duen tasun bereizi bat hauxe dugula: udan (uratean) bere adar eta orriak eltxoz eta euliz beterik izaten direla. Niretzat, horretatik datorkigu **elorri** izena. Gure baserrietan aspaldietatik erabiltzen zuten elorria euliak arrapatzeke: elorri kimu txorta bat sukaldeke aldorrean esegi eta gaue-

an, euliz beterik zanean, sutan erre. Ikusten dugunez, logikak balio du ez gauzak izendatzeko bakarrik, baita gauzak ulertzeko eta erabiltzeko ere.

Adierazpen honen hasitik ariz, badugu beste izen bitxi bat ere: **elge**; leku izenetan eta giza deituretan ugaria dugu. Hitz honen esanahiari buruz aburu eta uste gehiegi dugu; batzuek “avenida” zentzua duela diñoe, beste batzuek “campo cultivado”, eta beste batzuek “no maduro”; atzen honek badu hitzak duen bidezko zentzua, baina hala ere, ezagun ditugun deiturak gogoratuz bakarrik, beste zerbait ere esan nahi izan duela (edo adierazi duela) dirudi: **elgea, elgeta, elgetsua, elgezabal, elgabide, elgaburu** e.a. Nire ustez, landara baten izena izana dirudi, zuhaitzen batena agian. Eta landara mota horren bereiztasuna eltxorik ez izatean izan daiteke.

Uri dugu beste izen zahar eta baliotsu bat. Hitz honen atondura **ur-i**, dugu, beraz aditza izana hasieran; eta bere esanahia (hacer agua) betebetean atxikitzen du izen bihurtarren. **Urizka** (Ilovizna), **urite** (temporada de lluvias) **uritsu** (lluvioso) oraiño bizirik ditugu. Eta **uriol (uri-ol)** ere oso baliotsua dugu; **isol** (iz-ol) ere gaurdaño bizirik izatea, eta bai batak eta bai besteak beren zentzua galdu bage eukitzea, oso indargarri dugu ikerlan honetarako. **Uriol** hitzaren ezenbait kide ere bizirik ditugu: **urol, ugol, uhol, udol**, e.a.

Uhaitz edo **uraitz, ur-a-iz** dugu, bi arloetako ahoskiz atondua.

Uber (gris) **ur-bel** izan daiteke. Izan ere, ur haundia eta iluna dagoanean kolore horixe izaten du. Berdin **uharre, ur-arre** dugu. Eta **urlo**, lo dagoan ura.

Ubi benetan bitxia dugu. Uretatik bidea esan nahi du; zurubi (zur-ubi) bide hori zurezkoa danean izango litzake, eta horixe besterik ez ditugu gure basoetako **zubiak**. Zurezkoak izan baitdire munduko zubirik gehienak arean, eta zenbat eta antxinago hainbat areago. Beraz **ubi = zurubi = zubi**; gaur egun **zurubi** hitzak “escalera” esan nahi badu ere, argi dago zubi zentzuaren sortitza dugula. Eta funtsean, zurubi bat eta zubi bat gauza bera ditugu: leku batetik beste batera igaiteko zurezko bidea. Ibaietan izan edo etxetan izan, horixe dute aldea.

Zubi, zurubi hitzaren laburkeria bat dugu, zalantzarik bage. Eta **ubi** bera ere **ubide** hitzaren laburkeria izan daiteke; **ubide** = “camino del agua” dugu; baina berdinki izan daiteke “camino en el agua” ere; eta baliteke iñoiz zentzu bien jabe izana izatea.

Urdin (azul) **ur-din** dugu, ura bezelakoa. **Din** fonema hori, aurrerago ere aipatu dugu eta adierazpen argikoa dugu. Bestalde ez da harriztekoa **urdin** hitzak eskualdetik eskualdera esanahi ezberdinak izatea: urdin, uber, ulezurizka, azalguri, lizundura, e.a. Urak berak itxura asko hartzen baitdu, noiz, non, zela eta zenbat danez, eta argia eta ingurua zelakoak direnez ere.

4.- Gizakia eta gogoa

Arlo honetan harrigarritzko aberastasuna dugu, batez ere gogoaren zentzu guztiak adierazteko; hemen hartzen ditudanez kanpo, beste asko geldituko dire agian hartu bagerik; baina hitzik garbienak bakarrik hartuz ere, aski izango dugu ahoski hauek euskeran zelako eragiña duten erakusteko.

ara	=	<i>voluntad, intención</i>
ardura	=	<i>preocupación, cuidado, diligencia</i>
aztura	=	<i>carácter, índole</i>
arrandi	=	<i>ostentación</i>
arreta	=	<i>atención</i>
arro	=	<i>orgullosa</i>
arrai	=	<i>risueño, alegre</i>
alai	=	<i>alegre</i>
arrail	=	<i>gandul, borracho</i>
arpel	=	<i>vago, perezoso</i>
arpelzuri	=	<i>muy perezoso</i>
argoi	=	<i>altivo, arrogante</i>
hari	=	<i>intención</i>
arika	=	<i>cansancio</i>
arikaldi	=	<i>período de fatiga</i>
arikatu	=	<i>fatigarse</i>
arkatu	=	“
ario	=	<i>talante</i>
ariur	=	<i>intención</i>
adiur	=	<i>comprensión</i>
arol	=	<i>fofo</i>
arkulo	=	<i>hombre fofo</i>
arbuio	=	<i>desprecio</i>
argedu	=	<i>desaliento</i>
arin	=	<i>ligero</i>
aril	=	<i>pesadez de estómago</i>
alke	=	<i>vergüenza</i>
alkeor	=	<i>tímido</i>
alketi	=	<i>vergonzoso</i>
alki	=	<i>conforme</i>
arraizia	=	<i>júbilo</i>

arraitsu	=	<i>afable</i>
arraitasun	=	<i>alegría</i>
alkortu	=	<i>avergonzarse</i>
arazo	=	<i>ocupación</i>
arbin	=	<i>genio vivo, apuro</i>
armin	=	<i>apurado (apuro)</i>
armindu	=	<i>airarse, inquietarse</i>
arakaldu	=	<i>atontarse</i>
arakatu	=	<i>indagar</i>
ardietsi	=	<i>conseguir</i>
aditu	=	<i>entender</i>
ariguri	=	<i>obsequio</i>
arnes	=	<i>fiero</i>
ari	=	<i>actuar</i>
adi	=	<i>atención, atender</i>
aditu	=	<i>atender, entender, percibir</i>
arrangura	=	<i>cuidado, precaución, queja, remordimiento</i>
arra	=	<i>obstinación</i>
arrausi	=	<i>bostezo, ansia</i>
arrazadura	=	<i>pasión</i>
ar	=	<i>rencor, remordimiento</i>
arren	=	<i>ruego</i>
artu	=	<i>recibir, tomar</i>
artos	=	<i>diligente</i>
artoski	=	<i>cuidadosamente</i>
hartzi	=	<i>orgullosa</i>
arrapatu	=	<i>arrebatar</i>
arteka	=	<i>paciencia</i>
artega	=	<i>desasosiego</i>
artez	=	<i>recto</i>
asmu	=	<i>pensamiento, instinto</i>
asper	=	<i>hastío, aburrimiento</i>
axola	=	<i>consideración, cuidado</i>
azkor	=	<i>brioso, entusiasta</i>
azku	=	<i>energía, empeño, afán</i>
aztu	=	<i>olvidar</i>

axanpa	=	<i>cuita, angustia</i>
asaldu	=	<i>turbación, turbado</i>
asaldatu	=	<i>turbarse</i>
asbage	=	<i>aflicción</i>
aserre	=	<i>ira, cólera, enfado</i>
asbaitu	=	<i>desalentarse</i>
asetu	=	<i>hartarse</i>
asi	=	<i>comenzar</i>
asmo	=	<i>invención</i>
asentu	=	<i>deliberación</i>
urdu	=	<i>parecer</i>
uste	=	<i>opinión</i>
ulertu	=	<i>comprender</i>
urgazi	=	<i>ayudar</i>
urgoi	=	<i>altivo, ufano</i>
urguri	=	<i>delicado, discreto</i>
uxia	=	<i>deseo</i>
ustantza	=	<i>confianza</i>
uzkur	=	<i>retraído, melancólico</i>
uzmo	=	<i>olfato</i>
usna	=	“
uzmatu	=	<i>oler</i>
usnatu	=	“
usain	=	<i>olor (olfatear)</i>
aztertu	=	<i>examinar, analizar</i>
azurriatu	=	<i>castigar, reprender</i>
aztura	=	<i>hábito, método</i>
aztoratu	=	<i>soliviantar</i>
aztiatu	=	<i>adivinar, predecir</i>
aztatu	=	<i>probar, sondear, palpar</i>
arlota	=	<i>negligente</i>
arlote	=	<i>desarrapado</i>
aiurri	=	<i>carácter</i>
urduri	=	<i>inquieta</i>

Non eta zer aztertu badugu arlo honetan. Nahiz eta hitz batzu erderatikoak balire ere, eta beste batzu **iz** ahoskitikoak (iz = ez = az edo iz = uz), hitz urpo ederra dugu hala ere. Eta gogoarekiko zentzudunak bakarrik hartu ditugula hori; gizakiarekiko besteak jarraian aztertuko ditugu.

Zerrendatu ditugun hitz hauetatik banaka bat besterik ez dugu ikertuko, aski izango baitdugu **ar** eta **ur** izpiritu zentzudunak ditugula baieztatzeko.

Ara (ar-a) gogo-a dugu (gogo-a). **Arreta** (ar-eta), ar dalakoaz ariketa. **Ardura** (ar-du-ra) **ar** erabiltzea, erretzeari **erretura** bezela. **Arrandi** (ar-aundi) ezin egokiago dugu oraintxe ere. **Argoi** (ar-goi) aurrekoaren kide eta berdin argia. **Aztura** (ar-dura) esanahi bereiztuak eskatzen duen ahoskatze berezia. Arro (ar-o) **arra** bezelakoa, baina gogoaren garatze eta ugaritze joriak eragiñiko aldaki (o = a).

Argiro ikusten dugu hemen hasieran esaten genuen araua: gizakia bere gogamenean eta ezagumenean indartzen eta ugaritzen joanik, beharrezko izan duela hitzak ere berdindu ugaritzea, eta horretarako sarritan ahoski berberari itxura aldatetako eragin dizkiola zerbait antzeko adierazteko. Gizakia ez da ibili beti ahoski berriak asmatzen; lehengoan gain forma berriak erasortu ditu; ahoski ezberdiñak nahasiz (eta era ezberdiñetan nahasiz) jokatu du, batzutan; ahoskiei beren ahoskera zerbait aldatuz, beste batzutan; eta atondurak luzetuz edo aldatuz, bestetan. Begira: **ara = arra, ardura = aztura, arkatu = argedu = asbage**.

Arrai eta **alai** gauza bera dugu (ar-a-i), noizbait aditza izana dirudi. Eta **lasai** (l-as-a-i) ere hitz beretiko beste forma bat dugula uste dut. Funtsean, hirurak aditz izanak agian, inguruko esanahidunak eta ahoski batetiko garaturak. Holaxe ageri zaigu gaurdaño ere euskeraren errailetan giza-hizkuntzen garabideak zelakoak izan diren.

Arpel oso ohargarria dugu. Mendebaldeko eskualde askotan bi formak erabiltzen dire: **arpel** eta **alper** (alfer). Nik neuk orain arte beti arbuiatu izan dut **arpel** forma, jendeen zakarkeriz sortua zala uste baitnuen; baina ikerlan hau eginez heldu naiz forma horren balioa ezagutzera. **Arpel, ar-bel** dugu. Baina **arbel** hitza badugunez (harri iluna = “pizarra” esanahiz) hemen ere ahoskera aldaki bat dugu. Beraz, zalantzarik bage, **arpel** “ar illuna” dugu. Eta horixe du bere esanahia betebetea. Antzeko hitzak ugari ditugu euskeran: “goibel”, “orbel”, “arbel”, “urbel”. Beharbada, **uber** hitza ere ez dugu besterik **ur-bel** hitzaren itzuliketa bat baino. **Alper, arpel** hitzarena bezela: **urbel = ulber = uber**; erexkizun hau indartzeko, hor dugu **ubel** forma, eta hirurak esanahi berdinkidunak.

Arika, ar-i-ge dugu eta **ar** bagetasuna adierazten digu; **arkatu** ere berdin, **ar-i-ge-tu; argedu** ere berdiña dugu (ar-ge-tu). **Asbage** ere atondura berdinekoa dugu (ar-bage) eta **asbaitu** (as-bagetu) ahoskera aldatuaz. Hitz talde guzti honek getasun zentzudun esanahiak adierazten dizkigu; beraz, euskera ez dugu askok uste bezin ahuldua oraino. Guk atondura zoragarri hau nabaritzeko eta aurkitzeko bezin gordinki badugu behintzat.

Artzi “artsu” izan daiteke (ar-tsu), **ar** asko duana; horixe dugu hitz honen esanahia gutxi gorabera.

Asper, alper bezela, **ar-beletikoa** izan daiteke.

Alke ere atondura garbikoa dugu: **ar-ge**; eta bere esanahia atonduraren pareko. **Al-**

keti (ar-ge-ti) eta **alkeor** (ar-ge-or) arau zuzenekoak ditugu. Hemen ere, **or** ahoskia ageri zaigu, “izor” eta “ilor” hitzetan bezela; ahoski honekin eratua dala dirudi “-kor” atzikiak ere; eta “errukior” eta beste zenbait hitzetan ere ageri danez, badu agian bere esanahi bereizi eta gotorren bat. Ikertu beharko dugu beste garai batean eta zehazkiago.

Azkor ere esanahiz eta atonduraz arau onekoa dugu: **az-kor**, “bizkor” edo “aserrekor” bezela. **Azku, ar-k-ur** sorbidekoa izan daiteke.

Arrail (ar-a-il) getasun zentzuzkoa dugu. Berdin **asaldu (ar-aldu)** eta **arakaldu** (ar-a-gal-du). Baina **arakatu**, ordea, beste zentzu batekoa dugu (ar-a-ka-tu, -ka = “haciendo”). Eta hitz guzti hauen esanahiak atondura haueri dagokienak ditugu.

Aztu (ar-t-u) getasunezkoa, “its-u” bezala. Ohargarri dugu, **artu** = “tomar” ere badugula; eta horregaitik ahoskera aldaketa ageri zaigula; baina biotako **-tu** hori ez dugu gauza bera. Lehenbizikoan **t** betegarri dugu eta **u** gengarri; eta bigarrenean **-du** adizgilearen aldaki.

Armin (ar-min) atondura argiko beste hitz bat dugu; **ar** mindua adierazten digu esanahiz eta atonduraz. **Arbin**, ahosketa aldaki bat besterik ez dugu. Eta **armindu, ar-min-du**.

Arren, bai bere esanahiagaitik eta bai bere atonduragaitik hitz bitxi bat dugu eta oso baliotsua. Baina hitz hau aztertzeke ezinbestekoa dugu **urren** hitzakin kidekatzea; eta beste arlo bateri dagokion gaietan garrantzia dutenez, biak bateraki ikertuko ditugu.

Ar eta **ur** ahoskiak bata bestearen lehian ageri izatea arauzkoa dugu; hor ditugu **ar-goi** (ar-goi) eta **urgoi** (ur-goi) atondura eta esanahi berberakin.

Urdu (ur-du) atondura eta esanahi argienetarikoz ageri zaigu; **uste** (ur-te) ere berdinki, zalantzarik bagekoa; **urguri** (ur-guri) “espíritu tierno” dugu, beraz, atondura arauz zoragarria.

Uzmo eta **usna**, era askotan ohargarriak ditugu; alde batetik **-o** = **-a** ageri digute; bi mugatzaileok, hitz aldakiak erasortzeko berdinki erabili izan ditu euskerak: **ario/aria, arro/arra, arazo/araza asmo/asma**, e.a. Bestetik, **uz = us** (ur) “usain” zentzuaren jabe eta adierazgile dugu: **usain** (us-a-in), zalantzarik bage, aditza izana dugu, “oler” zentzuarekin.

Arrausi (ar-ausi) hitza, bere atondurak adierazten digun esanahi apartakin, bere inguru zemahi gogaketa egiteko berebizikoa dugu. Arrausi egiteak **ar** dalakoa autsi (ausi) egiten duala ohartzea eta bere izenean holaxe adieraztea, gauza bitxia dugu. Hemendik aurrerako hizkuntzalariak euskerari buruz asko arduratuko direla uste dut eta bai aurkituko dutela zertan eta zerekin ari (**ar-i**). Baina gure “erdipurdizko aro” honetako euskalariak zertan ari zaizkigu? Urre mea baten gain eseririk, ea lur gorritzka horrek liliak landatzeko balio ote duen analizatzen, esango nuke nik.

Arlota (ar-lo-t-a) **lo** ahoskiaren zentzuz ageri zaigu; **lo** = “dormir”, “inmóvil”; **lotu** = “quedarse”, “pararse”, “inmovilizar”; **loka** (lo-ge) “móvil”. Beraz, **arlotu** ere logika zuzeneko atonduraduna dugu. **Arlote**, ahoskera aldaki bat eta zentzu aldaki ere dugu.

Ari (ar-i) eta **adi** (ar-i) atondura berekoak ditugu, baina esanahi ezberdinak eragindako ahoskera aldaketaz ageri zaizkigu. **Ari** (actuar) aditza dugu eta **adi** (atención) ere aditza

izana dugu berdin; baina gaur **aditu** (atender, entender, percibir) formak kendu dio aditz lekua. Kasu honetan, argiro ikusten ditugu bi gauza: **ari/adi**, r/d garatzea edo aldaketa alde batetik; eta **adi/aditu** bestetik, hau da, hasierako aditzak zela joan diren adiztasuna galtzen.

Uzkur (ur-k-ur) ere oso ohargarria eta ikergarria dugu; bigarren duen **ur** hori beste hitz askotan ageri dan **-or** bera dugula dirudi. Eretxi hau tinkoagotzeko, baditugu beste lagungile batzu ere, eta geroago adieraziko ditugu. Beraz, lehenago ere aipatu dugun **or** hori (**izor**, **ilor**, **azkor**, “az-ke-or”, aserrek**or** e.a.) **ur** fonemaren aldaki bat besterik ez dugula azaltzea, ikerlan honen ardatzki dugun eretxia gotortzea dugu.

Aserre ere, beste gehienak bezela, polita dugu (ar-erre); euskalduna danak badaki “errea” izatea aserre errazekoa izatea dala.

Ar eta **ur** gogo arloko zutabe ditugula adierazteko, nahiko agertu dugula uste dut. Eta hala ere, horretarik euskeran ditugun hitz erdiak ez ditudala zerrendatu susmatzen dut. Esate baterako, fonema hoiek hitzaren erdian edo amaieran ageri diren kasuak asko eta gehiago ditugu, baina ez ditut aztertu. Begira adibide bezela:

beldur	=	<i>miedo</i>
zakar	=	<i>torpe, rudo</i>
zantar	=	<i>obsceno, asqueroso</i>
zaal	=	<i>correoso</i>
zaar	=	<i>anciano</i>
zabar	=	<i>flojo, abandonado</i>
zangar	=	<i>bravo</i>
zatar	=	<i>feo, deforme</i>

5.- Gizakia gogo zentzutik at

-ar	=	<i>oriundo, originario</i>
arkal	=	<i>mutuamente (uno a otro)</i>
alkar	=	“
aria	=	<i>raza</i>
arolde	=	<i>multitud</i>
arbaso	=	<i>antepasado</i>
arraka	=	<i>descendencia</i>
askazi	=	<i>raza</i>
arkoil	=	<i>quien sólo tiene un testículo</i>
arakoil	=	“ “ “
alkuts	=	<i>nalga</i>
alme	=	<i>ijada</i>
almaka	=	“

arerio	=	<i>enemigo</i>
amasa	=	<i>aliento</i>
arpa	=	<i>calambre</i>
argal	=	<i>delgado</i>
arratail	=	<i>resto, reliquia</i>
aska	=	<i>afónico</i>
arraots	=	<i>alboroto</i>
arranbalo	=	“
uzkaldu	=	<i>atar de pies y manos</i>
urkatu	=	<i>ahorcar</i>
urketu	=	“
urgun	=	<i>cojo</i>
urrats	=	<i>paso</i>
urizki	=	<i>pisotear</i>
urtuxi	=	<i>descalzar</i>
urtustu	=	“
ustiko	=	<i>coz</i>
ustarko	=	“
arrailu	=	<i>hendidura (en el cuerpo)</i>
arrailatu	=	<i>henderse</i>
arrala	=	<i>sabañón</i>
ar	=	<i>macho</i>
urruza	=	<i>hembra</i>
ugetz	=	<i>leche humana</i>
urdabil	=	<i>estómago</i>

Ar jatorri zentzuduna dala ez dago zertan baieztu beharrik; euskeraz bizi danak hori ondoxe daki. Baina euskaldunok gibelkor edo odolkor izanki, hor ibili dire gure zenbait euskalari **tar** dala edo **ko** dala eta burruka bizian. Eta hemen argi adierazi beharra dugu jatorri zentzu edo usteinguru hori adierazteko hiru multsoetako hitzak dituela euskerak; eta bakotxari bere zentzu motazka emanik, hirurak erabiltzen dituela: **ar** (dar, tar), **go** (ko) eta **sen**.

Jakina, hitzak ahoskatzean euskerak bere arauak ditu, eta gehien batean ondo erabiliak izaten dire. Eta **ar** honoko zentzu honetan erabilteko, badire arau batzu, baina ez dire argiegiak edo gaur nahasirik ditugu; adibidez, **-dar** (...-d-ar) noiz erabili argiro dakigu: **n** eta **l** ahoskiz amaitzen diren hitzetan: **lrun-d-ar**, **Ataun-d-ar**, **Errexil-d-ar**, **mendebal-d-ar**. Bai eta, Donostia/**donostiar**, Araba/**arabar**, Markina/**markinar**, Azpeitia/

azpeitiar (iruinatar eta holakoak berrikerizkoak dirudite). Baina, Durango/**durangoar** (durangar), Otxandio/**otxandioar**, Aramaio/**aramaioar** eta Bilbo/**bilbotar**, Ermu/**ermutar**, Zeanuri/**zeanuritar**, e.a.

Eta beti: Eibar/**eibar-t-ar**, Zarautz/**zarauz-t-ar**, Berriz/**berriz-t-ar**.

Hemen, araubide antzeko zerbait badugu: hitzak “kontsonante”z amaitzen badire, **l** eta **n** direnetan **-d-** erabilten da, eta besteak direnetan **-t-**. Eta “bokal”ez amaitzen direnetan **ar** bakarrik; ganera, hitza **-a** ahotsez amaitzen danetan, **a** biekin bat bakarra egiten dalarik: **Gernika-ar = gernikar**. Beste lau bokaletatik batez amaitzen diren hitzak ditugu ilunkorrako: Abando/**abandoar**, Bilbo/**bilbotar**, Yurre/**yurretar**, Ubide/**ubidear**, Oina-ti/**oiñatiar**, Alberdi/**alberditar**.

Funtsean, bokalez amaitzen diren hitzetan **-ar** zuzenean (ahots itsasgilerik bage) erabiltea da arauzkoen; zenbat eta zaharrago diren erabilkerak, edo euskaldunago lekuak, hainbat gutxiago erabilten da **-t-** hori. Ganera, ondo ohartuz, zera nabari daiteke: ez dala hitzen amaierako ahotsa bakarrik (bokala) arauak ezarten dituana; silaba zelakoa dan ere garrantzitsua dugula, eta atzenaurreko silabek ere beren eragiña dutela dirudi.

Ar, go eta **sen** alkarren lehian ditugunekoa geroago aztertuko dugu, eta orain zerrendatu ditugun ezeinbait hitz aztertu ditzagun.

Arolde (ar-olde); **olde** multso haundi zentzuduna dugu; **ol** (uri-ol, is-ol, urki-ol, e.a.) bakarrik ere zentzu horrekin ageri zaigu; **olde** forma badaiteke **ol-te** izatea. Dana dala, **ar-olde** hitz oso argia dugu eta **ar** = gizaki adierazten digu.

Aria arraza zentzuduna dugu. Eta berdinki **askari** (ar-azi); “arraza” erderatikoa dugu, baina begira zer gauza bitxia izango genuken hitz horren atondura adierazteko honela egitea: **ar-azi-a**. Irmoki uste dut, bitsetakeriak alde batetara utzirik, latinaren arbasoetara ere jo behar genekela gauza hauek argitzeko lanean.

Arkal eta **alkar**, bi eratara erabiltzen da; bata bestearen itzuliketa dugu, baina ez da erraza zein dugun forma jatorragoa esaten, atontzen duten bi zatikiak bat bera ditugulako funtsean: **ar-k-ar**. Gizaki bat besteari buruz adierazten digu, eta horretarako gizakia bi aldiz aipatzen digu.

Arbaso (ar-b-aso) aztertzeko, **guraso** (g-ur-aso) edo **buraso** (b-ur-aso) eta **asaba** (as-aba) ere kontutan izan behar ditugu; hirurotan ageri zaigu **as** ahoskia, eta nahiz **ar** jatorrikoa izan, badu bere zentzu sakona (edo zentzu sakonak). **Asi** (as-i) “comenzar” dugu; **asko** “mucho”, eta **aski** “bastante”; **azi** (as-i) “simiente” eta “crecer”. Hemen, zentzu zabal eta garatze haundikoa dugu: alde batetik hasiera ustea dugu, bai eta haziarena ere, eta bestetik haztearena, haunditzearena eta askiarena eta askoarena, guztia alkar loturik. Eta hor ditugu **itsaso** (iz-aso) eta beste zenbait hitz. Baina orain **ar** ahoskiaren giza zentzuari gagozkio, eta **arbaso** oso garrantzitsua dugu arlo honetan. Ganera **ur** ere zentzu berean ageri zaigula ikusten dugu (eta berdinki **aba**).

Arraka ere jatorri zentzuduna dugu, eta **ar** ahoskiaren gain atondua dago. Eta **-ar, aria** eta **askazi** hitzen kide dugu.

Arraots (ar-a-ots) gizakien otsa genuke; beraz, atondura eta esanahia bat datozkigu.

Arkoil eta **arakoil** bat bera ditugu; eta bere atondura, **ar-soil** (ar-bakar) dala dirudi. Beraz hemen **ar** barrabil zentzuduna dugu. Baina **barrabil** (b-ar-a-bil) ere erro bere-tik sortua dala dirudi; eta **bil** (biribil = borobil, aizpil, gurpil) “redondo” edo “esférico” zentzuduna dugu. Bai eta, gaian ari garenez, ohartxo bat egiteko tentaldia dut. **Billuzik** hitzaren nondikoa adieraztean, euskalari gehienek, ezelako zalantzarik bage, “billo hutsik” dala diñoskue. Baina nik badut zalantzarik, eta badala horretarako bidea uste dut. Begira: ulea (billoa) buruan du gehienik gizakiak eta aurpegian ere gizonak, eta beti agerian (txapelaren baimenez) erabili ohi da; beraz, logikaren adierazle izan ditugun euskaldunek ulea baino beste zerbaitean ezarriko zutela billuztasunaren sinboloa uste dut. Gizakia tximinoki uletsua zaneke garaietako sinbolismoa izan daiteke, baina badugu beste adierazgarri bat eta ez txantxetako: “bil hutsik”; kontutan hartu behar dugu **billuzik** esatean ez dugula pentsatzen besoetan, zangoetan, sorbalda eta bularretan, gorputz osoan baino eta gorputzeko izorgailuetan bereiziki. Erdaldunak gaur “en pelotas” esaten dutenean, “bil hutsik” esaten dute betebetean.

Ar gorputz zentzudun ere badugula baieztatzen digun hitza **alme** dugu. Izan ere, gorputzak duen me (mehe) unea, **alme** (ar-me) izenez aipatzen duguna da; ganera, baditu beste ezenbait izen ere: **meaka**, **alnaka**, arkuiz, e.a. **Arkuiz**, **ar-k-uts** dugu, beraz, ezin ego-kiagoa. **Meaka** eta **almaka** hitzetan ageri zaigun **ka** (edo **aka**) hori, zentzu ilunekoa dugu; eta berorri buruz daitekean sorbide bat **gar** ahoskiaren aldaki bat izatea da. Geroago aztertuko dugu.

Ur ahoskiaren zentzuak ere **ar** ahoskiarenen pareko ditugu: **urketu** (ur-ge-tu) izan daiteke; erderazko “ahorcar” hor dugu eta bata bestearen jatorrikoak ez direnik ezin daiteke esan; hala ere, ez dakit zein zeinen guraso izan daiteken; **urketu** (forma hau men-debaldekoa dugu) eta **urkatu** gauza bera ditugu. Eta hitz hau erderatikoa ez baldin bada, **ur-ge-tu** atondura berebiziko esanahiduna genuke; kasu honetan, **ur** bizia genuke eta **ur-ge-tu** biziaren **gen** tzea.

Uzkaldu ere hor dugu; eta **ur-gal-du** atonduratikoa dirudi; hitz hau euskal erro-tikoa baldin badugu, **urketu** ere berdinki behar litzake izan; edo bestela biak erderatikoa-ak; zentzuz eta atonduraz, hitz bi hauek algarri ondo loturik ditugu; beraz, erro batetikoa-k ditugula uste dut.

Ur ahoskiaren oin zentzua argia dugu: alde batetik, **urrats** (oinkada bat egitea), eta **urizki** (oinez zapaltzea) ditugu; baina atondura argiagodunak ditugu **urtuxi** (ur-t-uts-i) eta **urtustu** (ur-t-uts-tu). Bi hitz hauen esanahiak eta hemen ematen ditugun atondurak badute daitezken eraso guztiei eusteko gotortasunik. **Ur = or** garatzea, euskal fonetika-ko arau bat dala dirudi. Beraz, **ortutsik = ur-t-utsi** k eta **orpo** eta **orkatilla**, **urpo** eta **urkatilla** genituzke.

Adierazketa honi indar gehiago emateko, badugu **urgun** hitza ere; bere atondura **ur-g-un** dala dirudi, eta **un** getasunezkoa dugu. Eta **ustiko** eta **ustarko** ere, beren zentzuz eta atonduraz, oso baliotsuak ditugu.

Urdabil hitzaren zertatikoa zalantzakorra dugu; **urdabil** (ur-dail) gorputzaren zati bat dugu, baina hitz honen atonduran (ur-da-bil) ageri zaigun **bil** horrek beste izanbide bat nabareraztan digu; **ur** ahoskiak dituen zentzuetatik bat fruitu zentzua dugu; izakizun

hau geroago adieraziko dugu, eta orain urdabilari buruzkoarena adieraztea dagokigu. Gizakiaren janari behinena urra baldin bazan (eta hala dirudi), **ur** hori **biltzen** zan lekua **ur-dabil** izatea, euskeraren arauzko gauza. Beraz, hitz honetan ageri zaigun **ur** fonemak ez luke gorputz zentzurik, fruitu zentzua baizik.

6.- Ar eta urruza

Hemen adieraztera goazen arlo hau, berau bakarrik, aski litzake zenbait ikerle edo pentsatzaileentzat liburu mardul bat betetzeko. Guk arinkiago ikertuko dugu, baina ez diogu ukatuko berak duen garrantzia; eta esan behar dugu garrantzi hori behinbehinekora dala ikerlan honetan adierazi nahi dugun hizkuntza eta izantza mundua (gizakondaira, funtsean) adigarri eta ulerterraz egiteko.

Artasuna dugu **ar** fonemaren esanahi behinenetarik, eta honetaz ez dago argiagotze beharrik. Bizidun izaki guztietan (ar-emeak direnetan) **arra** (ar-a) dugu emea izortzen duen kidea. Eta orokorra da **arra** hitzaren esparrua. Gizakiak, beretzat eta lehena-roetatik berakin izan dituen abereentzat bakarrik irazan ditu izen bereziak, **arra** hitza erabiltzerik behar ez dutenak: **gizon, zaldi, aker, ahari** eta **zezen**. Beste guztiak ar edo eme izatearen adierazpena behar dute. Honetatik, itzalezko ondorenak atera daizkegu, baina gaurkoz gaia bizkortu beharretan gara.

Eta **urruza** hitza aztertzean, nabarimena eta zuhurtasuna oso beharrezko direlarik ere, artasun zentzuakin dituen loturak eta berdintasunak aztergaikide erabiltzea ongari zaigu.

Urruza hitzak emetasun zentzua du betebete; baina izaki mota gutxiri buruz erabiltzen da; hain zuzen, arrak izen bereziak dituzten izaki motakin bakarrik: gizaki, behiki, behorki, ahuntzki eta ardikiakin bakarrik. Harrigarria, baina halaxe da gaurdaño ere euskaldunen artean; euskerak gauza harrigarri asko badu ere, kasu honetan eta, ageri dan aldagaiztasun hau dugu harrigarrienik. Zenbat milla urte ote dire behia, behorra, ahuntza eta ardia gizakiak bere mendeko egin zituela? Beharbada, gaur ez gara erexkizun hori egiteko kapaz ere; baina euskeraren atondura hau garai haretakoa dugula adierazteko lain bagara.

Urruza hitza gizakieri buruz erabiltzen da, baina gero eta gutxiago; eta esan ditugun beste abere motari buruz asko erabiltzen da. Orokorki, abere mota hoietako eme guztieri buruz esan daiteke; baina gehien batetan (ia beti) abere gazteeri buruz, umerik egin ez duten edo eta arrakin harremanik izan ez duten emeeri buruz esan ohi da. Eta bereiztasun honetatik daiteken ondoren bat atara daikegu: **urruza** hitz honen atondura **ur-utsa** izan daitekela; eta abere gaztea hutsa izanki, bere esanahia eta atondura (honetan ere) bat datozkigula.

Beraz, **ur** emetasun zentzuduna dugu; nik uste, hasiera zaharrekoa dugula, hizkeraren hasierakoa. **Eme** hitza beste garatze batetako eta beranduagokoa dugu agian. Nire ustez, garatze bide hauxe izan daiteke eme hitzarena: **aba = ama = amea = emea**.

Ugatz forma hiztegietan eta gehiago erabilia eta hedatua dugunarren, mendebaldeko leku askotan **ugetz** forma erabiltzen da; eta **ugezaba, ugezama, ugezalaba** e.a. Hone-

tatik atera daikegun ondorena atondura honen eskaintzea dugu: **ur-ez**; **esne** hitzean ere **es** fonema hori hor dugu; beraz, lotura badugu bi hitzen artean; eta esanahia ere berdina dutenez, **es** ahoskia dugu dirudienez, hemen esne zentzua adierazten diguna (eta iz fonemaren aldaki, beharbada). Beraz, **ugez** (ur-ez) emakumearen esnea dugunez, **ur** emakumea izendatzeko erabilia izana dala dirudi.

Eta beste lanketa batean aztertu eta lantzeko gai egokia genukenarren, ohargarri iruditzen zaigu hemen ageri zaigun izanketa bereizia: ardiki, ahuntzki, behorki eta behikieri euskal munduan ematen zaien tratukera; gizakiakin famili antzeko zerbait osatzen dute. Dirudienez, lau abere mota hauexek dire gizakiak lehenen menderatu zituenak eta bere bizibiderako lagungarri aurkitu zituenak. Urdea, ursoa, oiloa eta aratak ere gizakiak aspaldietatik erabiliak direla dirudi; txakurra geroagokoa izan bide da, eta katua euskaldunen artean oraintsukoa izan daiteke.

Funtsean, aipatu ditugun lau abere motak **urruza** hitzaren esparruko izatea eta laurak ar eta emeentzat izen bereziak izatea ez da halabeharrez gertatua; ganera, gaur ere, gure aberedunek maiteen dituen aberemotak ditugu (txakurraren baimenez). Urdearekiko tratukera, hizkeraz eta bestela, ilunagoa dugu. Eta astoa, behorraren ordezkoko apal bat besterik ez dugu. Beraz, gizakiaren inguru urrenean ageri zaizkigun abere motak bakarrik hartu dute **urruza** tratukera; honek esan nahi diguna, hitz hori benetan zaharra dala; eta **ur** fonema hizkeraren hasierakoa dugula.

Geroago ikusiko dugu lenizkera edo fonetika multso bakoetak abere eta izakien munduan duen berezitasuna, eta orain, arlo honi buru emateko, jakingarri duen alderdi bat aztertu daigun.

Euskal jainko izenetan, eta gutxi/asko estalirik, **AR** eta **UR** ere baditugu. Dagokion arloan adieraziko ditugu esaketa honi buruzko argibideak eta erexkizunak. Eta orain egin ditzagun zenbait gogaketa gai bereizi eta garrantzitsu honi buruz.

Beste multsoek ere beren jainko izenak utzi dituzte euskal munduaren baitan (kultura gehienetan ere badaiteke); baina bakar zentzu nabari batekin markatuak balira bezela (**yaun**, **yabe**, **yaingo** eta **egu**). **Urtzi** (**urritz** formaren itzuliketa agian) bi multsoetako fonemaz atondua dugu, baina honek ere bakar zentzua duela esan daiteke.

Baina AR eta UR izenen erraiak eta eraginak aztertzean, eta goarmen zorrotzez begiraturik, bikote zentzu batekin erabiliak izan direla dirudi. Beraz, beste multsoetatik monoteismo uste bat jarauntsi badu ere euskal kultura zaharrak, multso honetatik biteismo edo dalako bat jarauntsi behar izan du. Jainkoa ere bikote bezela, arra eta emea bezela etsia zala dirudi multso honetako gizakiengan.

Ustekizun hori oso bidezkoa dugu. Jainkoaren (edo jainkoen) izatea eta zelakotasuna gizakiak berak ulerbidetu eta norbaitu behar izan ditu, eta horretarako bere burua eredutzat hartu izan du. (Gizakia jainkoaren eredutikoa dala esatean, jainkoa eta gizaldia biak eredu berekoak direla esaten da). Beraz, gizakia bera ar eta emez (urruzaz) osatua izanik, jainkoa ere era berdinean osatutzat ematea, bidezkoenik dugu.


7.- Denbora arloan

urte	=	<i>año</i>
aro	=	<i>época</i>
arte	=	<i>período</i>
aldi	=	<i>tiempo (de acción)</i>
asti	=	<i>tiempo (libre)</i>
artomin	=	<i>tiempo reciente (hace poco)</i>
aresti	=	“ “ “ “
araiztian	=	“ “ “ “
aspaldi	=	<i>tiempo ha (hace mucho)</i>
araltzina	=	“ “ “ “

Urte (ur-te) eguzki usteari arras loturik dugu. Urtea eguzkiaren bira baten aldia dugu (lurrak eguzkiaren inguru egiten duan bira baten aldia). Badakigu, lehen esan dugun bezela, **-te** horrek zerbait aldi batean egitearen zentzua duala. Beraz, **ur-te** eguzkiaren biraketa osoa genuke, eta horixe da izan ere urtea. Eta honetatik, **ur** eguzkia bera genuke, izan dituen izenetatik bat.

Aro hitzak gaur hainbat zentzu ditu, baina dirudienez guztiak batetik garatuak: “época”, “tempero”, “período”, “tiempo”, “temperatura”, e.a. Hitz zaharren atonduretan, aldi edo garai zentzudun ageri zaigu gehienbatetan.

Dirudienez, antxinetako euskal kulturaren edo euskal munduan urtea sei arotan zatikatua erabiltzen zan; eta aro hoi en izenak gaurdaño ere zelabait iraun dute. Begira:



Hemen eskaintzen ditudan urtearo izenetatik, hiru garbiro eta atondura argiz ditugu gaurdaño: **Aizaro**, **Uztaro** eta **Azaro**, nahiz eta lehenena izkutatze zorian dugun. Beste hirurak zerbait aldatuak, baina beren garaieri loturik eta, bat izan ezik, **aro** hitza irmoki eusten dutelarik: **Inaustaro**, **Ezearo** eta **Olesaro**. Hiru hauok neronek “interpretatu” behar izan ditut eta badaiteke norbaitzu ez bat etortzea adierazten dudan antzematearekin; eta nireak besteko eskubideak dituztenez gero, beste edonoren antzemakerak ere onartuko nituzke, baina baldintza batzuketan: euskeraz eta euskal logikaz interpretatuak izatea, gure hizkerak argiro erakusten digun arauz esan nahi dut; eta baserri mundua ondo ezaguturik taiutuak izatea. Neronek ere ez nuen egingo ikerlan hau edo gaizki egingo nuen baserri mundua erraietaraino sarturik izan ez banu.

Eta banaka aztertu ditzagun orain sei urtearo izenok, eta beren inguru dituzten esanahi jakingarriak. Banaka esan dut, bai, baina osotasun batean guztiak ikusirik eta antxiñetako gizartearen bizibidez, izakeraz eta jokabidez ohartzeko eta jabetzeko indar egiñez.

Ohartu behar dugu urtean zehar euskal munduak badituela sei jaiaro, erro zaharretikoak diruditenak eta herrikoï kutsukoak, nahiz eta batzu kristau erlijioaren jaietz estalirik ditugun gaur egun. Hauexek ditugu: Iñauteri, Aste Santua, Ekaina, Uzta-jaiak, Gaztainerre eta Eguberri.

Berdinki ohartu behar dugu badugula oraiño ere gure baserri munduan urtea sei arotan zatikatzeke ohitura bat edo, eta bizirik ditugula gaurdaño aro hoieri buruzko izenak: Udaberri (Urabarri, Bedats); Uda (Ura, Udara); Udagoen (Uragoien, Udatzen, Udazken Larrazken?); Negulen (Larrazken?); Negu; eta Neguondo (Neguazken).

Guzti honek atondura zoragarri baten aztarna itxura du, eta egungo kulturak ezarri dizkiguten lau urtearoetako zatikatzea baino askoz logikoagoa dirudi. Hiru aro negu aldetik, Eguberri ospakizun haundia buru dutelarik, eta beste hiru aro uda aldetik, Ekain ospakundea jaiburu bezela dutelarik. **Uda** eta **Negua**, Ekain eta Eguberri jaiburuekin urtearen bi ardatz-punta bezela ditugu. Eguzkiaren gorena eta behearena dire ardatz-punta hoiek.

Baina oraiño ere indar biziz dirauten jaiburu bi hauen ondoan, beste aro bakoetxeko jai bat ere bazala ageri zaigu, gaurdaño irauten duten ohitura eta izenek aditzera ematen digunez. Begira:

Iñauteri (iñaute, iaute, inhauteri, e.a.) dugu aldatuena ageri zaigun izena. Argiro ageri da kristauaro aurreko jaiak dala; garizuma hastea ez baitda, erlijioari begiratuz, jai hauek berez duten arrakasta izateko arrazoia; ganera, guztiok dakigu kristau usain gutxi dutela Iñauteriak.

Neguondo aroko jaiak ditugu agian Iñauteriak. Eta aro bakoetxari (eta aro bakoetxeko jaiari bereiziki) aro bereko izateak, lanak eta arazo behinenak izen berezi bana ezarri diotela ageri zaigu; beste aroari buruz horrela ageri da, beraz honetan ere berdintsu izan beharko.

Eta neguondoan zer egin ohi ote zuen antxiñetako euskaldunak? Ehizean bai noski, baina hori urte guztian zehar egin eikean. Abereak etxe inguruan zaindu ere bai, baina hori ere ez da aro bati izena emateko bezin arazo garrantzitsua. Antxiñeta haretako erietak (alekiak, baba beltzak, baratxuriak, arbiak eta gutxi gehiago, azaroan ereiten ziren (azi-aroon). Beraz beste arazo batzu izango zituen.

Garai haietako bizibidean, uzta, etxea eta jantziakin batera, eta ez garrantzi gutxia-
goz, urte guztirako sua behar zuen gizakiak; janaria, ura edateko, etxea, zerbait jantzi-
gai eta sua beharrezko zituela edonork dakigu. Suakin gauza asko egingo zituen: hotz za-
netan berotu, piztiak uxatu edo izutu, langailuak gertatu, janariak egosi, gau ilunak ar-
gitu, jaietako ospaketak egin, jainkoari gurraketa egin, e.a. Mundu guztian honetaz diren
argigarriak gutxi balira ere, hemen dugu euskera berau gizakiaren kondairan zehar suak
zer garrantzi izan duen erakusteko.

Urte guztian eta beti, sua itzali bagerik euki behar zuen gizakiak. Erlijio zaharreta-
ko arau bat ere badugu hau, erromatarretaraino eta gaur arte ere iraun duena. Honetaz lu-
zaki ari gaitezke, baina orain ez dugu astirik. Hemen adierazi nahi duguna hauxe da: or-
duko gizakiak egur asko behar zuela; gizarte harentzat egurra gaurkoarentzat ikatza, bur-
dina, zementoa eta petrolioa batera bezin garrantzitsua izan behar zan; esan dugun guz-
tia egiteko eta etxeak, zubiak, gurdiak, langailuak e.a. egiteko ere egurra, zura behar zuen.
Beraz, ez dugu gehiago esan beharrik zuraren eta egurraren garrantzia zelakoa izango zan
adierazteko. Pentsatu dezagun gaur egun burdinak, ikatzak eta petrolioak zenbat buruhauste
ematen dien gizarteari; zenbat gerra, tirabira eta jokabide sortu eta eragin ote dituzten.

Eta egurra etxera inguratzeko bada garai bereizi bat: neguondoa hain zuzen; neguan
ere egin daiteke, baina gaur ere baserritarrek neguondoan egin ohi dute iñausketa eta egur
lana. Beraz, aro hauxe dugu iñauzte lana egiteko aroa, iñauzte-aroa (iñaustaroa). Eta **iñau-
teri** hitzari beste sorbiderik, taiuzkorik behintzat, agertzen ez zaion artean, “**iñaustaro**”
hemen dugu eskubide osoz.

Aratuzte (aragi-uzte) beste zentzu batetakoa dugula uste dut, nahiz eta gaur iñau-
teri esan nahi duen. Hitz honen atondurak kristauaro aurretik ere aragi-uzte aldi bat (ga-
rizuma bat) izaten zalako adierazpena dakarkigu. Daitekeana da hitz hau kristauaroaren
hasieran taiututakoa izatea; baina, bai eta aurretikoa izatea ere. Eta aurretikoa dan itxu-
ra gehiago du, izena bakarrik gelditu baitzaigu, eta zentzuz aldatua ganera. Geroztikoa
izan balitz, bere esanahi jatorra atxekiko zuen eta “garizuma”k ez zuen halako arrakas-
tarik izango. Funtsean, eta gaia ondo aztertuz gero, euskaldunen erlijio zaharra eta Bi-
bliaren inguruan taiutu direnak jatorride ditugula aurkituko genuke.

Aizaro (aize-aro) Eguen Santu gaua dugu; benetan gauza bitxia dugu hau; euske-
raren arauetan gertatu ezin daiteken gauza da erlijio batetako egunik itun eta sakratue-
nari aizaro (aize-aro) izena ematea. Daiteken adierazkizun bakarra zera dugu, aurreragoko
zerbaiten izena dugula; kristauaroko Aste Santuak estali dituen ospakundeen izena iza-
tea eta, beste hitz asko bezela, hortxe hil ezinik gelditua.

Antziñetan, udaberrian ez egoen ezer ereiterik euskal eremuetan (lurretan esan nahi
dut); artoa, patata, piparra, indabea (indibabea) e.a. geroztikoak ditugu. Beraz, artatxikia
edo izan ezik (arto izena zuena) ez zan ezer udaberrian ereitekorik.

Gariak zerbait jorratzen ziren, eta lekuko bezela hor dugu **yorra** hitza; hala ere, lan
honek ez bide zuen izan garrantzi gehiegirik. Abereen larratzea eta belarren haztea ere
garai honetakoak ditugu (**Bedats** izena honen ingurukoa izan daiteke). Baina **aizaro** hi-
tza daitezken bi adierazbideen inguru kokatu behar da. Bata, agertu dugun **aize-aro**; izan
ere, (eta aurten arretaz ohartu dut), udaberria aize aroa dugu Euskalerrian eta izatasun ho-

netantxe errotua izan daiteke izena. Beste adierazbidea, **eize-aro** atondura izango litzake; beste lan itorik ezean, euskaldunak ehizean aritzen ziren adierazgarri genuke; eta **iza-aro** (iza = eize) atonduratik ez legoke urrunegi **aizaro** forma.

Dana dala, **aizaro** hitzak aro bat adierazten digu eta oraingo aste santuari loturik agerzteak asko esan nahi du; ospakunde bat bazala beste aro guztietan bezela eta aro horrek aizea edo ehizea zuela bereizgarri.

Bagillari (izen honetan geroago saiatuko gara) **erearo** izena ematen zaio eskualde batzutan. Eta hitz honen nondikoa adierazten saiatu direnak logika hautsiz ibili direla esango nuke; **erein-aro** atondura eskaintzen duenak jakin behar luke bagillean eta ekain inguruan ezer ez dala ereiten eta are gutxiago antxiñetan. Beraz, daiteken hori ezinezko bihurtzen zaigu logikaren aurka doalako.

Beste adierazbide bat **eraitzio** (uzta) hitzetikotzat jotea litzake; baina bagillean ez da uztarik heltzen gure lurretan, eta bagilla **bage-illa** badugu, horrexegatik da, antxiñetan ezerezen hilla zalako. Ganera, uzta izaten dan hilla, **uztaila** dugu; eta uzta biltzen dan aroa, **uztaroa**.

Nire ustez, badugu beste adierazbide bat logikaz betea eta arlo honetan ageri zaizkigun izenekin kidekatuz arau onezkoa; ekain ingurua (eta bagilla noski) bereiztasun bategi markatzen du: izadia biziz borbor izaten dala, landare gehienak eze eta orriz beterik izaten ditugula. Eta horri **eze-aroa** esatea logika hutsa eta euskal arauzkoa genuke. Bai eta **ezearo = erearo** bihurtzea, ikusi dugun fonetika araua.

Izen hau apalduzik gelditzea ere, bidezkoa dugu; garai horretan **ekaina** dugu (**ekain = egu-gain**, eta bestea **egu-berri**) urteko bi ospakunde haundietatik bat; eta bere dizdirak beste izenak iluntzea ulertterraza dugu.

Uztaro hitza bizirik eta indartsu dugu oraino; eta bere atondura, **uzta-aro**, argitze beharrik ez duena dugu. Eta beste aroetan bezela, ospakunderen bat bazala urdutzeko aztarna gordinak ditugu; euskal munduan, ospakunde guztien ardatz eta berogarri, mahin inguruan jartzea izan ohi da; alaiki edo sakratuki, herriko festetan nahiz senitartekoen hilleketan, mahin baten inguruan algartzea izan ohi da euskaldunentzat gauzarik haundiena eta errespetagarriena.

Neguan, **olesaroan**, eguberri-afaria izaten da. Neguondoan, **iñustaroan**, aratuzteak, jan-edan egunak. Udaberrian, **aizaroan**, “basakoipetsu”. Udan, **ezearoan**, ekain jaiak; eta nahiz gaurkoz ez duten halako janaldi kutsurik, antxiñetan izango zutena ez dugu zailantzan ere jartzen. Udagoenean, **uztaroan**, nahiz eta gaur egun sakabanaturik, badugu horretarako ohitura iraunkorra; lehenago, “gari-jotze bazkaria” izaten zan; geroago, belar-igartzeen amaiera edo beste atxakia batez eratua, baiña garai honetan senitartekoen edo auzokoen algarturik bazkari eder bat egitea ohitura zaharra eta iraunkorra dugu. Eta Negulenean, **azaroan**, “gaztainerre”, “arimen” edo “sanlukas bazkaria” (izen gehiago ere ematen zaizkiola uste dut) egin ohi da Euskalerriko bazter askotan.

Ohitura guzti hauek, sakabanaturik nahiz zentzuz aldaturik, antxiñetako ospakunde aztarnak ditugu; eta euskaldunen izakeraren lekuko ditugun neurrian edo gehiago, antxiñetako gizarte atonduren adierazgile ere baditugu.

Norbaitzuk **uztaro** eta **uztail** izenak nahasi eta algarren aurkakotzat erabili izan dituzte; eta hau euskaldunen beste “gibelkeria” bat baino ez dugu, nabarimen faltaz edo oharketa ezaz sortua ganera. **Uztaro** aro zentzuduna dugu eta **uztail** ile (mes) zentzuduna; eta ilea eta aroa gauza ezberdinak izan direla euskal kulturari aski argiro ageri da; aroa, lanketa, ariketa edo izadiaren jokera bereizi batek mugatutako aldia, eta ilea, ilargiaren bira aldia.

Ile batek eta aro batek erro bereko izena hartzea ere, ez dugu gauza bitxia; eta uzta-ertekikoa ez dugu kasu bakarra: **azaroa** (azi-aroa) eta **azilla** (azi illa) ere baditugu; berdin **inaustaro** (nire antzemateak balio baldin badu, inausi-aro) eta **epail** (ebagi-il).

Azaro ere, **uztaro** bezela, bizi gotorrez dugu; antxinako garaietan, ereite gehienak aro honetantxe egin ohi ziren: gari, garagar, olo, baba (beltza), baratxuri eta abar. Beraz, azi-aro izena ematea logika hutsa dugu. Eta aro honetan ere ospakundeak izaten zirela, argiro dago; esan ditugun “gaztainerre”, “arimen” nahiz “sanlukas” izenez egin ohi diren bazkari edo jataldiak urte guztikoen artean buru izaten ditugu (gauonafariaren baimenez); baina besteak senitarte edo auzotarren artean izaten diren bezela, aro honetakoak lagun artean izan ohi dire.

Eta gai hau amaitzeko, “**olesaro**” hitzaren adierazketa zor dut. Aspalditik (gizaldietatik) **olentzaro** izenari buruzko kezka eta aztermina izan da euskalarien artean; eta guztiek **olentzaro** atondura horrelaxe dala etsirik, “olen” hitzaren antzemate lanean ari izan dire. Eta batzuentzat **Noel/olen** itzuliketa bat besterik ez duguna, beste batzuentzat **olen/onen** gertatu da, eta hortik **onen-aro** (época de los buenos); eta beste batzuentzat, frantsitarren “olerries” dalakotik datorkigun **oleri-aro**.

Guzti horretatik atera daiteken ondorena zera dugu, euskalari askoren jokabideak konpleju ilunen erroetatikoak ditugula; eta euskeraren erroak bilatze lanetan, gehienak ertzerakoiak izaten direla, ertz batetara edo bestera jo ohi dutela; edo Jainkoagan eta paradisuari dituzten euskerak bere erroak, edo eta inguruko hizkuntzen gorotzetan ditu. Holaxe ibili gara euskaldunok eta holaxe gabiltz “erdipurdziko” aro honetan ere.

Dirudienez, erro hoiek antxiñetako gizamultso batetan izatea ezinezkoa edo dugu. Dana dala, inñori ez zaio bururatu ikerbiderik egokiena, beharbada, euskal hitz guztiak zentzualdeka aztertzea izan daitekeanik. Eta ni hontaz harriturik nago.

Orain dala hogetabat urte, Barandiaranek berak Olentzarotaz egindako idazlan bat eman zidan; bere eretxiz, izen honen atondura **olen-zaro** zala eta bigarren zatia, “zaro”, aroa edo aldia esanahiduna genuela esaten zuan; bai eta izen honen kideki genituela **Suilaro, Xiularo, Sukaro** eta beste batzu ere, eta guztiok antxinako erlijio baten aztarna izanik, Eguberri garaia, eguzkiaren berritze garaia adierazten zigutela.

Gai honetaz ikerketa egin ondoren, eretxi honetara heldu nintzan: **Olentzaro** izenaren atondura **olenz-aro** genuela, eta **olenz** hori **olez** edo **oles** hitzaren aldaki bat genuela. Euskeraz gaur ere, erromeriarako edo edozein festarako dei egiteari “oles egin” esaten zaio; ospaketa baten egiten diren deadarrak eta eupadak “olesak” ditugu eta bertsulariak “olezkari”; poesia egiten duana “olerkaria”, eta hitzaldi bat “solasa”; bai eta atseginetzko ariketak “yolas”.

Eguberri festak izaten duten giroa ezaguturik, eta suaren inguruan egin ohi izan diren ritoak eta ospaketak kontutan izanik, **Olentzaro = oles-aro** genuela, adierazpenik bi-

dezkoena dala dirudi. Eta Barandiaranek esaten zuan bezela, aldiaro bat gizaitxura batetan gorpuzturik gelditu zaigula. Guzti hau argiro ulertzeko, eguberri-suak, santageda eskeak eta batez ere “ixu-egun” ohitura (honetaz San Martin adizkideak argitasun asko emanez idatzi du) kontutan izan behar ditugu.

Ikerketa honen burutzeko, idazlan bat egin nuen eta Barandiarani erakutsi ere; ontzat eman zidan eta arren argitaratzeko eskatu zidan; “askori begiak ideki erazteko” izango zala esaten zidan. Baina garai haretan “erdipurdizko aro”aren lehenaldia bizi genuen eta ez egoan gai hauek kaleratzeko biderik.

Funtsean, **olesaro** dugula aipatu dugun inguru guzti hori adierazteko izenik bidezkoena eta euskal arauzkoena, gaur ere tinkoki eusten dut. Eta neguko ospaketaren izena dugula, **olentzaro** formara aldaturik; honen antzeko aldaketak ugari ditugu euskeran: **itz = intz**, **naizenez = naizenenz**, **ereñotz = ereñontz**, e.a.

Aro hitzak beste izen asko ere sorterazi ditu, **otsaro**, **ostaro** e.a. bezela; eta erraz ulertzekoa dugu, “época” zentzuakin oso indartsu baitdugu gaur ere. Hala ere, hemen aztertu eta adierazi ditugun seiok badute zeregin berezi bat euskal egutegian, eta antxinatason nabari bat ere ageri zaie.

Aro (ar-o) aldi zentzuakin, “época” bezela bai eta “periodo” bezela ere erabilia da: **egotaro** (egote-aro), **ibiltaro** (ibilte-aro) **itxaitaro** (itxaite-aro “tiempo de espera”). Eta honetatik garatutako zentzuz edo, giroa adierazteko ere berdin erabilia dugu; beraz, **egotaro luzea** edo **egotaro ona** esaten dugunean, zentzu ezberdiñez erabilten dugu.

Baditugu bi kasu **aro** aditzetan kokaturik gelditu zaizkigunak ere: **igaro** eta **itxaron**; bizirik eta aski indartsu ditugu oraino aditz bi hoi forma zahar eta jatorrak: **igain** (iga-in) eta **itxain** (itxa-in); ez da garunak urkuldu beharrik, **iga-aro** = “tiempo de pasar” eta **itxa-aro** = “tiempo de espera” zentzudunak izan ditugula oraingo aditz zentzua hartu baino lehenago, ohartu ahal izateko.

Arte (ar-te) hitz bitxia dugu; beharbada, **-te** ahoskiak bere egite zentzuaz gain duen aldi zentzu antzeko zerbait hori hitz honetatikoa edo izan daiteke. Edozela ere, “período” ustea adierazteko **ar-te** izatea garrantzi haundiko dugu ikerlan honi buruz. Argi eta garbi erakusten digu **ar** aldi zentzuduna dugula.

Aldi eta **asti** gauza bera ditugu: **ar-di**; gaur egun hitz bi hauek forma eta esanahi ezberdina dituztenarren, erro berekoak direla ikusten da; eta lehenago esan dugun usteen garatzeak eta ugaritzeak eragindako aldaketa arauzkoak ditugu. Funtsean, gaur ere zentzu bat beraren esanahiurrekoak dituzte: zerbait egiten dan denbora, eta zerbait egiteko behar dan denbora.

Artomin eta **arazitian**, nahiz eta zentzu berekoak ditugun, bide ezberdiñez osatutako hitzak ditugu; **ar** ahoskia dute bakarrik algarkide, eta horrek badu bere garrantzia.

Aspaldi (ar-p-aldi) eta **araltzina** (ar-antxina) oso politak ditugu; bigarren honek bere esanahiari ondo lotutako atondura erakusten digu. Baina lehenak ere nahiko argia du bere atondura.

Aipatutako lau hitzok (artomin, arazitian, aspaldian eta araltzina) kidekatzen baditugu, argiro agertzen zaigu **ar** ahoskiaren zeregiña.

8.- Izatasun arloan

arean	=	<i>en realidad</i>
areago	=	<i>más aún (más en realidad)</i>
areki	=	<i>cosa</i>
-ari	=	<i>cosa</i> (ortuari, janari, edari, e.a.)
aztar	=	<i>vestigio</i>
araiz	=	<i>probablemente</i>
arau	=	<i>regla, ley, proporción</i>
arras	=	<i>totalmente</i>
artitz	=	<i>inscripción</i>

Arlo honetan ere **ar** ahoskiaren zentzua argiro agertzen zaigu; hemen aipatzen ditudan hitzok euskeran ditugunetarik (**ar** ahoskiaren gain atonduak esan nahi dut) gutxi batzu baino ez direla uste dut, baina bai aski adierazi nahi duguna baieztatzeko.

Arean eta **areago**, zentzu bat beraren bi neurri adierazten dizkiguten hitzak ditugu; bata (arean) mendebaldeko ertzean bizi dan gizamultsoak erabilia (gehiegi erabilia ere), eta enparau euskaldunek ezagutzen ez dutena; bestea (areago) gipuzkoarrek eta erabilia, eta gaur egungo literaturan abegi onez ikusia.

Bi hitz haueri buruz maxiaketa asko egin daikegu. Alde batetik, euskera zenbateraino murritzua dugun eta gure hizkera bere bikaintasunera itzulerazteko zein baldarrak eta iñozoak garen euskaldunok oharrerazten digute; bata bestearen kume ditugun bi hitz, bai eta zentzu beraren (hizkuntza bat mamintzeko zentzu garrantzitsua, ganera) bi neurri maila adierazten dizkigutenak (arean = “en realidad” eta areago “más en realidad”) algarri lotzeko beste ere ez gara euskalariok, gure “jakintza” eta arazkeri guztien azpitik; hogetaka urte hauetan egin ditudan idazlan askotan, bi hitz hauen kidetasuna, egokitasuna eta duten euskal arautasuna aizatzen saiatu naiz; idazle bati eta beste bati ere adierazi diet; baina guztia alperrik (arpelik egitan); gizakia, beste aberekiak bezela, garunez dala ahulena entzun dut iñoiz; hau da, bihotzez, ohituraz eta inpresioaz dala azkarrago (eta gibebez, esango nuke nik); hau honela bada, euskaldunok ere oso gizakiak garela ezin ukatu.

Euskera batu bat atontzeko, euskera guztian zehar sakabanaturik ditugun hitz baliotsuak hartu eta erabili behar ditugu, bai eta zela ez, **arean** eta **areago** bezela, ezin bestez algar beharrezko ditugun hitzak. Baina dirudienez, euskaldunok halakoxeak izanik, nahiago dugu batzuk eskubiko zangoaz bakarrik eta beste batzuk ezkerrekoaz bakarrik ibiltzea. Ganera, nabari dugunez, hemengo gure arazorik beharrezkoenak, “paradisuko” hitz garbikeriaz” gain, “unibertsalkeria” merkea eta “atxegintza” atsegiña ere baditugu. H izkia aurrera bultzatu duen burrukalaririk ausartenen bat, idazle aberatza eta euskaltzaina ganera, izan dut atzo nirekin, eta hauxe esaten zidan: “nik uste diat zenbaitentzat “atxegin” (atxe egin) eta atsegin gauza bera dala; ez zegok neurririk gure artean”. Ni ere aspalditik horixe sumatzen ari naiz, burua baino gibela ugariago dugula euskalarien artean.

Eta hitz hauenaz amaitzeko, oharrerazpen bat: euskeraren batasuna erroetan askok uste baino gotorragoa dugula, **arean** eskualde batean eta **areago** beste muturrean oraiño bizirik izateak adierazten digun bezela. Eta erroetara joteak lagunduko digula arean, eta areago jote hori zentzu onez eta zuhertasunez egiten baldin badugu.

Areki eta **-ari** ere besteak bezain argi ditugu, eta “zerbait” izatearen zentzudunak; lehenena (ar-e-ki), **-ki** atzizkia du eta aztergarria dugu; atzizki honek duen esanahia “cosa de” edo holako zerbait dugu, beraz, **ar** izatasunaren muina izango genuke. Bestea, (ar-i), aditz formatikoa dugu; euskeran asko eta asko ditugu hasieran aditzak izan eta geroago zerbaiten izen bezela gelditu zaizkigunak; honetaz saialdi bat egingo dugu ikerlan honen amaieran ahal bada, edo bestela geroago.

Aztar (ar-t-ar) izatearen zentzua eta ganera bere “señalea” ere adierazten digun hitza dugu.

Araiz, **ar** eta **iz** ahoskiekin atondua dugu, eta ez da erraza zein ahoskik zer esanahi adierazten duen antzematea.

Arau, alde askotatik aztergarria dugu; bere atondura, nire ustez, **ar-a-o** genuke eta jainko-legea, nahiz gizalegea, edo eta edozer eratako legea adierazten digu. Geroago ere ariko gara hitz honetaz.

Arras, atondura batekoa (ar-a-iz) edo bestekoa (ar-ar) izan daiteke; edozela ere, izatearen zentzua ere badu, neurriarena gehiago duenarren.

Artiz, **arri** (piedra) hitzetikoa izan daiteke; eta izatasunaren zentzurik ez izatea ere badaiteke; hala ere, hitz aztergarria dugu.

9.- Neurri zentzu arloan

ugari	=	<i>abundante</i>
urri	=	<i>escaso</i>
asko	=	<i>mucho</i>
aski	=	<i>bastante</i>
arras	=	<i>totalmente</i>
arau	=	<i>proporción, medida</i>
asaro	=	<i>holgado</i>

Ugari hitza fruitu zentzutikoa izan daiteke, zentzu aldaketa logiko batekin:

ur-ari (cosa de fruto) izan zitekean lehen eta hortik ugaritasun zentzua hartu.

Urri ez dugu adierazpen errazekoa; aditza izana dala esan daiteke, baina gaur duen zentzua izateko, beste formaren bat euki behar izan du lehenago; **ur-il** (getasunezkoa) izan daiteke bere forma zaharra. **II** (“carencia”, “muerte” e.a.) eta **il** (mes) ditugularik, nahasketa dugu **urri** eta **urril** hitzekin. Baina adierazpen argia dugu biek gaur duten zentzuek ulertzeko. Nahasketa ez dago ezela ere hitzen atonduran, ahoskiaren soiltasunean baino.

Edozela ere, oso ohargarria dugu urritasuna eta ugaritasuna adierazten diguten hitzak, biak (**urri** eta **ugari**) **ur** ahoskitik sortuak izatea.

Asko (ar-ko) eta **aski** (ar-ki) funtsean gauza bat bera ditugu, garatze bikoitz baten bidez zentzu aberaztasun batera helduak.

Arras ere **ar** ahoskiduna dugu; bigarren hizkia **ar** ala **iz** ahoskietatikoa dan argitzea ez da erraza.

Arau, zentzu eta esanahi ugariko hitza dugu; legea, jokabidea, neurria, e.a. Bere forma jatorra, nire ustez, **arao** (ar-a-o) izan zitekean.

Asaro ere **ar** fonemaren gain eratua izan daiteke, baina ez du adierazpen erraza; zelatun ustea adierazten du eta atzenengo **-ro** hori uste horrixei dagokio. Hitz askotan ageri zaigu atzizki hau: **astiro**, **geldiro**, **aguro**, **ondo**, **txarto**.

10.- Bitarte zentzu arloan

ur	=	<i>cerca</i>
urrun	=	<i>lejos</i>
urruti	=	“
urbil	=	<i>cerca</i>
urki	=	<i>abedul</i>

Ur, urtasun adierazlea dugu; eta **urbil** (ur-bil), noizbait “urreko inguru” zentzuduna izana, orain zentzu bereko dugu. Hitz hauen atondurak ez du zalantzarik onartzen ez eta irazkinetarako biderik ematen.

Urrun, atondura ederrekoa dugu: **ur-un**, beraz, **un** ukakor zentzuduna dugunez, **urrun** hitzaren esanahia “ur ez dagoena” izan behar; eta halaxe dugu izan ere. **Urrin** forma, fonetika aldaki bat dugula uste dut. Eta **urruti**, “urrundik” hitzaren fonetika aldaki bat izan daiteke.

Eta **urki** ere, zuhaitz mota baten izena dugunarren, arlo honetan kokagarria dugu. Baina horretarako zuhaitz mota honen bereiztasunak ezagutu behar ditugu; jakiña da euskal ohituretan, eta noiztikoa dan ez dakigularik, urkia “muga zuhaitza” dugula; edozein baserritarrek esango digu urkia mugarria dala; badakigu mugarri (muga-harria) harrizkoa izan ohi dala gehienbatetan, baina ez beti; leku askotan eta baso arlo haundien mugak markatzeko, nahiz herri bien artekoak ezarteko, urkiz markatzen dituzte; muga guztian zehar hor-hemenka urki landarak sartu eta kito. Eta badakizue zergaitik? Logika hutsa dugun gauza bategaitik: urkiak azal zuria izaten du eta edozein zuhaiztitan nahiz eremutan, urrunera ikusterraza eta bereizteraza izaten dalako. Eta horrela mugak argiro markaturik izaten direlako.

Eta **urki** izena **ur** ahoskiaz atondua dugu; dirudienez, “distancia” zentzuaren inguru atondutakoa. Izan ere, ur-urruntasun arazoan zeregin garrantzitsua duen zuhaitza dugu. Nik uste dut zuhaitz mailatuak ere (malatoak) urkiak izango zirela antxiñetan. “Maila-

tuak” muga zuhaitzak zirenez, bidezkoena da urkiak izatea, nahiz eta ezagutu izan diren atzenengoak beste zuhaitz mota batzutakoak izan. Ez alperrik, eta gaur egun ere, euskaldun jatorrentzat urkia “muga zuhaitza” dugu.

11.- Landareak eta fruituak

Ar zuhaitzaren izena izan dalako aztarnak irmoak eta aski adierazleak ditugu:

araondo	=	<i>tocón</i>
areki	=	<i>árbol bravío</i>
arbutz	=	<i>ramillas</i>
ardatz	=	<i>eje</i>
arabegi	=	<i>renuevo de rama, nudo de árbol</i>
araka	=	<i>nudo de árbol</i>
arakil	=	<i>rama</i>
araki	=	“
arba	=	<i>leña con hojas</i>
arbasta	=	<i>palo, leña delgada</i>
abar	=	“ “ “
areitz	=	<i>roble</i>
leizar	=	<i>fresno</i>
adar	=	<i>rama</i>
zumar	=	<i>olmo</i>
astigar	=	<i>arce, tilo</i>
sagar	=	<i>manzano</i>
altz	=	<i>aliso</i>
galar	=	<i>árbol seco, rama seca</i>
galbar	=	<i>calvo, terreno sin arbolado</i>
igar	=	<i>vegetal seco</i>
azkar	=	<i>arce</i>
araburu	=	<i>copa de árbol</i>
aldor	=	“ “
aldozpe	=	<i>bajo cubierta, bajo techo</i>
araulitu	=	<i>golpear un árbol para echar la fruta</i>

Araondo hitz hau berau bakarrik aski dugu **ar** ahoskiaren zuhaitz zentzua egiztatzeko; hitz honen atondura, (ara-ondo), ezin argiagoa dugu. **Araondo** zuhaitzaren hondo baldin bada, **ara** (ar-a) zuhaitza bera izan behar.

Areki (ar-e-ki) zuhaitza dugu (zuhaitz mota bat edo hobeto esanez, edozein motatikoa, baina iñausi bagekoa eta haundia); honetan ere argi dago **zuhaitz** izenaren pareko dugula eta betebetean zentzu hori duela. Ganera, **-ki** atzizkiaren esanahia ondo daki-gularik, **ar** fonemaren zuhaitz zentzua argi dago.

Arbutz, arba, arbasta eta **abar**, antzeko esanahidunak eta atonduraz ere kidekiak ditugu. **Arba** izan daiteke guztietan zaharrena eta besteak beragandik sortuak; **abar, arba** formaren itzuliketa bat izan daiteke. Eta guztiak **ar** fonemaren gain sortuak.

Ardatz ere izen aztergarria dugu; ardatza, batez ere, meta eta pilloek erdian izaten duten zuhaitza dugu; edo gurdien erdiko zura, honetan ere zuhaitz bat. Beraz, zuhaitz zentzutikoa dugula hitz hau ontzat eman daiteke eta beronen atondura honela izan bide da: **ar-da-it**.

Arabegi ere oso esankorra dugu, bai eta atondura argikoa eta adierazpen garbikoa: **ara-begi**; hitz honekin izendatzen duguna **begi** hitzakin bakarrik ere berdin izendatzen dugu; beraz, **ara** begia duena dugu hemen, zuhaitza hain zuzen.

Araka aurrekoaren esanahi berekoa dugu, baina bere atonduraren esanahia bestearena baino ilunagoa da: **ara-ka**.

Araki eta **arakil** hitz bat bera izan daitezke, baina bai eta atondura ezberdinetatikoak ere izan daitezke. Atondura hoietatik bat **ara-ki** (gi) genuke; eta **areki** hitzaren aldaki bat izan daitekenarren, badu beste adierazbide jakingarri bat ere, eta beste arlo batetan aztertuko dugu. Beste atondura **ara-k-il** izan daiteke eta zuhaitzaren adar hila esan nahiko luke.

Adar ez dugu adierazketa errazekoa: **abar** hitzaren aldaki bat izan daiteke; **arba** formaren itzuliketa ere izan daiteke, bai eta **ar-ar** atonduratikoa ere.

Areitz eta **leizar** lehen ere IZ multsoan aztertuak ditugu; izen bi hauen atondurak (**ar-eitz**) eta (**l-eiz-ar**) bi aldiz zuhaitz zentzua dakarzkigute **ar** eta **eitz** formen bidez. Zerbaitegaitik ditugu euskaldunen arbola sakratuak bezela ezagutuak zuhaitz mota biok; lehen esan dugun bezela, antxiñetako gizartearen bizibidean garrantzi haundizko gauzak zirelako.

Zumar, astigar, azkar eta **sagar** zuhaitz mota ezberdinak ditugu, baina laurak **ar** ahoskia dute osagarri, bai eta hitzaren atzenean ganera; eta hitzaren atzenean izate horrek zuhaitz zentzuaren adierazle izatea adierazten du; **eitz** ahoskiaren kasuan ikusi dugun bezela. Hala ere, **-gar** forma dutenak beste adierazbide batetik ere argitu daitezke, baina **ar** ahoskiaren amatasuna ukatu bage.

Galar dugu beste hitz baliotsu bat; bere atondura **gal-ar** benetan polita dugu eta galdutako zuhaitza adierazten digula esateko ez dugu asmaketan ibili beharrik; **gal** (gal-du, gal-erazi, gal-bide e.a.) izatearen galtzea edo ezereztatzearen zentzua duen hitza dugu. Beraz, hemen, galdutako zera zuhaitza (**ar**) genuke. Argiago eta garbiago ezin daikegu aurkitu **ar** honen zuhaitzasuna adieraziko digun hitzik.

Galbar ere aurrekoaren aldaki bat dugu bai ahoskeraz eta bai esanahiz; zuhaitzak galartutako leketan galbar uneak gelditzen dire eta holaxe erabiltzen dugu gaur ere: “galbar une haretan” esaten dugu arbola bageko egi batetan dan zerbaitegaitik.

Eta **igar** (ig-ar) ere oso esankorra dugu; **ig** (ik) pasatzearen zentza duen ahoskia dugu: **igatu**, **igasi**, **igaz**, **igari**, **igitu**, **igain**, **igon**, **igarego**, **igande** eta beste hitz asko ditugu zentzu horren lekuko; beraz, **igar** pasatutako edo izandako zuhaitza edo landarea genuke. Zerrendatu ditugun hitz guzti hauetan **igatu** (ig-a-tu) dugu lagungarriena, **igartu** hitzaren antzeko esanahia duelako.

Araburu beste hitz baliotsu bat dugu; **araondo** eta **araburu** biak bakarrik aski ditugu **ara** (ar-a) zuhaitza dugula baieztatzeko; hondoa eta burua bereak baditu, dan guztia ere bera (ara) izan behar.

Aldor adierazkizun gaitzagokoa dugu; **ar-d-ur** izan daiteke baina aldaketa aski gogorra dugu.

Aldozpe, oraintxe arte iñongo hiztegitan hartu bagea izanarren (neuk eman nien “moderno”aren egileeri), oso bizirik dugu Otxandio aldean; bere atondura garbia dugu: **aldor-pe**; eta bere esanahia ere, zerbait garatua, baina oso argia.

Eta **ara** (ar) zuhaitza dugula argiro probaturik dugulako ustean, irazkin batentzako bidea dugu: erderazko “árbol” hitza ere **ar** fonemaren gain eratu dugula; izen horren jatorriari buruz azterketa sakon bat oso baliotsua litzake.

Zuhaitz ustea adierazteko **ar** ahoskiak duen zeregiña ukatu eziñezkoa dugu; **araondo** eta **araburu** hitzak, besterik ez balitz ere, aski ditugu **ara** hori euskeran noizbait “**zuhaitz**” zentzuz erabilia izan dala ohartzeko. Eta hemen ezin dugu alde batera utzi inguruko erderak erakusten digutena: gauza bera adierazteko dituzten izenak “**arbol**”, “**arbre**” e.a. direla. Hauetan ere **ar** ahoskia dugu oiñarri; zer aztertu gehiago.

12.- Fruitu zentzuan

ur	=	<i>avellana</i>
urreitz	=	<i>avellano</i>
ezkur	=	<i>bellota</i>
intxaur	=	<i>nuez</i>
uzta	=	<i>cosecha</i>
urno	=	<i>residuos de grano</i>
urpo	=	<i>de grano montón</i>
urgaldu	=	<i>desgranar</i>
urkuldu	=	“
urun	=	<i>harina</i>
aran	=	<i>endrina, ciruela</i>
arantz	=	<i>endrino</i>
araga	=	<i>fresa</i>
aragatze	=	<i>fresal</i>
arakatz	=	<i>grosella</i>

udare	=	<i>pera</i>
ugari	=	<i>abundante</i>
urdabil	=	<i>estómago</i>
urril	=	<i>Octubre</i>

Ur, hemen adieraziko dugunez, hasierako garaietan fruitu eta aleki guztieri bere ize-na emandako fonema dugu; hala ere, urra (avellana) gaurdaño izen horrekin dugu; honetatik atera daikegun ondorena hauxe dugu: gizakia, batez ere, **urki** (ur-ki) honetatik bizi zala; edo eta gizakiarentzat **ur** izenez ezagutzen ziren izakiak berebiziko garrantzia zutela. Baina batez ere eretxi hauek AR/UR multisoko gizakieri buruz (lehenizkera hau taiutu zuen multsoari buruz) esan daitezke. **Urreitz** (ur-eitz) oso polita dugu; nahiz eta geroagokoa, beste multisoko ahoskiz osatua dugunez, urra ematen duen “eitza” esan nahi du.

Intxaur, nire ustez, atondura bitxiagokoa dugu: **india-ur** izan daiteke bere sorbidea. Euskeran holako hitz asko dugu: **indaba** (india-baba), **indigaztaiña** (india-gaztaiña), indisagar, indioilo, e.a. Ahoskeraz, eta euskeran hain ugaria dugun **a** mugatzailearen bustidura (indiya) kontutan izanik, arau onekoa dugu adierazpen hau; **indiya-ur = ind-xaur = intxaur** ahoskera garatze jatorra genuke; ganera, intxaurra, euskaldunak urra baino geroago ezagutu izan duela pentsatzea oso bidezkoa dugu; landara mota honek Euskalerrian duen hedadura murrizak zerbait esaten digu.

Ezkur, areitzaren fruitua dugu; bere atondura **areitz-ur** izan daiteke, hasierako **ar** fonema galdurik: **areitz-k-ur** = (ar) **eiz-k-ur** = **ez-k-ur**. Fruitu mota honetan ur fonema agertzea oso garrantzitsua da, euskaldunen artean zuhaitz motarik sakratuena dalako.

Uzta, beste hitz garrantzitsu bat dugu; **ur** ahoskiaren fruitu eta aleki zentzuak izan zuen hedatasuna agerrera izan digu. Hitz honen atondura **ur-te** izan daiteke, baina **urde**, **urte** eta **uste** hitzak euskeran badiarelarik, ikusi dugun aldakiak sortzeko arauaz baliaturik sortutako hitza dirudi. Ganera, hor ditugu **urno** eta **urpo** hitzak ere; **urno**, **ur-ño** sorbidetikotzat jo daiteke; **-ño** (no) hau ttipitzailea dugu eta hitz askotan ageri zaiguna: **iturriño**, **txoriño**, **andereño** e.a.; eta **urno** hitzak ere zentzu horixe duenez, argiro dugu auzia. **Urpo**, adierazpen zailagokoa dugu; **ur-to** fomatikoa izan daiteke (**-to** ttipitzaile nahiz haunditzaile bezela erabilten da) baina azterlan sakonago bat behar du. Funtsean hiru izen hauek **ur** ahoskiaren aleki zentzua adierazten digute.

Urun, **urgaldu** eta **urkuldu**, hirurak eta baktotxa, zein baino zein garrantzitsuago ditugu; **urgaldu** eta **urkuldu** esanahi berekoak ditugu (desgranar) eta biak getasun zentzua duten ahoskiz osatuak; **urgaldu**, **ur-gal-du** atonduraduna dugu eta **gal** hitzak duen esanahi ukakorra ezagutzen dugu. **Urkuldu**, **ur-k-ul-du** atonduraz egiña; eta **ul**, **gal** bezela, ukakor edo getasun zentzuduna dugu. Hemen argi ageri da esanahi bat bera adierazteko bi ahoski gedor erabiliz ere, **ur** fonemak adierazten duela bietan ale, garau edo fruitu zentzua.

Eta **urun** (ur-un), “fruto destruido” edo horren antzeko zentzuduna dugu; beraz, hemen ere **ur** dugu alea edo fruitua adierazten diguna. Eta **urun** hitzaren esanahia (harina) kontutan izanik, ikerlan guzti honetan argiro ageri zaigun euskal hizkuntzaren atondura bideak eta logika arauak ondo baieztuak gelditzen zaizkigu.

Une honetan euskal hiztegi batetan begira nauzue eta honelaxe diño: **URUN: vide irin**. Euskal kultura eta hizkuntzarentzat garai garrantzitsu batetan bizi garelarik, mendebaldeko euskalkia zapi zahar bat bezela baztertua dugu; eta bera bagerik ikerlan honen zati txiki bat ere egingaitza izango litzakela pentsatzean arrangura sentitzen dut eta armintzen naiz. **Irin** jatorra eta **urun** erdeñagarria, **gabe** arauzkoa eta **I**, non dire euskalarien zentzu ona eta artostasuna? Eta gogoari eragiñez, Euskalerrian gaindi doakit: Mendebaldean **bage** (eta **ba/ge/rik** eta **ba/ge/ko**), Lizarrako idazki zaharretan **bage**, Erronkarin **bage**, Iparraldean ere bai (**gabekin** nahasturik), Gizpuzkoa garaian **bahe**... Nola demontre egin daiteke batasuna **gabe** itzuliketaren bidez? Jainkoak euskal izate guztian izan dituen izen guztien indarrez argi egin bekigu.

Baina lan honek fruiturik emango badu, jarrai dezagun fruitu edo ur arloa aztertzen.

Udare ahoski biekin atondutako izena dirudi: **ur-ar-e**; **madari** eta beste izenak **ma** ahoskia ikertzean aztertuko ditugu.

Ugari ere sorbide honetakotzat joten dugu, nahiz eta gaur egun zentzu aldaketakin ageri zaigun. **Ur-ari** (cosa de fruto) izan zitekean bere lehen zentzua, eta hortik gaur egun duanera ez dago eziñezko biderik.

Urdabil lehen ere aztertu dugu eta ondoren honetara heldu gara: gizakiak jaten zuan gehiena **urra** baldin bazan (**ur** fruitu eta ale mota gehienak, multso honetako gizakientzat), bidezko da janaria **biltzen** duen gorpuzkiari **ur-da-bil** izena ematea.

Urril oso esankorra dugu, nahiz eta izen honi buruz aburu gehiegi ere badiran; **urri** forman erabilia dalako, zenbaitek ondoren hauxe atera dute: urritasunezko aroa esan nahi duala, ezer izaten ez dan hilla; eta egiaz, ezin daiteke astakeria haundiagorik proposatu; urrilean uzta mota guztiak etxeratuak izan ohi dire, edo behintzat oso gutxi izaten da kanpoan gelditzen dana.

Alekiak Uztailean etxeratuak ia osorik izan ohi dire oraiño; urrak, intxaurrak, udareak, sagarrak, gaztainak, basamakatzak e.a. heldurik edo heltzen izaten dire urril garaian; beraz, urte guztian ugaritasun garai bat izatekotan Urril eta Azilean izaten da; logika bidea jarraituz (eta bide horixe dugu euskerak argiro erakusten diguna) **ur-il** dugu izen honen atondura.

Lehen ere esan dugu, urritasun garairik izatekotan euskal baserri ekonomian, eta areago antxinetakoetan, Bagilla dugula garai hori; eta horretatik **bage-illa**, ezerezaren hilla. Gure baserrietan suarekiko beldurra areagoa izan ohi da negulenean; garai horretako etxe erretzea bi aldizko zoritxarra esan ohi da. Izan ere **uzta-il** eta **ur-il** izenek adierazten dituten **ari** guztia etxeetan izan ohi dalako.

Aran, **ar** fonemaren gain eratua dugu; eta **arantz**, **aran-eitz** dugu. Lehen ere esan dugu, **elorri** eta **arantz** izeneri buruz dugun nahasketa izugarria; nik uste dut baserri munda ondo ezagutzen ez dutenek gai hauetan azterlari izateak nahasketak areagotu egiten dituztela.

Araga eta **aragatz** aurrekoan kasu berdina ditugu. Eta **arakatz** landare izena nonbait izana, gaur egun landare eta fruitu bientzat berdin erabilia; murritze mota hau (arlo honetan) oso nabaria dugu euskeran.

Arbi ere **ar** sendikoa dugu. Eta **arto** berdin; kontutan izan behar dugu, berez, izen honek gaur **artatxiki** izenez ezagutzen dugun arekia adierazten digula; oraingo artoa, Ameriketatik ekarria, ez zuten ezagutzen euskaldunek behiñola; eta hemen gaindi sartu zanean, landare mota biek duten itxura berdinagaitik nire ustez, lehengoaren izena hartu zuan berriak, zaharrari “txiki” deitura ezarririk. Berdinki gertatu zaie lizarrari, bertako behiari, e.a.

Arlo honetan badugu garrantzi haundiko beste hitz bat ere aztergarri. Ohartu beharrezkoa dugu **ar** ahoskiaz atondutako fruitu izenak dituzten arekiak (**aran, araga, arakatz**) ez ditugula besteak (ur fonemaz atonduak) bezelako fruitu motak; hauek, etxean eukitzeko balio dutenak eta janari indartsuak izan ohi dire; eta haiek (**ar** ahoskiz atonduak) edariak egiteko gai direnak. Gai honi buruz, **ma** ahoskia aztertzen dugunean argiago eta zabalago ikusiko dugu gaia, baina arlo honetan ere badugu adierazi beharrekorik.

Edari zale dugun Euskalerrri honetan, ura ez beste edari motak adierazteko erabili ohi dan hitzik hedatuena **ardao** dugu bere aldaki guztiekin: **ardao, arda, ardan, ardo, ardu, arno**. Baina Aymeric Picaud gure lurretan zehar igan zanean “ardun” esaten omen zan. Eta hitz honek garrantzi haundia du; **ar-dun** “poseedor de espíritu” izango genuke, eta gaur ere eskaldun zaharrek edariari “izpiritua” esan ohi diote.

Beraz, **ar-dun** badugu edarien izen ohia, eta **ar** ahoskiz atondutako izena duten fruituz “arduna” egiten bazan, hemen ere logika araua dugu hizkeraren oinarri. Eta fruitu hoiekin ardua egiten zana (eta egiten dana) argi dugu; gaur egun ere aranez (bax-aranez) egiten da gure herrietako edari bat “patxaran” (baxaran) izena ematen zaiona. Orain ez dut ezagutzen basalizarraren fruituak zer izen duen euskeraz; ez dakit izen hori galdua dan ala ez; baina nonbait bizirik balitz eta zaharra izan, bere balioa luke eta ez txikia ikerlan honentzat.

13.- Zarata arloan

zarata	=	<i>ruido</i>
arana	=	<i>ruido</i>
zartara	=	<i>ruido de fractura</i>
burrundara	=	“ <i>de violencia, estrépito</i> ”
tarratara	=	“ <i>de descosido</i> ”
arada	=	“ <i>de pedrisco</i> ”
arran	=	<i>cencerro</i>
arrapaka	=	<i>atropelladamente</i>

Ara ots ustearen adierazle dugula argi dago; **ada** forma ere hartzen du askotan, baina ahoskera garatze hori (r/d) arauzkoa dugu euskeran

Arada dugu ahoskera garatze horren adibiderik argiena; hitzaren atondura **ar-ara** (arri-ara) dugu, baina **ra** ahotsa bi aldiz jarraian esatea ez du onartzen euskerak, eta horregaitik bigarren esaten dana aldatu egiten da.

Burrundara ere oso aztergarria dugu, baina ez **ara** fonemari dagokionez; fonema hau zentzukide diren horrelako hitz guztietan ageri da eta ez dugu zalantzarik bere zarata zentzuari buruz. Baina lehengo zatia (**burrun**) dugu hemen aztergai egokia.

Burru “lucha” eta “violencia” zentzuduna dugula adierazi nahi dugu. **Burru** erro-
tik sortzen zaizkigu: **burruka** (luchando) **burruka** dugu, jauzi-**ka**, jo-**ka** eta laster-**ka** be-
zela. **Burrundara burrund-ara**, “burruaren zarata”. **Furrustara**, aurrekoaren aldaki bat
esanahi ezberdin bat hartzeko. **Burrunba burru-n-b-a** atonduraduna, e.a.

Baina **burruka** forma, euskaldungoaren ehunetik larogeita hamazortzik horrelaxe
erabiliarren, zenbaitek gaur **borroka** forma erabiltzen dute arrarokeriaren indarrez.

Zartara, **zart** onomatopeiatik sortua dugu, **sartatu** eta **zati** bezela; **zati** (zart-i) noiz-
bait aditza izana dugu, nahiz eta gaur izen bihurturik ageri zaigun. Beraz, **zartara**, **zart-
ara** dugu. Eta **tarratara** berdinki, **tarrat-ara**, **tarrat** ere beste onomatopeia bat dugu-
larik.

Arana ere hitz ohargarria dugu; dirudienez, “zarataren” zerbait esan nahi du: **ara-n-a**.

Zarata, nahiz eta arlo honetako zentzua adierazten nagusi dugun, itxuraz ilunago
dugu; bere atondura, **(i)z-ara-ta** (te) izan daiteke.

14.- Beste zentzu batzuetan:

arri	=	<i>pedra</i>
arbel	=	<i>pizarra</i>
are	=	<i>arena</i>
ondar	=	“, <i>residuo</i>

Zentzu honetan, **aitz** baino indartsuago dugu **arri** hitza; noizbait aditz izana bere for-
magaitik, ez da argiro nabari zer zentzu eikean hasiera batetan. Gaur egun, arlo honeta-
ko izenik gehienak **arri** hitzetik sortuak ditugu; baina ez ditugu aipatuko hemen, ez bait-
ditugu beharrezko. Zerrendaturiko laurak aski ditugu **ar** ahoskiak arlo honetan duen ze-
regiña adierazteko.

Arbel ondo atondua dugu; euskal arauz eta logikaz; arbela iluna izan ohi da, eta hor-
tik **ar-bel**.

Are, harri xeea dugu; **ar-xee** atondurakoa izan daiteke, baina beste batetakoa ere ber-
din. Erderazko “arena” hor dugu eta honetan ere ikerlana interes haundikoa litzake.

Ondar ere **are** hitzaren zentzuduna dugu. Baina hitz honen atondura arras garbia
dugu: **ondo-ar**, uraren hondoan gelditu ohi dan area baitdugu hondarra. Eta hortik hitz
honen esanahia bestearena baino ugariagoa izatea; ez du area bakarrik adierazten, ura-
ren hondoan gelditu daiteken edozer esan nahi du; eta uste hori garatuz, edozertatik atze-
nean gelditu daiteken arekia (gauza) adierazten du.

.....

aran	=	<i>valle, meseta, tierra</i>
lur	=	<i>tierra</i>
ibar	=	<i>valle, ribera</i>
buztin	=	<i>arcilla</i>
burdin	=	<i>hierro</i>

Arlo honetan, **ar** eta **ur** biak ditugu algarkide eta nagusi.

Aran, nahiz eta hiztegi batetan harturik **ibar** hitzaren pareko dugun, izen biok ez ditugu berdinak; **ibar** hitzak adierazten digun ustea hauxe dugu: mendiarteko lautada edo barrundi bat; eta gehien batetan ibai edo erreka izan ohi danez mendarte bakotxean, ibai inguru esanahia ere badu **ibar** hitzak; **arana**, ordea, mendi bageko lurralde zabal bat dugu, beraz, erderazko “llanura” eta “meseta” hitzen pareko dugu.

Aran hitzaren atondura (ar-a-n) sortza ustearen inguru sorturikoa dugu agian; eta honetatik, ondoren bitxiak atera daitekez; baina oraingoz honekin geldituko gara, bere atondura sortza ustearen inguru egiña dala esanaz. Eta **ibar** hitzaren atondura **ibai-ar** izan daiteke, **ar** ahoskiak lur edo eremu zentzua duelarik.

Lur, ur fonemaren hasierako aldaki bat dugu; gaur egun dituan esanahiak erderazko “tierra” hitzaren berdina antzekoak dire.

Buztin eta **burdin** hitz bera ditugu, ahoskeraz zerbait aldatuak; eta bere atondura oso argia: **b-ur-din; bur, lur** bezela **ur** fonemaren hasierako aldaki bat dugu; eta forma honek noizbait garrantzi haundiko esanahiak izan bide ditu: beretiko garadurak dirudite **buru** (burua), **burru** (indarra) eta aztertzen ditugun bi izenak.

Ganera, **din** fonemaren esanahia ezagutzen dugu: “bezelakoa” adierazten digu. **Ur-din** (ur-din), **berdin** (bere-din), **garden** (gar-din), **lerden** (ler-din), **oztin** (ortze-din), **gord-din** e.a. ditugu lekuko. Beraz, **bur** dugu hemen aztergarria; eta galdera sakonak erasortzen ditu gai honek: **zeren** din ote ditugu buztina eta burdina? Eta gauza biok izen bat bera dutenez funtsean, buztina ezagutu eta landu ondoren, burdina ezagutu eta landu ote zuan gizakiak? Oker ote dire giza-historia taiutu dutenek? Ala **burdin** beste burdinki (metal) bateri lehenago emaniko izena ote dugu? Ez dugu ahaztu behar edozela ere, zura bezela, burdina ere usteldu egiten dala eta deuseztu. Eta gizakiak zura landu zuela (euskaldunak batez ere) argiro nabari dugu. Beraz, **zura, buztina** eta **burdina** gizadiaren garatze bidean hiru maila garrantzitsu izan daitezke.

Eta hemen gogoratu beharrezko ditugu beste izen hauek ere: **urre** eta **zilar** (zidar). Areki biok gizakiak antxinetan ezagutu zituela argi dago. **Urre, ur** fonematikoa dugu; eta **zilar, iz** eta **ar** fonemaz atondua dala dirudi. Edozela ere, gizartearen hastapenetako izenak ditugu.

.....

arlo	=	<i>tarea, campo destinado a sembrado</i>
alor	=	“ “ “ “

Zalantza bagekoa dugu **arlo** eta **alor** hitz bat bera dugula, itzuliketa baten bidez aldatua; eta zein dugun forma zaharragoa jakitea ez da erraza, baina mendebaldean **arlo** erabilten da; eta mendebaldean itzuliketa gutxi baino gutxiago ageri zaigu. Beraz, **arlo** izan daiteke forma jatorria; eta bere atonduran (ar-lo) ageri dan **lo** hori fonema honek duen gelditasun zentzuzkoa izan daiteke; horrela izanez, erderazko “barbecho” hitzaren antzeko esanahia izango zuen hastapenean, eta orain zerbait hedatuagoa; baina ez gehiegi aldatua.

15.- Uri eta mendiak

uri = *ciudad, villa, población*

Erderazko “ciudad” zentzua adierazteko, antxinakoa dugu euskeran **uri** hitza; hainbat toki izenetan eta gelditu zaigu itsatsirik, bai eta uri askoren izenetan ere; ganera, zentzu horrekin asko erabilia dugu oraino ere euskaldun zaharren artean: “uriko”, “uritar”, “urira”, e.a. asko entzuten dire gaur ere. Esanahi hori betebetean jagoten du gaurdaño **uri** hitzak.

Euskalerra eta inguruko urien izeneri buruzko azterketa bat egiten badugu, ondoren jakingarriak aterako ditugu. Begira: oraingo Santander (San Ander kristaua) “Oruña” omen zan; oraingo Orduña, “Urduña” lehenago; Nafarroako uriburua “Uruña” forman erabiltzen omen zan, eta ez orain hain barregarriki modan jartzen ari dan “Iruinea” forma xepel hori. Arabako Urrunaga eta Lapurdiko Urruña, badaiteke beste sorbide batetikoak izatea, urrun zentzutikoak edo. Baina orain Donostia zaharra bezela ezagutzen dugun uria-zen izena ere “Izurun” omen zan.

Guzti honetatik ondoren hauxe ateratzen dut: izen hoiien oinarriki bezela **uru** hitza ageri zaigula; eretxi hau areagotzen duen izena **Izurun** dugu: atzenengo **n** hori latindarrekin ezarria izan daiteke eta hori kenduz **izuru** gelditzen zaigu; **iz-uru** (iz = ura) uretako uria genuke, eta Donostia zaharra horrelako zerbait izango zala iruditzea ez dugu astakeria izango. Beraz, izen zahar guzti hoiendarrak eta **uri** hitzak ematen digunaz, gotorki agertzen zaigula uste dut azterbide hau. Nahiz eta gaurko euskalariet **lri** forma (urun = irin bezela) maiteago duten gehienbatetan; badirudi, gaur askorentzako, zenbat eta bihurtuago, hainbat maitagarriago direla izen eta hitzak.

Gai honek badu argitu beharrezko beste alderdi bat ere: gehienek uste izango dute “ciudad” ustea adierazi dugunean “población amurallada” ustea edo zentzua izan dugula pentsabide; baina ez da horrela. Egin dezagun azteraldi bat gai inguru honetan eta gauza jakingarriak aterako ditugu.

Ertz hitzak bazterra, bai eta, argiago ikusteko, erderazko “esquina”, “orilla” eta “borde” esan nahi ditu; hortik sortutako aditz bat **ertsi** (ertz-i) dugu, eta bere esanahia, hain zuzen, “cerrar” erderazko hitzarena; ez dugu burutsu izan beharrik zerbait itxitzeko edo ertsitzeko ertsigarria behar dala jakiteko, eta “borde” hori horixe bera dugula.

Baina jo dezagun sakonago; nire ustez, baditugu beste aditz bi ere **ertz** fonema beretik sortuak: **esi** (ertz-i) eta **erri** (ertz-i); guzti hau bidezkoa eta arauzkoa dugu orain arte

ikusitako dugun euskal atonduretan; esanahi ugaritze beharrak eragin dituan ahoskera aldatze ttipi batzu baino ez ditugu. Eta berdin aditzak izen bihurtzearena.

Eta **esi** “cerrar”, “amurallar” zentzuduna izana dugu agian, eta gaur “valla”, “muralla” esanahiduna; hau ere garatze bidezkoa dugu euskeraren arauetan. **Erri** ere berdin, “cerrar”, “amurallar” esanahiduna izango genuen eta “cerrado”, “amurallado” zentzuduna geroago; beraz, gaur egun duen zentzua ere beste honen hedatze bidezko bat dugula uste dut, eta “población amurallada” zentzutikoa dugula.

Azterbide honek sakonetara eroan gintukete. Antxinetako uriburuak (eskualdeetako herririk behinenak) **uru** fonema beren baitan izateko, beharrezko izan behar zergaitiko bat hor izatea; eta **uri** hitzak duen esanahia kontutan harturik, hau ere noizbait aditza izana dugula esango nuke; bere atondura **uru-i** (urutasuna eman) izango litzake; eta “urutasun” hori erlijiozko tasun bat dugula uste dut, eta euskal logikak eskatzen duen zergaitiko hori bera eskierki; herri esitua izatea, edo ertsia (**erri**, **esi**, **ertsi** hondoko sakoan guztia bat) ez dugula zergaitiko hori, argiro nabari daiteke.

Multso honetan nunahi nabari dugun eta aurkitzen dugun bikoiztasun hori izan da gikegu argigarri; **ar** eta **urruza**, **ara** eta **ur** e.a. Bikoiztasun horri gagozkiolarik, eta erlijio arloa zerbait arakutzen dugunean, ikusiko ditugu daitezken (bidezko daitezken) adierazketa argigarri batzu.

Eta arlo hau amaitu baino lehen, bikoitzaren “bestea” gogora dezagun, bere alderdi misteriotsu batetan Euskalerriko mendi eta tontor askoren izenetan **ara** hitza ageri zaigula; honetaz lehen aldiz Barandiaranekin mintzatu nuenean, biziro arduraturik entzun zidan neronen eretxia; bera gaiaz jabeturik zegoen, baina hizkuntzalarien arloetan sartzen ausartu ez nonbait; eta nik beti esan dut eta esango dut Barandiaran euskal hizkuntzalari ez izatea ikaragarritzko galera izan dugula bai jakintzarentzat eta bai euskerarentzat.

Ara hitzaren aritik jarraituz, argiro ikusten dugu mendietako izenetan agertzen danean ez duela “valle” zentzuakin zer ikusirik. Eta izen askotan agertzen zaigu, oraingo mendi izen direnetan edo lehen izan direnetan eta orain eskualde izen bihurturik ditugunetan: **Aralar**, **Aramotz**, **Aramaio**, **Arazuri**, **Aragoi**, **Arangio** e.a.

Izen hauen aztertzerik ez dugu egingo liburu honetan; beroietako bat edo bestek beharbada harrigarritzko ondoren izango du arkeologia arloa hemen adierazten dudan arloekin lotzeko eta euskal kulturaren zuzperraldi bat bultzatzeko. Baina ez dut nahi arrapadaz gauzak nahasi, eta lan bakoitza bere epea behar duenez, hori ere egingo dugu jarraian.

7

UK

Uk ahoskiak dirudien baino garrantzi haundiagoa du euskal hizkeraren atonduran. Alderdi askotatik begiratuz arakatu beharreko hitza dugu.

Alde batetik, hor ditugu **euki** eta **ukan** aditza; biak gauza bera ditugu bai atonduraz eta bai esanahiz, askok bestela uste duenarren. **Ukan** forma **uk-a-n** atondurazkoa dugu; **a** fonema hartzen duenez gero, **in** adizgiletik **n** bakarrik hartzen du, jokera orokorraren arauz. Eta **euki** formak **e** aurre ahots gozagarria hartzen du, baina ez atzeko **a** besteak bezela; eta horrela izanik dagokion bezela, **in** ahoskitik **i** bakarrik hartzen du. Beraz, bi aditz forma hauen sorbideak argiak eta arauzkoak ditugu, nahiz eta garabide ezberdiñak hartzen dituzten. Honelaxe adierazi daitezke:

UKa-n (in)

eUK-i (in)

Beste formak (eduki, iduki, e.a.) geroagoko aldakiak dire, nire ustez.

Du (tu) adizgilea, norbaitzuentzat latinetikoa dugu; beste norbaitzuentzat **ukan** aditzetikoa edo eta “edun” aditz dalakotikoa (“espejismo” bat izan daiteke hau). Nik uste dut guzti hauek baino zaharragoa dugula adizgile hori; multso beretan, besteekin nahasi baino lehenago bere forma hartutako (edo formak hartutako) hizgailua dugula esango nuke.

Argi dago **ukan** eta **euki, in** adizgilearen eraginez sorturiko hitzak ditugula; beraz, egin-tza ustea adierazten duen beste fonema batekin nahasirik atonduak. **Du** adizgilea eta beroni izatea eman dion aditz jokoak zaharragoak ditugula uste dut; **izan** eta **iz** ahoskiarekin egin-dako aditz jokoan bezelaxe ageri da hemen ere; eta era berdinez aztertuko dugu hau ere:

Berezko ahoskia Izatasun eta ukate zentzua Hasierako ondorena

a

uk

auk

Eta bidezko garatze batetan (**iz** arloan ikusi dugun bezela):

a =	auk	=	auk	=	dauk	=	dau
i =	iauk	=	yauk	=	yauk	=	yauk
ni =	niauk	=	nauk	=	nauk	=	nauk

Hemen azterbide asko ditugu; noizbait asti gehiagokin ikertu beharreko gaia dugu, baina hala ere arazoaren adierazbiderik nabargarrienak adieraziko ditugu.

Alde batetik, oharrerazi behar dugu euskeran aritasun (activo) ustea adierazten duen **k** hori fonema honexen hondarra izan daitekela.

Beste batetik, hikako tratukeran gaurdaño bizirik ditugun gauza asko ere erro honetatikoak direlako ustea dugula. Begira:

a k	esan dau
a k	“ yauk (yok, dik)
i k	“ dauk (dok)
a(r) k	“ dauk (dozk)
ni	nauk (nok)
a	duk (dok)

Hemen nahaste haundia dugu, baina hala ere arloa zerbait argitzen joan gindezke. Ikusten dugu **uk** ahoskiak izatasun eta egintza usteak, biak dituela edo adierazten dituela neurri batetan. Bai eta **iz** multsoko aditz jokoarekin nahasi aurretiko atondura baten azterna gotorrak ditugula.

Ganera, ohargarria dugu **d** (de) ahoskiaren agerkera ere; **iz** multsoan ikusi dugu (daiz) baina multso honetan indar gehiagokin ageri zaigu; badaiteke hementxe izatea bere sortegia, eta gero besteetara (edo danak nahaste ondorengora) igana izatea. Geroztik badu euskeran indarrik, aditz iragankor izendatuan batez ere.

Aurrerago adierazi dugun **a-uk** formatiko garatzeaz aparte, badugu beste daiteken azterkera bat ere; dirudienez, bi garabide ezberdin ageri zaizkigu aditz jokoa egitean; batean, **uk** ahoskia soilik ageri zaigu, eta bestean **a** urruntasun zentzuan eta **o** urtasun zentzuan erabiliak barruko ditugula. Begira:

Soilean	Ur/urruntasun zentzuaz	
du	d a u	= dau
duk	d o uk	= dok
dut	d o ut	= dot
due (du/t/e)	d a ue	= daue (daure)
duzu	d o uzu	= dozu
duzu e		dozu e
dugu	d o ugu	= dogu

Hemen ere gauza asko dugu oharrerazgarri. Batetik, **e** ahoskiaren anitzgile zeregiña, batez ere orokor adierazkeran (nahi baduzue hirugarren pertsonan) **iz** multsoan be-

zelaxe. Bestetik, orokorkera horren lehentasuna eta besteengan duen eragina. Eta multso honen bereiztasuna duguna, ur eta urruntasun zentzuak aditzari itsastea. Nahiz eta hau mendebaldean bakarrik ageri zaigun. Eta beste multsoko garatzea guztiz berdinuz, hemen ere orokorrak, atonduraren hastapen eta eragile izanik ere, bere zati bat galtzen duena: **du(k)**, **dau(k)**. **IZ** multsoan ere berdin ikusi dugu: **da(iz)**.

Bai eta lehen pertsonan agertzen zaigun **-t** hori ere hortxe dugu. Bere sorbidea zein izan daiteken antzematea ez da erraza, baina **iz** ahoskiaren era gogorretik (iz = it) sortua izan daiteke; eta honela garatua: **du-it =dut**.

Arlo honetako zerik garrantzitsuen bi hauexek ditugu: lehen aipatu dugun **-du** adizgilea eta **-dun** atzizkia.

-dun, “duen” bera dugu (eukitza eta izatetza zentzuak biltzen ditularik). Eta ahoski honekin ongi baliatzen zaigu euskera: buru **dun**, diru **dun**, haur **dun**, ikas **tun** e.a. adibide ditugu; eta uste dut “zentzun” (zentzu) ere sen **dun** sorbidetokoa izan daitekela.

-du (-tu) adizgilea **in** bezin zaharra dugu nire aburuz; eta bi hauexek bakarrik ditugu euskeran adizgille benetakoak, baktokak bere esparrua ondo bereizia duelarik. **In** fonemak, berez aditz erroak direnak taiutzen ditu: **ikus-i**, **joa-n**, **ibil-i**, **zut-in**, **etor-i**, **ama-i**, **ego-n**, **iga-in**, **jara-in**, e.a. **Du** ahoskiak mota guztietako izenak aditz egiten ditu: **gizon-du**, **asto-tu**, **zuzen-du**, **labur-tu**, **izun-du**, **aztin-du**, **apur-tu**, **moz-tu**, e.a.

Kasu askotan, bi adizgileak algarren atzean (**in** beti aurretik) aditz bat bera taiutzen digute: **zut-in-du**, **ama-i-tu**, **ge-n-du**, **iku-i-tu**, **igi-tu**.

Beste askotan, **in** ahoskiz taiuturiko aditzek beren adiztasuna galdua dutelarik, **-du** hartzen dute adiztasuna berrartzeko: **zati-tu**, **aztin-du**, **garbi-tu**, **gain-du**, **zain-du**, **garrai-tu**, **epai-tu**, e.a.

Adizgilerik bage erabiltzen diren aditz bakanetan, joera ezberdina izan ohi da mendebaldean eta gipuzkaldean: **erre** (erre da) “erre in da” mendebaldean eta “erretu da” gipuzkaldean; **il** (il da), “il in da” batean eta “ildu da” bestean; **jo** (jo du), “jo in dau” mendebaldean; **eio** (eio du) “eio in dau” mendebaldean eta “eiotu du” gipuzkaldean. Hemen argiro ageri zaiguna zera dugu: hastapenetan adizgile biok erroeri itsatsi bage erabiliak izan direla; beraz, gaurko aditz guztiak (edo erabili izan direnak) bi hitzez erabili izan direla, bata ustea adierazteko eta bestea egintza zentzua emateko: **oa in** (joan), **itza in** (esan), **iz in** (izin, izan), **ibil in** (ibili).

Arlo honetan izan dala hizkeraren garatzerik eta aldatzerik haundiena esango nuke: erroko zentzua eta egintza zentzua hitz bitan erabiliak hasieran, biak bat eginik geroago (aditza edo “initza” sorturik) eta egintza zentzua galdurik, izen (zerizen, zelaizen, noizizen e.a.) bihurturik orain, horixe dugu hitz askoren historia.

Bi adizgileon indar eta hedadurari gagozkiolarik, errazki nabaritzen da gipuzkera dugula **-du** ahoskiaren esparru bereizia, eta beste guztiak **-in** (in, ein eta egin formatan) dutela oinarri. Funtsean, eta erroetara joaz, bi euskalkitan banatu daiteke euskera: gipuzkera eta beste guztia; hizkerako arazorik behinenak bereizten dituzte: pluralaren erabilkerak, j-y ahoskerak, hitzen itzuliketak, adizgileen erabilkerak, aditzaren (laguntzailearen) garatzeak, e.a.

Kontu izan behar da eretxi hau aldiaren sakonean eta arloaren zabaltasunean begiratuz egiña dala; eta zenbait gauza nabarrerazi beharra dagola: gipuzkera ez beste euskalkiak (“ingurukoa” izendatu beharko dugu), tokika, bizibide edo izanbide ezberdina izan duela; mendebaldean zapuzturik, harri bihurturik gelditu zaigu, baina irau du; iparraldean garatze bereizi bat izan du, eta loratze dizdiratsu bat, baina bere eskualdean soilik gertatua; eta Nafarroan, gorputz horren gerrian, ia hil egin zaigula; eta nafarrera izan behar zan, nahitaez, inguru euskalki horren lokarri eta eusle. Arabarren euskera ere galdua dugu, iparraldean bizirik ditugun hondarrak izan ezik. Eta hain zuzen, hondartxo horixe izan da ikerlan hau egiteko argia izio izan didana eta iluntegiko ikuiluak ikuserazten lagundu nauena. Zalantzarik ez dut, Arabako euskera bizi izan balitz, inguruko euskalki horren lokarri bikain izango zala. Beraz, gaur egun bi mutur direlako ustez etsiak ditugun euskalkiak, nire ustez, bat beraren zati urrundua ditugu, nahiz eta hau zinesgaitz izango zaien askori. Ikerlan hau egitean ere argiro ikusi dut hemen diñodana.

Beste euskalki indartsu eta hedatuen batzu ere antxinetan hilak izango ditugula uste dut; egoaldean eta iparraldean ere izan daitezke beren aztarnak, oraingo euskalkieri itsatsirik edo eta oraingo erderetan josirik. Baina lan hau (ikertze hau) egitea ez dugu egiteko erraza.

Eta eretxi hau sendotzeko, euskalkien gaurko egoerari soaldi bat egitea aski dugu; noizbait ingurukoak gipuzkeran eragin haundia izan zuen eta Goierria eta Urola aldea ditugu lekuko; eta berdinki, gipuzkerak geroago ingurukoaren gain izan duen eragina mendebaldeko sortaldean, Lapurdin eta Nafarroako zenbait aldetan nabari daiteke.

Beraz, gaur egun euskalkieri buruz ditugun eretxiek eta usteek aldatu beharra dugula uste dut; eta “probintziakerian” ez erorteko ahalegin bat egingo bagenu, jakintzak irabazten urtengo luke.

8

U

uka	=	<i>negando</i>
ukatu	=	<i>negar</i>
itsu	=	<i>ciego</i>
gau	=	<i>noche</i>
arru	=	<i>barranco profundo</i>
uldu	=	<i>despojar</i>
ul	=	<i>falto, sin</i>
ilun	=	<i>oscuro</i>
izun	=	<i>falso, postizo</i>
isun	=	<i>multa</i>
ixun	=	<i>falso</i>
itzul	=	<i>volcar</i>
itzun	=	<i>tumbarse</i>
itzungi	=	<i>apagar</i>
itun	=	<i>triste</i>
urrun	=	<i>lejos</i>
uts	=	<i>vacio, carencia</i>

U getasun zentzuduna dugula argi dago; baina, hitz batean noiz dan getasunezko **u** hori eta noiz dan **-dun** edo **-du** atzizkien aztarna bereiztea ez da izaten beti erraza. Gainera, **u** honek **ul** eta **un** formak ere hartzen ditu eta arazoa gaiztoago bihurtzen du. **UI** forma **u-il** atonduratik etorri daiteke; eta **un, n** itsaskorrez lagundua; **n** ahoskeraren itsaskortasuna oso nabaria da euskeran.

Uka (u-ka) hitzak **u** egiten esan nahi du; berdinak ditugu **jo-ka, jauzi-ka, dei-ka** e.a. Hitz honetan argiro ageri da **u** ahoskiaren zentzua. Eta **ukatu**, hitz horretatiko aditza dugu.

Itsu ere oso esankorra dugu; **itz** argia dugularik, **itz-u** argirik bagekoa dugu; eta itsutasuna horixe dugu, argirik eza.

Gau ere, aurrekoaren antzera, atondura berdiñekoa dugu: **ga** (izatasunezkoa) argia edo eguna dugu, eta **ga-u** argi horren eza.

Arru (arro ere erabilten da) mendien arteko beko trokari esaten zaio; eta gure lurretan, zuhaitz lurak izanik, arruak oso ilunak izan ohi dire; beraz, **ar** argia dugularik, **ar-u** argirik bagekoa genuke.

Uldu, zerbait **ul** eginik uztea dugu; eta **ul** getasuna dugu; hitz askotan ageri zaigu fonema hau beronen getasun edo ukakor zentzuakin, inoiz **ol** forma duelarik ere bai. Orain ez dugu izen hoiengatik zerrenda bat egiteko astirik, baina bat edo beste esatearren, hona hemen: **arol** (ar-ul) “fofo”, “sin consistencia” esanahia duena; **izkol** (iz-k-ul) “grito de queja”; **estul** (iz-t-ul) “tos”, e.a.

Izun, itun, ixun, itzun, itzungi eta holakoetan ageri zaigun **u** ukakorra dugu zalantzarik bage; eta itsatsia daroan **n** hori, dirudienez, indargarri du, ahoskera sendotzeko hartua.

Ilun zalantzakorrago dugu; **il-un** izan daiteke, ukakor fonema bi batean baturik; baina **il-une** (“período de sin/luz”) ere berdin izan daiteke.

Urrun hitzean argi dago **un** ahoskiaren zeregiña; ur ez dagoena dugu urruna, beraz urtasuna ukatzen duena dugu hemen **un** ahoski hori; hitz honen atondura, **ur-un**, lehen ere aztertu dugu.

Uts dugu beste hitz garrantzitsu bat; bere atondura **u-itz** izan daiteke, beraz, izatearen ukatze zentzua duelarik; horixe dugu hitz honen esanahia, eta atonduraz baditugu honen kidekiak: **ge-iz**, **ge-zur**, e.a.

9

GO

Multso hau dugu euskeran ageri zaizkigun hiru multsoetatik murriztuena eta ahulena. IZ multsoa bereiziena eta indartsuena dugun bezela, eta AR/UR multsoa sakonean aberatzena dugun bezela, GO multsoa dugu, nik uste, ahulena edo lauzotuen ageri zaiguna.

Baina bere ahultasunean edo urritasunean ere, badu zenbait arlotan halako indar bereizi bat, eta beste multsoetako ahoskien iztasuna izkutaraztera ere heltzen zaigu.

Gogoari edo eta jainko usteeri dagozkien arloetan, indar haundiz eta dizdiratsu ageri zaigu. Bai eta jainko ustearen ondoren bezela eta uste horrek giza-erakundeetan izan ohi duen (areago, lehen izan ohi zuen) eragillez sortutako atonduretan: egun-izen, aro-izen eta jainko gurtze arazoetan batez ere.

Beraz, arlo askotan nabari zaion urritasuna beste arloetan duen nagusitasunez kititzen du. Eta bere nortasuna irmeki eutsiz ganera, badu bere oiñarrizkotasuna argiro adierazteko indarra ere.

Hasieran adierazi dugun hirukoiztasuna osatzeko, ikusi dezagun multso honek zer diñoskun.

Badirudi lehenizkera hau eratu zuen gizartea hasiera garaietan menperatua izan zala, edo eta beste multsoen kulturak garatuago eta indartsuago izan bide zirela. Hala ere, bere multsotasuna eta hasierako nortasuna erakusteko lain badugu gaur egun ere. Getasun zentzu arloan, ordea, indartsuen ageri zaigu oraintxe ere.

Ahoski honen esparrua aztertzen hasi aurretik adierazketa batzu egin beharra dugu. Fonema honen garatzeari dagozkio; bat, **ga** formari buruzkoa da: **go-a = ga** egiñez, fonema hau ere **go** beraren pareko dugula; baina **go-a = ga** ere berdinki gertatzen da, eta horrela izatasun eta getasun zentzudun agertu daiteke ahoski bera; beraz, kontu handia behar da **ga** honen zentzua hitz bakoitzean zein izan daiteken erabakitzean.

Besteia, **gor** eta **gar** aldakieri buruzkoa dugu; bi forma hauek indar eta hedadura handia dituzte, batez ere **gar** formak. Ez da erraza zein izan daiteken ahoski garatze horren bidea antzematen; **go-ar** ahoski bien algartzetikoa izan daiteke, baina berdinki izan daiteke multso barruan izan dan garatze batetikoa ere... Edozela, forma bi hauek duten nor-

tasuna oraintxetik nabarmentzen dugu.

Eta joan gaitezen, bizkorki bada ere, arlo bakotxean zehar multso honek duen eragiña aztertzen.

1.- Su arloan

gori	=	<i>candente</i>
gorri	=	<i>rojo</i>
hori	=	<i>amarillo</i>
egosi	=	<i>cocer</i>
goha	=	<i>calor sofocante</i>
goma	=	<i>reverberación del sol</i>
gorpera	=	<i>sensible al calor</i>
agoe	=	<i>goa (?), masa de hierro fundido</i>
ago	=	<i>fragua</i>
gar	=	<i>llama</i>
galda	=	<i>caldo de metal, fundición</i>
galgara	=	<i>hervor</i>
gardostu	=	<i>escaldar</i>
arrago	=	<i>crisol</i>

Gori (go-r-i) aditza izana dala dirudi; “sua egin” zentzua izan daiteke aditz horrek izan zuena; horretatik gaur duen zentzura ez dago alde haundirik; beraz, oso arauzkoa dugu garatze hau euskeraz. Hala ere, badugu hemen **go** ahoski honi buruz egin beharrezko iruditzen zaigun beste oharrerazketa bat ere: ahoski honen laburtasuna, **o** ahotsean amaitzeak eragiten diona, nire ustez, gehigarriak ezartearen zergaitikoa izan daitekeala. Eta horretatik sortuak izan daitezkeala **gor, gar, goz, goi, gon** eta beste zenbait ahoski; guzti hauek agertuko zaizkigu ikerlan honetan.

Gorri, gori beraren aldaki bat besterik ez dugula uste dut; gorria suaren kolorea dugu; beraz, bere zerbait. Eta hortik gaur duen zentzuaz gelditzea logika hutsa dugu.

Hori ere berdinki, erro bereko beste aldaki bat dugu, ahoskerako aldaketa ttipi bat; gorria bezela dugu horia ere suaren kolore, indartsuago edo ahulago izan; ganera, euskaldunentzat, hori nahiz gorri, gauza bera izan da funtsean; horrela erakutsi izan du euskerak hitzak eta izenak sortu dituanean; **gorringo, beigorri** edo **abelgorri, ulegorri** e.a. atondu dituanean, horia eta gorria bat egin ditu.

Egosi hitz ohargarria eta baliotsua dugu; bere atondura **e-go-si** dugu agian; **e** aurre itsatsia, **s** itsasgilea eta **i** (in) adizgilea; **s** hori **r** ahotsaren aldaki izan daiteke. Edozela, **go** dugu hitzaren erroa, eta hitz horrek duen zentzutik sua adierazten duela dirudi.

Goha (go-a) sua bera esan nahi izan duen hitza izan daiteke; hitzaren atondurak eta gaur duen esanahiak hori pentsaerazten dute.

Goma ere oso polita dugu; bere atondura **go-eman** izan daiteke, eta duen esanahiaz ondo eskontzen zaigu.

Gorpera dugu zerrenda honetako hitz argienetarik; **-bera** atzizki ezaguna dugu eta “sensible” eta “propenso” usteak adierazten dizkiguna. Beraz, **gorpera** hitzak beroarekiko beratasuna adierazten digularik, **gor** beroa edo sua zentzuduna dugu.

Agoe, galdatan dagon burdina dugu; beraz sua bera izatearen pareko. Gaztelera **goa** esatea gauza beroni oso ohargarria da; halaberharrez (kasualidadez) gertaturiko gauza izatea ia ezinezko iruditzen zaigu; beraz, hemen ere bada azterlan batetarako gaia, eta nahiz latinetikoa nahiz beste hizkera batetikoa izan hitz hori, aztergarritasunak berdinki jarraitzen du.

Ago, aurreko hitzaren senide dugu; baina hemen ez du burdinarik aipatzen, zuzenki behintzat; sua bai ordea aipatzen du eta **ago** honek adierazten digun zera, gaur gehienbatetan “sutegi” izenez ezagutzen dugu.

Arrago dugu arlo honi indar ematera datorkigun hitza; bere atondura, **ar-a-go**, benetan ohargarria dugu; **ar** eta **go** bi ahoskiak ageri zaizkigu hitz honetan, eta izate honek zahartasun kutsu gogorra ematen dio. Jokera berdina ageri zaigu beste zenbait hitz zaharretan: **goiz, izar, aritz**, e.a. Edozela, **agoe, ago** eta **arrago** algarrengandik lokatu ezinezko hitzak ditugu.

Gar dugu gaur multso honetatik sua zuzenki adierazten digun hitza; forma honek indar haundia du arlo guztietan. Badirudi, multso honetako burutza harturik, edo bigarren mailako multso bat eraturik, bere nortasun bereizia izan duela antxinako garai batetan; ikertze honen bidez argiro ikusiko dugu nortasun hori.

Galda (gar-da), **galgara** (gar-gar-a) eta **gardostu, gar** errotikoak ditugu.

2.- Argi arloan

goiz	=	<i>mañana</i>
gau	=	<i>noche</i>
ego	=	<i>sur</i>
egu	=	<i>luz atmosférica, atmósfera</i>
egun	=	<i>día</i>
eguantz	=	<i>aurora</i>
eguzki	=	<i>sol</i>
negu	=	<i>invierno</i>
Egu	=	<i>Dios</i>

Goiz, argiaren edo egunaren izena izana dala dirudi; hitz honen atondura, **go-iz**, bi multsoetako ahoski nagusiz osatua dugu. Gaur, egunaren hasierako zatia esan nahi du,

baina hizkeren hastapenetan ez zitekean holako bereiztasun zeherik izan; beraz argia, eguna edo holako zerbait esanahi izango zuan.

Gau, getasun zentzuduna izan behar nahi ta ez, euskal hizkeraren filosofian iluna, eza, hutsa, gaitza e.a. ditugun bezela; eta hitz honen atondura, **ga-u**, argirik eza zentzutikoa dugula uste dut; hor dugu **gaur** (ga-ur) hitza ere, **ga** ahoskiz atondua eta zentzu inguru beronetakoa. Beraz, **ga-u** hitzean **ga** argi zentzuduna litzake eta **u** ukatzailea.

Ego, ipartarrentzat eguzkiaren aldea dugu, eguzki horrek eguna zehar igaiten duan aldea. Hitz honetatik bi ondoren nagusi atera daitezke. Bat, **go** ahoskitik **egu** formarako garatze bidean **ego** dugula bitarteko; eta aurre itsatsitako **e** hori, lehenago ere aztertu dugunez, badakigu euskeraren hastapenetako zer bat dugula; beraz, **e-go** genuke lehen aldaketa (oso arauzkoa) eta **egu** bigarrena (hau ere arauzkoa). Eta hemendik **go = egu** eta bigarren forma honek duen garrantzia euskeraren atonduran eta filosofian.

Eta bestea, **ego** izenez egoaldea izendatu izan duen gizartearen lurberaren iparraldean bizi izan dala ohartzea; eguzkia alde horretatik igaiten ikusten zualako izendatuko zuen “go-aldea”; eta zernahi ikerlanetarako oso garrantzitsua deretxiogu oharpen honi.

Egu, argi zentzuduna ere dugularik, asko gehiago dugu funtsean; **go** ahoskiaren zentzu eta oinarritzko balio guztiak beregan hartu dituen hitza dugu eta ikerketa bereizi baiten duin dugu. Jarraian zerbait aztertuko dugu, **eguzki** hitza ikutu ondoren.

Eguzki, ez dugu esan beharrik, eguzkiaren izena dugula; eta bere atondura, nire aburuz, **egu-ki** dugu; atondura berekoak ditugu **ar-gi** eta **iz-ki** (gi = ki), eta ageri zaigunez, hiru multsoetako ahoski izakorrak izan dute garatze berdina: **argi**, **izki** eta **egu(z)ki**. Antxinetan jainko ustea, argi ustea eta eguzkiarekikoa gauza bat beraren alderdiak bezela izango ziren, eta izatasun hau euskeran behin eta berriz ondo argiro ageri zaigu.

Negu, **egu** ahoskitikoa dugu zalantzarik bage; neguan eguzkia behean izaten da eta behetasun horretan izan daiteke hitz honen sorbidea: **be-egu = begu = megu = negu** izan daiteke izen honen sortze eta garatze bidea.

3.- EGU

Multsorik ahulena dugula **go** ahoskitiko hau esan dugu, baina berdinki aitortu behar dugu EGU izena dugula, bere jainko zentzuaren bidez, usterik behinenak markaturik utzi dizkiguna. Begira zelako zerrenda aberatza sortu digun:

Eguberri
Ekain (egu-gain)
Eguasten
Eguen
Egubakotx
Egun
Egualdi
Ekaitz (egu-gaitz)

Eguzki

Eguantz

Euskera (aztertuko dugu)

.....

gurka	=	<i>reverencia en la iglesia</i>
gurtu	=	<i>adorar</i>
guthun	=	<i>libro, escrito</i>
kutun	=	<i>amuleto, escapulario, carta</i>

Zerrenda honetatik atera daikegun ondorenak liburu mardul bat betetzeko lain arazo sortuko liguke; baina azalkiroago adierazi beharko dugu, eretxirik behinenak azalduz eta zentzurik garrantzitsuenak agerreraiz.

Eretxi bat, eta behinena beharbada, hauxe dugu: lehen aroetan gizartearen pentsakera, ikuskera eta bizikera guztia jainko ustearen inguru atondua izan bide zala; eretxi horretara heldu bagerik, ezin daiteke hitz bakotxaren zentzua ondo nabari, ez eta hizkuntzaren filosotia ulertu.

Eguberri eguzkiaren neguburuko behemugari esaten zaio edo eta goraka abiatzen dan egunari; hortik **egu-berri**, eguzkiak urtebeterako jira berri bat hasten baitdu; beraz, **egu** dugu hemen eguzkiari ematen zaion izena, nahiz eta, lehen esan dugun bezela, eguzkia, argia eta jainko usteak algar loturik ageri zaizkigun multso guztietan; baina **egu-ki** **egu** bera genuke, edo bere zati bat, **ar-gi ar**-en zati bat edo **ar** bera genuken bezela.

Ekain dugu eguzkiaren udaburuko goimugari ezarritako izena; hitz honen atondura **egu-gain** dugu, beste antzekoetan ikusiko dugun bezela, eta ahoskeraz laburtua. Izen bi hauek, bai eta izendatzen dituzten egunak, euskaldunen lehengo erlijioak zituen bi ospakunde nagusiak ditugu; gaur egun ere erraza da antzematea hori holaxe izan zala.

Eguaste, **eguen** eta **egubakox** gaurdaño iraun duten hiru egun-izen ditugu, bai eta, zoragarriro algarri loturik beren esanahiak, argi bizia egiten digute antxiñetako arazoak ikertzeko. Euskaldunek antxiñatik zazpi eguneko astea taiaturik zutela dirudi. Begira:


Aste izena **as-te** atondurakoa dugu; beraz, erderazko “comienzo” zentzuduna; eta **astebete**, **aste** horixe beste zerbaitekin osatua edo betea, hitzak diñoan bezela. Asteak **astegunak** ditu eta astebeteak **astegunak** eta **jaiegunak**; gaur egun ere holaxe pentsatzen dute euskaldun zaharrek, batez ere baserritarrek, eta holaxe erabiltzen dute beren hizketan. Jai egunak lanetik libre diren egunak izan ohi ditugu, eta horixe adierazten digu **jai** hitzak; eta EGU izanik jainkoari emandako izena (izenetatik bat), bere omenez ospatzeko egunak izan behar antxinetako jai egunak.

Eguen, **egu-e-n** atonduraduna dugu eta bere esanahia “jainkoaren”, **egu** dugularik jainko horren izena. Baina egun honen inguru atondurikoak ditugu bere aurreko eta atzeko egunak ere, izenetatik atera daikegunez; **eguasten** dugu aurrekoa, eta bere atondurak diñoskunetz, horixe esan nahi du, jainkoaren ospatzea hasteko eguna: **egu-aste-n**, berriz ere **n** itsatsia ageri zaigularik; beste egun izen gehienak **n** horrekin amaitzen direlarik, bi-

dezkoa dugu honi ere itsastea. Eta **egubakox** dugu atzekoa; izen bitxia eta esankorra, batez ere euskal izatea eta filosofia ezagutzen dituanentzat; bere atondura aski argia dugu: **egu-bako**, atzean xistuki ahotsa itsatsi zaiolarik.

Guzti hau ulertzeko, euskal gizartera kristau erlijioa sartu baino aurreragoko giro bat iruditzeko ahalmena behar dugu; eta ez fantasiaren egoz egazka eginez nahiz geure gaurko neurrira gauzak makurreraziz; euskeran dugun hitzobi aberatzaz baliaturik eta sentasun bidea jarraiz, ondo nabari dezakegu zer eta zelakoa izan bide zan euskal kultura bere alderdi gehienetan.

Geroago arlo beratu berriz ikertzeko asmotan ere, aztertu dezagun zerbait antxina-ko euskal astea zela atondua izan zitekean **Egu** jainko izenari dagokionez eta gaurko euskerak gaia argitzen digun neurrian:



Ez dugu hau euskal kulturan izan dan egunekiko izenkada bakarra; beste bi ere ageri zaizkigu, gaurdaño zelabait iraun dutelarik euskal hizkeran itsatsiak; baina beste bi hoiak beste jainkoizen batzuri buruz atonduak izan direnez, geroago ikusiko ditugu, bai eta guztiak algarrekin kidekatuz. Ikusiko dugu funtsean filosofia berdin baten inguru atonduriko izenkadak ditugula, jainko izan ezberdin batzuen inguru taiutuak, baina bizikera eta pentsakera berdineko gizarte batetan eratuak.

Aztertu dezagun, bizkorki bada ere, izen zerrenda hori, eta gure nabarimena bere inguru diren izantzak argitzen erabiliz aztertu dezagun.

Ezarri dugun izenkada hori kristau aro aurretikotzat joten badugu, kontutan izan behar ditugun gauzen artean hauxe ere garrantzitsua dugu: kristaudiak zeharo ezarri zuen arau bat zazpigarren eguna jai egitea izan zala (edo dala), eta horrek eragin dituen aldatketak eta apurturak argiro adierazten digula gaur euskal egun izenetan ageri zaizkigun nahasketak; areago esanez, estalki hori kenduz gero (zazpigarren berria ezarteara), osotasun eta egokitasunez atonduriko eraketa bat agertzen zaigu; eta eraketa horren arauetara gaur ditugun hitz eta izen guztiak, euskal munduko pentsakera eta filosofia guztia, bai eta ziñeskeriak, zoragarriro kidekatuko ditugu; hautsitako pitxar baten zatiak bezelaxe algar lotu daitezke.

Nabari dugun euskal aste horretan zazpi egun ditugu; eta jai nagusia, astebete guztiko egunik behinena, bosgarrena, EGUena; astea (ez astebetea) hiru astegunez osatua izan dala ageri da: **len**, **arte** eta **atzen** (azken) hitz aski argiak ditugu, hasieratik amaitzerainoko osotasuna erakusten digutelarik; eta gero beste hiru egun jainko ustearen inguru eratuak ditugu: jainkoari eskainia (eguna), bere aurrekoa eta atzekoa osagarri bezela ditutelarik; eta azkenez laurenbata, astebetea osatzen duena, ilargitearen lauren bat eginez; izen guzti hauek bat bestea baino baliotsuago ditugu eta merezi du zerbait gehiago erabiltzea gai hau.

Hiru astegunak, **astelen**, **astearte** eta **asteatzen** (azken), lan egunak izan bide ziren antxinako gizartean; komuntasan arauzko eraketa batetan bizi bide zan gizarte batetan, aski zitezkean hiru egun astean lan gogorrek egiteko: lur lanak, ehizaketa nagusiak, egurketak, e.a. Gero **eguate(n)** dugu; gaurko larunbataren pareko zitezkean, jai egunaren bezpera, gertakizunak egiteko eguna; euskaldun artean jai aurreko egunak beti izan du halako arrakasta giro bat; oraingo garai honetan ere, larunbata jai egitea euskaldunek indarrez lortutakoa dugu; eta eguastenak badu beste zentzu bereizi bat ere: mutiko nintzanean, beti entzun izan nuen eguastena nesken eguna zala; eta horren zergaitikoetan bazirudien amabirjinarekiko ustetan erroturik zan zerbait egoala. Baina ikerlan hau egitean beste zerbaiten aztarna dugula konturatu naiz; adieraziko dugu geroago.

Eguena jai eguna izan da euskaldunen artean; jainkoa gurtzeko eguna, beraz, astebete osoko egunik garrantzitsuena eta garaiena. **Egubakox** hilen eguna izan dala argi ikusten da; gaur egun ere, euskal gizartean ohitura sakona dugu festa biharamunetan hileri oroipen egitea; hogetamar urte hauetan asko ahuldu dire ohitura eta ziñeste zahar asko, eta hilekiko honetan ere bai; baina Barandiaran jaunak gai honi buruz bildu dituen txostenekin bakarrik nahiko frogatu genuke.

Hogei urte inguru da barikuz (ostiralez) eztegu batera nindoala esan nuelako aitarrenka hasi zitzaizkidala norbaitzuk; eta ni baino gazteago ziren; ez zuten ziñesten osti-

ralez iñor eskondu zaitzekanik. Barikua arimen eguna zala ere ikasi gendun; bai eta sorginen eguna zala ere, beste mundukoena, e.a.; gaurdaino iraun dute zenbait ziñeskerak: barikuetako trumoi (ostotsa) berrogei egunetarako izaten dala; egun horretan oilo lokari arrautzarik ez zaiola ezarri behar, e.a. Guzti honek esan nahi duena zera da: egubakox eguna itzalezko eguna zala, hileri eskainia eta jainkoa izkutatzen zan eguna.

Jainkoa izkutatze horren zentzua dute ostiralari eman izan zaizkion izen guztiak. **Ortziral** (ortzi-r-al), ortzi bageko eguna; kontutan izan behar dugu **ortzegun ortzi-egun** dugula, beraz **egu-en** izenaren pareko. **Egubakox** (egu-bako) egu bagekoa. Eta **bariku**, nire eretxiz, hauxe baino besterik ez dugu: **egu-bariko**; getasuna adierazteko mendebaldeko euskeran arauzko atondura dugu: **ge, bage, bako** (ba/ge/ko) eta **barik** (ba/ge/rik). Beraz, **egubakox** eta (egu)**bariko** gauza bera lirateke.

Laurenbat eguna dugu agian euskal astea osatzen zuen zazpigarren eguna; Mitxelenak eta diñoenez, forma hauxe (laurenbat) dugu zaharrena; eta hillabetea illargiaren biraldi bat dugula ohartzen badugu (ill = mes eta ill-argi = luna), adierazpena ere erraza izango dugu; illargite bat lau laurenatan zatitzen badugu, zazpi egun izango ditu lauren batek (hogetazortzi biraldiak); beraz, lauren hori betetzeko, ikusi ditugun sei egunen ondoren beste bat behar zan, eta horrela hillabetearen “lauren bat” hori osatua zegoen; eta hortik egun horri **laurenbat** eguna esatea ezin ulerkorragoa dugu.

Ikusten ari garenez, egun bakotzak bere izen jatorraren gain bazuen beste bat ere, bere zelakotasunari buruzkoa; gaur egun ere berdin egiten dugu, astelena “biharamun” eguna, hitz horri “aje” zentzua emanik; eguena “gizonen eguna”, barikua “kaskajoena”, e.a. Laurenbat eguna zazpikotea betetzeko ezarria zala aski argi dugu; beraz, **egu** zentzudun egunetatik **astegun zirenetara** zubi bat bezela izango zan, batzuetatik besteetara “pasatzeko” eguna; eta “pasatzea” esan nahi duen aditza euskeran **igan** (edo **igain**) dugularik, (**iragan** bigarren mailakoa dugu), **igante** “paso” edo “pasamiento” genuke. Beraz, zelakotasunezko izenak hauexek zirekean: lehenbiziko hirurak “astegun” eta besteak “nesken egun”, “jai egun”, “illen egun” eta “igante egun”. **Igante** forma **igande** baino zaharra omen da.

Gero, kristau erlijioa sartu zanean, zazpigarren eguna behar zan jainko berriari eskainitakoa; lehengo izenak erdeñatuak izango zirena zalantza bagekoa dugu; **eguen, ortzegun**, eta **laurenbat** beren zentzuz markaturik izango ziren eta horregaitik baztergarriak ziratekean. Eta “domeka” sortzen da (dominus = jauna) “domenica” euskaldundurik. Baina jai eta igante izen apalagoak izanez, baliagarri gertatzen dire eta irauten dute.

Astebeteak zazpi egunetako izaten jarrai behar zuen; baina lehendik zazpi izan, bat gehitu eta berriz ere zazpitan gelditzeko bat galdu behar; apertura honexek adierazten du gaur euskeran ageri zaizkigun nahasketak egun izeneri buruz. Dirudienez, mendebaldean **asteatzen** galdu zan, **eguasten** bere lekuan ezarririk; ordurako, eta erromatarren eraginez, (kristau aurretiko gauza dirudienez), **astearte** ordez **martitzen** (martiz-en) sarturik zan. Gipuzku aldean, ortzegun aurrekoa galdu zan nonbait, eta ez du aztarnarik utzi.

Bestalde, euskal erlijioa eraketa suntsiturik, zazpigarren egunera, jai egun berrira pasatu behar izan zuten ospakundeak, jainkoa gurtzeko ospaketak. Eta horrekin batera, bezpera eta biharamun giroa, “domeka”ren aurreko eta urrengo egunetara. Eta nire us-

tez, hortik datorkigu eskualde batzuetan larunbatari “neskenegun” esatea eta beste eskualde batzuetan astelenari “illen” esatea. Lehengo **eguasten** eta **egubakox** jainko eguna (**egu** eguna) domekara pasatua zalarik, geroko larunbat eta astelen bihurtu ziren.

Ziñesgaitz eta tamalgarri dugu kristau erlijioa sartu zanean bere aurretikoari buruz zerbait idatzia ez izatea; baina halaxe da, eta gaur euskera dugu arlo hau argitzeko tresna bakarra, baina oso baliotsua eta emankorra. Eta, beraz, baliatzeak merezi duela uste dut.

Egun hitza Euskalerrri guztian hedatua izateak esanahi garrantzitsuak ditu; alde batetik, **go = ego = egu** aldaketa edo garatzea antxinakoa dugula adierazten du; eta beste batetik, gaur nabari ditugun bi euskera motak gorpuztu baino lehenago hedatua izan behar zala ere bai. Ohartzekoa dugu EGU jainko izen bezela “inguruko euskalkian” baka-rik ageri bazaigu ere, bestean ere hizkuntzaren erroetan indartsu ageri dala hitz hori.

Egualdi (egu-aldi), **eguantz** (egu-antz) eta **ekaitz** (egugaitz), bai esanahiz eta bai atonduraz oso argiak eta arauzkoak ditugu. Baina **ekaitz** aztertzean ezin dugu ahaztu **ekain** hitza; izan ere, atondura eta laburketa guztiz berdina dute izen biok. **Egu-gaitz = ekaitz** eta **egu-gain = ekain**, hitzen garatze bat bera dugu; beraz, norbaitek batari buruz zalantzarik izan badu, bestearen lekukotasunak argi in bekio.

Euskera euskaldunak bizkortzen eta zuzpertzten dituan hitza dugu; bai eta euskaldunen izatasuna eragiten duan iturria ere; euskera bagerik ez legoke euskaldunik, ez eta Euskalerririk. Euskal kultura, filosofia eta izate guztiaren eragile eta erroa dugu euskera; hitz sakratua eta ikutu-gaitza beraz; izan ere, gehien batetan euskaldunak zuzpertzten ditularik, iñoiz (behar baino gehiagotan) norbaitzu beren senetik atera eta itsutu ere egiten ditu. Beraz badakigu hitz honi buruz zerbait esatea urkamendirako bidean jartzea bezela dala. Baina odolbero batzuen zirkinengaitik ezin dugu utzi aztertzeke; beste batzuk egingo luteke guk egingo ez bagendu. Ganera, hizkuntzak berak araukaturik erakusten digun bidetik azterlan bat egitea, edo hitz bat bakarra hartu eta fantasiak egitea ez da gauza berdiña.

Bost formatan gutxienez ageri zaigu euskal hizkuntzaren izena: **euskera**, **euskara**, **eskuera**, **eskuara** eta **uskara** (üskara). **Eskuera** arabar euskaldunek erabilia, gaur gutxi batzuen ahotan entzuten da; **eskuara** lapurditarren mintzoan; hemen gauza bitxi bat oharre-razi beharra dugu: arabar eta lapurtarren artean euskerari buruz aurkitzen ditugun kidesu-
nak harrigarriak ditugula sarritan eta ikerlan bat merezi dutela. **Uskara**, Erronkari, Zuberoa eta inguruetan. **Euskara** nafar eskualde batzuetan eta **euskera** beste guztian.

Mendebaldeko euskalkian eta gipuzkeran forma bera erabiltea oso garrantzitsua dugu; hizkuntzaren erroetan aurkakerarik gehien dutenak ditugunez, bidezko zitekean honetan ere ezberdin agertzea. Bai eta arabar eta lapurtarren **esku** hori **eusk** fonemaren itzulike-
ta bat dugula dirudi. Bestalde, **euskera** eta **euskara** formen arteko aldea **-era/-ara** dugu; eta arazo hau berdiña dugu aditzean ere (**erazi / arazi**); funtsean gauza bat bera ditugu bi formak (era/ara), baina bat aukeratu beharrezkoa dugu eta zein izan daiteken jatorra-
goa erabakitzen ez da erraza; baina erderazko “modo” zentzuaren pareko euskeraz **era** hitza onartzen badugu, beste honetan ere onartu beharra dugula uste dut, hizkuntzaren arauak eta atondura jarraitu nahi baldin badugu.

Ganera, **euskara** forma orokor arauz onartuz gero, **hizkara**, **gipuzkara**, **bizkaia-
ra** e.a. ere onartu beharko lirake.

Hitzaren lehen zatia dugu hemen auzi iturri; honetaz gehiegi ez dut irakurri, baina uste dut nahiko zeregin emana digula euskaldunoi eta beste askori ere. Azkuek diñoanez, Jainkoak daki nondik datorren; guk, lan honen zati guztietan bezela, albait argitasun gehien hartuz eta erabiliz, bai eta hizkera guztian ageri zaizkigun araueri jarraituz, adierazpen egoki eta zentzuzko bat billatzen saiatu behar dugu.

Eta **egu** hitz sakratuaren baitan dugula adierazpen hori uste dugu. **Itz-era** atonduratik sortu zaigu **hizkera**, “lenguaje”, “modo de hablar” adierazteko. **Egu** hitzak, “argi”, “jainko”, eta hauen inguruko usteak adierazten dizkigu; beraz, “on” ustea ere bere baitan izan bide du, arauzkoa baitdugu jokera hau antxinetako pentsakera guztian. Eta “ona” eta “geurea” eta “benetakoa” gauza baten hiru agerkera bezela izan ohi dire gizakiarentzat, “argia”, “izatea” eta “jainkoa” izan ohi diren bezelaxe.

Beraz, **egu-hizkera = euskera** izan daiteke hitz auzigarri honen sorbidea; hizkera arauen aldetik ezin bidezkoagoa dugu garatze hori. Eta lehenaroetako filosofiaren aldetik ere berdinki egokia dugu adierazpena. Nonbaitetik sortua izan behar duelarik eta euskeraren erroak ikusten ari garelarik, ez diot beste sorbiderik antzematen; ganera; eguhizkera “geure hizkera”, “hizkera jatorra” bezelako zentzuekin erabilia izan dalakoa susmatzea bidezkoenik dugu ikerlan honek agerreraizten dugun mundua ezagutuz.

Erdera hitza dugu arlo hau argitzeko edo eta auzi hau garbitzeko nahi eta ez kontutan hartu beharrekoa. Eta aztertze saio bat zor dioguna. **Euskera** hitzaren aurkako dugunez, atonduraz horren kide izan behar duena dugu; izan ere, **era/ara** arazoa ere berdinki ageri du. Hitz honi dagokioken sorbidea honelaxe ikusten dugu: **erri-de-era**, (lenguaje o modo de pueblo extraño); **de** fonemaren “urrungo” edo “kanpoko” zentzua lehenago aztertu dugu; beraz, **erri**, **de** eta **era**, hiru fonema argi ditugu hitzaren atontzaila. Eta **erri-de-era = erdera** adierazteko ez dugu izerdirik aterako.

Eta **erdeinatu** (despreciar) ere sorbide berdinekoa dugula dirudi; beharbada, **erderatu** hitzaren fonetika aldaki bat dugu, eta esanahia ere ingurukoa du, **erderatu** = “expulsar” onartuko bagenu. Oharrerazi beharrekoa dugu **erdera** hitzak bi atondura eta bi esanahi ezberdin izan ditzakela. Bata, agerreraiz dugun **erri-de-era**, beraz, **erde-era**, kanpoko herrien **era** (hitz egiteko nahiz beste edozertarako) adieraziz. Eta bestea, **erde-r-a** (“nora” zentzuduna), kanpoko herrira bidaltzea esanahia lukeana. Eta **erdei natu** zentzu honetakoaren garatze bat genuke, hobeto esanez, aldaki bat.

Gurka (gur-ka) eta **gurtu** (gur-tu) **gur** hitzaren ondorengoak ditugu; ageri danez, **gur** hau “adoración” zentzuduna dugu. Ezin daikeguna argitu zera da, **ur** ala **egu** ahotsetikoa izan daiteken.

Guthun eta **kutun** gauza bera ditugu. Eta hemen bai dugu argiagoa daiteken sorbide bat: **egun-dun**. Honek ulerreraziko luke gaur dituen zentzu ezberdinen nondikoa. Antxinetan, liburu edo idazkiak, gehienak behintzat, jainko arazoari buruzkoak izan ohi ziren; beraz, **egu** jainkoa izanik, **egudun** (kutun) izatea berari buruzko gauzak oso bidezkoa dugu.

4.- Goi zentzu arloan

goi	=	<i>arriba, alto, cielo</i>
goibel	=	<i>cielo oscuro</i>
igon	=	<i>subir</i>
gora	=	<i>a arriba</i>
goitik	=	<i>desde arriba</i>
gain	=	<i>cumbre, cima</i>
gaindu	=	<i>remontar, vencer</i>
gara	=	<i>elevación, desarrollo, escape de plantas</i>
garai	=	<i>alto</i>
garaitu	=	<i>vencer, sobrepasar</i>
Jaungoiko	=	<i>Dios, señor de los cielos</i>
Jainko	=	“ “ “

Bi formetan, **go** eta **ga**, ageri zaigu arlo honetan. **Goi** hitzak aditz izana dirudi bere hastapenetan, baina gaur zentzu ugariz ageri zaigu; “zeru” zentzua du behinena eta indartsuen adierazten diguna; “goian bego” eta holako esaerak horretatik datozkigu. **Goi** hitzaren atzen **i** horrek ematen dio aditza izan danaren itxura; hala ere, **go** ahoskiaren laburtasunak eragiñiko ahots gehitze bat izan daiteke.

Goibel (goi-bel) zeru iluna esan nahi duen hitza dugu; izan ere, **bel** ahoskiaren esanahia horixe dugu, “iluna”, lehenago ikusi dugun bezela.

Igon dugu, nire ustez, zerrenda honetako hitzik baliotsuena; aditza eta **go** horretara joatea adierazten diguna: **i-go-in**. Ohartzen badugu beste arloetan ere antzera garaturiko aditzak ditugula, garrantzi handia hartzen du; eta beste aditz hoiek hauek ditugu: “su” arloan **egosi** (e-go-s-in), “izan” arloan **egon** (e-go-in), eta inguruko zentzu batetan **egotzi** (e-go-itz-in). Bitarteko ahots bezela ageri zaigun xistuki hori **iz** ahoskiaren hondar bat izan dai teke, baina beharrez erantzitako gehigarri bat ere berdin.

Gora hitza aurrekoen argigarri dugu; bere atondura, **go-r-a** oso ohargarria dugu; atzen **i** bage ageri zaigu eta **go** dan horretara zerbait egitea adierazten digu. **Goitik** bere aurkako zentzuduna dugu, **goi** horretatik zerbait egitea adierazten digularik; baina hemen atzen **i** hori ere ageri zaigu.

Gain ere aditza izana dugu, baina gaur izen bihurturik dugunez, **-du** adizgilea hartzen du aditz izaten jarraitzeko: **gaindu**. Hitz honek argiro erakusten diguna, zera da, **ga** ahoskia dugula hemen goitasunaren adierazle: **gain**. Beraz, **go** fonemaren aldaki forma bat.

Gara, hitz oso erabilgarria dugu; erderazko “desarrollo” ustea onezkien adierazten digun hitza dugula uste dut. Bere sorbidea **ga-r-a** izan bide da, **go-r-a** bezela eta guztiz berdiña. Honetan ere aski argiro ageri zaigu **go** eta **ga** gauza bera ditugula. Lan honen hasieran adierazi dugun zergaitikoa dugula uste dut **ga** forma honen sorbidea; **go-a = ga**.

Garai, aditz izatetik izen izateko bidea burutzen ari dan hitza dugu; bere atondura (ga-r-a-in) argia dugu, bai eta adiztasun hori argiro erakusten duguna. Baina aditz izate horren zentzua ia galdurik duenez, **-du** atzizkiz baliatzen zaigu berriz zeregin horretan aritzeko, eta horrela sortzen zaigu aditz forma berria: **garaitu**.

Jaungoiko (yaon-goi-ko) “zeruetako jauna” zentzuduna dugu; badaiteke kristautze has-tapenetan eraturiko izena izatea; iñoiz horrelako zerbait irakurri dut, baina ez da erraza uste hori frogatzeko aztarnarik aurkitzea; bakarrik, atondura xepeleko izena dugula; “aita-gurea” hitz gaizki atonduaren antza du eta hau bai badugu kristau arokoa. Beraz, “goiko-jaun” ordez “jaun-goiko” atondua izateak halako erdalgiro batetan sortua dan antza ematen dio.

Jainko ere zentzu berdineko hitza dugu. Eta hitz honek bere auzia dakar; badaiteke **jaungoiko** hitzaren laburketa bat izatea, eta hala dirudi. Baina bai eta badaiteke beste sorbide batetako izatea; esate baterako, **jaun-go** atondurakoa; horrela izatera, **go** genuke jainkotasun ustea adierazten duen ahoskia, eta hitza **jaungoiko** baino askoz zahar-ragoa genuke. Bestalde **jaun = jain** aldaketa oso bidezkoa dugu euskal arauetan. Edozela ere, ez dut uste iñoiz argitu ahal izateko arazoa dugunik; beste hizkera batzuen eraginez izan ezik behintzat.

5.- Izatasuna eta ondorena

-go (-ko)	=	<i>genitivo relativo</i> (nongo, horko, etxeko)
“ “	=	<i>sufijo de futuro</i> (izango, ikusiko, joango)
“ “	=	“ <i>de esencia</i> (etsaigo, ikasgo, aidego)
“ “	=	“ <i>derivativo</i> (lodigo, zabalgo) s/adj.
“ “	=	“ “ (etzango, itzalgo) s/nomb.
-ko	=	<i>diminutivo</i> (mutiko, oillazko)
“	=	<i>cuantitativo</i> (bakotxeko, ehuneko)
-zko (-z-ko)	=	<i>sufijo de composición o constitución</i> : arrizko zurezko, lurrezko.
“	=	<i>sufijo de modo</i> : oiñezko, zaldizko.
“	=	“ <i>de esencia</i> : egizko, berezko, gezurrezko.
-ago	=	“ <i>de relatividad</i> (gehiago, beltzago, zuriago)
egon	=	<i>estar</i>
egotzi	=	<i>imputar</i>
-koi	=	<i>propensión</i>

Lenen adierazi behar duguna hau dugu, **go** eta **ko** fonema bat bera dugula, biguna-go edo gogorrago ahoskatua.

Eta ahoski honek euskeran duen zeregiña zenbateraiñokoa duen ikusirik, ohargarri dugu bere zentzua beti “izan” zentzuaren barrutikoa dugula. Nongo, ikasgo, zabalgo, itzalgo, ehuneko, lurrezko, oiñezko, berezko nahiz beltzago hitzetan, funtsean eta erroko zentzuz, atzizki honen esanahia “izatea” dugu.

Aditzetan (izango, jango, ibiliko, salduko), izatasun zentzuaren gain, gerotasunarena du, ondoren zentzu antzeko zerbait sortuz.

Egon (e-go-n) **izan** aditzaren pareko dugu, baina hizkeraren garatzeak eta zentzuen motakatzak esanahi bereizia harrerazi diotelarik. Hitzaren atondura, arauz egokia dugu, e aurreitsatsia eta **n** adizgilea bere baitan dituelarik.

Egotzi ere, zentzuz eta atonduraz, inguru berekoa dugu; **e-go-itz-i** izan daiteke aditz honen sorbidea.

-koi ere berdinki, izatasun zentzu osokoa dugu. Izakera adierazten digu argiro eta garbiro.

Eta adierazi dugun lekukotasunaren aurrean, ez dut uste inork zalantzan ezarri daikenik **iz, ar** eta **go** hirurak ditugula euskeran izatasun zentzuaren jabe eta adierazle.

6.- Gogo arloan

gogo	=	<i>espíritu, pensamiento, alma</i>
gomuta	=	<i>recuerdo</i>
goartu	=	<i>advertir, darse cuenta</i>
gorroto	=	<i>odio</i>
goga	=	<i>sospecha</i>
gogaitu	=	<i>aburrirse, hastiarse</i>
goaltsu	=	<i>entusiasta</i>
gorantzi	=	<i>recuerdo, saludo</i>
gomen	=	<i>poder</i>
gotor	=	<i>bien desarrollado, altivo, constante</i>
goman	=	<i>atención</i>
korde	=	<i>sentido, sensibilidad</i>
koi	=	<i>aficionado</i>
kontu	=	<i>cuidado</i>
gogobage	=	<i>descuidado</i>
gogauldu	=	<i>desanimarse</i>
gozo	=	<i>dulce, placer, gusto</i>
gozage	=	<i>amargo, desabrido</i>
gozaro	=	<i>dulcemente</i>
gozatsu	=	<i>placentero</i>
gozatu	=	<i>endulzar, gozar</i>
gardi	=	<i>opinión</i>
garbai	=	<i>arrepentimiento, pesar</i>

Gogo dugu arlo honetan indarrrik gehien duen hitza; **ar** askoz aberatzago dugularik ere, **gogo** dugu zentzu inguru honetako uste mota gehienak bere gain dituen; eta horixe du, hain zuzen, hitz honek bere ahuldura, esanahi gehiegi izatea. Atonduraz ez du azterbiderik erakusten; fonema bera bi aldiz errepikatzea hastapenetako jokabidea dirudi, bai eta ahoskiaren laburtasunak eragina ere.

Gomuta edo **gomunta** oso aztergaitza dugu, baina **go** ahoskiaren gain eratua dugula argi dago.

Goartu (go-artu), ordea, atonduraz argia dugu eta duen esanahia atondura horrekin bat dator.

Gorroto ere adierazpen gaitzekoa dugu. **Gor-u-tu** sorbidetikoa izan daiteke, getsun zentzuzkoa eta aditz izana, baina hau daiteken bat bakarrik dugu.

Goga, **go-a** sorbidetikoa izan daiteke, edo **gogoa** hitzaren laburketa bat.

Gogaitu (go-ge-i-tu) bi aldiz adiztua dugu nonbait; arau onekoak ditugu hitz honen atondura eta getasunezko esanahia.

Goaltsu, agian **go-ar-tsu** dugu; **goarpen** “pensamiento” zentzuduna dugularik, atondura hori argiro ulertzen da.

Gorantzi edo **goraintzi** adierazpen zailagokoa dugu, baina **go-ra-in-tza** izan daiteke bere atondura; **gorain** aditz bat izan dala hor dirudi; eta edozela ere, **go** ahoskian du bere erroa.

Gomen ere hitz argia dugu (go-men); **men** (ikusmen, gozamen, ziñesmen, entzumen, e.a.) ahal zentzuzkoa dugu. Beraz, **gomen** ahal izatea dugunez, eta **men** ahal zentzuzkoa dalarik, **go** fonemak hemen “izate”, “ahal”, “goitasun” eta abarren inguruko zentzua izan bide du.

Gotor (go-t-or) ere oso argia dugu; **or** hori lehenago aztertu dugu eta badakigu izaera adierazten digula.

Goman ere berdinki argia dugu: **go-eman**. **Gogo-eman** laburturik ere izan daiteke, baina **go** nahiz **gogo**, gauza bera dugula onetsi behar dugu.

Koi ere gogo-izakera zentzuduna dugu betebetea. Eta **kontu**, erderazkotzat dugunaren, aditza izanikoa izan daiteke eta bere atondura **ko-in-tu** litzake; **goman** hitzaren kide genuke baina garabide ezberdin batez atondua. **Koi** bera ere aditza izana dala dirudi.

Gogobage eta **gogauldu** (gogo-uldu) zalantzarik bageko hitzak ditugu; **gogo** hitzetikoak ditugunez; honelakoak pillaka agerrerazi daitekez, baina ez du merezi.

Gozo (go-zo), **gozage** (goz-a-ge), **gozaro** (goz-a-ro), **gozatsu** (goz-a-tsu) eta **gozatu** (goz-a-tu), zentzuz eta atonduraz talde gotorrean ageri zaizkigu. Dirudienez, multso honetan **goz** dugu IZ multsoan **jan** dugunaren antzeko zentzuzkoa. Eta **gose** hitza ere arlo honetantxe lotu eta kokatu beharrekoa dugu; bere atondura **goz-ge** izan daiteke, **goz** positiboa baitdugu eta **gose** getasunezkoa.

Ezin alde batetara utzia dugu erderazko “gozar” hitza; talde honekin lotura duena (izan behar duena) argi dago; beraz oso aztergarria dugu.

Gardi eta **garbai, gar** formatikoak ditugu; **gar** ahoski honek, beste zentzu batzuen artean, “buru” zentzua ere badu eta horretatikoak ditugu bi hitz hauek.

7.- Gorputz eta buru

gorpitz	=	<i>cuervo</i>
gorputz	=	“
gorpu	=	<i>cadáver</i>
gorotz	=	<i>excremento</i>
gona	=	<i>vestido, falda</i>
gorantz	=	<i>chaleco</i>
golko	=	<i>seno</i>
gongar	=	<i>tráquea</i>
goatz	=	<i>cama</i>
golo	=	<i>escrófula</i>
gosna	=	<i>colchón</i>
gorro	=	<i>gargajo</i>
gorgots	=	<i>hombre serio</i>
gorgoil	=	<i>nuez de la garganta</i>
gorgail	=	<i>gargüero</i>
gorgara	=	<i>parte superior de camisa</i>
gordin	=	<i>crudo</i>
gordura	=	<i>lozanía</i>
gorde	=	<i>guardar</i>
gorko	=	<i>refugio de ganado</i>
gorta	=	<i>cuadra, establo</i>
gordatu	=	<i>guardar</i>
gordailu	=	<i>depósito, tesoro</i>
gordegi	=	<i>guarida</i>
gordalegi	=	<i>escondrijo</i>
goleta	=	<i>cuello</i>
golaspe	=	<i>papada del cerdo</i>
kolats	=	<i>papada humana</i>
koipe	=	<i>grasa animal</i>
kokor	=	<i>garganta</i>
kokote	=	<i>pescuezo, cogote</i>
kokots	=	<i>mentón, cabeza, cogote</i>

kokotz	=	<i>mentón, cabeza, cogote</i>
kokotzilo	=	<i>hueco junto al gaznate</i>
koletu	=	<i>chaleco</i>
kolkor	=	<i>corcovado</i>
kopeta	=	<i>frente</i>
kopera	=	<i>cómodo (vestido)</i>
kosko	=	<i>cráneo</i>
gara	=	“
garondo	=	<i>nuca</i>
garaun	=	<i>seso</i>
garazur	=	<i>calavera</i>
garondo	=	<i>cerviz, nuca</i>
garnu	=	<i>orina</i>
garri	=	<i>cintura</i>
garsoil	=	<i>calva, cráneo pelado</i>
garzeta	=	<i>occipucio</i>
agonu	=	<i>disposición, mala o buena, del cuerpo</i>
ago	=	<i>boca</i>
ikol	=	<i>encogido</i>

Latin hizkeran “korpus” hitza izateak ikaragarritzko itzala egiten dio euskerazko **gorputz** hitzari; ohiturik gara bi hitzen artean (latinezko eta euskerazko) kidesan itxura agertzen dan bakotxean, eta beste barik, euskerakoa bestetik hartua dala entzuten eta onartzen. Baina hemen ikusten dugun zerrenda honetako **gor** eta **gar** guztiak latinetikoa izan behar direla proposatzea astakeria eder bat izango litzakela iruditzen zaigu; eta ezinezkoa dala uste dugu **gorputz** hitza besteegandik bereiztea eta lokatzea. Beraz, hitz bion arteko lokarrien adierazpen sakonago bat izan behar da nonbait.

Gorpitz eta **gorputz** formak ditugu; lehenena, **gor-p-itz** atondurakoa izan daiteke eta bigarrena ahoski aldaki bat. Baina alderantziz ere berdin izan daiteke, eta ez bata ez bestea ezin ditugu ziurtzat eman.

Gorotz ez dugu nabarerraza; **gor-auts** izan daiteke, eta oso bidezkoa genuke bai atonduraz eta bai esanahiz; hautsa baitda euskeraz edozer gaitik gelditu ohi dan hondarra; bada hemen koska bat, gaur egun “hauts” esaten dugunean zerbait legor eta birrin esan nahi dugula; baina ez da ezinezkoa uste garatze honen izanbidea. **Gor-otz** ere izan daiteke, baina zentzubidez gogorrago egiten zaigu.

Gona, gorantz, goatz, gosna, gorgara, goleta, koletu eta **kopera**, izen asko ditugu halabeharrez sortuak izateko; **go(gor)** ahoskitikoak eta **gorputz** zentzutikoak izango direla (gehienak behintzat) uste dut.

Golko, gongar, golo, gorro, gorgoil, gorgail, gordura, kolatz, golaspe, koipe, kokor, kokote, kokotz, kokotzilo, kolkor, kopeta eta **kosko** (kasko), hauek ere berdinki, gehiegi ditugu sorbide batetikoak ez izateko.

Gorgots adierazpen zailekoa dugu; baina duen esanahiaz balio handia ematen dio zerrenda honi.

Gordin hitzean ere **gor** horren zentzua ez da erraza nabaritzea; **din** badakigu “bezelako” zentzuduna dugula, baina hemengo **gor** hau ez da erraza nondikoa izan daiteken antzematea; bere sorbidetzat hitz asko aurkeztu daiteke: **gorputz, gogor, gordura**, e.a. Ohartu behar dugu **gogor** hitzak “osasun”, “gotortasun”, “gogortasun” (beharrez) eta beste zenbait zentzu badituela.

Gara burua dugu; eta **garaun** (gar-a-un), **garazur** (gar-azur), **garondo** (gar-ondo), **garsoil** (gar-soil) eta **garri**; atzen hau ez besteak, eguzkia baino argiago ditugu, eta ez dago zertan adierazi; bakarrik, eta mendebaldeko euskera ezagutzen ez dutenentzat, **un** hitzez euskalki honetan “tuétano” edo “médula” esaten dala.

Garnu beste zentzu batetakoa dala uste dugu; uraren zentzua izan bide du eta arlo horretan sartuko dugu.

Gorde, gorko, gorta, gordatu, gordegi, gordalegi, gordailu ere, zerrenda luzetxoa ote dugun erderatikoa izateko pentsatu daiteke. Baina hor dugu erderazko “guardar” ere, eta aztertu beharreko arloa dugu.

8.- Ur arloan

goai	=	<i>corriente de mar</i>
koilla	=	<i>hielo</i>
agor	=	<i>seco (manantial)</i>
legor	=	“ <i>(materiales o superficies)</i> ”
egoatxa	=	<i>río</i>
gorga	=	<i>hoyo en el fondo de un río</i>
gorgera	=	<i>nubarrones muy lluviosos</i>
garo	=	<i>agua posada en las plantas (de lluvia o de rocío)</i>
garasta	=	<i>llovizna</i>
garastatu	=	<i>regar</i>
garastada	=	<i>riego</i>
garbi	=	<i>limpio</i>
garden	=	<i>puro, transparente</i>
garnu	=	<i>orina</i>

Goai eta **koilla**, gutxi erabiliak ditugu euskeran; ez dakit “arcaísmo” direlako ala kanpotik sartuak ditugulako. Euskaldun zaharrak baldin baditugu, beren garrantzia dute; **goai** aditza genuke (**go-a-i**) eta gaur duen zentzua eta atondura hau algarri egoki letozke. **Koilla** ere adieraz erraza genuke: **go-il-a**; IZ multsoan ageri zaigun **iz-t-il-a** gogorazten du eta bere gaurko esanahia ondo adierazten digu. Izan ere, leituriko ura hila dugu. Kanpotikoak badire, irristagarri izan zaizkigu bi hitzok, baina eman dugun adierazpena ez da bihurritu dugulako; horren eskainka genituen.

Agor eta **legor**, getasun zentzuzkoak ditugu, baina ez zaie inondik ageri zentzu horretako fonemarik; beharbada, aldaketa gogorra izan duten hitzak ditugu eta **gor** ahoskia bakarrik ageri dute argi.

Egoatxa, ibai zentzuzko izena dugulakoan, izen bereizi batetikoa ere izan daiteke; edozela ere, badugu eta hemen agerrerazten dugu.

Gorga eta **gorgera**, esanahi aski ezberdindun izanarren, atonduraz berdin xamarrak ditugu; eta hitz biok ur zentzuari dagozkiozlarik, **gor** dugu zentzu horren adierazle.

Garo hitzari buruz gaurko euskalari gehienak erraturik dabiliz; Azkue bera ere oker ibili da goizeko edo arratseko intza direneko horrekin. Mendebaldean, hitz hau irmoki bizi dan lekuan, esanahi argia du: landaren gain (belarkien gain batez ere) izaten dan ura esan nahi du; beste edozeren gain izan daitekena ere adierazten du, baina batez ere landaren gain izan ohi dana; berdin da euritikoa, intzetikoa nahiz norberak isuria izan, kasu guztietan **garoa** da.

Gipuzkerako iratzeari **garo** esatea honetatixe datorrela dirudi: abereak diren lekuetan (beraz, lehen Euskalerra guztian) iratzea izaten da mendietan zutik eta osorik gelditzen dan landare bakarra edo bakarretatikoa. Eta garoa iratzeak izaten du bereiziki; lehen ere adierazi dugu kasu hau; bizkaitar menditarren artean, goizetan edo euri ondoan, berdiñak izaten ditugu “garotzatik etorri naz” edo “iratztatik etorri naz” esaldiak; baina ondo bereizirik izaten dituzte bi hitz hoi esanahiak.

Garasta euria dugu eta **garastatu** norberak ura isurtzea; beraz, argiro dugu **garo** fonemaren ur zentzua.

Garbi noizbait aditza izana dugu; bere atondura, **gar-b-i** izan bide da, eta “urez garbitu” zantzua izango zuela dirudi. Orain, beste holako hitz gehienak bezela, **-tu** adizgilez baliatzen zaigu aditz zereginerako: **garbitu**.

Garden (gar-din) “ura bezelakoa” zentzuduna dugu; eta horixe du gaur ere bere esanahia, ondo ulertuz gero.

Garnu ere **gar** ahoskitikoa dugu, eta bai esanahiz eta bai sorbidez ur arlo honetakoa dugu.

9.- Zuhaitz eta fruitu

garaio	=	<i>árbol achaparrado</i>
gario	=	<i>rama desgajada del tronco de un árbol</i>
garhara	=	<i>árbol seco, rama muerta</i>
garatxa	=	<i>verrugas de árboles</i>
garatxu	=	<i>cierto arbusto, leño</i>
garatzaina	=	<i>variedad de acebo</i>
gardaska	=	<i>roble o encina chaparros</i>
gardatx	=	<i>roble o encina chaparros</i>
garrazta	=	<i>árbol bravío</i>
garapa	=	<i>racimos pequeños o castañas dejadas sin recolectar</i>
garaldu	=	<i>desgranar</i>
garau	=	<i>grano (de cereal, legumbre, frutos)</i>
gare	=	<i>granero</i>
gargotx	=	<i>erizo de la castaña</i>
gari	=	<i>trigo</i>
garagar	=	<i>cebada</i>
ekoitz	=	<i>fruto</i>
agotz	=	<i>cascarilla de grano de trigo</i>
goko	=	<i>racimo</i>

Zuhaitz zentzuan ez dugu halako izen bereizi eta adierazgarririk; zerrendatu ditugun hauek badute **gar** ahoskiaren aztarnarik, baina bat ere ez dugu atondura argiz eta indartsu ageri zaigunik; eta horren ganera, iñoiz **gar** eta **ar** ahoskiak bereizeziñak izaten ditugularik, ez dugu ondoren irmorik ateratzeko gairik. **Gardaska** eta **garrazta** ditugu guztien artean ohargarrienak.

Fruitu zentzuan, beste gauza bat da; erderazko “gramínea” hitzez ezagutzen ditugun alekiak (gramínea = aleki) **gar** ahoskiz izendatuak ditugu euskeran.

Gari dugu arlo honetan jaun eta buru. Noizbait aditz izana dirudi (gar-i) baina gaur ez du horren aztarnarik ere. Eta **gari** hitzaren bidetik adierazi beharko ditugu beste zenbait gaurko izen ere: **txori-gari** badugu, batzuk garimota on bat izendatzeko erabilia eta beste batzuk aleki belarmota bati (ray-gras edo) ezarria. Erabilia da **sasi-gari** izena ere, zerbaiti ezarria. Eta hauek ezaguturik, bidezko dugu gaurko **olo** (avena) iñoiz **oilo-gari** izana dugula pentsatzea; oloa, oiloentzako janaria izan ohi da bazter guztietan; beraz, **oilo-gari** izenetik **olo** soilik gelditzea oso erreza dala uste dut.

Garagar (gar-a-gar) bi aldiz fonema hartu digun hitza dugu, **gogo** bezela; hizkeraren hastapenetakoa izan behar nonbait.

Gare eta **garau** ezin daitekez besteetatik lokatu; talde batetakoak ditugula ziurtzat ematekoa dala dirudi. Beraz, erderazko “grano” ere hauekin kidekatu beharrezko dugunez, aztergarri egiten zaigu.

Gargaldu formatikoa dugula dirudi **garaldu** hitzak; izan ere, **gar-galdu** eta aurre-rago ikusi dugun **ur-galdu** berdinak genituzke bai atonduraz eta bai esanahiz. **Garandu** forma ere hor dugu, baina badaiteke beste sorbide batetakoia izatea, **garau-tu** edo **garaundu** atonduratikoa, adibidez.

Gar ahoskiak fruitu zentzu arloan eragin handia duena argi dugu; baina **go** formak ere badu eta oraiño bizirik bere izanaren aztarna gotorrik; ikusi ditzagun aztarna hoienez zelakotasunak.

Ekoizpen, “fecundidad”, “producto de la tierra”, “provecho” eta abar dugu.

Ekoizle, “fecundo” zentzuduna dugu.

Ekosari, “legumbre” eta “haba” esanahiduna.

Ekoizte, “fruto de los árboles” eta “fruto de cualquier agente natural” adierazten diguna.

Lau hitz hauek kidekatzen baditugu, argi eta garbi ikusten da guztiak erro bat berbera dutela eta erro hori **ekoiz** edo **ekoitz** izan behar dala.

Ekosari hitza **egosi-ari** atonduratikoa dala esan daiteke begiratu batetan; baina beste hirurak inñondik ere ezin dute onartu holako sorbiderik, eta **ekosari** ere beste sorbide batetikoa izango dugula pentsatu beharko; ez baita adierazerraza laurak erro batetikoa ez ditugula izango esatea. Ganera, beste hori bezain daitekeana edo eta areago dugu beste hau ere: **ekoiz-ari** “cosa de fruto” esanahia lukeana. **Ekoiz** hitz horren atondura honela izan behar luke: **e-go-iz**; zahar itxuradun beste hitz bat.

Agotz, aurrekoari eman diogun adierazpena indartzen duen hitza dugu; bere atondura ere berdina genuke **a = e** aurreahotsen araua dakigularik; atondura, hitz honetan **ago-itz** ageri zaigu, bestearena bera. Beraz, badu indarrrik **go** forma honek ere fruitu zentzu arlo honetan.

Eta **goko** hitza ere hor dugu; bere atondura ahoski beraren errepikatzea baino ez dugu; **gogo** hitza bezela taiutua eta ahoskera aldaki itxura zerbaitez ageri zaiguna. Hau ere zahar kutsua darion hitza dugu.

10

GI

Ez da erraza gaur **in** eta **gi** erroetatik ezberdin izan bide diren ahoskiak bezela aurkeztea. Lehen ikusi dugun **in = ein = egin** garadurak arloa lauzotzen du eta fonema bien bateratzea eragiten.

Hala ere, aztertzen dihardugun ahoski multsook izaterik badute, eta zuzenki nabariak baditugu, beharrezko dugu egintza zentzua multso guztietan adierazia izatea.

In eta **gi** nahasi eta bateratzen dituen forma **gin** genuke; baina kasu berbera dugu **gar** fonemarena; **ar** eta **go**, argiro ikusi dugun bezela, bakotxa bere errotikoa eta bere multsoan, fonema indartsu eta sortzaileak ditugu; baina zentzu berdinekoak ditugu eta arlo berdinetan dute beren zeregina. Eta **gar** ere zentzu berdindun agertzeak nahasketa sortzen du; ahoski bietarik euki dezakenez (go-ar), bien bateratze batetatik sortua izan daiteke; hala ere, **go** eta **ar** bakarrean eta bakotxa bere aldetik aski bereizgarri eta nortasun (zertasun) osoz ageri zaizkigu.

Hemen ere era berean **gin** formaren erdikotasuna ikusiarren, **in** eta **gi** ere bakotxa bere erroko forman oraiño bereizgarri ditugula uste dugu. **In** zalantzarik bage bereizia dala ikusi dugu eta herriak gaurdaiño bere forma jatorrean erabiltzen du. Ikusi dezagun orain **gi** ahoskia zenbateraiño dugun bereizgarri bere forma horretan:

gi (ki)	=	<i>sufijo deriv. con significación “parte”, “cosa de”:</i> gantzagi, oiloki, ardiki, erreki, izioki.
gi (ki)	=	<i>sufijo modal: ongi, gaizki, gizonki, ederki</i>
egi	=	<i>lugar, lugar de acción</i>
-gile	=	<i>hacedor</i>
-gin (kin)	=	<i>hacedor</i>
-kiro	=	<i>modal (gizonkiro)</i>
-kizun	=	<i>acción futura (ikuskiun)</i>
-kide	=	<i>colega (compañero de acción)</i>
giño	=	<i>medida, proporción</i>
giño	=	<i>hasta</i>
giro	=	<i>temperatura</i>
gisa	=	<i>modo</i>

Ikusten dugunez, badu ahoski honek ere bere esparrua eta bere nortasuna. Zerbaiten zati (beraz, osoaren egile) bezela ageri zaigunean ere, egintza zentzua badu neurri handi batetan. Izenekin (ardiki, oiloki, e.a.) algartzen zaigunean baino, aditzekin algartzen danean (erreki, izioki) nabariago du egintza zentzu hori: **erreki**, “erretzea egiteko zerbait” dugu, beraz egintza zentzua badu, nahiz eta “zer” esanahia indartsuago duen. Zentzu honetan eta kasu berdinean kokatu behar ditugu lehenago aztertu ditugun **argi, izki** eta **egu(z)ki** hitzak.

Era zentzuz ageri zaigunean (**ongi, gizonki, e.a.**) betebete hartzen du egintza zentzua; gizonki esaten dugunean, “gizonaren egikera jatorrez” esan nahi dugu.

Egi hitza leku zentzuduna dugu; eta hortik sortzen zaizkigu hainbat izen: **beitegi** (beit-egi), usategi (uso-t-egi), Iraegi, Ariztegi, Arregi, Beorlegi, e.a. Gaur hiztegietan ematen zaion “mendi malda” zentzua, nire ustez, norbaiten ereizpen okerretikoa dugu.

Egi (tegi) hitzak duen leku zentzua badaiteke egintza zentzutikoa izatea. Eta bere sorbidea **tegi** forma izatea. Kontutan izan behar duguna zera da, **te** eta **gi** bi ahoskiok egintza zentzudunak ditugula; bata (te), denbora usteari loturik eta bestea (gi) leku zentzuz nahasirik. Azkuek **etzangi, irangani, josgi** eta **jangi** hitzak aipatzen ditu eta **gi** hori **gu** (go) ahoskiaren aldaki bezela hartzen du. Badaiteke **gu** formak hemen gauzak nahastea. Beste euskalkietako **etzategi** (etzantoki), **jostegi** (jostoki), **jategi** (jantoki) e.a. ohargarriak ditugu.

Go fonemak izatasuna adierazten digu egintza esanahia nabari zaionean ere: **artzaingo, ikasgo**, e.a. Beste (**te** eta **gi**) bion zentzuak ikusi ditugu zer diren; beraz, **gi** bakarrik nahiz **te** fonemaz baturik, antzeko zentzuduna genuke. Hortik, **etzangi** eta (etzan/etzate) **etzategi** berdinak genituzke. Daitekeantzat eman daitekela uste dut hitz honen sorbide hau: **-teki** (toki) = **egi**. **Leku** hitzak, ordea, ez du euskal erro aztarnarik.

-gile ere egintza zentzudun bi ahoskiz osatua dugu; aztertzen dihardugun **gi** eta **le**; hau egintza eta nor edo zein zentzuduna dugu: **ekarle** (ekarten duena), **erosle** (erosten duena), **iragarle** iragarten duena, e.a. Beraz, hemen **gi** ahoskiak egintza zentzua du soilik.

-gin, aurrekoaren zentzu berdinekoa dugu; daitekeana da ahoski hau beranduagoa izatea, aditzean **egin** forma garatua zanekoa.

-kiro atzizkia egiten duten ahoski biok hemen zentzu berekoak ditugu: zelatasun zentzukoak, baina egintza zentzua galtzen ez dutelarik; **-ro** bakarrean ere oso erabilia dugu (astiro, aguro, geldiro, biziro, berriro) gehien batetan abiada zentzua duten hitzetan.

-kizun ere bi ahoskiz eratua dugu; **gi** fonemak hemen egintza zentzua soilik du, eta besteak (zun) arazo edo azertze esanahia, berez duen egintza zentzuaren barruan.

-kide adierazpen zailagokoa dugu. Aurkezteko gogorra izanarren, badugu daitekean sorbide bat: **ki-te**. **Te-gi** atonduraren bestalderakoa genuke eta adierazten duen uste-garatzea honela edo izana izan daiteke: **izan = izanki = izankite, etorri = etorki = etorkite = etorkide**.

Zentzu garatze horren aldaketa haundiena hauxe genuke: “etorkite egin” = “etorkide izan”. Askiz gogorra dugu onartzeko, baina ez ezinezkoa. Eta **kide** formatik **ide** sortzea, **tegi** formatik **egi** sortzea bezela, berdina dugu.

Giño hitz bitxia eta aztergarria dugu. Neurri eta “noraiño” zentzuak ditu. **Noraiño, noragiño** formaren laburketa omen dugu; eta hori horrela izanik, tentagarria dugu honako adierazpen hau: **gi-no** atondura ageri zaigunez, **gi** egintza zentzuduna genuke eta **no** hori “non” zentzuduna; eta hain zuzen, **non** (no-n), **nora** (no-r-a) eta abarrek erakusten digutenez, zentzu honen oiñarri eta erro dugu **no** hori.

Giro ere aurrekoaren antzekoa dugu, baina aurrerago ikusi dugun **-kiro** atzizkia bera izendurik izan daiteke.

Gisa, ez dugu adierazerraza. Duen esanahia eta hitzaren eraketa ikusirik, daiteken sorbide bat bakarra ikusten dugu: **gi-era = gi-ra = gisa**. Fonetika aldetik oso bidezkoa dugu eta esanahiarekin bat dator.

Eta **-egi** atzizkia neurri zentzuakin dugunean, oso argia dugu: gutxiegi, gehiegi, larregi, beltzegi, e.a. Hemen neurri zentzua du behinen, baina egintza zentzuaren aztarna gordetzen du.

Badakit askok ez duela onartuko hemen agertu ditudan adierazpen batzu; kasu askotan (-gile, -kiro, -kizun) **-gin** formaren **n** hori galdebeharrezko dala esango dute; eta halaxe da. Baina hizkeraren hondo sakonetako erroeri antzemateko, daitezken guztiak aztergarri ditugu. Eta **gi** (ki) fonema hor dugu irmoki hainbeste kasutan. Adibidez, **gisa** hitzaren zeregiña berdin (edo hobeto gaurko ikuspegitik) beteko zuen **giñera** (gin-era) hitzak, baina **gisa** dugu bizirik duguna.

IGI formatikoak

Ikerlan honen zehar argiro ikusten dugu erroko ahoskiek izaten duten aldakera bat aurreahots bezela bokal bat hartzea dala; eta **gi** honek ere horixe erakusten digu; **igi** (i-gi) fonemak berebiziko indarra du euskeran. Begira:

-tik (-dik)	=	<i>desde (idea de acción)</i>
igi	=	<i>moverse</i>
igitu	=	<i>moverse</i>
igidura	=	<i>movimiento</i>
igikor	=	<i>movible</i>
igiri	=	<i>nadar (igeri)</i>
igain	=	<i>pasar</i>
igande	=	<i>domingo</i>
igar	=	<i>árbol seco, pasado</i>
igaraile	=	<i>pasajero</i>
igaran	=	<i>pasar</i>
igarangi	=	<i>vado, camino de pasaje</i>
igarri	=	<i>acertar</i>
igasi	=	<i>huir</i>

igatu	=	<i>pasarse, ajarse cosas</i>
igaz	=	<i>año pasado</i>
ige	=	<i>cuesta, pendiente</i>
igerika	=	<i>saltos del jinete sobre el caballo que corre</i>
igerikatu	=	<i>nadar</i>
iges in	=	<i>huir</i>
igesi	=	<i>huyendo</i>
igestari	=	<i>desertor</i>
igeste	=	<i>fuga</i>
ikarpen	=	<i>investigación (ikerpen)</i>
ikartu	=	<i>investigar, examinar (ikertu)</i>
ikatu	=	<i>disputar, luchar</i>
ikatz	=	<i>carbón</i>
ikera	=	<i>temblor</i>
ikoti	=	<i>brinco</i>
ikotika	=	<i>brincando</i>
ikotu	=	<i>saltar, retozar</i>
ikuitu	=	<i>tocar</i>
ikurri	=	<i>caerse, significado</i>
ikusi	=	<i>ver</i>

Igi eta **igitu** hitzak duten esanahitik argiro ikusten da forma honetatik sortu direla beste guztiak; batzuetan **ig** forman eta beste batzuetan ahoskera gogorrez (ik), horrela eraturiko hitz gehienak ikera, egintza edo igaite zentzudun ditugu.

Igidura (igi-tu-era) eta **igikor** (igi-k-or) bata baino bestea argiago ditugu; duten atondura eta esanahiak guztiz baterakoak ditugu.

Igiri (igi-r-i), “igitzea egin” zentzuduna genuke, beraz, bi aldiz aditz balitz bezela.

Igain (ig-a-in) hitz baliotsua dugu. Jakintza aldetik eta egiten dihardugun lan honetarako, aditzen eratze arauak argiro erakusten dizkigu; **ig-a-in** eraketa bide honetan txeratuak ditugu euskal aditzik jatorrenak: **izan, ukan, itxain, zain** (iz-a-in), **gain, amai, joan, ibili**, e.a.

Gaurko hitzak aukeratu behar aldetik ere, garrantzi handia du; erderazko “pasar” esanahia adierazteko baditugu hiru aditz behintzat: **igaro, iragan** eta **igain**. Nire ustez, atzen hau dugu zaharrena, jatorrena eta bidezkoena; **igaro** formak beste atondura bat du eta beste esanahi bat izan duela dirudi: **ig-aro** = “tiempo de pasar”; eta **iragan** bigarren mailako aditza dugu, nahiz eta gaur bestela erabilia izan; **igain** hitzetik sortua dala nabari zaio, beste hauen sorkera berdiñez: igarri/iragarri, igasi/iragazi, ikasi/irakatsi, ikuzi/irukutzi, e.a.

Beraz, **igan** eta **igain** gauza bat bera ditugu; gaur **igan**, **igon** hitzaz nahasi zaigu eta esanahi berdiñez ageri zaizkigu zenbait tokitan. Baina ez dut zalantzarik **igan** “pasar” izan dalakoaz.

Igande (igante) igan zentzudun izena dugu, beraz, “día de paso” esanahia izan duela dirudi. Hitz honen atondura honela genuke: **igan-te**, “etor-te”, “ibil-te”, e.a. bezela; gauza bat du ohieza, atzen **n** hori ez duela galtzen, baina ordez **-te** bigundu du eta **-de** bihurtu du.

Igaran, iragan hitzaren itzuliketa izan daiteke; eta **igaraile** eta **igarangi** bere gara-durak ditugu.

Igarri eta **ikasi** sorbidez gauza berdina ditugula dirudi; beren atondura hau izan daiteke; **ig-ar-i**, “observar el movimiento” zentzua duelarik. Uste garatze arauetan, daitekeena da. **Ikartu** dugu eretxi hori indar haundiz baieztatzen diguna; beronen atondura bes-teenaren berdina da, baina **i** ordez **tu** adizgilea erabiliz: **ig-ar-tu**. Kidekatu ditzagun hiru esanahiak, “examinar”, “aprender” eta “acertar”, eta hirurak “jakin” ustearen garatze urre-koak direla ikusten dugu. Beraz, gaur hiru ditugun aditzok bakar batetikoak ditugula esa-tea ez da izango bidebagekeria.

Eta berdin **ikurri** eta **ikusi** aditzetan ere; atondura berdina litzake: **ig-ur-i**; esanahiak ere, “ver” eta “señal”, lotura haundikoak ditugu, eta sorbide berdina onartzen dutenak.

Ikera ere, bai atonduraz eta bai esanahiz, oso argia dugu; **ik-era** “mugitzeko era” ustea adierazteko ezin egokiagoa dugu.

Eta beste guztiak (igaz, igasi, igerika, igeste, e.a.) “movimiento” ustea betebetean adierazten dizkiguten hitzak ditugu. **Igi** horrek sorrerazi duen baino arlo aberatzagorik aurkitzea ez da erraza.

Amaitzeko, **-ik** atzizkia ikertu daigun:

Ikera edo mugitzea eta areago “zerbait egitea” adierazten digu “desde” ordez darabilgunean: mendit**ik**, hemend**ik**, hand**ik**, etxet**ik** eta abar esaten dugunean, zerbait egin, joan, etorri, ikusi jaurti, e.a. esan nahi izaten dugu.

Eta “egin**ik**”, “lotur**ik**”, “zutin**ik**” e.a. esaten ditugunean ere egintza ustea garbian adierazten dugu.

Beste erabilkera batzuetan galdua du zentzu hori (egintza zentzua), baina hori hizkera garatzeen araua dugu.

Atzenez ohar bi: **-tik** eta **-dik** formak ageri izanarren, **ik** dugula zentzua daraman aho-sia; besteak ahots betegileak ditugu soilki. Eta hemen erderazko zentzu izenak konpa-ragarri ezarten ditugunean ere, badakigula ez dutela izaten beti kidetasun zuzena; uste-ak ere ez direla berdinak hizkera biotan, eta izakera horrek argiratze lana zerbait ilundu egiten digula.

11

GE

Nahiko argiro ikusi dugu orain arteko ikerketa honetan **ge** ahoskiaren getasun zentzua gotorra eta indartsua dugula euskeran. Zentzu arlo guztietan eta oinarrizko ahoski guztiekin erakusten du bere burua.

Ez dugu arazorik fonema honen izatea eta zentzua baieztatzeko lanean; hala ere, beste guztieri bezainbat arreta zor diogunez, eta multso honen esparrua betetzeko, azterketa arin bat egingo diogu bere zeregiña eta bere ingurua agerreraiz.

-ge (-ke)	=	<i>sufijo de negación</i>
bage	=	<i>sin</i>
bako	=	“ (ba/ge/ko)
barik	=	“ (ba/ge/rik)
bahe	=	“
gen	=	<i>quitar</i>
gendu (kendu)	=	“
geratu	=	<i>pararse, quedarse</i>
gelditu	=	“ “
geiz	=	<i>sombra</i> (keiz, geriz, keriz)
geizpe	=	<i>bajo sombra</i>
geben	=	<i>prohibir</i>
gezur	=	<i>mentira</i>
ke	=	<i>humo</i>
gaitz	=	<i>mal</i>
gal	=	<i>perder, pérdida</i>
galdu	=	“ “
kalte	=	<i>daño, perjuicio</i>
bagil	=	<i>junio</i>

Ge ukatze zentzuaren adierazle bezela, euskera zehar osoan bizi izan dala ikusi dugu: **senge, arge, alke**, e.a. ditugu horren lekuko; gaur egun ere, Lenitz eskualdeko herrietan asko erabiltzen da **te** edo **tze** atzizkiari loturik: **jateke, etorteke, kentzeke, izateke**, e.a. Sarritan **ga** eta **ka** formak ere hartzen ditu: **iñauska, artega, loka, egoska**, e.a.

Bage, getasunaren maila gogorrago bat adierazten digun hitza dugu. Euskeran arau argia dugu getasuna ukatasun gogorrago batez itsasteko, izatetza zentzudun edo baikor hitza aurretik ezartea; horrela eratuak ditugu **ezerez** (ezer-ez), **iñorez** (iñor-ez), **batez** (batez) eta abar. Eta hitz honetan **ba** ahoskia dugu baitasun edo izatasun hori adierazten duena, eta **ge** baitasun hori ukatzen duena.

Bage hitzak **baga** forma ere hartu du mendebaldean; aldaki hau **bage-a = бага** egitetikoa izan daiteke. Gipuzkeraz, Goierri aldean, **bahe** erabiltzen da gaur egun ere; ahoskera biguntze bat dugu soilki. Eta orain jatortzat erabilia dugun **gabe** forma itzuliketa bat dugu zalantzarik bage. Gipuzkera dugu honelako itzuliketak sortzen zaizkigun abia; hor ditugu **gare/gera, zare/ zera**, e.a.

Bage hitzetik sortuak ditugu mendebaldeko **bako** (ba/ge/ko) eta **barik** (ba/ge/rik) indar betez bizirik ditugun formak. Hitz hauen aldaketa (laburketa) antxiñatikoa dugula dirudi; **egubakotx** eta **bariku** izenak hori pentsarazten digute.

Ondo pentsatuz, **-ge** (-ke) atzizkia eta **bako, barik, bahe** eta **baga** hitzak algar lotzen dituen **bage** dugu; forma hau dugu euskeran “unibertsalena”, Lizarrako idazkietan ageri dana, Erronkarin erabili izan dana, bai eta iparraldean, mendebaldean eta Gipuzkoako Goierrian. **Gabe** formak, ordea, euskeraren batasuna birrindurik uzten digu.

Neronen eretxia ematera ausarturik, ez dut uste gaur batasunaren hain aurkako dugun **gabe** forma hori ezarteko eskubiderik dugunik; erdigalduriko edo bitxi ditugun hitzak (arrakasta, ukan, erresuma, ebatzi, aintzinatu, e.a.) berpiztera edo indartzera bultzatzen gabiltzan garai honetan, hizkera batasuna lortzeko gai diren hitzak oharkera hobe mezezi dute.

Eta euskera batu, gotor, zalu, sakon eta aberatz bat nahi badugu, jokabide egoki baten ondoren bakarrik lortuko dugu. Benetan uste dut **-ge** atzizkiari indar eman behar zaio-la eta **bage** forma onartu beharra dagoela. Antxinako osotasuna berriztua izango litzake, eta euskerak asko irabaziko luke usteak erabiltzeko eta adierazteko bidean.

Gen (ge-in) aditza dugu, eta oso polita ganera; baina gehien batetan bigarren adizgilea ere ezarrikerik erabiltzen da (gendu), eta ahoskera gogorrez areago (ken, kendu). Euskal aditzaren sorbideak argitzeko berebizikoa dugu.

Geratu (ge-era-tu) atondurazkoa dugula dirudi; argi dago **gera** (ge-era) forma lehenagokoa dugula.

Geldi hitzaren atondura adierazpena hauxe genuke: **ge-aldi**. Horixe dugu geldi izatea edo egotea, “ezer egin bage” egotea. Eta **geldi** hitzetik sortzen zaigu **gelditu** (geldi-tu).

Geiz lehen ere ondo aztertutakoa dugu. Hitz honetan eta beste zenbaitetan ere gauza ohiez bat ohartzen dugu: getasunezko hizki hau aurrizki bezela agertzea hitzean; ez da euskeraren arauetan ageri zaigun jokera jatorra, baina hitz formen ugaritu beharrak era-

gina dugu nonbait. Bestalde, **iz** argia dugularik, **ge-iz** argirik eza dugu. Eta gaur hitz hau forma askotan ageri zaigu: **geiz**, **keiz**, **geriz**, **keriz**, e.a.

Geizpe (keizpe, gerizpe, kerizpe) **geiz-pe** dugu, “geiz azpia” esanahia duena; baina askok hitz honekin geiz ustea adierazten du gaur egun, zentzu biak nahasirik.

Geben hitzaren zentzua eta erakera ohartuz, **ge-b-in** atondura datorku irudimenera; **gen** forma izateak beste erakera batzu sortzera bultzatu behar izan du dirudienez.

Gezur ere getasun zentzudun hitza dugu; eta ohartzen badugu **zur** = “prudente”, “discreto” dugula, argi dugu **gezur** hitzaren sorbidea: **ge-zur**. Eta hemen ere aurreizki eran agertzen zaigu.

Ke (kehe) hitza oso bitxia dugu; suaren gai ustean, kea getasun zentzuzko zerbait dugu; eta horixe adierazten digula dirudi hitz honek.

Gaitz, getasunezkoa hau ere, **ge-itz** atondurazkoa izan bide da; **itz** “ontasun” zentzuduna dugu eta **ge-itz** bere aurkakoa. Eta berdinkia dugu **geixo** hitza ere; **geixo** (gaiso) = “enfermedad”, “enfermo” dugu, beraz, getasun zentzuzkoa. **Gaitz** hitzari dagokionez, gaur ere erabiliak ditugu **geizki** eta **geizto** erak behintzat.

Gal, **ge-ar** atonduratikoa izan daiteke; **gar** hitza izatasun zentzuduna dugunez, ahoskera aldatu behar batek eragina dirudi. Eta **galdu** (gal-du) eta **kalte** (gal-te) erro berekoak ditugu.

Eta arlo hau amaitzeko, lehenago ere egin ditugun zenbait gogoeta: **egubakox** (egu/ba/ge/ko) eta **bariku** (egu/ba/ge/rik-o = bariko) direlako adierazpenak eman ditugu. Bai eta, **bagil bage-il** atonduratikoa dugunarena ere.

Baina oraintxe Azkuen hiztegian begira ari naizelarik, hauxe irakurtzen dut: Bagil = junio (de **baba-il**, “mes de las habas”?). Eta jarraian, esan zahar edo errefrau hau ezartzen du: “Bagilla, sei gosean bai illa” = (junio, prenda muerta de los niños hambrientos).

Mendebaltar batentzat, esaera hori gaizki hartua edo idatzia dagoela dirudi; askok jatorrago genuke honako hau: “Bagilla, sein gosea bai illa” = (junio, el niño hambriento ya es muerto). Mendebaldeko hizkera eta izakera ezagaturik, honelaxe izan behar duela uste dut. Ganera, **sein** dugu hain zuzen, “ume” edo “haur” zentzuzko hitzaren forma. Funtsean **n** baten jauzi batek eragina dirudi.

Gure eretxia **bagil = bage-il** (gose hilla) dugula genuen aspalditik; Azkuek erakusten digun esaera horrek ere zentzu horixe du, gosearena. Beraz, nahiko argi dugu arazoa.

Eta gaurkoz honekin amaituko dugu hirugarren eta atzen multso honen ikerketa. Badakit lan honetarako Baliagarri liraken hitz asko gehiago izango dituguna euskeran. Baina garrantzitsuenak hartu ditugulakoan, honetan utziko dugu.

12

Beste ahoski batzu

Orain arte egin dugun azterketatik ondoren hauxe aski indartua ateratzen zaigula uste dut: euskera osatzen duten hitzik gehienak hiru multsoetako ahoskiz eratuak ditugula; agererrazi ditugun hitzez gain, beste asko eta asko ere hoietakoak izango dituguna badakit; baina lan haundia dugu euskerako hitz guztiak banaka aztertzea eta idazti batetan sartzea; nik haundien bat baino ez dut hartu eta hala ere nahiko gotorki ateratzen dala uste dut adierazpen hau.

Eta beste hitz asko orain nahasiak, hainbat aldiz garatuak eta itxuraz aldatuak izango ditugu, nahiz eta sorbide hoietatikoak izan.

Baina baditugu euskeran beren eragintxoak duten beste zenbait ahoski, eta ikerketa bat zor diegu haueri ere; ahoski hauen sorbideak kanpoko hizkeretatikoak izan daitezke, baina bai eta gizakiaren ahoskamena ugaritzetik sortuak ere.

1.- AMA

Ahoski honek amaiera edo atzen zentzua ageri du eta oso egoki adierazten digu:

amar	=	<i>diez</i>
amaike	=	<i>infinidad, once</i>
amai	=	<i>fin, finalizar</i>
amaitu	=	<i>finalizar</i>
amatau	=	<i>apagar</i>
atzamau	=	“

Zenbat ustea, gizakiak mailaka eta epeka garatu izan duela usterik zuhurrena eta bizkozkoena dugu; eta zenbat hori kontatzeko bere inguruan edo bere baitan izan dituen izakiak erabili izan dituala ere, berdin. Gaur egun ere, buru atzeratu xamarra dutenek, gaztetxoek eta zenbait eskolatu bagek izaten dute beren asmaketa egokia zenbatzea egiteko: eskuetako hatzak kontatu.

Beraz, gauza honetantxe dugu **amar** hitzarentzako adierazpen egoki bat; eta ez fantasiatzkoa. **Amar** hitz honen atondura **ama-r** genuke; **r** hori beste zerbaiten hondarra izan behar; eta baditugu beste zenbaki batzu ere antzeko arazoz ageri zaizkigunak: **bi-ga**, **iru-r** eta **lau-r** behintzat.

Bestalde, garren (zenbatgarren) ustea adierazteko, **gar** erabiltzen da euskeran; bai eta, bakar (bat-gar) ustea adierazteko ere. Eta hemen dugu hariaren mataza; eraketa batetan, (bakoitz = bat-go-itx, bikoitz = bi-go-itx, e.a.), ikusi ditugun izatasun zentzudun ahoskiz jokatuta izan du euskerak. **Bakar** hitza bera bakarrik dugu eraketa honekin ageri zaiguna; baina **bat** zenbakia gauza askotan dugu bereizia; hastapenetan, gizakiak zenbatzen ez zekianean, bat hori izango zan aurrengo maila, eta honetan genuke bereiztasun horren zergaitikoa.

-garren atzizkia bi zatitan banatu daikegu: **gar-en**; **-en** hori badakigu zer dugun, bere esanahi argia duelarik: len-**en**, atz-**en**, aurr-**en**, e.a. ditugu lekuko bikainak. Eta **gar** geratzen zaigu “zenbat” edo inguruko esanahia duelarik.

Irrur, **laur** eta **amar** hitzetako **r** hori **biga** hitzeko **ga** zatia eta **bakar** hitzaren **gar**, **-garren** atzizkian ikusi dugun **gar** dalakoaz kidekatzen baditugu, ondoren hau aterako dugu: **gar** ahoski hori zerbait garrantzitsu dugula “zenbat” uste arlo honetan. Behar bada hastapenetan **gar** hauxe zitekean zenbat uste horren adierazle.

Eta **ama** “amai” ustearen adierazle ditugun hitzetan erroki dugunez, **ama-gar** zitekean eskuetako hatzak kontatze amaierakoaren izena; **amagar** hitzetik **amar** laburketa egitea bidezko eta arau onezko dugu.

Amai dugu hemen auziaren gako edo giltza dan hitza; bere atondurak (ama-in) argiro erakusten du **ama** fonemak izan duen zentzua. Hitz honek ere gaur bere adiztasuna erdigaldurik du eta horretan kide dituen beste hitz guztien bidea hartu du: **-du** adizgileari helduz, **amaitu** forma hartu. Jokera hau ere euskera aztertzerako lanean arreta haundiz izateko araua dugu.

Amaike, forma honetan erabiltzen da mendebaldeko zenbait lekutan, Busturialdean eta; gehiago erabilia da, ordea, **amaika** forma; funtsean, biak bat bera ditugu. Hitz honek duen baliotasuna zerean dago, dituen bi zentzuetan; gaur egun ere zentzu biok biziki indartsu adierazten ditu; alde batetik, hamar zenbakiaren urrengokoa adierazten digu, eta bestetik, edozer gauzaren atzenbagesuna, amaigetasuna. Beraz, bere atondurak argiro erakusten digunakin bat datorkigu (datozkigu) bere esanahiak: **amai-ge**, amairik ez duena.

Guzti honen adierazpena argia eta polita dugu: garai batetan gizakiak hamar izan baldin bazuan kontatzeko muga eta amaia, handik gorakoa **amaigea** izan behar; eta horretatik hamarren urrengo zenbaki gertatzea, bai eta amaigetasunaren adierazle ere izatea. Euskera harrigarri dugu millaka urteren buruan ere, eta honelakoxe bitxitasunak ditubagan. Aztertzen eta ikusten saiatu egin behar.

Amatau erderazko “amatar” hitzetikoa dala uste da, eta badaiteke horrela izatea; baina badugu mendebaldean beste hitz bat ere esanahi berdinekoa: **atzamau**; nire ustez, **itz-ama-du** izan daiteke bere sorbidea; edozela, **ama** fonema hori hortxe dugu, eta bestearren esanahi bera adierazteko. Beraz, hemen ere erderatikoa izan behar luke fonema horrek. Zelanahi, beste arazo aztergarri bat ageri zaigu.

2.- MA

Ahoski honek jan, edan eta aginkatu zentzuak adierazten dizkigu batez ere; baina guzti hau zentzu bakar bat dugu funtsean, eta duen fruitu zentzua ere berorri lotua dugu.

main	=	<i>mesa</i> (mai, mahai, mahain)
mau	=	<i>comer</i>
mauka	=	<i>comiendo</i>
mama	=	<i>bebida, vino</i>
mats	=	<i>uva, vid</i>
matxatu	=	<i>masticar</i>
matxal	=	<i>vómito</i>
mabi	=	<i>grosella (en Eibar)</i>
madari	=	<i>pera</i>
makatz	=	<i>pera, peral silvestre</i>
marrubi	=	<i>fresa</i> (maguri, mallugi, mallubi, e.a.)
mazuzta	=	<i>mora</i> (masusa, mazura)
maspil	=	<i>acerolo</i>
matagin	=	<i>colmillo</i>
masail	=	<i>carrillo</i>
malats	=	<i>robusto, rollizo</i>
marats	=	<i>hacendosa</i>
makal	=	<i>débil</i>
mamin	=	<i>miga, carne</i>
matxikatu	=	<i>hacer un tajo a las castañas</i>
mail	=	<i>muesca, grada</i>
maillu	=	<i>mazo</i>
mako	=	<i>gancho</i>
makol	=	<i>palo con gancho</i>
makil	=	<i>palo</i>
mailar	=	<i>judía</i>
maindere	=	<i>sábana</i>
maite	=	<i>amor</i>

Main dugu hitz guzti hauetan baliotsuena eta ohargarriena; bere atondura, **ma-in** dugu agian, eta aditz izana dugula argiro ageri da. Hitz honen hastapenetako esanahia jan (ma-in) zentzuzkoa izan dala dirudi, eta hortik jateko lekuari utzia; uste garatze hau eta aditzak izen bihurtzea arlo guztietako jokera dugu euskeran.

Mau jate zentzuaz gelditu zaigu; bere atondura **ma-i** izan daiteke, eta **i** hori **u** forma-
ra aldatua izatea ere; aditz izateak euskeran horrelako zerbait eskatzen du. Eta hitz horren
garatze bat dugu **mauka**, bere zentzua “jaten” dugularik; ezin arauzkoago dugu guzti hau.

Maindere edo **maindire** gaur izara zentzudun dugularik ere, antxiñetan beste zer-
bait izana dirudi; bere atondura honako hau izan daiteke: **main-zare** “mantel”, “tejido de
mesa” esanahia izan duelarik; horretatik izara zentzua hartzea oso bidezkoa da.

Mama ere oso ohargarria dugu azterketa honetarako; ahoski bera errepikatua dugu
bere forma, **gogo** bezela, eta zahartasun haundia nabari zaio. Eta **mama** edaria, ardua du-
gularik, mats (ma-eitz) “ardu zuhaitza” genuke; ez dugu ezer okertu eta indarkatu beha-
rrik ondoren hauetara heltzeko; uste ingurua taldean hartzea aski dugu arazoaren bitxi-
tasunak eta adierazbideak ikusteko.

Euskal gizarteak fruituz edariak egiteko ohitura antxinetatikoa izan behar du. Ho-
rrek adierazten du hainbeste izen **ma** errotikoak izatea: **mabi**, **madari**, **makatz**, **marrubi**,
mazuzta, **maspil** eta gaur ohartu bage utzi ditudan guztiak. **Ma** erroak “jan” nahiz “edan”
zentzuak berdin dituenek, ezin dugu esan izen hoiek beti edari zentzuaz loturik ditugu-
nik; **miliar** hitzak, esate baterako, “jateko ilarra” izan behar luke, baina hau ere ezin dugu
baiezatu, honako honegaitik: izen multso hau aski nahasirik dugu eta beharbada gaur adie-
razten duen antzeko zerbaiti ezarria izan zan antxinetan izen hoietatiko bat baino gehia-
go. Funtsean, izen guzti hauen garrantzia **ma** ahoskia oinarriztat hartzean dugu,

Matxatu, **matxal**, **matagin**, **masail**, **malats**, **makal** eta **mamin** “jan” ustearen in-
gurukoak ditugu; **marats** ere ingurukoa, baina zentzu garatuagokoa. **Matxikatu**, **mail**,
mailu eta **mailatu**, **matxatu** zentzutik garatuak ditugu nonbait. Horrelaxe garatuak izan
bide dira gizakiak aroen zehar ugaritu dituen usteak.

Mako, **makol** (mako-ol) eta **makil** fruitu zentzutikoak ditugula dirudi, baina bes-
te garabide batetikoak; fruituak zuhaitzetik batzeko edo biltzeko tresna zentzutikoak, nire
ustez.

Eta **maite** (ma-i-te) ere, atonduraz arlo honetakoa dugu; hitz honen zentzua “jate”
eta “gustatze” zentzuetatiko garatze bat izan daiteke.

Eta ahoski honekikoa amaitzeko, zerbait gogoeta: alde batetik, **ama** eta **ma** ahos-
kiak senide izan behar ditugula, eta daitekeana lan honen hasieran ikertu dugun **aba** fo-
nemaren ondorengoak izatea.

Beste alde batetik, **mai** hitzak baduela Jainko gurtze arloan ere zerikusi (geroago
aztertuko dugu) eta maiz ageri zaigula euskal leku izenetan:

Arama

Aldama

Zegama

Dima

Lezama

Amaiur (Maia)

Zumaia
Ulzama
Maiñari
Maillabi

3.- LO

Ahoski hau getasun zentzuduna dugu, eta getasun horren barruan geldi zentzua adierazten du. Gaur forma horretan ageri zaigunarren, daitekena dugu **il** ahoskitikoa izatea: **il-o = ilo = (i)lo**. Lehen ere ikusi dugu **a** nahiz **o** ahozki mugatzen direla erroko ahoskiak: **ara/aro, arra/arro, aria/ario**, e.a. Beraz, **il-a** formak gehiegi ere ditugunez, bidezko da **il-o** ere izatea. Eta **i** horren galtzea **iloba/loba** hitzetan ere ageri zaigu.

Eta ikusi ditzagun ahoski honen goraberak:

lo	=	<i>dormir, dormido, quieto</i>
lotu	=	<i>quedarse, atar, adherir, dormirse, apagar luces</i>
loki	=	<i>sien</i>
logi	=	<i>barro, alcoba</i>
loka	=	<i>suelto, flojo</i>
lokarri	=	<i>cuerda</i>
lokura	=	<i>atadura</i>
lolo	=	<i>inerte, inactivo, parado</i>
loro	=	<i>alambre</i>
lotsa	=	<i>vergüenza</i>

Lo gelditasunaren adierazle dugu batez ere. IZ multsoan honen aurkako zentzua adierazten digun ahoskia ageri zaigu: **ig** (igi, igasi, igaz, igari, iker, e.a.) Beraz, euskeran aurkako zentzu biak bakotxa bere erroko ahoski eraturik ditugu, eta ez dago zentzu bata getasunez erantzi beharrik bestea adierazteko (móvil/inmóvil).

Eta **lo** fonematik sortzen zaigu **lotu** (lo-tu) aditza; beronek dituan zentzu guztiak getasunezkoak eta gelditasunaren esparrukoak ditugu.

Loki hitzak lo eragiteko gure buruan dugun lekua edo zatia adierazten digu. **Logi** ere erakera berdinekoa dugu, baina bere esanahiak beste batzu dire: bata, lokatzea (**lo** honetan ere), eta bestea, lo egiteko lekua (lotegia).

Loka getasuna ukatzen duen hitza dugu: **lo-ge**; horixe dugu esanahiz eta atonduraz hitz honen adierazpena.

Lokarri hitz argia eta atondura errazekoa dugu: **lo-garri**, zerbait lo ipinteko gai dan gauza adierazten digu; eta horixe bere esanahia hain zuzen. **Loro** ere, gauza berdina izanez, **lo** ahoski eraturik ageri zaigu.

Lokura eta **lotura** esanahi berdinekoak ditugu. Badaiteke hitz bat bera izatea, baina bai eta garatze ezberdinekoak izatea ere: **lo-k-era** eta **lo-tu-era**.

Atzenez, **lotsa** ere hor dugu, getasunezkoa eta **lo** ahozki eratua.

4.- BA, BE, BEL, BER

Aurrerago ikusi ditugun **ama** eta **ma** bezela, zahartasun itxura haundiz ageri zaizkigu ahoski hauek; badirudi guztiok erro batetikoak izan daitezkeela; hizkeraren barren hondoko **a** ahoskiaren garatze batetikoak izan daitezke.

Ur/bur, iz/biz/giz, eta **ar/bar/lar** bezela, **a/ba/ma** eta **ba/be/bel/ber** garatzeak izan zitezkean.

Guzti honetan, ohargarri ditugun kasu batzu ditugu. Euskeraren tasunik argiena eta gogorrena hauxe dugu: izatasun eta getasun usteak arras bereizirik erabiltzen dituala, bai eta ondo taiuturik ere. Ahoski talde honetan bi ditugu getasun zentzuzkoak: **ama** eta **bel**. Beste guztiak izatasuna (baiezkotasuna) adierazten digute.

Bel, orain arte ikusi dugun arauz izan daiteke gekorra; **be** fonema izatasunezkoa dugularik, **be-il** (bel) getasunezkoa genuke. Baina bestea dugu adierazgaitza: **ma** baikorra dugularik **ama** gekorra izatea ez da ulertzen; aurreizki dugun **a** hori getasun zentzuz erabilia izan ote dan noizbait, hori dugu hemengo auzia. Baditugu aztarna ttipi batzu, baina ez gauza haundirik: **gor** izatasun zentzuduna dugularik, **agor** gekorra dugu; eta **mor** ere izatasunezkoa izanik, **amor** (eman) gekorra dugu; **mor** fonemaren izatasun zentzua **mordo**, **morroi**, **morron** eta abarretan dugu; (**gor** ahoskiaren aldaki bat izan daiteke).

BA

ba	=	<i>confirmativo y supositivo</i>
bai	=	<i>sí</i>
bat	=	<i>uno</i>

Ahoski honek adierazten digun zentzua gizakiaren hastapen usteeri dagokio. Beti baiezkoko ustea adierazten digu: **badator**, **badoa**, **badago** nahiz **baletor**, **baloa** eta **balego** formetan, baietz ustea adierazten digu; eta berdin **betor**, **beioa** eta **bego** formetan.

Bai, aditza izana dugu agian; uste horrek baitzea adierazi izan duela dirudi; gaur egun adiztasun hori nabari zaio, nahiz eta galdurik duen; eta euskerak halako eragetasun bat ageri du zeregin hori eratzean: **baieztatu**, **egiztatu**, **ziñeztatu** e.a. hitzak erabiltzen ditu; guzti hauei beren berritasuna eta gogortasuna nabari zaizkie. Arlo hau ilundu duena hitzak beste zentzu bat hartzetik etorri daiteke; izan ere, **baitu**, **baitze** = “prender”, “prendimiento” zentzuzkoak ditugu eta honek beste adizkera itzali zeikean.

Bat, zenbat ustea adierazteko mailan hastapena dugu; beraz, gizasena oraiño gartu bage zanezkoa. Zenbaki izenak beste kultura batzuetatik hartuak ere izan daitezke (eta batzu hala izango dire), baina **bat** hau **ba** ahozki eratua dugunez, hastapenetikoa dugu

eskierki; eta berdinki **bi** ere. Euskeraren eta euskal gizartearen garatzea ikartzeko hitz bi-txiak ditugu hauek.

BE

Ahoski hau aurrekoaren ahoskera aldaki bat izan daiteke, eta badu bere ingurutxoia euskeran:

be	=	<i>suelo, tierra</i>
bear	=	<i>necesidad, trabajo</i>
belar	=	<i>hierba</i>
beatz	=	<i>dedo del pié</i>
bedats	=	<i>primavera</i>
bederatzi	=	<i>nueve</i>
bega	=	<i>vega</i>
begi	=	<i>ojo</i>
bei	=	<i>vaca</i>
bein	=	<i>una vez</i>
bekoki	=	<i>frente</i>
ben	=	<i>serio, formal</i>
bese	=	<i>albarca</i>
beso	=	<i>brazo</i>
beta	=	<i>tiempo suficiente para hacer algo</i>
beti	=	<i>siempre</i>
beor	=	<i>yegua</i>
belaun	=	<i>rodilla</i>
belarri	=	<i>oreja</i>

Be (pe) indartsu dugu euskeran eta zaharra dugu agian. Eta behe zentzudunak ditugu; **belar** (“beko larra” esan nahi duena, **lar** landare garaigoeri gelditu zaielarik); **beatz**, “beko atz”, ezin egokiago adierazten digu oiñetako atza; **bega**, jatorriz euskaldun badugu behintzat; eta **bei** eta **beor**, zelabait be usteari lotuak ditugunak.

Behar, lan ustearen bidez lur zentzuari lotua izan daiteke. **Bedats** “belar” zentzuetikoa edo ingurukoa izan daiteke. **Begi** ere aditza izana noizbait, “mirar” zentzuduna izan zitekean, eta gero izendurik gaur duen zentzuz jabetu. **Bekoki**, begi hitzetikoa izango dugu. **Bese** ere be zentzuakin loturik dugu.

Beso eta **belaun** izakiz senide ditugu, baina beroien atondurari adierazpen bat aurkitzea lan gaitza da. Eta besteak ilunagoak ditugu.

BEL

Ahoski honen getasun zentzua eta dagokioken sorbidea adierazi ditugu lehen; orain ikusi daigun euskeran duen ingurua, erdizka bada ere:

bela	=	<i>cuervo</i>
beltz	=	<i>negro</i>
beldur	=	<i>miedo</i>
arbel	=	<i>pizarra</i>
orbel	=	<i>hoja seca</i>
gibel	=	<i>hígado</i>
goibel	=	<i>cielo oscuro</i>
arpel	=	<i>perezoso</i>
ubel	=	<i>cárdeno, amaratado</i>
sabel	=	<i>vientre, matriz</i>

Beltz eta ilun zentzua adierazten dizkigu behinenik ahoski honek; eta gogo iluntasunarena ere bai.

Beltz adierazpenik behar bagekoa dugu. Eta **bela, arbel, orbel, gibel, goibel, ubel** eta **sabel** izaki ilunak ditugu. **Beldur** eta **arpel**, berriz, gogo ilun zentzudunak.

BER

ber-	=	<i>mismo</i>
ber-	=	<i>de nuevo</i>
bera	=	<i>blando</i>
beratu	=	<i>ablandar</i>
-bera	=	<i>propenso</i>
berdin	=	<i>igual</i>
bero	=	<i>calor, caliente</i>
berri	=	<i>nuevo</i>
berez	=	<i>de por sí</i>

Zentzu gehiegi nabari zaio ahoski honi; beharbada, sorbide ezberdinetatikoa izan daiteke kasu bakoitzean. Aztertu ditzagun zentzu hoiek:

Berberatasunean, honela erabiltzen dugu: **ber-a, ber-au, berori, ber-t-an; ber-din, ber-e-z**, e.a.

Berriztatze usteakin berriz, honela: **berrartu, berresan, berrikusi, berriz**, e.a. **Berri** aditza izana dirudiena dugu.

Bera, beratu eta **-bera** zentzu berekoak ditugu. Eta **bero**, oraingoz adierazpenik ez duena.

Amaitzerakoan

Eginarekin utziko dugu gaurkoz ahoskien azterlan hau. Badakit hitz askotan irrist egin izango dudala; antzerakotasunak eta halabeharrak laban eragin izango didatela. Beraz, akatsak bilatzen saiatzen direnak izango dute beren uzta. Baina horrek ez dit ardurarik ematen; nahi nukena besterik da; hemen adieraztera ahalegindu naizen izakera mundu hori badan ala ez dan, zerbait benetakotan ala zorabio batetan ibili naizen aztertu eta erabaki dezazutela nahi nuke.

Nerekautan eta bakarrik egin dut lan hau; orain hogetaka urteak direla egin nituen apunteak oraingo honen hogeitik bat inguru izan dire; bestea buruan nuen edo (gehiena) eginala sortzen joan zait. Laguntzaile bat izan dut aparta, inoiz nahiko eskertu ezin izango dudana: Azkue, bere hiztegiaren bidez. Euskal gizarteak ez du inoiz neurri betez goartuko (aztiatzen dut) gizon honek euskal kulturari eta euskeraren izateari egin diona.

Ez dut beste libururik erabili eta irakurri, P. Bera L. Mendizabalen hiztegian zerbait izan ezik; baina hiztegi honetan ezin nuen ondo bereizi zer zan asmatua eta zer zan jatorrikoa, eta ez dut ia ezer hartu. Neronek ikasi eta bizi izan dudana euskera izan dut gidari eta Azkuen hiztegia laguntzaile.

Ez dut beste inoren teoriarik eta saiaketarik irakurri. Lagun batek aholkatu ninduen honetaz zenbait urte dalarik. “Ez egik ezertxo ere irakurri, eta horrela egiten dukana benetakoagoa izango duk; txarra edo ona, bereizia izango duk behintzat eta heurea osoan”. Eta aholku hori osoan bete dut. Beraz, izan daitezken akats guztiak neureak direke.

.....

Lan honetan argitzen eta adierazten ahalegindu naizen auzi hori benetakoak dan ala ez dan, beste hizkuntza zahar asko ikertuz erabakiko dan auzia dugu. Eta honetaz, itxaropen handia dut. Ez gai horretan asko dakidalako, zerbait egon behar duela nabari dudalako baino.

Ikerlan honen zati bat irakurri duen adizkide batek hizkuntzalari batzuen lanak irakurri dituela egunotan diñost; eta bere ustez hemen ageri danak baduela loturarik munduko beste hizkeren auziekin. Geroak esango du.

Gutxienean ere, uste dut aski argi gelditu zaigula ahoski multso hoiien izatea. IZ, AR/UR eta GO (GA) ahoskien eragina euskeraren erroetan, eta hiruren lehiakera arlo berdinetan, ez dugu hizkera baten arauetan errazki adierazteko gauza. Multso ezberdin edo lehenizkera bezelako zerbait izan dala euskeraren barren hondoan, onartu beharrekoa dugula uste dut.

Gehigarri gisan

Ahoskien eta hitz atonduren mundu ilun eta nahasi horren aztertzeari gaurkoz amaia eman diogularik, bagenuke ondoren gisan eta hariari jarraiz non saiatu eta zer arakatu.

Gizakiari (beraz gizarteari) dagozkion izate guztiak bere hizkerakin zerikusi dute; areago, hizkera horri guztiz loturik dire; bere bizibidea, ohiturak, ziñeskerak, bizilekuak, eretxiak, lanak, jolasak eta daiteken guztia berak darabilen hizkeran kokaturik izaten da.

Badugu zer aztertu lan honen argitan: erlijio zaharretako ziñeskerak eta jainko izenak; antxinako euskal gizartearen eraketa aztarnak; gaur euskerari buruz darabilzkgun eretxiak eta jokerak; eta batez ere munduko beste hizkera zaharrek lituzketen zelakotasunak.

Atzen hau hizkeralari askoren lana litzake, bai eta aldi luzerakoa ere. Besteak, ordea, errazago ditugu, azalkiro begirada bat emateko behintzat; gaiak labangarriak ditugu eta gaurkoz ez gara beroietan sakontzeko gertaturik.

Beraz, arlo haueri buruz zerbait esaten badugu, oharrerazte gisan izango da eta azterbideak markatze ariurrez.

1.- Erlijio zaharretako jainko izenak

Arlo honetan zerbait zuzmurtua nuen aspaldi. Banekian zerbait ohargarri zana; esate baterako, ezagutzen nituen Egiptoko RA (AR) eta ISIS. Arabiarren ALA (ARA agian), Germaniarren GOT eta Greziarren URANO eta ARTEMIS. Euskeran ageri zaizkigun oinarrizko ahoski guztiak dute hor erantzuna.

Baina gaur adizkide batek F. Guirand-ek moldaturiko *Mitología General* idaztia utzi dit; eta ordubeteko gainbegirada batek eman dezaketik, ondoren hau atera dut:

Sumeria/Akadian: SIN, ISTAR, ISKHUR, KISAR, ARURU, AUSAR, NIN-URTA

Asirian: ASUR

Iranen: ASURAS, ATAR

Egipton: RA, SHU, ISIS, OSIRIS, MA, ARSAFES

Grezian: URANO, ZEUS, ARES, ARTEMIS

Indian: VARUNA, VISHNU, SIVA, YAU-VEDA, ATHARVA-VEDA, SURIA, INDRA, ARJUNA

Japonen: KAMI, AMA, IZANAGI, IZANAMI

Eskimalak: INUA

Iparreko Amerikarrak: SHAKURU, HURUING

Erdiko Amerikarrak: HURAKAN, IXAZALUOH, ITZAMNA, ITZA

Mexikoarrak: HUITZILOPOCHTLI

Keltarrak: TARAN

Zer esan nahi du guzti honek? Zerbait kideasun badutela lenaroetako gizarteak, hizkerak eta ziñeskerak, agian. Eta herri hoien hizkuntzetan zein hitzez esaten diren “ona”, “gaitza”, “sua”, “argia”, “ura”, “iluna”, “in”, “hitza”, “gogoa” e.a. ikartzen dan egunean, jakintza arlo honek aurrerakada haundia egingo duela uste dut.

Izan ere, jainkoizenak berak baino jakingarriago genituzke oinarrizko zentzuak adierazteko erabiltzen diren hitzak. Izenak nahasi eta aldatu egiten dire; hitzak ere bai, baina izenak baino gutxiago, nik uste.

Aipagarriak ditugu beste hauek ere: Israeldarren YAVE; eta Barandiarani inoiz entzun diodana: indoeuroparren jainkoizen zaharretarik YAON, YONA edo holako zerbait dugula.

Eta Biblia ere hor dugu. Bere lehen zatia (Génesis) israeldarren aroa baino aurreagokoa omen da; eta zati horretan badugu gauza ohargaririk.

Hasieratik, len arbasoen izenak ADAN eta EBA ezarten ditu; izen hoiak zerbait aldaketa izango zuten gizaldiak zehar, eta jakingarri litzaiguke izan duten ahoskerarik zaharrena zein izan dugun jakitea; baina edozela ere, gure ATTA eta ABA (EBA) fonemekin badute zerikusirik.

Gero, gauza garrantzitsuagoak datozkigu; bi aldiz gauza bera jazoten da aipatzen digun gizarte zahar haretan: gurasoak hiru seme sortzen dituzte giza askazia ugaritu zedin eta gizartea hedatu zedin; lehen hasieran eta Uriol ondoren berdin gertatzen da. Ikusi daigun bi aldi hoietako izenek zer diñoskuen:

Hasieran:	Seht	Kain	Abel
Uriol ondoren:	Sem	Kam	Jafet

Ez da behar nabarimen gehiegi bi aldietako izen hoiak gauza bera errepikaturik ditugula ohartzeko.

Eta ez izenak bakarrik ditugu berdinak, bai eta berei dagozkien usteak ere. Lenen biak ditugu geroetako gizarteen sortzaile eta arbaso bezela ageri zaizkigunak; bigarren biak gaizto kutsudunak, eta hirugarrenak on eta apalenak.

Ahoskera legez ez dago zalantzarik: Seht/Sem, Kain/Kam eta Abel/Jafet gauza bera ditugu; hitzen hasierako a = ya hori gaur ere arazo gogorra dugu euskeran.

Eta, ondorenki eta semetza zentzuzko gaiak ditugularik hauek, ikusi daigun gure hiru multsoetako ahoski behinenak zeintzu ondoren ematen ditugun:

IZ	AR	GO
Izen - Sen - Seme	Aran - Uran	Gon - Gan
Ya = Yaben	Arren - Urren	(Kon) - (Kan)

Ondorenki hauetan, SEN genukean, itxuraz bederen, aldaketarik gogorrenaz ageri zaiguna; baina benetan aldaketa hori oso ttipia dugu, eta ganera ikerlan honetan tinkoen baiezturik gelditu zaigun hitza dugu, eta bere zertasuna ondo finkaturik duena.

Baina GENESISen ageri zaizkigun hirukoitz izen hoietan lehenak, Seht/Sem, eta hirugarrenak, Abel/Jafet, gure multso bateko ahoskiei dagozkienak ditugu. Beraz, bi multsoetakoak bakarrik genituzke. Hala ere, hau dugu harrigarrienik: Jafet horren seme bezela, eta nortasun haundiz, ARAN agertzen zaigula. Beraz, hiru multsoetako ahoskiei dagozkien izenak ditugu: SEN, ARAN eta GAN.

Zer dugu hau? Fantasia? Halabeharrez gertaturiko zerbait? Edo eta gizartearen haspenerako oihartzunak? Badugu hemen zer aztertu.

Agertu dugunari gehitzeko, beste gogoeta bat ere badugu: Bibliako izen hoiengatik agerkera eta gure ahoski multsoen izakera berdinkiak ditugula: IZ dugu bereizien eta indartsuen; AR indartsu izana, baina besteen azpian erdi izkutatutik; eta GO ahulduenik eta murriztuenik.

Noizbaitetako antxinetan hiru multso hoiekin bat bakarria eratua izan zala, onartu beharreko gauza dugula uste dut; eta bateratze horretatik kultura haundiko herri bat sortu zala ere, euskerak hein haundi batetan nabarrerazten digu. Beraz, kultura horren erraieran sortu eta gorpuztu ote zan Biblia zaharreko kondaira? Gaurkoz erantzunik ez duen galdera dugu hau.

2.- Euskal munduko erlijio aztarnak

Gai honi buruz ezertxo ere ez dugu. Europa guztian atzenengo kristautua izanarren, idazki bat ere ez da egin izan lehen herri honetan zer egoan aipatuz. Baina honek badu adierazpenik; Erroma kultoarentzat berea ez zan guztia “barbaro” zan; eta Erroma kristautuarentzat berdin, bere arauetako ez zan guztia “paganismo” zan. Beraz, hemen “paganismoak” (gentillak) zirela esanaz arazoa erabakia izan zan.

Geroztik, sorginkerietan ikusi nahi izan dute askok euskal ziñeskeren hastapena. Baina ondo ausnartu ondoren, gaia horren baino sakonagoa dugula onartu behar da. Euskerak hizkera bezela argiro erakusten digu bera erabili izan duen herria herri aurreratu bat izan dala; eta areago, lehenago eta aurreratuago izana zala, muga batekin, noski. Beraz, sorginkeria hutsune batetako landarea dugu arean; erlijio zaharra eragotzia izan eta berria osoan ulertu eta onartu ezinez zegoan garaiko landarea.

Gaurko azterlari askok idatzietan bakarrik ziñesten dute; baina hau ere ertsikeria itsu bat dugu; idatzi bat gezurretikoa izan daiteke, ipuin bat, kantu bat edo ixtorio bat beze-

la. Idazki askok, ipuin askok, kantu askok edo hitz eta izen askok, bateratsu datozkigunean, orduan bai erakusten digute zerbait benetako dagola guzti horren azpian.

Beraz, ikusi daigun zer dugun hemen arlo eta inguru honetan. Zer ziñeskera, ohitura, zaletasun eta jokera ageri diren euskaldunen artean; eta zein izen eta hitz ditugun bizirik oraino esparru honetan.

Ohitura eta ziñeskerei buruz badugu zerbait. Barandiaranek bildu eta idatzi dituenak eta hor-hemenka gelditzen zaizkigun zenbait gauzatxo: suaren ospakundeak Eguberriz eta Ekainez; bai eta urarenak eta zuhaitzarenak ere. San Martinek adierazten digun “Ixu eguna” (suaren eguna). Olentzaroaren ohitura, eta guzti hauen oleska ospatzearena.

Eta hileri izan zaien itzal eta begirunea. Festa biharamunak hilen egun bezela ospatzea. Eta ospakunde guztien atzean hileri gomutapen egitea. Bai eta honi loturik dugun ostiral egunari buruzko guztia; hilen eta arimen eguna, ezer garrantzizkorik hasi behar ez dan eguna, izate ilun eta itzalezko bat duen eguna funtsean.

Jokera eta zaletasun arloan, aipatu daiteke zerbait: euskaldunak berez duen erlijiotasun sakona; honetatik ulertu daiteke European erlijio zaharrari eusten atzenengo herria izatea. Ospakundeak taldeka egiteko zaletasuna. Egin ohi dituen zenbait bazkari edo afari “rito” antzeko izatea. Mendi gain zaletasuna eta erromerietan erlijioa eta giza-ospakundeak bateratzea.

Izenetan ez dugu gehiegirik, bainan bada zerbait; idatzietakorik, bat bakarra dugula uste dut: frantses batek idatzia utzi zigun URTZIA jainko izen bezela: **ur = or** araua ikusi dugunez, **ORTZI** forma ere gauza bera dugula argi dugu.

Barandiaranek bere azterlanetako ondoren bezela MARI dalakoaren izatea adierazten digu; eta izen horren formarik zaharrentzat bezela MAI eskaintzen digu; “Mari” forma badaiteke kristautzaren eraginezkoa izatea.

Ipuin askotan URRIKA eta URRAKA izenak agertzen zaizkigu; bai eta URDIN ere; “Mari Urrika”, “Urdin Grazia” eta holako eraketaz agertzen zaizkigu gehienbatetan. Izen hauen oinarri UR dugu.

EGU jainko izen dugula gaur ukatu ezinezkoa dugu. Ahoskien ikerlanean ondo ikusi dugu izen honek duen indarra.

Eta mendi gain izenetan erruz ageri zaigun ARA ere gogoragarria dugu.

Hitzetan ere badugu zerbait; **arren** (ruego, súplica) dugu; **urren** “día de oración” zentzuduna dugu (bederatziurren = novenario, hirurren = triduo); **araki** mendian sua egiteko egur mota dugu, eta **aragi** okelari ematen zaion izena. Baina **araki** eta **aragi** hitz bat bera ditugula argi ikusten da: **ara-gi** (**ara** egiteko zerbait edo **aratasuna** duena). Beraz, **ara** aragi errez egindako ospakunde bat izan behar zala dirudi.

Bai eta **arau** legea dugu; antxinetan legeak jainkoaren izenean izan ohi ziren; gaur ere badugu izatasun horren aztarna gotorrik. Beraz, arau ustea jainko usteari loturik izan behar duen zerbait dugu. Eta uste hori adierazteko **arau** hitza izatea (**arao** izan zitekean forma zaharra) oso ohargarria dugu.

Mai, maina dugu, jateko lekua; eta mendi izenetan ere ageri zaiguna; beraz, ares-tian aipatu dugun **ara** daiteken ospakunde horrekin loturarik izan daikeana.

Agur “saludo” hitza dugu, eta **gurtu** eta **gurka** ere hor ditugu erlijio zentzuz beteak; hauetan ere **ur** dugula oinarri dirudi.

Eta **gutun** (kutun) ere alde batetara utzi ezinezkoa dugu; EGU izenari loturikoa dirudi, eta erlijio zentzu betea ageri du.

Aztarna guzti hauek lotzea eta beroiekin zerbait egiazko eratzea ez da egiteko erraza; hala ere, badugu lagungarririk euskal arloan oraiño bizirik edo erdibizirik ditugun egunizetan eta ospakunde izenetan ere.

Ahoski ikerlanean ikusi ditugu EGUBERRI, EGUGAIN eta EGU jainkoizenari dagozkion beste izenak; eta aroizenei dagozkien zenbait daitezkeneko adierazpen ere.

Orain ikusi daigun egun izenetan zer dugun edo zer izan daiteken erdi izkutaturik; eta konparaketa bat egin dezagun EGU errotikoak (lehen adierazi ditugunak) beste erroetakoekin erkatuz.

EGU izen errotik eraturiko egun izenak:



URTZI (ORTZI) erroτικοοak:

ASTELEN ASTEARTE ASTEATZEN ? ORTZEGUN ORTZIRAL LAURENBAT

ARA/UR erroτικοοak izan daitezkenak:

ASTELEN ASTEARTE ASTEATZEN URRENEGUN ARANEGUN BIARANEGUN LAURENBAT

Astearren izenkada ohietatik lenena, EGU jainko izenaren inguru eratua, lehen ere adierazi dugu; bai eta egun baktotxari nabari zaion bigarren izena ere (egunaren zertakotasunari buruz eratua).

Bigarren zerrendan ORTZI (URTZI) dugu jainko izena; izen hau, lehen ere esan dugun bezela, URRITZ forma batetiko itzulketa izan daiteke. Zerrenda honetan izen baten gentza dugu. Gipuzkeran hain erabilia dugun **aurregun** (“víspera”) bera izan zitekean egun horren izena.

Ortzegun (ostegun) dugu izenkada honetan jainkoaren eguna (ortzi-egun). Eta **ortzirial** (ostiral), “egubakotx” eta “bariku” bezela, biharamun zentzuzkoa dugu, bai eta “jainko bageko” adierazpena duena; bere atondura **ortzi-r-al** dugu ziur aski.

Mendebaldean **ge** eta ekialdean **al** getasun uste berdina adierazteko erabiltzea, kasu askotako gauza dugu; hauetatik bat **iz** argi zentzudunakin egiten dana: mendebaldean **ge-iz** = “sombra” eta ekialdean **itz-al** = “sombra”.

Ez dugu ahaztu behar hemen hartzen dugun jarrera kristautze garaiaren aurretiko egoerari begira egiten dugula. Beraz, zazpigarren egun berri bat ezarria izan aurretikoa.

Bai eta arlo guzti honetan ageri zaigun eraketa atondura: hiru astegun, eta gero beste hiru jainko usteari buruz eratuak, jai egun nagusia bere aurregun eta biharamunakin. Eta astebetean egiteko, ilargitearen laurenak dituen zazpi egunak osatuz, jai egunetatik astegunetara igaitea zeregin zuena. Horixe genuke LAURENBAT eta IGANTE izenen zentzua.

Hirugarren zerrenda dugu guztietan garrantzitsuena, nire eritxiz; ARANEGUN izena bizirik dugu, nahiz eta esanahiz aldatua; zenbaitek **herenegun** forma eta heren (hiruren) hitza algartuz erabakitzen dute arazo hau. Baina ez du logika izpirik adierazpen honetik; logika hutsez beti jokutzen duen hizkerak ezin izan du horrelakorik eratu; “heren” eta “hirugarren” zentzuz arras ezberdinak ditugu. Zeren herena izan daiteke egun hori?

Mendebaldean, ARANEGUN (**n** zerbait bustirik) forman erabiltzen da izen hau; eta ondo ikusi dugu mendebaldeko formak ditugula fidagarrienak eta aldaketarik gutxien izan dutenak, gehien batetan behintzat. Esanahia uste dut alde guztietan duela berdina: aurreko egunaren aurrekoa. Zentzu hau astebetean amaieratik hartua izan daiteke, **Laurenbat** horren aurrekoaren aurrekoa dugunez.

Baina auziari indar ematen diona BIARANEGUN dugu; gaur asko erabilia dugu **biaramun** hitza eta jai baten (edo egun baten) urrengoa adierazten digu; beraz, ostiralari emaniko izena (izenetatik bat) izan behar duela dirudi. Bestalde, **biar** hitza ere hor dugu; **ar** egun zentzuz erabilia izan dala aditzera ematen digu eta bigarrena (gaur ustetik eratu) **bi-ar** eratua izan zan noizbait. **Bi** fonema ere zaharra dugu euskeran; beraz, talde guzti honentzat adierazpen argi bat genuke.

ARANAGUN, ARA jainkoaren eguna genuke: **ara-n-egun**. Eta BIARANEGUN, egun horretatik bigarrena; eta **biaramun** laburketa bat. Ez dakit logika ala fantasia dan hau, baina gure mendietako **ara** izen misteriotsuak eta **arau**, **aragi** eta **araki** (Aratuzte ere) lotu eta adierazten dizkigula uste dut.

Biharamun zentzua bera ere, eraketa horretatik sortua izan daiteke. Bai eta berdinki sortua izan daiteke **aurregun** zentzua ere; hitz honetan **ur** fonema dugu sorterazle: **a-ur-egun**; **aurre** hitzean ere atzen **e** hori itsatsia dala dirudi; horixe diño Azkuek ere.

Eta jaiaren aurregunari URRENEGUN izena proposatu badiogu, uste dut badagoe-la zergaitikorik. **Urren** hori hor dugu erdibizirik eta nonbaitetik sortua; bestalde, Eguastenak duen **neskenegun** zentzua ere nonbaitetik sortua dugu. Eta **aurregun** eta **aurre** hitzak ere nonbaitetik sortuak izan behar; eta guztion lokarri **ur** fonema dugu. Beraz, **ur** jainko izen bat izana dugula pentsatzea bidezko dugu.

Ez dugu ezela ere ahaztu behar kristautze aroa hasi zanean guzti hau behera erori izango zala. Baina badaiteke lehenago ere ikusi ditugun eraketa batzuk besteak azpiraturik eta erdi hilik utzi izatea.

Dirudienez, ARA errotiko zerrenda genuke zaharrena; jainko bikoiztasunaren (aruruzen) zentzuduna genuke, eta horretatik hartua zutekeen besteek ere horren antzeko zerbait; gaurko erlijioetan ere zentzu aztarna hori bizirik dugu.

Mendietako **ara** eta urietako **ur** edo **uru** hori ere, erlijio errotikoa izan daitezke. Beraz, garai batetan UR (emea) urietan gurtua izaten zaneko eta AR (arra) mendi gainetan gurtua izaten zaneko aztarnak ditugula dirudi.

Beste zerrendak, URTZI eta EGU izenez eratuak, jainko bakar zentzuzkoak ditugu. Eta beste horren gain indartuak eta erabili izanak dirudite. **Neskenegun**, **biharamun** eta horrelakoak eraketa zaharraren aztarnak genituzke.

Ez dakit asko balio duen adierazketa honetarako, baina badugu beste gauza bitxi bat ere; **gaur** eta **biar** hitzak bata bestearen jarraiko egunak adierazten dizkigute; eta **ga-ur** eta **bi-ar ur** eta **ar** fonemaz osatuak ditugu; bai eta **ur** egunaren atzetik **ar** eguna eratzen digute. Zer dugu guzti hau? Hala beharrez gertatua? Ez dugu erantzunik.

Eta amaitzeko, ahoskien ikerlanak eta orain hemen aztertu dugun erlijio gai honek dituzten kidetasunak ikusi ditzagun.

Ahoskieri buruzko ikerlanean ikusi dugu AR/UR multsoa dugula euskeraren barreneko hondoan aberatzena, baina besteen azpian erdi izkutaturik bezela dugula; eta gai honetan ere berdin gertatzen da.

Iz multsoa bereizien eta indartsuen dugula ere ikusi dugu; hemen URTZI/ORTZI (**ur-it** atondurakoa eskierki) indartsua eta bestearen gain jarria ageri zaigu.

Eta GO multsoa aztertu dugunean ikusi dugu, zenbait arlotan ahuldu xamarra eta murriztua izanarren, jainko eta erlijio zentzuan indartsuenik dugula.

Beraz, hizkera arloan dugun izate eta agerkeria berbera dugu erlijio gaiari buruz egin dugun saiakera honetan ere. Guzti honek adierazpen sakonetara eta azterbide zabaletara eroan ginduzteke. Baina gaurkoz ez dugu horrelako lanik egiteko betarik eta gertatunetik, eta horrelaxe utziko dugu.

1978ko Dagonillaren 26an.

Aurkibidea

Adierazpen gisan	41
Gaiaren harian	45
Beharrezko oharpenak	49
1. Euskera hasieratik	51
2. Hirukoitz iturburua	55
3. IZ (multsoak banaka)	61
1.- Suaren arloan	61
2.- Argiaren arloan	63
3.- Uraren arloan	64
4.- Izatasun arloan	65
5.- Askotasuna	72
6.- Gizona, bizia eta gorputza	73
7.- Gogoa	79
8.- Ondorekiak (sortza)	81
9.- Denbora ustea	85
10.- Beste arlo batzutan	87
11.- Eiza	88
12.- Aitza	89
13.- Aizea	90
14.- Itza	90
4. IN	93
5. IL	95
6. AR/UR	99
1.- Su arloan	99
2.- Argiaren arloan	101
3.- Uraren arloan	105
4.- Gizakia eta Gogoa	107
5.- Gizakia gogo zentzutik at	112
6.- Ar eta urruza	116
7.- Denbora arloan	118
8.- Izatasun arloan	124
9.- Neurri zentzu arloan	125
10.- Bitarte zentzu arloan	126

11.- Landareak eta fruituak	127
12.- Fruitu zentzuan	129
13.- Zarata arloan.....	132
14.- Beste zentzu batzuetan	133
15.- Uri eta mendiak	135
7. UK	137
8. U	141
9. GO	143
1.- Su arloan	144
2.- Argi arloan.....	145
3.- EGU	146
4.- Goi zentzu arloan	154
5.- Izatasuna eta ondorena	155
6.- Gogo arloan	156
7.- Gorputz eta buru	158
8.- Ur arloan	160
9.- Zuhaitz eta fruitu	162
10. GI.....	165
Igi formatikoak	167
11. GE	171
12. Beste ahoski batzu	175
1.- AMA	175
2.- MA	177
3.- LO	179
4.- BA, BE, BEL, BER	180
BA	180
BE.....	181
BEL	182
BER	182
Amaitzerakoan	183
Gehigarri gisan	185
1.- Erlijio zaharretako Jainko izenak	185
2.- Euskal munduko erlijio aztarnak	187

Euskera erro eta gara-ren frantsesezko iruzkina

Bitorren paperen artean aurkitu dugu liburuari buruzko iruzkin hau, frantsesez idatzia. Igartzen da liburua argitaratu eta denbora gutxira egina dagoela. Ez dakigu non den. Pierre Dorpe-rena agian? Honen gutun ugari agertu da paperen artean.

EUSKERA ERRO ETA GARA par Bittor Kapanaga, un volume 215 pages en langue basque où l'auteur qui n'est pas un universitaire mais un travailleur plein de mérite, essaye d'étudier la racine des mots de la langue euskarienne à partir de concepts. Kapanaga élabore dans son livre une théorie de la racine en partant de l'intérieur de la langue, c'est à dire, en se libérant de la phraséologie indo-européenne et de ces théories.

Bittor Kapanaga est un véritable penseur de la langue euskarienne. Tous ceux qui veulent donner à la langue euskarienne sa véritable place, ne peuvent que féliciter de cette hardiesse. Nous ne pourrions que nous féliciter de voir nos grammairiens anciens et modernes, adopter une telle méthode de travail qui les arracheraient de l'asservissement indo-européen dans lequel ils sont. Ces personnes par leur attitude, ont conduit notre peuple à déformé notre langue en lui inculquant des méthodes de pensée qui ne sont pas propres au génie de la langue.

Bittor Kapanaga peut-être qualifié comme le premier penseur de la langue euskarienne depuis que les écrits de cette langue existent. Kapanaga se situe dans une certaine mesure, dans le droit fil de la pensée de Darrigol. Si certaines idées avancées par Kapanaga peuvent ne pas satisfaire une certaine mesure notre esprit de rigueur scientifique, il n'en demeure pas moins que son ouvrage jette pour la première fois une lumière nouvelle sur notre langue.

L'ouvrage de Bittor Kapanaga gagnerait pour lui assurer une plus grande diffusion à être traduit en langue castillane et en langue française.

Estuera, euskara
uskara ta estuara
dana gauza bera
horixe dugu euskera.

Izenak ezberdin
baina muina du bat
entsi daigun gordin
ta landu erabat.

B. Kopur